

Haur eta gazteen kontrako sexu abusuen sekretua hausten

Profesionalentzako oinarrizko edukiak

Maitane Urizar Elorza
Nahia Idoiaga Mondragon



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Haur eta gazteen kontrako sexu abusuen sekretua hausten

Profesionalentzako oinarrizko edukiak

Maitane Urizar Elorza

Nahia Idoiaga Mondragon



eman ta zabal ezazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Urizar Elorza, Maitane

Haur eta gazteen kontrako sexu abusuen sekretua hausten [Recurso electrónico]: profesionalentzako oinarrizko edukiak / Maitane Urizar Elorza, Nahia Idoiaga Mondragon. – Datos. – [Leioa]: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea : PDF (140 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

Incluye referencias bibliográficas.

ISBN: 978-84-1319-419-6.

1. Abusos sexuales a niños. 2. Niños víctimas de abusos sexuales. 3. Adolescentes víctimas de abusos sexuales.
I. Idoiaga Mondragon, Nahia.

(0.034)364.633-053.5/.6

(0.034)343.54-053.5/.6

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak finantziatutako argitalpena



UPV/EHUko BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN PARA LA IGUALDAD DE LA UPV/EHU

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-1319-419-6

Aurkibidea

Sarrera.....	5
1. GAIA. Haurren kontrako abusuak. Problematikari hurbilpena.....	7
1. Sarrera.....	9
2. Haurren kontrako sexu-abusuak, definizioa zehazten.....	10
3. Irakurketa historikoa	12
3.1. Haurren kontrako tratu txarrak historian.....	12
3.2. Haurren kontrako sexu-abusuak historian.....	14
3.3. Egiazkotasuna zalantzan jartzen.....	19
4. XXI. mendea	21
4.1. Ezkutatzetik esposiziora.....	21
4.2. Haurren kontrako sexu-abusuen maiztasuna.....	23
5. Ondorioak	34
6. Erreferentziak.....	34
2. GAIA. Sexu-abusua, kaptazio-prozesu gisa.....	37
1. Sarrera.....	39
2. Biktimak eta erasotzaileak.....	39
2.1. Biktimak.....	39
2.2. Erasotzaileak.....	39
3. Arrisku-testuinguruak edota arrisku faktoreak.....	42
3.1. Bizikidetz-unitateko arrisku egoerak.....	44
4. Kaptazio-prozesua	45
5. Errebelazioa	49
5.1. Errebelazioan eragiten duten faktoreak.....	50
5.2. Errebelazio baten aurrean zer egin?	52
5.3. Errebelazioaren aurrean jarraitu beharreko irizpideak	53
5.4. Errebelazioaren ostean.....	55

6.	Sinesgarritasuna	56
6.1.	Hurrek esandako gezur eta fantasiak	57
6.2.	Disoziazioa eta akomodazioa	58
6.3.	«Todo se vuelve comprensible ahora»	65
7.	Ondorioak	66
8.	Erreferentziak	67
3.	GAIA. Detekzio goiztiarra eta ondorioen prebentzioa	69
1.	Sarrera	71
2.	Prebentzio-programak	71
2.1.	Afektibitate- eta sexu-hezkuntzaren esparruan prebentzio-programak aurrera eramateko irizpideak	71
2.2.	Prebentzio programak EAEn	73
2.3.	Prebentzio irizpideak	74
2.4.	Profesionalen jakintza maila	76
3.	Haurren sexualitatearen adierazpenak	77
3.1.	Masturbazioa	77
3.2.	Jolas sexualak	78
3.3.	Noiz hasi behar dugu kezkatzen?	80
4.	Sexu-abusuaren adierazleak eta ondorioak	82
4.1.	Adierazleak	83
4.2.	Sexu abusuak jasan izanaren ondorioak	89
4.3.	Ondorioak pairatzeak baldintzatzen dituen aldagaiak	96
5.	Ondorioak	98
6.	Erreferentziak	99
4.	GAIA. Haurren aurkako sexu-abusuaren tratamendu juridiko-instituzionala	101
1.	Sarrera	103
2.	Haurrak zuzenbideko subjektu gisa aitortzerako bidea	103
3.	Haur bizirauleak	105
3.1.	Salaketa eta notifikazio betebeharra	105
3.2.	Profesionalak notifikazioan	106
3.3.	Testigantza baten aurreko jarduketaren prozedimendua azaltzen	107
3.4.	Mito eta uste faltsuak: salaketa faltsuak	126
4.	Biziraule helduak	134
5.	Ondorioak	135
6.	Erreferentziak	137

Sarrera

Haur eta nerabeen kontrako sexu-abusuen problematika gaurkotasun handiko gaia da munduan. Lau neskatotatik batek eta 7 mutikotatik batek biolentzia sexuala pairatu du, pairatzen ari da edota pairatuko du, kasu gehienetan 13 urte bete baino lehen (Pereda, 2016), eta eraso horien % 65-85 familiako edota inguru hurbileko pertsona batek burutzen ditu (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Haurren kontrako sexu-abusuek ekar ditzaketen epe laburreko eta epe luzeko ondorioak larriak diren arren, gai honi buruz dauden ikerketak, informazioa eta formazioa eskasak dira gaur egun.

Are gehiago, ikerketek prebalentzia-tasa oso handia dela adierazten duten arren, hurrekin kontaktu zuzena duten profesionalen eskura ez dago problematikari aurre egiteko formakuntza arautu edota estandarizaturik. Hau da, hainbat eta hainbat haurri eragiten dion arazo sozial honek ez du modu egokian aurre egin ahal izateko prebentzio estrukturaleko neurriarik. Horren aurrean liburu honetan plazaratu diren materialak Haur eta nerabeen kontrako sexu-abusuei buruzko Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako lehen formakuntza publikoaren ildotik sortu ziren. Formakuntza hori unibertsitate-komunitateari (UPV/EHUko Berdintasun zuzendaritzaren eskutik), langileria publikoari (IVAPen eskutik) eta Hezkuntza saileko irakasleei (Prest Gara programaren eskutik) eskaini izan zaie.

Bai ikastaroan, bai liburu honetan bildutako materialak lanketa bibliografiko gaurkotu eta sakon baten bitartez sortu dira; hurrekin lanean diharduten profesionalen behar formatiboak oinarri hartuz eta genero-ikuspuntua txertatuz material guztietan. Gainera, ikastaro horietan alor profesional bakoitzeko jardute espezifikoei buruzko berriazko lanketa ere egiten da. Beraz, ezin dezakegu ahaztu liburu hau gaiarekiko lehen gerturatze bat baino ez dela, haur edo nerabeekin lanean diharduen edozein alorretako profesionalak ezagutu beharko lituzketen gutxieneko jakintzak, hain zuen ere.

Horrela, lehenengo kapitulua haur eta nerabeen kontrako sexu-abusuen problematikari hurbilpen gisa planteatzen da. Bertan, definizioa lantzen da, eta sexu-biktimizazio horrek di-tuen berezitasunen azalpenari bidea zabaldu. Irakurketa historikoaren bitartez, haur eta nerabeen kontrako sexu-abusuak, bai historikoki eta baita gaur egun ere, arazo larri eta hedatu bat direla-baisten da. Haren definizioa eta irakurketa historikoa abiapuntu izanik lantzen dira, abusuaren hasiera, maiztasuna, prebalentzia, intzidentzia eta kolektibo edo testuinguru zaurgarriak. Bigarren kapitulua biktimaren eta erasotzailearen profileen zentratzen da; arrisku-testuinguru edota -faktoreak, biktimen aitorpena, haien sinesgarritasuna eta gisako elementuak

jorratuz. Era berean, haurren kontrako sexu-abusuen ezaugarria den, eta eraso sexual puntua-lekin oinarrizko desberdintasuna markatzen duen kaptazio-prozesua aztertzen da. Hirugarren kapituluan prebentzio eta detekzio goiztiarra dira aztergai, eta haurren sexualitatearen adierazpen naturalak ere jorratzen dira. Laugarren eta azken kapituluan, haur eta heldu bizirauleekin profesionalek izan ohi duten jarduketa juridiko-instituzionala¹ aztertzen da, eta baita berebiziko garrantzia duen problematika honi buruzko mito eta uste faltsuen hausnarketa ere.

Hortaz, gai honen inguruko lehen hurbilketa burutu nahi duen edozein pertsonarentzat eta, bereziki, gaiarekin harremana izan dezakeen profesional ororentzat oinarrizko materiala² bildu da liburu honetara. Haur eta nerabeen kontrako sexu-abusuen euskarria den sekretua apurtzen hasteko mugarri gisa.

1 2019-2020 urteetan indarrean zegoen legedian oinarrituta.

2 Material hau 2020-2021 ikasturtean sortu da.

1. GAIA

HAURREN KONTRAKO ABUSUAK. PROBLEMATIKARI HURBILPENA

-
1. Sarrera
 2. Haurren kontrako sexu-abusuak, definizioa zehazten
 3. Irakurketa historikoa
 - 3.1. Haurren kontrako tratu txarrak historian
 - 3.2. Haurren kontrako sexu-abusuak historian
 - 3.2.1. Haurrak eta sexualitatea Antzinaroan
 - 3.2.2. HKSA ikerketak eta ikuspuntu-aldaketak
 - 3.3. Egiazkotasuna zalantzan jartzen
 4. XXI. mendea
 - 4.1. Ezkutatzetik esposiziora
 - 4.2. Haurren kontrako sexu-abusuen maiztasuna
 - 4.2.1. Abusuaren hasiera eta maiztasuna
 - 4.2.2. Prebalentzia eta intzidentzia
 - 4.2.2.1. Kolektibo eta testuinguru zaugarriak
 5. Ondorioak
 6. Erreferentziak
-

1. Sarrera

«Solo vemos aquello que observamos, y solo observamos aquello que ya está en nuestras mentes» (*Alphonsine Bretton*).

XX. mendeari «Haurren mendea» esaten zaio, mende horretan haurren³ aitortzan eta eskubideetan salto kualitatibo nabarmena egin zelako. Hala ere, gaur egun asko dago egiteko oraindik. Haurren kontrako sexu-abusuen problematikak Euskal Herrian ikusgarritasun nabarmena izan du azken urteotan, nahiz eta aurretik ere bazeuden gaiaren inguruan lan sendoa eta sakona egiten zuten elkarteak.

Izan ere, Haurren kontrako sexu-abusua ez da fenomeno berria; hala ere, haren benetako dimentsioa onartzen hasi berriak gara, azken urteotako kontzientzia-hartze eta aztertze-prozesuei esker. Beraz, oraina ulertzeko derrigorrezkoa dugu jakitea, historian zehar ere, ustezko zaintzaileen abusuak, esplotazioa eta larderia jasan dituztela haurrek (deMause, 1974; hemen aipatuta: Summit, 1983).

Haurren kontrako sexu-abusua arazo unibertsala da, kultura eta gizarte guztietan agertzen dena, modu batean edo bestean, eta faktore indibidual, familiar eta sozialen konbinazioaren ondoriozko fenomeno konplexua da (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Hala ere, gizarte gisa haurren kontrako indarkeria gutxiesten jarraitzen dugu, bai maiztasunari dagokionez, bai indarkeriak haurrerean sor ditzakeen ondorioei dagokienez ere. Kontuan hartu behar da haurrek helduekiko duten mendekotasun fisiko eta emozionala dela-eta (Shengold, 1989; hemen aipatuta: Intebi, 2011), helduek pairatzen dituzten biktimizazio berdinez gain, haurrek beren arteko biktimizazio espezifikokoak ere pairatzen dituztela (Pereda, 2019), haien mendekotasun eta zaurgarritasun maila altuagatik. Berez, indarkeriarekiko zaurgarriagoak izateaz gain, haren ondorioekiko zaurgarriagoak ere badira.

Haatik, problematika hau landu nahi badugu, premiazkoa dugu mitoak baztertzea. Abusua ez da ezohikoa eta ondorio larriak eragin ditzake haurrengan, eta gehienetan helduak eta inguruko ezagunak dira erasotzaileak: «Familia, kanpoko mundu beldurgarria bezain arriskutsua izateaz gain, eremu pribatu pribilegiatu bat ere izan daiteke, non ahulenak era guztietako indarkeriaren mende egon daitezkeen zigorrik gabe» (Intebi, 2011, 59. or.).

Kapitulu hau gaian murgiltzeko sarrera gisa planteatzen da. Astiro irakurtzeko horietakoa, aipatu eta azalduko diren kontzeptuak sakon ulertu behar direlako. Azken batean, lan honen helburua da haurren kontrako sexu-abusua edozein familian gerta daitekeela ulertzea. Ondorioz, gaia ez lantzeak, arazoa desagerrarazi ordez, hura larritzea eragiten du.

3 «Haurtzarora» terminoa erabiliko dugu 18 urtetik beherako pertsona orori erreferentzia egiteko (errazago irakurtzeko), eta «nerabezarora», aldiz, hala eskatzen duten kasu espezifikoei erreferentzia egiteko.

2. Haurren kontrako sexu-abusuak, definizioa zehazten

Haurren Kontrako Sexu Abusuak (HKSA) haurren kontrako tratu txarren subtipo bat dira (Muela, 2007). Tratu txarren definizio osatuenetako bat *Centre International de l'Enfance de Paris* erakundeak proposatutakoa da:

Cualquier acto por acción, omisión o trato negligente, no accidental, realizado por individuos, por instituciones o por la sociedad en su conjunto, y todos los estados derivados de estos actos o de su ausencia que priven a los niños de su libertad o de sus derechos correspondientes y/o que dificulten su óptimo desarrollo (Pereda, 2010a, 70-71. or.).

Definizio horren barruan sartzen da haurrari egiten zaiona (ekintza), egiten ez zaiona (ez-egite edo omisioa) edo modu desegokian egiten zaiona (zabarkeria). Dimentsio horiek barnean harturik, askatasun eta eskubide gabetzeak tratu txartzat hartzen dira, eta gizartea eta instituzioak ere erasotzaile edo, behintzat, arduradun gisa kokatzen dira (Díaz, Casado, García, Ruiz eta Esteban, 1999, Inglés, 2000; hemen aipatuta: Pereda, 2010a).

Haurren kontrako tratu txarren ohiko sailkapenaren ordeztzat (tratu txar fisiko, psikologiko, sexu-abusu, zabarkeria, etab.), Lópezen (2014) sailkapena hartuko da oinarritzat, Haurren Kontrako Tratu Txarren Prebentziorako Elkarrekin Federazioak ere jasotzen eta onartzen duena. Aritu horrek haurren kontrako tratu txarren subtipo gisa hartzen du tratu txar sexuala, eta haren barnean sartzen du sexu-abusua. Lópezen ustez, tratu txar sexualen barnean, HKSAz gain, beste asko ere koka daitezke: haurren ezkontza, haurren identitate edo orientazio sexuala ez onartzea, sexuaren arabera diskriminatzea, izaera sexual argia duten organoetan mutilazioak, etab. Haurren eskubideen parte den hezkuntza afektibo-sexuala ukatzea edo programa prebentiborik ez aplikatzea tratu txar sexualtzat ere jotzen ditu (López, 2014).

Diferentes formas de negligencia sexual como negar informaciones básicas, dejando de hacer una adecuada educación sexual positiva, no hacer lo posible para proteger a los menores de riesgos como los abusos sexuales, el acceso a la pornografía en el caso de prepúberes y los embarazos no deseados y las enfermedades de transmisión sexual (López, 2014, 28. or.).

Ikerketa-prozesuak aurrera egin ahala, **terminologia bera ere moldatu egin** da, kontzeptuak berak bizi izan duen prozesuari jarraituz (Interagency Working Group on Sexual Exploitation of Children, 2016). Horrela, haurtzaroko edo haurrenganako sexu-abusuak esapiderearen ordeztzat (gaztelaniaz, *Abuso Sexual Infantil, ASI*), Haurren Kontrako Sexu Abusuak (HKSA) terminoa erabiltzen da.

Definizioari dagokionez, gaur egun ez dago iritzi homogeneorik ikertzaileen artean:

Se discrepa tanto al determinar la edad límite del agresor o de la víctima como al señalar las conductas que se incluyen en el acto abusivo o en las estrategias utilizadas para cometerlo. Asimismo, surgen también importantes diferencias entre las definiciones empleadas por los profesionales de la salud y las definiciones legales, siendo las primeras mucho más amplias y las segundas de carácter más restrictivo (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 1998).

En lo que se refiere a la edad, algunos especialistas exigen, para considerar la existencia de abuso sexual, que el agresor sea mayor que el menor, con una diferencia de cinco años cuando este tenga menos de doce, y de diez años si supera dicha edad (Finkelhor, 1979; López, 1992). Otros, sin embargo, no tienen en cuenta esta variable ya que ello puede servir para enmascarar, en algunos casos, los abusos sexuales entre menores. Desde esta perspectiva, se hace más hincapié en la existencia de una relación de desigualdad entre una persona con mayores habi-

lidades para manipular y otra que no las posee al mismo nivel (Sosa eta Capafons, 1996; hemen aipatua: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015, 9-10. or.).

Aipatu bezala, nahiz eta gaur egun ikertzaileen artean eztabaida egon, lan honetan *National Center of Child Abuse and Neglect* zentroak ezarritako definizioa erabiliko da, zenbait adituk (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 1998; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015) garrantzitsutzat dituzten aldagaiak barne hartzen dituelako: biktima eta erasotzaileen arteko berdintasunik eza (adina, heldutasuna edo botere-harremanen arteko asimetria) eta haurren erabilera objektu sexual gisa.

Helduen (berez dute botere- edo autoritate-rola) eta haurren arteko edozelako kontaktu edo elkarrekintza sexuala, zeinean helduak haurra erabiliko duen bere, haurren edo beste pertsona baten estimulazio sexualerako. Sexu-abusua beste adin txikiko batek ere eragin dezake, erasotzailea adinez biktima baino nagusiagoa denean edo botere- edo kontrol-posizio batean dagoenean harekiko (Intebi, 2007, 10. or.).

Haurren kontrako sexu-abusuan, garrantzitsua da ez aztertzea soilik aldagai sexuala, eta asimetria-egoera batean gertatzen den botere-gehiegikeriatzat edo hertsadura-egoeratzat ere hartzea (Save the Children, 2001). Hori horrela, hertsadura da sexu-garapenaren parte diren jolas sexualak eta sexu-abusuak desberdintzen dituen ezaugarri nagusia (Lameiras, Carrera eta Failde, 2008). Echeburúa, De Corral eta Amor-en hitzetan (168. or., Lameiras *et al.*, 2008, 5. or.) «hertsadurak bereizten ditu antzeko adineko edo adin bereko adingabeen arteko sexu-erasoak eta sexu-jolasak».

Aipatu bezala, abusua 18 urtetik beherako erasotzaile batek ere egin dezake; izan ere, asimetria-egoera ez da zertan sortu adin desberdintasunagatik, beste faktore sozial bazuengatik baizik (Save the Children, 2001). Hori horrela izanik, arreta berezia jarri behar da desgaitasunak dituzten biktimen kasuan: horiei dagokienez, erasotzaileak biktimaren adin bera edo gutxiago izanda ere, sexu-abusu baten aurrean geundeke (Muela, 2007).

Es fundamental no concebir el abuso sexual como una cuestión únicamente concerniente a la sexualidad del individuo, sino como un abuso de poder fruto de esa asimetría. Una persona tiene poder sobre otra cuando le obliga a realizar algo que esta no deseaba, sea cual sea el medio que utilice para ello: la amenaza, la fuerza física, el chantaje. La persona con poder está en una situación de superioridad sobre la víctima que impide a esta el uso y disfrute de su libertad. Pero igualmente importante es entender que el «poder» no siempre viene dado por la diferencia de edad, sino por otro tipo de factores. El abuso sexual entre iguales es una realidad a la que no debemos cerrar los ojos. En este caso, la coerción se produce por la existencia de amenazas o porque hay seducción, pero la diferencia de edad puede ser mínima o inexistente. Aun así, se consideraría abuso sexual (Save the Children, 2001, 17-18. or.).

Horrenbestez, Hartman eta Burguess-ek (1989, Muelak aipatua, 2007, 248. or) azpimarratzen dute intzestua «izaera sexuala ez duen behar baten sexu-espresioa» dela. Hau da, intzestuaren oinarria ez litzateke egongo sexualitatean edo bulkada sexualetan, bestelako aldagaietan baizik.

Kontuan hartu behar da, Echeburúak eta Guerricaechevarriak (2015) aipatu bezala, definizioa ez datorrela bat irakurketa penalarekin, zeinean abusu- eta eraso-tipologiak markatzen diren. Bertan, abusua indarkeriarik gabeko gertaera gisa planteatzen da, eta, erasoaren kasuan, abusua burutzeko indarkeria fisikoaren erabilera ezinbesteko aldagai bihurtzen da. Alde horretatik, kontuan izan behar da aztertutako kasuen % 10ean soilik egin direla abusuak indarkeria fisikorekin (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015) —ehuneko hori bat dator erasotzaile ezezagunen kasuekin (% 15- 35)— eta oso gutxitan ematen direla zantzu fisikoak (Auzitegi Gorena, 2016; Pereda, 2010b).

Si bien es cierto que es frecuente la coexistencia de este tipo de abusos con algún otro tipo de maltrato —ya sea físico o psicológico—, también es cierto que, en muchos de los casos, la agresión sexual no está asociada a estas situaciones que pueden producir una voz de alarma en el entorno del menor (Fundación ANAR, 1999; hemen aipatua: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015, 18. or.).

Oro har, HKSA sedukzio- eta manipulazio-prozesu baten bitartez gertatu ohi da (Lameiras *et al.*, 2008), abusatzaileak nahita burututako domestikazio-prozesu baten bitartez, abusuak gutxika eta progresiboki eginez, ukitzeen eta masturbazioaren bitartez hasiz eta kasu gutxi batzuetan koitora iritsiz (baginala % 4,9 eta anala % 2,7) (Marco, 2018; Save the Children, 2017). Izan ere, HKSA gertaera gehienak genitalak laztantzea izan ohi dira (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015) eta lasai asko ezkutatu daitezke senide batengandik jasotako bainuaren edo higiene intimoaren moztarpean (Rathus, Nevid eta Fichner-Rathus, 2005; hemen aipatuta: Marco, 2018). Guerricaechevarriak eta Echeburúak (2015) ohartarazten dute familia barruko sexu-abusu kasuen % 2 baino ez direla jakiten gertatzen diren unean berean.

Cuando el abuso es intrafamiliar, raramente se descubre la primera vez que sucede: por lo general, transcurren meses o años hasta que el secreto se desvela. La coerción emocional y/o física que ejerce el abusador sobre la víctima tiene como fin garantizar su silencio; el abuso es el secreto que, según el perpetrador, comparten con iguales responsabilidades el adulto y el niño. El niño es convencido de que revelar dicho secreto desintegrará el grupo familiar, lo cual, en cierta medida es cierto: los especialistas estamos habituados a las profundas crisis que atraviesan las familias en el momento en el que se enteran de lo sucedido (Intebi, 2011, 41-42. or.).

Marcoen aburuz (2018), helduen eta haurren aurkako sexu-erasoen arteko desberdintasun nagusia da haurren kontrako sexu-erasoetan jokabide deliktiboak behin eta berriz errepikatzen direla, eta hori progresiboki *in crescendo* gertatzen da, erasotzaileak biktimarekiko duen konfiantza handitu ahala.

Solía intentar abusar de un niño solo cuando le conocía a él y a su familia. En cuanto tenía acceso a ese círculo, intentaba entender al niño lo más posible, ver cómo se relacionaba con los adultos y otros parientes y, si entreveía alguna posibilidad realista de éxito, entonces empezaba a preparar mi objetivo (Hammel-Zabin, 2005, 108. or.).

3. Irakurketa historikoa

Haurren Kontrako Sexu Abusuen (HKSA) eta, oro har, haurren kontrako indarkeriaren gaur egungo egoera ulertzeko, arazo honen garapen historikoa aztertu behar da. Testu hau HKSAri buruzkoa da batez ere, baina jarraian emango ditugun datuek erakusten dute haurren eskubi-deek, oro har, oso ibilbide laburra egin dutela oraingoz —gaur egungo egoera judizialaren eta sozialaren isla, beharbada—.

3.1. Haurren kontrako tratu txarrak historian

Ikuspuntu historikotik, haurren babesgabetasunaren inguruko kontzientziazioa eta, ondorioz, helduek haurren zaintzaz eta ongizateaz duten kezka, nahiko berriak dira (Intebi, 2011). Izan ere, haurren kontrako tratu txarrak historia osoan gertatu dira, kultura, gizarte eta maila sozial guztietan (Intebi, 2011).

Los abusos sexuales se cometen en todas las clases sociales, ambientes culturales o razas (Madansky, 1996). Los estudios epidemiológicos no han encontrado diferencias en las tasas de prevalencia en función de la clase social, del nivel cultural o de la etnia a la que pertenecen las familias de la víctima (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015, 14. or.).

Seme-alaben eta gurasoen arteko harremanek bilakaera luzea izan dute historian, gaur egungo egoerara heldu arte. Haur-hilketa ohikoa izan zen K.o. IV. mendera arte (Intebi, 2011). Haurrek ez zuten rol zehatzik talde sozialean eta, de Mauseren arabera, gurasoek seme-alabak hiltzea gertaera arrunta, normalizatua eta onartua zen, hein handi batetan XIX. mendera arte (Intebi, 2011).

Ilido berean, XIV. eta XVII. mendeen artean, haur- hezkuntzako eskuliburuek zigor fisikoak eta prebentiboak gomendatzen zituzten. Ohikoak ziren zigor horien artean, gaur egun animaliei ematen zaien tratua gogorarazten diguten hainbat praktika zeuden; besteak beste, haurrak burdinazko lepokoez lotzea, orduz eta egunez gela ilunetan bakarturik edukitzea, jateko nahikorik ez ematea (familia aberatsetan ere) edo negar ez egiteko opioa eta edari alkoholikoak ematea (Intebi, 2011). Hala ere, kontuan hartu behar da, gaur egun familia guztietan haurra zaindu beharreko eskubidedun subjektu gisa onartzen ez den modu berean, antzina ere haurren hilketa ez zela familia guztietan gertatzen, indarkeria hori babesten zuen testuinguru sozial bat bazegoen ere.

Izan ere, 50eko hamarkadan haurren kontrako tratu txarrak aitortu eta haurrak biktimizatze moduak aztertzen hasi ziren arte (batez ere AEBetan eta Europako iparraldeko herrialdeetan), haurrek animaliek bezainbat eskubide edo gutxiago zituzten (Intebi, 2011). Eskubideen aitortza horretan, aitzindarietako bat Mary Ellen Wilsonen kasua izan zen (1874). New Yorkeko neskatxa horren kasuan, lehenengo aldiz aitortu ziren haurren kontrako tratu txarrak, eta, beraz, hura izan zen haurren babesari lotutako lehenengo epaia, Marta María Aguilarrak (2009) adierazi bezala:

No solo es duro pensar que hasta bien entrado el s. XIX el reconocimiento de dichos derechos fuesen nulos, sino que lo difícil es mentalizarse de un proceso judicial que solo convenció a los tribunales argumentando la defensa y protección legal con que contaban los animales; es decir, Mary Ellen no entró en proceso judicial por ser una niña de nueve años maltratada física y psicológicamente, sino por ser parte del reino animal y merecer, por este mismo hecho, la defensa de su integridad física y moral (211. or.).



Iturria: <https://abusosenlainfancia.blogspot.com>

Haurren kontrako tratu txarren ikerketa zientifikoa hasi zen 1961. urtean Henry Kempek *haur kolpatuaren sindromea* deskribatzen zuen lana argitaratu zuenean Amerikako Pediatria Akademian. Hori izan zen, hain zuzen, sakon ikertu zen haurren kontrako lehenengo tratu txar mota.

Tratu txarren ikerketa-prozesuan, HKSA izan da beranduen aztertu den haurren kontrako tratu txar subtipoa (Pereda, 2010a). Hasiera batean, tratu txar fisikoa soilik aztertu zuen komunitate zientifikoak, eta apurka-apurka tratu txar psikologikoetara ere zabaldu zen ikerketa (Cots eta Moner, 1993; Arruabarrena eta de Paul, 1999; hemen aipatuta: Pereda, 2010a). Peredaren ustez, HKSA ikertzeko zaila den tipologia bat da, maiz gertatzen diren kalte fisikoen ikusgarritasunik ezagatik eta haien detekzio eta diagnostiko unibokoa ahalbidetuko lukeen sintoma psikologiko multzo bat ez edukitzeagatik (Simón *et al.*, 2000; hemen aipatuta: Pereda, 2010a).

Gainera, AEBetan (Kempe, 1978) eta Kanadan gai hau 80ko hamarkadan aztertzen hasi baziren ere, Espainiako Estatuan diktadura garaiko isolamendu soziopolitikoak eta babes sozialeko sistemen garapen eskasak atzeratu egin zuten gai honen inguruko ikerketa eta, batez ere, arazo honi buruzko gizartearen ezagutza eta sentsibilizazioa (Arruabarrena eta De Paúl, 1999; hemen aipatuta: Pereda eta Forns, 2007). Funtsean, espainiar gizartean ez zen sexuaz hitz egiten, ezta sexu-erasoeraz ere, are gutxiago familian gertatzen diren sexu erasoeraz, familia erakunde opako eta ukiezina zen neurrian.

Testuinguru horretan, Espainiako Estatuan egindako lehenengo ikerketek (López, 1992, Arruabarrena eta de Paul, 1999) haurren aurkako tratu txarren zenbait alderdi izan zituzten aztergai. Haurren kontrako sexu-abusuak ez ziren aztertu 90eko hamarkadaren erdialdera arte (López, Carpintero, Fuertes eta Hernández, 1994; hemen aipatuta: López, 2014). Hala ere, haurrek historian zehar gurasoen tratu txarrak pairatu dituztela adierazten duten erregistroak dauden bezala, HKSA arazo zabala izan dela baieztatzen duten erregistroak egon badaude.

3.2. *Haurren kontrako sexu-abusuak historian*

Sexu-abusuarekiko interes zientifikoa 70eko hamarkadaren erdialdean piztu zen, gehien bat AEBetan eta Kanadan, haurren kontrako tratu txarrei buruzko ikerketak hasi eta hogei bat urtera (Intebi, 2011). Horrek adierazten du zailtasunak izan direla sexu-abusia aztergai bihurtzeko, informazio egokirik ez izateaz gain, sarritan mistifikatutako eta kalteez inguraturako fenomeno gisa ikusi delako. 1968. urtean, Kemperen «Haur kolpatua» liburuaren laugarren edizioan, Brandt Steele psikoaialistak honako hau adierazi zuen ideia horri jarraituz (Intebi, 2011, 69. or.):

A pesar de que la existencia del abuso sexual se conoce desde hace aproximadamente el mismo tiempo que cualquier otra forma de maltrato, se lo ha ocultado más, se lo ha reconocido menos y ha concitado relativamente poca preocupación. La violación y otros problemas menos frecuentes como el exhibicionismo o la paidofilia, han llamado más la atención. El tabú de tratar el fenómeno tan común del incesto parece tener la misma o mayor fuerza aún que el tabú del incesto en sí mismo. Sin embargo, la mayor concienciación y preocupación de la sociedad ante el gran número de casos de maltrato físico y negligencia junto con el coraje que infundió el movimiento de los derechos de la mujer, convirtió al abuso sexual en un tema de interés público. En la actualidad el registro de los casos, sobre todo de diversas formas de incesto, ha aumentado tanto que las cifras se acercan a las de otras formas de maltrato.

Zentzu horretan ere, David Finkelhor haurren kontrako sexu-abusuaren ikertzaile ospetsuak nabarmentzen duenez, azken mende eta erdian HKSAk kezka sortu badu ere profesionalen artean eta gizartean, kezka hori isilarazteko saioak egin dira behin eta berriz, hainbat arrazoirengatik (Intebi, 2011). Adibidez, XIX. mendearen hasierako teoria psikoanalitikoak galga jarri zion mendearen erdialdean gaiak piztu zuen interesari. Giza-sexualitateari buruzko lehen ikerketetan, 1920-1940 hamarkadetan, nahita minimizatu ziren sexu-abusuaren inguruan egindako aurkikuntzak (Intebi, 2011).

3.2.1. HAURRAK ETA SEXUALITATEA ANTZINAROAN

De Mauseren *Hurtzarroaren historia* ikerketaren arabera, haurra «manipulazio sexualeko giro batean» bizi zen Antzinaroan.

Antzinako Grezian eta Erroman, gizon helduek mutil gazteak erabiltzen zituzten objektu sexual gisa. Erromatar hiri guztiek zituzten mutil gazteen prostituzio-etxeak, eta Atenasen gazteen zerbitzua kontrata zitekeen. Haur libreen sexu-erabilera baimenduta ez zegoen eskualdeetan, gizonak esklaboak zituzten. Beraz, zuzenean biktimizazioa pairatzen ez zuten gazteek bazuten inguruko beste batzuei gertatzen zitzaizkien berri (Intebi, 2011).

Kristautasunak hurtzarroaren beste kontzeptu bat ezarri zuen, eta haurrak errugabetzat, kutsatu gabetzat, puruztat eta ezagutzarik gabekotzat hartzen hasi ziren. Errenazimantuan eta **XVII. mendean**, gaitzetsi egin ziren hurrekiko harreman sexualak, moralistek haurrei egozten bazieten ere abusuak galaraztearen erantzukizuna (Intebi, 2011).

XVIII. mendean, zaintza hauek modalitate berri bat hartzen dute: helduak hasten dira kezkatzen eta genitalak ukitzen dituzten haurrak zigortzen. XVIII. mendearen hasieran, gurasoek gogor zigortzen zituzten seme-alabak, masturbatzeagatik. Masturbazioak, ustez, eromena, epilepsia, itsumena eta heriotza ere eragiten zituen, eta medikuek uste hori zabalitzen lagundu zuten (Intebi, 2011).

XIX. mendean, debeku hori areagotu egin zen beldurtzea helburu zuten jokabideen bidez. Haurrak masturbatzen zirenean, genitalak moztearekin mehatxatzen zituzten, eta batzuetan ebakuntza kirurgikoak ere egiten zizkieten, edo masturbazioa eragozteko tramankuluak jartzen zitzaizkien. 1925. urterako gutxi gorabehera, metodo horiek ia desagertu ziren. Bi mende horietako erregistroek adierazten dute sexu-abusuek ohikoak izaten jarraitu zutela, erantzukizuna gurasoei egozten ez bazitzairen ere, morroiei, beste heldu batzuei edo nerabeei baizik (Intebi, 2011).

Beraz, testuinguru historikoari jarraiki, lehen aipatu dugun bezala, joan den mendearen erdialdean hasi ziren ikertzen familia barruko haurren kontrako sexu-abusuak. Hala ere, XX. mendearen hasieran, eten egin ziren hain kontu handiz gordetako familia-sekretu hau frogatzeko saiakerak, Sigmund Freudek nerbio-nahasmenduen jatorrizko azalpena aldatu zuenean (Intebi, 2011).

3.2.2. HKSA IKERKETAK ETA IKUSPUNTU-ALDAKETAK

Sigmund Freudek —Psikoanaliaren sortzailea— agerian utzi zuenean HKSaren intzidentzia altua Sedukzioaren teoria delakoaren bitartez, komunitate zientifikoaren bazterketa pairatu zuen (Intebi, 2011). Freudek teoria iraultzaile bat planteatu zuen nahasmen mentalen sorburuaren inguruan. Neurologo austriarrak defendatzen zuenez, histeriak edo neurosiak haurtzaro goiztiarrean pairatutako trauma edo sexu-abusuetan zuen jatorria:

Formuló entonces esta tesis: en la base de todo caso de histeria se encuentran una o varias vivencias —reproducibles por el trabajo analítico, no obstante que el intervalo pueda alcanzar decenios— de experiencia sexual prematura, y pertenecientes a la tempranísima niñez». (...) «que en ocasiones los enfermos describen como inocentes unos procesos cuyo significado evidentemente no comprenden, pues de lo contrario por fuerza los espantarían; o bien tocan, sin atribuirles valor, detalles que solo alguien experimentado en la vida conoce y sabe apreciar como sutiles rasgos de carácter de lo real-objetivo (Freud, 1896, Intebi, 2011, 90-91. or.).

Hala ere, 1897. urtean, baieztapen horiek faltsutzat jo zituen, hurrengo urteetan kasu gehiago aztertzen jarraitu bazuen ere (Intebi, 2011). Ideia horiek erabateko eragina izan zuten ondorengo psikologo eta psikiatregan. Izan ere, Intebik adierazi bezala (2011), alde batetik Freuden behaketak zeuden, pazienteen adierazpenetan oinarrituak; bestetik, indarrean zegoen diskurtso moral bikoitza onartzeko prest ez zegoen gizartea.

Intebiren (Intebi, 2011) arabera, Jeffrey Masson psikoanalistak —Sigmund Freud Artxiboen arduraduna— sakon ikertu zuen austriarraren lana, eta haren helburuetako bat izan zen 1896. urtean Freudek «Etiologiaren histeria» izeneko artikuluan planteatu zuen sedukzioaren teoriaren sorburua aztertzea.

Massonen «Egiaren aurkako eraso» liburuan aipatzen denez, Freudek, Parisen egin zuen egonaldian, aukera izan zuen mediku-ikerketak eta ikerketak zientifiko ugari eskuratzeko, haurren kontrako familia barruko sexu-abusuen maiztasun handia baieztatzen zutenak. Massonen arabera, gaia landu zuten lehenengo ikertzaileak XIX. mendeko Frantziako auzitegi-medikuak izan ziren (Intebi, 2011).

Haurren kontrako sexu-abusuak ikertu zituzten auzitegi-mediku frantziarrak

1856-1864. urteetan, **Adolphe Toulmouche** (1798-1876) Renneseko medikuntza- eta farmazia-irakasleak bi artikulua argitaratu zituen «Lotsaren aurkako atentatutzat» hartzen ziren kasuen eta haurren kontrako bortxaketen inguruan. Mediku frantziarrak zioenez, horrelako kasuak oso ohikoak ziren, eta sexu-abusuak markarik utzi gabe gerta daitezkeela adierazten lehena izan zen. Haren hitzetan, ukituak edo genitalen igurtziak izaten ziren kasu gehienetan, batez ere neska txikien kasuan, nahiz eta huts egindako sarketa-saiakerak ere gerta zitezkeen (Intebi, 2011).

Ambroise August Tardieu (1818-1879) Frantziako Lege Medikuntzaren ordezkari nagusitzat zuten bere garaikideek. Parisko Unibertsitateko Auzitegi Medikuntzako irakaslea, Medikuntza Fakultateko dekanoa eta Parisko Medikuntza Akademiako presidentea izan zen. 1860-tik 1878ra, hainbat liburu eta artikulua idatzi zituen, haurren kontrako tratu txarrei buruzkoak, agerian utzi zutenak tratu txarrak pairatzen zituzten biktimen adin txikia.

1857. urtean, «Moralaren aurkako atentatuen lege-azterketa medikoa» izeneko artikulua argitaratu zuen, termino horren (Moralaren aurkako atentatua) barruan sarturik exhibizionismo lizuna, bortxaketak eta bortxaketa-saiakerak.

Lan horren seigarren edizioan, 1858tik 1869ra bitartean Frantzian izandako bortxaketei edo bortxaketa-saiakerei buruzko datu estatistikoak jaso zituen: bortxaketa edo bortxaketa-saiakeren % 79,16 urtetik beherako nesken aurkakoak izan ziren; gehienak, 4-12 urteko neskek. 1878. urteko edizioko hitzaurreak honela dio:

Lo más triste es comprobar que los lazos de sangre, lejos de constituir una barrera contra estas imperdonables fascinaciones, sirven con mayor frecuencia para provocarlas. Los padres abusan de sus hijas, los hermanos de sus hermanas. Estos hechos han concitado mi atención en números crecientes (Intebi, 2011, 75. or.).

Lan horietatik abiatuta, korrante bat sortu zen Frantziako lege-medikuntzaren barruan, helburu zuena haurren aurkako sexu-abusuak ikertzea.

Alexandre Lacassagne (1834-1924) Lyongo Unibertsitateko Auzitegi Medikuntzako irakasle titularra izan zen, eta haurren aurkako sexu-erasoen inguruan idaztera animatu zuten ikasleak. 1886an, «Antropologia Kriminaleko eta Zientzia Penaletako Artxiboak» izeneko aldizkaria sortu zuen. Lehen zenbakian (1886), «Nesken lotsaren aurkako erasoak» izeneko artikulua idatzi zuen, eta artikulua horretan adierazten zuenez, zigor-arloko epaitegietan aztertutako kasuen herenak «nesken lotsaren aurkako atentatuak» ziren; eta, «bertutearen aurkako erasoak» bi heren baino gehiago neska txikien aurkako sexu-erasotzat har zitezkeen. Lacassagnek, Tardieuk bezala, nabarmendu zuen kasu askotan abusuak zantzu fisikorik uzten ez dutela, behin eta berriro errepikatzen badira ere (Intebi, 2011).

1886an, **Paul Bernard** (1828-1886) medikuak «Neska txikien lotsaren kontrako erasoak» izeneko liburua argitaratu zuen, non 1827tik 1870era bitartean Frantzian jasotako datu estatistikoak bildu zituen. Lan horretan, 15 urtetik beherako haurren kontrako 36.176 «bortxaketa eta moralaren aurkako eraso» aipatzen dira. Helduen aurka egindako antzeko delituak askoz gutxiago dira: 9.653. Bernard sexu-erasoen biktimen zaurgarritasunaz jabetzen da (lau urte bezain gaztetatik kasuak ere aipatzen ditu), eta bere harridura adierazten du, erasotzaileak ez direlako gizon ezkongabeak; aitzitik, «badirudi familiaren eragina ez dela nabarmen sentitzen, eta etxeko haurrak ekintza gaiztoetarako pizgarri direla ematen du. Gure behaketetan, harridura geratu gara aurkitu ditugun intzestu-kasu ugariengatik. (...) Harrigarriena da haurrei sexu-erasoak egiteaz akusatatu dituzten eta hezkuntza-maila handia duten pertsonen kopuruak gora egin duela etengabe, 1880. urtean gorenera iritsi arte» (Intebi, 2011, 76. or.). Haren hitzetan, gertaera horien aurrean, «gurasoek isiltzea nahiago dute». Bernardek, bere maisu Lacassagnek eta Tardieuk bezala, haurrek kontatzen dutena sinetsi beharra azpimarratzen du, baita zantzu fisikorik aurkitzen ez denean ere (Intebi, 2011).

Garai berean, **Paul Camille Hippolyte Brouardel** (1837-1906) mediku legelariak, Auzitegi Medikuntzako katedran Tardieuren ondorengoa izan zenak, azpimarratu zuen «lotsaren aurkako atentatuak» neska gazteen aurkakoak zirela neurri handi batean eta erasotzailetako asko «familiako aita bikainak» zirela.

Brouardelek bere kezka adierazi zuen moralaren aurkako erasoengatik salatutako gizon asko «familiako guraso bikainak» zirelako; Bernard, aldiz, harritu egiten zen, oro har erasotzaileak ez zirelako analfabetoak, eta haietako asko heziketa handiko pertsonak zirelako, gizarte-bazterketarik pairatu ez zutenak eta familia bat sortu eta mantendu ahal izan zutenak (Intebi, 2011).

XX. mendearen lehen erdian AEBetan egindako ikerketek ere emaitza aipagarriak izan zituzten (Intebi, 2011):

1929 120 emakume eta 110 gizon elkarrizketatu zituen 1929ko inkesta baten arabera (New York), emakumeen % 37 eta gizonen % 27 «beldurtuta edo nahigabetuta» bizi izan ziren 16 urte bete baino lehen, beste sexuko pertsonen sexu-erasoengatik. Egia da, ikuspuntu metodologikotik, galdera nahiko anbigua egin zela eta adin bereko haurren arteko sexu-jolasen esperientziak barne har zitezkeela. Hala ere, erantzunak aztertu zituzten egile garaikideek adierazi zuten gizonak aipatutako 30 kasuetatik 24 eta emakumeek aipatutako 55 kasuetatik 37 sexu-abusutzat har zitezkeela.

1938 1938an (New York), «15 urte bete aurretik sexuarekin loturiko gorabeherak izan ote zituzten eta horrek inpaktatu edo oso nahigabetu ote zituen» galdetuta, inkestan parte hartu zuten ezkonduetako 750 emakumeen % 32k baietz erantzun zuten.

1940 1940an (New York) 153 emakume «normal» aztertu zituen ikerketa baten arabera, % 27-39k familia barruko eta kanpoko sexu-abusuen aurrekariak zituzten. Sexu-abusua «sexu-eraso» gisa definitzen zen, mutil nagusi batek, pertsona heldu batek edo familiako kide batek eginikoa, eta familian eta familiatik kanpo abusuak jasandako pertsonen kasuak bereizi zituzten. 142 emakume «ez-normalek» osatutako beste lagin batean, aurrekari horiek zituztenen ehunekoak % 20 eta % 33 ziren. Datuak nola erregistratu ziren kontuan hartuta, ezin dira bereizi familia barruko eta familiaz kanpoko abusuen kasuak.

1951 1951an (Kalifornia), 556 emakume ezkondu galdetu zitzaizkien 16 urte bete baino lehen bizitako «shock sexualei» buruz, eta % 25ek halakoak pairatu zituztela erantzun zuten.

1953 1953an (Filadelfia), Kinseyk eta kolaboratzaileek klase ertaineko 4.441 emakume galdekatu zituzten. Ikerketa lanean sartu zituen kontaktu fisikorik gabeko sexu-hurbilketak, exhibizionismoa, ukitzeak, ahozko sexu genitala eta sexu-harremanak. Elkarrizketatuen % 24k adierazi zuten nerabezaroa baino lehen izan zituztela esperientzia horiek.

Beste ikertzaile batek Kinseyk aztertutako laginaren laurdena inguru ebaluatu zuen. Emakumeei eskatu zitzaizkien abusu motari eta haren larritasunari buruzko informazio gehiago emateko. Emakumeen % 28k abusia 13 urte bete aurretik hasi zela jakinarazi zuten.

1956 1956an 1.800 unibertsitate-ikasleri egindako inkesta batean, emakumeen % 35ek eta gizonen % 30ek adierazi zuten sexu-abusuen biktimak izan zirela 20 urte bete baino lehen.

Inkesta horiek ezbaian jar daitezke ikuspegi metodologikotik, sexu-abusua definitzeko zehaztasun faltagatik. Nolanahi ere, zalantzarik gabe, garai hartako abusuak deskribatzen dituzte, eta urte luzeetan iraun duen problematika dela agerian utzi ere. Harrigarria da, beraz, bai garai hartako eta, tamalez, baita batzuetan gaur egungo profesionalen prestakuntzan ere, sexu-abusua oso arraroa zela zabaldu izana (Intebi, 2011).

Hainbat adituk argitara ateratako gertakari horiek, gizarteak gaitzetsi arren, etxearen intimitatean gertatzen dira, eta, ikusi ahal izan denez, komunitatearentzat errespetagarriak diren pertsonak dira askotan erasotzaileak. «Geure buruari egiten diogun galdera da ea gure gizartea noizbait prest egongo ote den sexu-abusuaren errealitatea onartzeko eta arazo horri aurre egiteko, ertz lotsagabeenetatik ere bai» (Intebi, 2011, 78. or.).

Intebiren aburuz (2011), aipatutako XIX. mendeko frantziar egileak —Toulmouche, Tardieu, Bernard— mugatu ziren aspalditik ikusi nahi zituenarentzat agerian zeuden gertakari buruzko oharrak deskribatzera. Psikologoak nabarmentzen duenez (2011), begien bistakoa da nahiago zutela ez ikusiarena egin XIX. mende amaierako Europako gizarteak eta garai hartako ikerketa-ildoak markatzen zituen komunitate zientifikoak.

Aipatzekoa da, HKSA intzidentzia handia azalera zen modu berean, abusu hauek asma-kizunak edo haurren sedukzioaren ondorio zirela defendatzen zuten egileak ere agertu zirela, eta eztabaida handiak sortuko ziren seguruenik, akademikoen salaketek gizon ohoretsu eta heziak zituztelako jomuga (Intebi, 2011). Eztabaidetan, ez zen zalantzan jartzen argi eta garbi abusuaren errealitatea; aitzitik, haren ondorioak neutralizatzen saiatzen ziren, ezbaian jarriz biktimak akusazioak egitera bultzatzen zituzten asmoak. Horrela, eztabaida gezurraren eta biktimen simulazioaren inguruan ardatzen hasi zen, arreta erasotzaileengan jarri ordez (Intebi, 2011).

3.3. Egiatzotasuna zalantzan jartzen

Garai hartatik aurrera, testigantzen sinesgarritasunik eza defendatzen hasi zen eremu akademikoan. Kinseyk berak adierazi zuenez, nahiz eta bere inkestan biktimizazio maila % 24ra iritsi, litekeena zen batzuek intzestu heterosexuala ikustea terapeuten buruan pazienteen bizitzetan baino, edo, Brouardelek, adibidez, defendatu zuen mota guztietako gehiegikerietarako askatasuna lortzeko saioak izan zitezkeela, helduen arreta berenganatzeko saioak edo ama ezjakinen asmakizunak (Intebi, 2011).

Laure Razonen arabera, ordutik aurrera isiltasuna nagusitu zen gizartean, 1970era arte. Ellen Bassek eta Lauras Davisek adierazten dutenez, 80ko hamarkadara arte, «haurtzaroko sexu-abusuen errelatoei ukapenarekin, gutxiespenarekin eta akusazioekin erantzuten zitzaien. Intzestuaren seinale fisiko argiak zeudenean ere, medikuek uko egiten zioten sexu-abusuaren froga gisa identifikatzeari. «Promiskuitatea, sortzetiko arazoak, himenik eza, gehiegizko masturbazioaren ondorioak...» eta antzeko azalpenak asmatzen zituzten (Giberti, 1998, 50. or.).

Hirugarren kapituluaren ikusiko den bezala, jarrera hipersexualizatuak sexu-abusuen adierazletzat hartzen dira. Dena dela, zenbait ikertzailek, efektu edo ondorio gisa baino gehiago, kausa edo arrazoi gisa planteatu dituzte. Karl Abrahamek, 1907. urtean argitaratutako artikuluan, HKSA kasu asko haurrek egindako sedukzioaren ondorio zirela defendatu zuen. Intebik (2011) XX. mendean zehar (1937., 1955. eta 1975. urteetan) egindako ikerketen adibideak aipatzen ditu, Abrahamen ideietan oinarritutako ikerketak. Ikuspuntu hori gaur egun hain arrunta ez bada ere, indarrik galdu ez duela azpimarratzen du, eta emakumeek jasandako sexu-erasoen gaian nagusi den zitalkeriarekin alderatzen du (Intebi, 2011). Horren adibide, Kempten hiriko (Alemania) epai bat ekarri dugu lerro hauetara:

El juez admite, a favor del acusado de un ataque sexual, que la iniciativa que condujo al delito partió, hasta cierto punto, de la víctima de talante precoz. La víctima de talante precoz era una niña de siete años. Esta concepción no difiere de lo socialmente aceptado a fines del siglo pasado y principios de este. Solo que la sentencia data de julio de 1984 (Intebi, 2011, 37. or.).

Intebik (2011), Anna Salter aipatuz, adierazten du neskato seduzitzailearen ideiak autoritatea edo indarra galdu badu ere, horren ordez amari egozten zaiola abusuen erantzukizuna, bereziki familia barneko abusuan, gizon helduak alaba erasotzen duenean. Salterrek horri buruzko bibliografia ugaria azpimarratzen du.

Hainbat adituk adierazten dutenez (Giberti, 1998; Intebi, 2011; Volnovich, 2016), postulatu ideologiko hori funtsezkoa izango da sexu-abusuari buruzko ikerketak oztopatzeko. Akademia, beraz, ez zegoen aurreiritzietatik libre, ezta estamentu sozioekonomikoen eta generoen arteko botere-borroketatik libre ere (Intebi, 2011). Testuinguru historikoaren argitan, hortaz, ulergarria da Haurren Kontrako Sexu Abusuei buruzko ikerketan aurrerape-nak oztopatu izana, baita ebidentzia gogorren aurrean ere, eta errealitate horren azterketa denboran hainbeste atzeratu izana (Intebi, 2011). Intebik Rupert Bernard aipatuz nabarmentzen du:

Los científicos forman parte de sistemas sociales, económicos y políticos de mayor envergadura; constituyen grupos profesionales con sus propios medios iniciáticos, presiones de compañeros, estructuras de poder y sistemas de recompensa. Trabajan, por lo general, en el contexto de paradigmas y modelos de la realidad establecidos (Intebi, 2011, 77. or.).

70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, gaiari buruzko kezka berpiztu zen, talde feministen eta haurren aurkako tratu txarren ikerketan eta prebentzioan ziharduten profesionalen bultzadaz. Mugimendu feministak ekarpen teorikoak egin zituen, tratu txarren eta sexu-abusuen gaia argitara atera zuen eta indarrean zeuden kanon sozialak zalantzan jarri zituen dekonstrukzioaren teoriaren bitartez (Giberti, 1998).

Summiten (1983) ustez, 80ko hamarkadan, sexu-abusuen biktima izan zen haurra 1974. urtea baino lehen bortxatutako biktima helduaren antzeko egoera batean zegoen. Giro psikologikoaren eta bortxaketaren egokitzapen-ereduen ulermen kliniko koherenterik gabe, emakumeak probokatzailatzat jotzen ziren, eta erasoaren erantzukizuna egozten zitzairen, beren burua eraso baten arriskupean jartzeagatik. Emakume gehienek beren biktimizazioa ez salatzeak zerbait ezkututzen zutelako susmoa baino ez zuen baieztatzen, eta kontatzea erabakitzen zutenak damu ziren, beren erreputazioaren eta sinesgarritasunaren aurkako etengabeko erasoengatik (Summit, 1983).

Biktima helduentzako aldaketa, emakumeen mugimenduaren protesta handiko garai batean, literatura klinikoan ospetsua izango zen artikulu baten argitalpenarekin gertatu zen: hain justu, 1974. urtean Burgess eta Holmstromek argitaratu zuten «Bortxaketak eragindako trauma-sindromea» (Summit, 1983). Ikerketa horrek irizpide batzuk eman zituen ondorio psikologiko traumatikoak ezagutzeko eta maneiatzeko, eta biktimaren lotsaren, auto-erruduntasunaren eta sekretuaren sekuentzia logikoa ezarri zuen (Summit, 1983).

Artikulu aurrerapauso bat izan zen emakume heldu biktimentzat, bai eremu klinikoan bai epaitegietan. Gainera, beste artikulu baten argitalpena eragin zuen: «Haurren eta nerabeen trauma sexuala: presioa, sexua eta sekretua» (1975). Artikulu horrek aurre egiten zien

aurreko azterlanei, parte-hartzea borondatezkoa zela edo limurtzeko helburua zuela ziotenei. Dena dela, Summitek kritikatzeko duenez, azken artikulua horren argitalpenak ez zuen biktima helduek sortutakoaren adinako sentsibilizaziorik eragin (Summit, 1983). Haurren defentsak helduen interesen kontra egiten duen heinean, Summitek dio, bai arlo klinikoa bai arlo judizialean, erantzun ebolutibo bat dagoela erantzun iraultzaile bat baino gehiago (1983). 1975. urtean, Sgroik, mediku kliniko askok arazoa onartzeko zuten errezeloaren harira, HKSA «haurren kontrako gehiegikerien azken mugatzat» hartu zuen (Summit, 1983, 192. or.)

Adierazitako guztia kontuan hartuz, Lambertek (1998, 202. or.) azpimarratzen du intzestua sekretuaren munduan geratu zela berriro. Zifra beltz edo ezkutuari erreferentzia eginez, Finkelhorrekin (1995) bat, nabarmentzen du aita-alaba intzestua «epidemia-proporzioetara» iristen dela.

4. XXI. mendea

Gaur egun antzina baino sexu-abusu gehiago daudela mito bihurtu da gure gizartean (Pereda, Arch, Guerra-González eta Llenera, 2012; Márquez-Flores, Márquez-Hernández eta Granados-Gómez, 2016). Berez, ez dago jakiterik, datuak oso eskasak izan direlako historikoki eta gaur egun ere ez dagoelako lagin esanguratsu baten bitartez egindako ikerketarik. Hortaz, ez dago ikerketa konparatiborik baieztapen hori egiteko.

De Paulen edo Intebiren aburuz (2011), gaur egun historiako beste edozein garaitako HKSA kopuru bera edo gutxiago daude. Hala ere, egile horien iritziz, gaur egun arazoak publikoki eta seriotasunez hitz egin daiteke, eta indarkeria mota honekiko tolerantzia askoz txikiagoa da (itxura batean edo teoriarik behintzat). Ezin ukatu daiteke HKSA pairatu duen neska batek babes handiagoa duela gaur duela 10, 20 edo 30 urte baino (Intebi, 2011).

4.1. Ezkutatzetik esposiziora

Haurren Kontrako Sexu Abusuak, gizarteak aurrera egin ahala, moldatuz edo transformatuz joan dira, gaur arte ezezagunak ziren testuinguru berriak sortuz. Egile batzuk gaiak mintzo badira ere (Intebi, 2011; López, 2020), oraindik ez da eztabaida serio bat planteatu haurrek ikus-entzunezkoetan eta hedabideetan duten hipersexualizazioaz. Historikoki gertatu den zerbait izan bada ere («Lolita» eleberria, adibidez), gaur egungo teknologia berriek testuinguru berriak sortu dituzte, oraindik aztertzeke daudenak.

Volnovich (2016) adituak ere sexu-abusua ikuspuntu sistemikoago batetik lantzea eskatzen du eta, horrenbestez, kontuan hartu behar da ezinbestean testuinguru sozialaren edo gizartearen analisia. Hau da, HKSA ulertzeko, kontuan hartu behar dira erasotzailearen eta biktimaren arteko harremanaz haraindiko aldagaiak. Pentsamenduaren ildo horretan kokatzen da Franklin Farinatti doktorea eta HKSA aditua:

En los últimos años, desde la publicación del trabajo príncipes de Henry Kempe, *The Battered Child Syndrome* (1962), ha evolucionado considerablemente el reconocimiento de la real significación y de las raíces del *síndrome del niño maltratado*. Hoy ya no podemos tener una visión reduccionista de la cuestión, poniendo nuestro foco solo en la relación vertical adulto agresor-niño víctima. Es fundamental queelijamos un abordaje holístico en que es-

tén implicados todos los actores: microsistema familiar, exosistema comunitario y macrosistema social y cultural. (...) Hasta hace bien poco, los abusos sexuales ocurrían no solo dentro de un férreo secreto familiar, sino también en la casi absoluta negación de su existencia por parte de la comunidad general (Volnovich, 2016, 11. or.).



Ilido horretan, Finkelhorrek (1984, Muelan, 2007) faktore anitzeko eredu bat garatu zuen sexu-abusuak egiten dituzten pertsonen portaera azaltzen saiatzeko. Egile horren ustez, lau dira erasotzailea abusua egitera bultzatzen duten faktoreak. Honako hau dio bigarren faktoreari buruz (sexu-aktibazioa):

En el proceso en el que una persona adulta ve a un/una menor como fenómeno que le incita sexualmente suele tener componentes individuales y sociales. Por ejemplo, la pornografía infantil o las imágenes de los/as niños/as con claro componente sexual que aparecen en los medios de comunicación cumplen un importante rol para que ocurra el fenómeno de la pedofilia. Las exposiciones de ese tipo tienen una gran carga de activación sexual que no influenciarían de otra forma (245. or.).

Ikus-entzunezkoek gaur egungo gizartean duten presentzia dela-eta, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan arazoaren analisian. Alde batetik, hurrek jasotzen duten eredu heteropatriarkalaren estimulazio mailak beste dimentsio bat hartu du gaur egungo publikitatean eta haurrentzako ikus-entzunezkoetan. Ezin ukatuzkoa da haurren hipersexualizazioa nagusitzen ari dela: bularretako barrubeteak neska txikien bikinietan, eredu sexualizatuak edo 13 urteko neska bat agertzea munduko emakume «sexyenen» zerrendan. Kontzientziaziorik ezaren beste adierazle bat da ere haurren intimitatearen esposizioa sare sozialetan. Izan ere, Alejandra Pascualek (2018) adierazten duenez, webgune pederastetan haurren kontrako sexu-abusuak ikus daitezke, baina baita haurrak eguneroko zereginetan erakusten dituzten argazkiak edo bideoak ere.

Bestetik, aipatu behar da teknologia berriak **arazoa bisibilizatzeko baliabide eraginkorra** bihurtu direla edo, **Fallarásek** gogoratu bezala, aukera eman dutela hain garrantzitsua den **persona biktimizatuen kontakizuna ikusarazteko**. Izan ere, kazetari horrek adierazten duenez, indarkeriaren bisibilizazioan eta onarpenean oso garrantzitsua da hitzak jartzea gertatutakoari eta biziakoari. Gainera, gero eta gehiago egiten diren salaketa publikoek beste biktima batzuk bultzatzen dituzte sekretua haustera (Bianco *et al.*, 2015). Alde horretatik, Marta Suria ezizenez ezaguna den biktimak, «Ella soy yo» (2019) bere liburuan, sexu-abusutik biziraule irten den pertsona gisa aurkezten du bere burua, bizi izan duen prozesua azaldu eta erasotzailea aita denean gaur egun oraindik gizartean dagoen tabua salatzen du. Kontatzeak arazoaren bisibilizazioan duen garrantzia nabarmentzen du: «Compartir mi historia contigo es un acto de sublevación. No hay otra opción: es ineludible contarle, es necesario escucharlo».

Esan bezala, teknologia berriek beste bide bat zabaldu diote errelatoaren ikusgarritasunari eta garrantzitsuak izan dira zentzu horretan egin diren kanpainak. Besteak beste, Twitterren zabaldu zen **#MiPrimerAcoso** (parte-hartzaile gehienek 8 urte bete aurretik pairatu zuten lehenengo sexu-jazarpena), **#Cuéntalo** edo **#LaCulpaNoEraMia**. **#Cuéntalo** txioa erabili zen azterlan bat egiteko eta emaitza adierazgarriak lortu ziren.



Iturria: Twitter

Factores como el secretismo que caracteriza la situación, la vergüenza que experimenta la víctima al relatar lo sucedido, las sanciones criminales que implica la denuncia de estos casos, así como la joven edad y la dependencia del adulto que caracterizan a estas víctimas, provocan que únicamente un escaso número de menores relaten lo sucedido en el momento en que ocurre, siendo más que probable que las estadísticas oficiales subestimen la dimensión real del problema (Goldman eta Padayachi, 2000; hemen aipatua: Pereda, 2016, 2.or.).

4.2. Haurren kontrako sexu-abusuen maiztasuna

HKSaren maiztasunari dagokionez, ez da erraza irakurketa erreal eta espezifiko bat egitea. Nogueroles ustez (1997, Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015, 11. or), «ez da erraza finkatzea zein den arazo honen benetako intzidentzia gizartean, erasoak eremu pribatuan gertatu ohi direlako —familiar, eskolan, etab.— eta adingabeek senti dezaketelako ez daukatela ahalmenik abusu horiek salatzeke». Kontuan izan behar da, aipatu bezala, gizarte-egiturak eragina duela HKSAn.

La consideración de la familia como un recinto privado, alimentada por la ideología de que la mujer es propiedad del marido y los hijos patrimonio de los padres, es un obstáculo añadido para la detección de cualquier tipo de maltrato a los niños y para la adopción de medidas correctoras necesarias (Sanmartín, 1999; hemen aipatua: Echeburúa eta Guerri-caechevarría, 2015, 2. or.).

Izan ere, hainbat adituk modu egokian aipatu bezala, kasu gehienak ez dira ez salatzen (Pereda, 2016; Muela, 2007) ezta jakinarazten ere (Save the Children, 2017; Greco, Guilera eta Pereda, 2017). Bestetik, nabarmentzekoa da ere Espainian ez dagoela gaiari buruzko datu publikorik, genero-indarkeriaren kasuan ez bezala, HKSAri buruzko datuak sakabanatuta daudela eta ez dagoela erregistro bateraturik (Save the Children, 2017).

Kontuan hartu behar da ere hautazkoa dela Espainian familia barneko indarkeria-kasuk biltzen dituen Gizarte Zerbitzuetako Erregistroa (RUMI), eta gorabehera handiak daudela jakinarazpen mailari dagokionez autonomia-erkidegoen artean (Save the Children, 2017). Gainera, haurren kontrako sexu-abusuak gizarte —eta kultura— maila guztietan gertatzen bada ere, Haurren Babes Zerbitzuek nekezago detektatzen dituzte abusuak maila ekonomiko altuetan. Hori horrela, estatistika ofizialek gutxietsi egiten dute arazoaren benetako dimentsioa (Goldman eta Padayachi, 2000; hemen aipatuta: Pereda, 2016). Intebik ohartarazten duenez ere oso garrantzitsua da nabarmentzea gauza bat dela detektatzea eta, beste bat, oso desberdina, gertakari jakin batzuk gertatzea: sexu-abusua gizarte maila guztietan gertatzen da, baina zailagoa da diagnostikatzea eta esku hartzea klase ertain eta altuko familietan (Intebi, 2011).

Las discrepancias que se observan en las cifras de registro de maltrato (en especial de abuso sexual) parecen confirmar estas suposiciones: en todo el país el mayor número de informes de abuso sexual se refiere a la población de bajos y medios recursos. Sin embargo, los especialistas están de acuerdo en que el abuso sexual ocurre de forma pareja en toda la población. Para tener una idea de este subregistro basta considerar que, entre los adultos que refieren haber sido víctimas de abuso sexual en su infancia, un porcentaje desproporcionadamente elevado corresponde a mujeres blancas de clase media y alta. (...)

En una ironía del destino, los niños abusados de clase media y alta son quizás más vulnerables que los otros niños. Mientras que, por un lado, tienen mejor calidad de vida, sus pedidos de auxilio son menos escuchados. Creo que esta diferencia entre los grupos socioeconómicos explica parcialmente porqué la mayoría de mis clientes pertenece a las clases media y alta. Pienso, que el hecho de vivir de una manera más aislada hace que tengan menos posibilidades de acceder a los servicios sociales públicos, con lo cual se restringen drásticamente las oportunidades de intervención y se potencia el riesgo de estallidos en mayor medida que en las familias de ingresos bajos (Mones, 1991; hemen aipatua: Intebi, 2011, 27. or.).

Espainiari dagokionez, ikerketen kopurua asko handitu bada ere, oraindik gutxi dira gaztelan —are gutxiago euskaraz— eginiko haurren kontrako tratu txarrak edo sexu-abusuak aztertzen dituzten ikerketak (Intebi, 2011). Gaur egun, hurrek pairatzen duten indarkeriari buruzko 10 ikerketetatik 7 berdin arteko indarkeriari buruzkoak dira (Pereda, Guilera eta Abad, 2014), nahiz eta hurrek nozitzen duten **biktimizazioa helduek eragindakoa izan neurri handi batean**.

Hori horrela izanik ere, Peredak dio HKSA hedadura handiko arazo bat dela, munduan egin diren ikerketa zorrotz eta metanalitikoaren arabera (Pereda, 2016) (1. taula).

1. taula

65 ikerketa (1965-2006) 22 herrialdeetako laginak erabilia (Espainia barne)

18 urtetik beherako biktimak: abusua edo eraso sexuala, kontaktuarekin eta kontakturik gabe. <i>Pereda, Guilera, Frons eta Gómez-Benito (2009)</i>	Gizonen % 7,9	Emakumeen % 19,7
---	---------------	------------------

217 ikerketa (1980-2008), 5 kontinenteetako laginak erabilia

<i>Stoltenborgh, van IJendoorn, Euser eta Bakermans-Kranenburg (2011)</i>	Gizonen % 7,6	Emakumeen % 18,0
---	---------------	------------------

55 ikerketa (2002-2009), 24 herrialdeetako laginak erabilia

<i>Barth, Bermetz, Heim, Trelle eta Tonia (2014)</i>	Gizonen % 8,0	Emakumeen % 15,0
--	---------------	------------------

Iturria: Pereda 2016.

Peredaren iritziz (2016), datu horiek erakusten dute ikertu diren gizarte guztietan arazo larria dela haurren kontrako biktimizazio sexuala. Ehunekoetan gorabehera txikiak dituzten datuen arabera, gizonen % 8k eta emakumeen % 20k sexu-abusua pairatu dituzte 18 urte bete baino lehen. Hala ere, gaur egun, datu horiek profesional askorentzat sinesgaitzak izaten jarraitzen dutela salatzen du (Pereda, 2016).

Muelak (2007), bestalde, sexuen arabera banatutako nazioarteko datuak ematen ditu, eta HKSA jasan duten emakumeen ehunekoak % 7-36koa dela adierazten du; apur bat txikiagoa gizonen artean (% 3-29) (Bouvier *et al.*, 1999, Briere eta Elliot, 2003, Finkelhor, 1994, Haj-Yahia eta Tamish, 2001, López *et al.*, 1995, Tang, 2002; hemen aipatuta: Muela, 2007). Finkelhorrek egindako 19 ikerketen berrikusketan (1986, Muela, 2007), nesken tasa % 6-62koa zen; % 3-31koa mutilen kasuan. Muelaren arabera (2007), ehunekoaren arteko desberdintasun hori ikerketetan erabilitako metodologia desberdinetan datza (definizio desberdinak, datuak biltzeko metodo desberdinak, etab.).

Esaterako, aditu askok uste dute exhibizionismoa ez dela sexu-abusua, ondorio kliniko larriak izan baditzake ere haurrengan (Aguilar, 2009). Hala ere, datuen artean alde handiak ikus badaitezke ere, «Bostetik bat» kanpainako datuak biztanleria orokorrari dagozkion datuak dira, eta ehunekoak gora egiten du zenbait kolektibotan. Gainera, adituek (Intebi, 2011; Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015) ohartarazten dute ehunekoak uste baino handiagoa izan daitezkeela mutiko biktimen kasuan:


Este menor porcentaje de niños víctimas de abusos sexuales podría ser debido a varias hipótesis, tales como no reconocerse a sí mismos como víctimas de abuso sexual y no contar lo sucedido a los adultos/as, aceptando el hecho de mantener relaciones sexuales con mujeres adultas como una forma positiva de ejercer la «masculinidad»; o por el contrario, sí reconocerse como víctimas de abuso sexual, siendo más reacios a denunciarlo en el entorno próximo por miedo a ser etiquetados como homosexuales, cuando el agresor es un hombre, o como «poco hombre», al solicitar ayuda cuando el abuso fue ejercido por una mujer, de forma que nunca salga a la luz la situación de abuso; lo que pone de relieve la influencia de estereotipos y roles de género en la forma de afrontar el abuso sexual (Lameiras *et al.*, 2008, 9. or.).

4.2.1. ABUSUAREN HASIERA ETA MAIZTASUNA

Ikerketek adierazten dutenez, sexu-biktimizazioa pairatzen duten haurren adina 6-12 urtekoa da oro har (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Marcok (2018), hainbat egile aipatuta, 6-13 adin-tartean kokatzen du zaurgarritasun handieneko etapa (Marco, 2018). Sexu-abusu gehienak biktimaren edo erasotzailearen etxean izaten dira (Cortés, Cantón eta Cantón-Cortes, 2008).

Intzestuen kasuan, neskatoek pairatzen dute gehiago eta adin txikiagoetan gertatzen dira (7-8 urte); aldiz, familiaz kanpoko sexu-abusuak ugariagoak dira mutilen artean eta handixagoak direnean gertatzen dira (11-12 urte) (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Nolanahi ere, kontuan izan behar da memoriari buruzko ikerketek erakutsi dutela helduen % 38k ez ditzutela gogoratzen haurtzaroan jasandako abusua (Muela, 2007) —horrek ez du esan nahi ondorioz izan ezin ditzaketarik—. Eta gauza bera esan liteke haur txikiei buruz. Beraz, gauzak horrela, baliteke intzidentzia-adina uste dena baino txikiagoa izatea.

2. taula. Noiz hasi ziren sexu-abusuak?



Iturria: Montane, 2008


Horren guztiaren harira, Intebik (2011) aipatzen duen 1993ko ikerketa baten arabera, biktimen % 23,2 0-5 urtekoak dira, eta % 48,5, 6-11 urtekoak. Montanek (2008), ForoGAMen (sexu-abusuak pairatu dituzten pertsonentzako gaztelaniazko Interneteko foro nagusia) egindako ikerketek ere, nahiz eta oinarri zientifikorik ez izan, emaitza adierazgarriak dituzte. 160 biziraulerekin egindako ikerketak (2. taula), 7 urte bete aurreko etapa ere aztertzen duenak, arreta pizten duten datuak ematen dizkigu.

Alde horretatik, Summiten arabera (1983), interbentzio klinikoko esperientzia handitu ahala haurren kontrako sexu-abusuen alorrean, behera egin du biktimen aipatutako hasiera-adinak. 1979an, 9 urtekoa zen batez beste; 1981ean, aldiz, AEBetako funts federalen bidez finantzatutako trebakuntza-eredu nazionalak jakinarazi zuten 7 urtekoa zela batez besteko adina. Seattleko *Harborview Sexual Assault Center*-era tratamendua jasotzera joaten ziren haurren % 25ek 5 urte edo gutxiago zituzten (Summit, 1983).

Abusua errepikatzeari dagokionez, Espainiako Estatuko datuak aztertuta, Lópezek (2014) dio gaur egungo datuen arabera abusua behin bakarrik gertatu dela kasuen % 55,8an. Aldiz,


kasuen % 44,2an, 1-25 aldiz errepikatu da. Aditu horrek ohartarazten digu errepikatze-faktoreak bizirauleek pairatu ditzaketen ondorioetan izan dezakeen eraginaz. Muelak (2007), bere aldetik, sexu-abusua kasuen % 75ean errepikatzen dela dio, eta Montanek (2008), azkenik, sexu-abusuen maiztasunaz galdekatzen ditu 117 biziraule (3. taula) eta abusuen iraupenaz, 108 biziraule (4. taula).

3. taula. Sexu-abusuaren maiztasuna



Iturria: Montane, 2008.

4. taula. Sexu-abusuaren iraupena



Iturria: Montane, 2008.

Maiztasuna aztertzean arreta erasotzaileengan jarritz, biktimarengan jarri ordez, Intebik (2011) erasotzaileekin egindako hainbat ikerketa aipatzen ditu. 1981eko ikerketa baten arabera, abusotzaile heterosexual talde batek 62,4 haur biktimizatu zituen batez beste. Are gehiago, New Yorkeko Institutu Psikiatrikoak egindako ikerketa baten arabera, 232 sexu-abusotzailek onartu zuten 55.250 abusu egiten saiatu zirela eta 38.727 burutu zituztela, erasotzaile bakoitzeko 167 haur, batez beste.

Geroago eginiko beste ikerketa batzuen arabera, 53 erasotzailek 25.757 sexu-delitu egin zituzten; bestalde, alabez abusatu zuten 65 guraso biologikoen talde batean, % 80k haur bat baino gehiago biktimizatu zituzten eta % 30ek familiatik kanpoko adingabeei erasotu zieten. Adituaren arabera, nahiz eta familia barruko eta kanpoko abusotzaileak bereizten diren, gaur

egun desegokitzat hartzen da banaketa hori (Intebi, 2011), agerian gelditu baita kasu askotan intzestu-egileek familiarik kanpo ere abusatu dutela.

4.2.2. PREBALENTZIA ETA INTZIDENTZIA

Arazoaren azterketa egitean, lehenik eta behin intzidentzia- eta prebalentzia-ikerketak desberdindu behar dira. Intzidentzia-ikerketek biltzen dituzte denbora tarte jakin batean (urtebete izan ohi da) agintariek detektatzen dituzten edo salatzen diren kasu berriak (ospitaleak, gizarte-zerbitzuak, polizia, justizia, etab.) (Runyan, 1998, Wynkoop, Capps eta Priest, 1995; hemen aipatuta: Pereda, 2016). Pereda (2016), gainera, Priebe eta Svedinen lana (2008) aipatuz, adierazten du gizonezko biktimen % 3k eta emakumezko biktimen % 9k bakarrik jo dutela profesional batengana edo salaketa jarri dutela gizarte-zerbitzuetan edo polizia-etxean (gizonezkoen % 4ak eta emakumezkoen % 7ak). Ikerketen arabera ere, badakigu soilik nerabe biktimen % 9,3k jotzen dutela polizia edo epaileengana (Pereda *et al.*, 2016). Datu horiek bat datoz aurreko ikerketek adierazitakoekin (% 90ek ez dute gertatukoaren berri ematen, López, 1994) eta Europan eta nazioartean eginiko berrikuspenekin (Pereda *et al.*, 2018).

EAEri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak *Haur eta nerabeenganako indarkeria EAEn. Diagnostikoa, erronkak eta gomendioak* (2019) dokumentua argitaratu zuen 2020an, hainbat datu interesgarri biltzen dituen lana. Intzidentziari dagokionez, 2017an, Ertzaintzak 224 biktima erregistratu zituen EAEn 18 urtetik beherakoen aurka eginiko sexu-askatasunaren aurkako delituetan (% 69,6 neskak); aurreko urtean baino % 30 gehiago. Biktimizazio mota horiek 18 urtetik beherako pertsonen aurkako biktimizazio guztien % 14,2 ziren. Gainera, 2018an, EAEko Fiskaltzak 66 aurretiazko eginbide ireki zituen adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituengatik (2017an baino % 13,8 gehiago): 27 eginbide sexu-abusuengatik eta 23 sexu-erasoengatik.

2018an, sexu-abusuetan arreta psikologikoa emateaz arduratzen den programa espezializatuak (SEIP) 65 kasu artatu zituen Bizkaian; horietatik 29 berriak (2 kasutan ustezko erasotzaileak izan ziren arreta jaso zutenak). Arreta jaso zuten pertsonen % 72,3 neskak ziren eta 6-11 izan zen adin-tarte nagusia (artatutako kasuen % 48 harrera-egoitzetatik bideratu ziren).

Bizkaian gertatutako sexu-abusuen kasuan, Arreta Psikologikoko Programa Espezializatuan (SEIP) aztertutako kasu berrien % 74an, biktimaren eta ustezko erasotzailearen arteko harremana familia-harremana edo familiarekiko adiskidetasuna zen. Kasu horietan, txostenak aipatzen du abusu asko ez direla salatzen eta, beraz, abusotzailea ez dela zigortzen. Gainera, gogoratzen da kasu hauetan prozesu judiziala asko luzatzen dela denboran eta oso mingarria dela biktimarentzat.

Aipatutako guztiarekin bat etorriz, ANAR Fundazioak plazaratutako *Evolución de la Violencia a la Infancia en España según las Víctimas (2009-2016)* txostenak (2018) nabarmentzen du haurren kontrako sexu-abusuak haurren kontrako indarkeriaren % 7,6 direla. Gainera, txostenak ateratako ondorio azpimarragarrienetako batek dio aita biologikoa dela erasotzailea hiru abusu-kasuetatik batean (% 33,7), abusua egunero gertatzen dela bost kasuetatik batean eta sarriago gertatzen dela gurasoak bananduta daudenean (% 58,8). Gainera, kasuen % 38,2an, genero-indarkeria ere gertatzen da, eta biktimak emakumeak

dira nagusiki (% 75,2). Indarkeria guztien artean, abandonuarekin batera, abusia da haurrak gehien pairatzen duten indarkeria mota, 9,9 urte izanik batez besteko adina.

Atzerriko nazionalitatea batez besteko globala baino altuagoa da: % 12,5 eta % 5,0, hurrenez hurren. Azkenik, erakunde horrek kalkulatu du 8,5 hilabete behar dituztela batez beste biktimek laguntza eskatzeko, eta bereziki larria da hori, kasu askotan zantzu fisikoak desagertu egiten direlako. Ondorioz, indarkeria mota larrienez hartzen da (% 87,1), premia handinez tratatu beharrekoa (% 47).

Espainiako HKSA intzidentzia-ikerketei dagokienez, autonomia-erkidegoetako Gizarte Zerbitzuetako datuak erabilia egiten dira (Pereda, Gómez-Martín, Greco, Hombrado eta Ségura, 2018). Datu horiek eskasak eta oso mugatuak dira, gizarte-zerbitzuak sektore zaurgarriekin bakarrik aritzen direlako eta kasu larriak izan ohi dira. Lameiras, Carrera eta Faildek azpimarratzen dutenez (2008) tasa % 1etik behera dago. Hala ere, Pereda (2016) gogorazten duenez, azken intzidentzia-ikerketa duela 10 urte baino gehiago egin zen Espainian (5. taula).

5. taula. Intzidentzia-ikerketak Espainiako Estatuan

Saldaña, Jiménez eta Oliva (1995)	Administrazio autonomikoe-tako haurrak babesteko zerbitzuek 1991n eta 1992an irekitako adingabeen espedienteak guztira (32.483).	Tratu txar motaren bat 8.565 → urteko batez besteko % 0,44, Espainiako haurren populazioarekin alderatuta. HKSA 359 → tratu txarrak pairatu dituztenen % 4,2 → % 78,8 neska eta % 21,2 mutilak
Centro Reina Sofía para el Estudio de la Violencia (2002)	Espainiako autonomia-erkidego guztietako adingabeak babesteko zerbitzuen 32.741 espediente, 1997 eta 1998 bitartean.	Estatuan, haurren aurkako tratu txarren 16.189 kasu detektatu ziren (18 urtetik beherako Espainiako biztanleen % 0,71), eta horietatik % 3,6k sexu-biktimizazioaren bat jasan zuten. % 81 neska eta % 19 mutilak.

Iturria: Pereda 2016.

Hortaz, intzidentzia-datuak ezin daitezke inoiz erabili HKSA maila neurtzeko, testuinguru zehatz batean profesionalek duten detekzio maila neurtzeko baizik (Pereda *et al.*, 2018).

Horrenbestez, aipatutako arrazoiengatik, prebalentzia-ikerketek jasotako datuetan oinarrituko gara lan honetan. Espainian, estatu mailan eginiko atzera begirako prebalentzia-ikerketa bakarra dago, orain dela ia 30 urte eginikoa (López, 1994; hemen aipatuta: Pereda, 2016).

Biztanleria orokorrari dagokionez, gorabehera gutxiko ehunekoak jasotzen dituzte ikerketek, eta Espainiako herritarren % 10-20k HKSA jasan dutela adierazten dute: nesken % 20k eta mutilen % 8k, oro har 13 urte bete baino lehen (Pereda, 2016).

6. taula. Helduei galdetuz lortutako prebalentzia-datuak

ATZERA BEGIRAKO IKERKETA	Perspektiba epideomiologikotik		
		López (1994) eta López, Carpintero, Hernández, Martín eta Fierres (1995)	Lagin adierazgarri bateko 1.821 heldu
	Unibertsitateko ikasleak		
	De Paúl, Milner eta Múgica (1995)	Euskal Autonomia Erkidegoko 403 unibertsitate-ikasle	% 13,4: Gizonen % 9,7 eta emakumeen % 14,9 13 urte bete aurretik: gizonen % 3,9 eta emakumeen % 6,4 13 urte bete ondoren: gizonen % 2,9 eta emakumeen % 3,7 13 urte bete aurretik eta ondoren: gizonen % 2,9 eta emakumeen % 4,7
	Pereda eta Forns (2007)	Kataluniako 1.033 unibertsitate-ikasle	% 17,9 sexu-biktimizazioa 18 urte bete aurretik Gizonen % 15,5 eta emakumeen % 19,0 % 14,9 13 urte bete aurretik eta % 3 13- 18 adin-tartean
	Cantón eta Justicia (2008)	Granadako 1.162 unibertsitate-ikasle	% 9,5 13 urte bete aurretik Gizonen % 6,5 eta emakumeen % 10

Iturria: Pereda 2016.

Ikus daitekeenez, prebalentzia % 8,8koa da Espainiako Estatuan (7. taula). Dena dela, helduei galdetzean, % 14,6 eta % 17,9 arteko tasak lortzen dira (6. taula) (Pereda *et al.*, 2018). Peredak biktimak pairatzen duen disasoziazioaren bidez azaltzen du datuen arteko aldea, mekanismo psikologiko horrek gertaeraren oroitzapena urte luzez erreprimitzea ekar dezakeelako, gertatu izana ere zalantzan jartzearaino. Peredaren ikerketaren arabera eta bat etorritik eremu geografiko bereko unibertsitate-ikasleekin egindako ikerketaren datuekin, oro har pubertaro aurretik hasten dira abusuak, gertaera kronikoak dira eta kontaktu fisikoa duten abusuak dira (Benavente, 2016; hemen aipatuta: Pereda *et al.*, 2018).

7. taula. Sexu-biktimizazioari buruzko ikerketak, 18 urtetik beherakoen laginak erabilita

AEB	Finkelhor, Shattuck, Turner eta Hamby (2014)	15-17 adin-tarteko 2.293 gazte.	Nesken %26,6 eta mutilen %5,1, bizitzan zehar.
	Finkelhor, Shattuck, Turner eta Hamby (2015)	0-17 adin-tarteko 4.000 elkarrizketatu. Biktimei edo zaintzaileei telefono bidez eginiko galdeketa.	Mutilen %4,1 eta nesken %5,9, azken urtean.
KANADA	Cyr, Chamberland, Clément, Lessard, Wemmers, Collin-Vezina, Gagné eta Daman (2013)	2-17 adin-tarteko 2.801 elkarrizketatu. 12 urtetik beherakoei, zaintzaileen bidez	Biktimizazio sexuala bizitzan zehar: %8 Azken urtean: %5
EUROPA	Radford, Corral, Bradley eta Fisher (2013)	11-17 adin-tarteko 2.275 gazte.	Biktimizazio sexuala bizitzan zehar: mutilen %12,5 eta nesken %20,8. Azken urtean %9,4 → mutilen %6,8 eta nesken %12,2.
KATALUNIA	Pereda, Guilera eta Abad (2014)	7 eskolatako 12-17 adin-tarteko 1.107 ikasle.	Biktimizazio sexuala bizitzan zehar, %14,7: mutilen %4,1 eta nesken %13,9 Kontaktu fisikoarekin %3,3 eta gabe %6,2 Azken urtean %5,3 → mutilen %2,2 eta nesken %8,9
KATALUNIA	Soler, Paretilla, Kirchner eta Forns (2012)	14-18 adin-tarteko Kataluniako 722 nerabe	Azken urtean %10,7 eta nesken %22,4 Ezin da konparatu lagin komunitarioekin ezta herrialde berbereko edo beste testu-iguru kultural batekoekin ere.
VALENTZIA	Játiva eta Cerezo (2014)	Ingurualde problematikoetako 9 DBH zentrotako eta eguneko zentroetako 15-18 adin-tarteko 109 gazte	Azken urtean sexu-biktimizazioa %12,8
KATALUNIA	Pereda, Abad eta Guilera (2015)	Haur eta gazteentzako 14 osasun mentaleko zentroetako 12-17 urte tarteko 149 nerabe.	%16,1: Mutilen %5,7 eta nesken %21,9 Kontaktu fisikoarekin %11,4 eta gabe %10,1 Azkenengo urtean %7,4 → mutilen %1,9 eta nesken %10,4.
		Gazte justiziako 3 zentro itxi (%77,2) eta 5 ingurune irekiko equipo (%22,8) 14-17 urte tarteko 101 gazte.	Bizitzan zeharreko biktimizazio sexuala %15,8 → mutilen %9,8 eta nesken %42,1 Kontaktu fisikoarekin %7,9 eta gabe %10,9 Azkenengo urtean %6,9 → nesken %21,1 eta mutilen %3,7
KATALUNIA	Segura, Pereda, Abad eta Guilera (2015)	12-17 urte tarteko 18 egoitza- eta harrera-zentroetako 129 gazte.	Bizitzan zeharreko biktimizazio sexuala %29,5 → mutilen %14,1 eta nesken %44,6 Kontaktu fisikoarekin %21,7 eta gabe %15,5 Azkenengo urtean %12,4 → mutilen %6,3 eta nesken %18,5

Iturria: Pereda 2016.

Ikusi denez, haurra zenbat eta zaurgarriagoa izan, orduan eta HKSA jasateko probabilitate handiagoa. Esan bezala, «Bostetik bat» kanpaina askori sinesgaitza egiten bazaio ere, kontuan hartu behar da biztanleria orokorraz ari garela. Datuak estrapolatu ezin badaitezke ere, ikusi da prebalentzia asko igotzen dela gazteen justizia zentro itxietako eta ingurune irekiko taldeetako nesengan (% 42,1), egoitza- eta harrera-zentroetako nesengan (% 44,6) edo desgaitasunen bat duten pertsonengan (Pereda, 2016). Beraz, haur zaurgarriez gain, testuinguru zaurgarriak ere kontuan hartu behar dira.

4.2.2.1. Kolektibo eta testuinguru zaurgarriak

Dibertsitate funtzionala eta sexu-abusuak

Zenbait ikerketaren arabera, dibertsitate funtzionala edo desgaitasun bat duten hurrek abusuak jasateko aukera gehiago dituzte. Zehazki, Save the Children erakundeak (2017) adierazten duenez, desgaitasun bat duten hurrek sexu-abusuak pairatzeko probabilitatea 10 aldiz handiagoa da.

Azpimarratzekoa da adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonekin eginiko ikerketen kopuru txikia (Pereda, 2016), eta sexu-abusua tratatu txar ohikoenetakoa dela adimen-atzeratasuna duten pertsonen artean (Verdugo, Alcedo, Bermejo eta Aguedo, 2002). Egile horiek eginiko berrikuspenetan, agerian gelditu da ikerketa bakanak eta oso partzialak direla, orokortasun txikiko laginekin egindakoak, eta muga metodologiko handiak dituztela (Verdugo *et al.*, 2002).

Hala ere, ondorio garrantzitsu bat izan da adimen-atzeratasuna duten hurrek sexu-abusuak askoz maizago pairatzen dituztela, bereziki 6-11 adin-tartean, eta arriskua nerabezaroan areagotu eta helduarora arte luzatzen dela (Verdugo *et al.*, 2002). Ikerketaren arabera, desgaitasuna duten bi nesketatik batek eta hiru mutiletik batek sexu-abusuak pairatu ditu. Abusuak hainbat testuingurutan gertatzen badira ere, arriskurik handiena egoitzetan eta eremu instituzionalean dago. Esparru horietan, zaintzaileak (% 14-33) edo hurrekin egunero harremanetan dauden pertsonak dira abusatzaileak (Verdugo *et al.*, 2002). Verdugo *et al.*-en (2002) aburuz, kolektibo honen sexualitateari buruzko zenbait uste faltsuk eta jarrera desegokik areagotu egiten dute HKSA pairatzeko arriskua, sexu-hezkuntza formalaren eta informalaren gabezien ondorioz.

Grooming: online jazarpena

Sexu-abusuak gerta daitezke kontaktu fisikoarekin (ukitzeak, masturbazioa, felazioak, sarketa, etab.) edo kontakturik gabe (proposamen sexualak, exhibizionismoa, pornografia ikusaraztea, haurraren aurrean masturbatzea, etab.). Izan ere, exhibizionismoa, haurrak legez kanpoko sexu-jardueretan erabiltzea, etab., sexu-abusuak dira, nahiz eta kontaktu fisikorik ez egon (López *et al.*, 1995; hemen aipatuta: Muela, 2007). Aipatu bezala, exhibizionismoak larritasuna sor dezake haurraren eta, ondorioz, nahasmendu kliniko larriak (Aguilar, 2009). Beraz, kontaktu fisikorik gabeko HKSAri dagokionez, azpimarratu beharreko zenbait datu garrantzitsu daude.

Kontakturik gabeko sexu-abusuak orain arte ezezaguna zen dimentsio bat hartzen ari dira, gaur egungo gizartean Internetek duen presentzia dela-eta. Pulidok eta Flechak (2009), Rimm (1995) aipatuz, adierazten dute pornografia-deskargen % 50 HKSA edukia duten ikus entzu-

nezkoak direla, eta Interpolek 2011n egindako txosten baten arabera, sarean eginiko delituen % 50 HKSA erakusten duten ikus-entzunezko materialen banaketa, hedapena eta salmenta dira (Jiménez, 2012). Ikus-entzunezko materialetan agertzen diren haur gehienak ez dituzte eraso-tzaileek fisikoki behartzen, manipulatzeko baizik, sexu-jardueretan parte har dezaten (Gewirtz-Meydan, Walsh, Wolak eta Finkelhor, 2018; hemen aipatuta: Pascual, 2018). Aipatutako Eusko Jaurlaritzaren txostenean, 2017an, Ertzaintzak eta beste segurtasun-indarrek 42 gertakari erregistratu zituzten EAEn, HKSari loturiko ikus-entzunezko materialekin zerikusia zutenak (lau urte lehenago baino % 121 gehiago), eta 26 arau-hauste penal, ziberkriminalitateari eta HKSari loturiko ikus-entzunezko materialekin zerikusia zutenak (2013an baino % 271,4 gehiago). Guztira, 23 pertsona atxilotu edo ikertu zituzten (guztiak gizonak) hurrekin kontaktatzeagatik teknologia bidez, edo HKSari loturiko ikus-entzunezko materialekin zerikusia zuen ziberkriminalitateagatik (Eusko Jaurlaritza, 2020).

Espanian, 10-15 adin-tarteko gazteen artean, % 92k Internet erabiltzen dute, eta Tuenti, Twitter eta Facebook bezalako sare sozialen erabiltzaile nagusiak dira (INE, 2014; hemen aipatuta: Pinto, Cantón eta Santos, 2019). Pinto, Cantón eta Santos (2019) hainbat ikerketa aipatuz ohartarazten dutenez, gero eta adin txikiagoa duten haurrek gero eta gehiago erabiltzen dituzte IKTak, inolako bereizketarik gabe, eta arriskutsua da hori haien garapen psikosozialerako. Haur eta gazteak arriskuan daude, hainbat arrazoiengatik: besteak beste, eta hainbat ikertzailek emandako datuekin bat eginez (Garmendia, Garitaonandia, Martínez eta Casado, 2011; hemen aipatuta: Montiel, Carbonell eta Salome, 2014), haien etapa ebolutiboari dagozkion faktoreengatik, Internetarako sarbide erraz eta haren erabilera masiboagatik (erabiltzen hasteko adina 9 urte da batez beste), arrisku-jarrerak ez ezagutzeagatik eta IKTen erabileran gurasoek gainbegiratze-lana gabe egiteagatik (erabiltzaileen % 35-61 gurasoek gainbegiratu gabe aritzen dira).

Horrek hainbat abiapuntu eskaintzen dizkigu. Alde batetik, Internet bidez pornografiara heltzeko aukera; izan ere «natibo digitalen» artean, pornografia ikusten hasteko adina 9 urtera jaitsi da, eta 10-12 urterekin mutilen % 25ek pornografia kontsumitzen dute (Ballester eta Gil, 2006).

Bestetik, online jazarpen sexuala edo *grooming*-a zabaltzen ari da. Jazarpen sexualari dagokionez, aztertutako lehen hezkuntzako gazteen % 15,5ek, DBHko % 47,5ek eta batxilergoko % 64k online sexu-jazarpenera pairatu dute (Montiel, 2014). Peredak egindako ikerketek ere (2011, 2012; hemen aipatuta: Montiel, 2014) erakutsi dute nesken % 19,5ek online sexu-jazarpenera pairatu dutela. Datu horiek bat datoz Pulidok eta Flechak (2009) azaldukoarekin. AEBetan egin zen *Internet Safety Survey* (2001) ikerketaren arabera (Pulido eta Flecha, 2009), 5 haurretatik 1ek online sexu-gonbidapena jaso zuen eta ia inork ez zuen salaketarik jarri. 2005ean ikerketa errepikatu zen, eta eskaeren kopuruak behera egin zuela egiaztatu zen: 7 haurretatik 1ek jaso zuen gonbidapena. Hori horrela, ondorioztatu zuten kopuruak behera egin zuela **prebentzio-kanpainei** esker, baina erasotzen jarraitu zutenak oldarkoragoak zirela.

Espanian egindako *Seguridad Infantil y costumbres de los menores en internet* (2002; hemen aipatuta: Pulido eta Flecha, 2009) izeneko ikerketaren barruko inkesta orokorrak, berriz, ondorio deigarri bi utzi zituen: alde batetik, haurren % 44k sexu-jazarpenera pairatu zutela Interneten (neskek azpimarratu zuten gizonezkoen nick edo izenordeak erabili behar zituztela txatetan parte hartzeko, neska gisa agertuz gero jazarpen-mezu ugari eta bortitzak jasotzen zituztelako); bestetik, haurren % 55ek adierazi zuten ez zutela inoiz jaso Interneti buruzko prebentzio-informaziorik. *Grooming*-eskaerei dagokienez, Pulidok dio ezezagunek egiten dituztela oro har,

baina baita biktimaren ezagunek ere. Aurrerago ikusiko den bezala, datuak bat datoz HKSA erasotzaileei buruzko datuekin.

Era berean, gai honi buruzko ikerketek bi datu garrantzitsu azaleratu dituzte: lehenik, on-line sexu-abusuak ohiko HKSAk sortzen dituen ondorio psikologiko berberak eragin ditzakeela, nahiz eta inpaktua ziberespazioaren ezaugarriek ere baldintzatuko duten (hedapenaren abia-dura, biktimizazioen aldiberekotasuna, oihartzuna munduan, etab.). Alderdi hori bereziki garrantzitsua da, eragozpen fisikoak eta mentalak dituzten edo gutxiengo baztertuen partaide diren kolektiboek online jazarpeneko arrisku handiagoa dutelako eta ondoez gehiago pairatzen dutelako horrelako egoeretan (Livingstone *et al.*, 2011; hemen aipatuta: Montiel, 2014). Bigarrenik, erasotzaileak ezezagunak izan badaitezke ere, Montiel, Carbonell eta Salomek (2014) azaltzen duten moduan, kasuen % 80an senideak edo haurren ezagunak dira erasotzaileak, oro har gizonak, eta edozein kultura, jatorri eta adinetakoak, adierazgarria bada ere % 50ek 25 urte baino gutxiago dituztela 2009ko ikerketa baten arabera. Hori horrela, ikertzaileek **familia-
ren eta eskolaren parte hartzea** aldarrikatzen dute haurren konpetentzia digital kritikoa eta arduratsua garatzerako orduan (Pinto, Cantón eta Santos, 2019).

5. Ondorioak

Beraz, askotan haurren kontrako sexu-abusua familia desegituratuetan gertatzen den arazotzat hartzen bada ere, hori ez da inola ere horrela. Horren arrazoi bakarra da babes-zerbitzuak familia horiengana iristen direla eta ez goi-mailakoengana. Intebik (2011) adierazten duenez, bere paziente ia guztiak maila ekonomiko altuko pertsonak dira. Gainera, itxuraz perfektuak diren familietan, abusuaren gaia lantzea are zailagoa da, ingurune sozialak duen garrantziagatik. Oso zabaldua dago ere norberaren familian gertatuko balitz konturatu egingo ginatekeela edo sexu-erasoak ezezagunek egiten dituztela, nahiz eta hori ere, azaldu denez, horrela ez izan. Izan ere, Pilar Polok bere formakuntza-saio guztietan adierazten duen bezala, «**ezezagunek emandako gozokirik ez onartzeko** hezi gaituzte, baina zer gertatzen da gozokia ezagun batek edo, are gehiago, maite dugun pertsona batek eskaintzen digunean?». Summittek (1983) gogoratzen duenez, haur bati eragindako sexu-abusua aitortzea gizabanakoaren borondatearen mende dago erabat, baldintza hori izateko aukera kontuan hartu behar baitu.

6. Erreferentziak⁴

Aguilar, Marta (2009). Abuso sexual en la infancia. *Anales De Derecho*, 27, 210-240.

Anar Fundazioa (2018). *Evolución de la Violencia a la Infancia en España según las Víctimas (2009-2016)*. Anar Fundazioa. Hemendik berreskuratua: https://www.observatoriodelainfancia.es/oia/esp/documentos_ficha.aspx?id=5545

Auzitegi Gorena (2016). *El Tribunal Supremo constata que la proporción de falsos relatos de abuso sexual infantil por parte de las víctimas es muy reducida* (2016ko ekainak 14). Hemendik berreskuratua: <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Noticias-Judiciales/El-TribunalSupremo-constata-que-la-proporcion-de-falsos-relatosde-abuso-sexual-infantil-por-parte-de-las-victimas-es-muy-reducida>

Ballester, Rafael eta Gil, María Dolores (2006). La sexualidad en niños de 9 a 14 años. *Psicotherma*, 18(1), 25-30. Hemendik berreskuratua: <http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=3171>.

4 Emakumeen izenak osorik idatzi ditugu, agerian uzteko emakume ikertzaileen rola. Hori gomendatzen da genero-ikuspegia aplikatzeko orduan.

- Cortés, M.^a Rosario, Cantón, José, eta Cantón-Cortés, David (2011). Naturaleza de los abusos sexuales a menores y consecuencias en la salud mental de las víctimas. *Gaceta Sanitaria*, 25(2), 157-165. Hemendik berreskuratua: http://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pi-d=S0213-91112011000200013
- Echeburúa, Enrique eta Guerricaechevarría, Cristina (2015) *Abuso sexual en la infancia: víctimas y agresores*. Ariel.
- Eusko Jaurlaritz (2020). *Haur eta nerabeenganako indarkeria EAEn. Diagnostikoa, erronkak eta gomendioak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/-/albistea/2020/haur-eta-nerabeenganako-indarkeria-eaen-diagnostikoa-erronkak-eta-gomendioak-2019/>
- Giberti, Eva (1998). Planteo psicológico y aplicación de un pensamiento crítico. In Eva Giberti. (Ed.), *Incesto paterno-filial. Una visión multidisciplinar. Perspectivas históricas, psicológicas, jurídicas y forenses* (19-165 or.). Editorial Universidad.
- Greco, Ana M., Guilera, Georgina eta Pereda, Noemí (2017). School staff members experience and knowledge in the reporting of potential child and youth victimization. *Child Abuse & Neglect*, 72, 22-31. DOI: <https://doi.org/10.1016/j.chiabu.2017.07.004>
- Hammel-Zabin, Amy (2005). *Conversaciones con un pederasta. Manual para prevenir la pedofilia a través del diálogo entre una víctima y un verdugo*. Martínez Roca.
- Intebi, Irene (2007). *Valoración de sospechas de abuso sexual infantil*. Dirección General de Políticas Sociales.
- Intebi, Irene (2011). *Abuso sexual infantil. En las mejores familias*. Granica.
- Interagency Working Group on Sexual Exploitation of Children (2016). *Orientaciones terminológicas para la protección de niñas, niños y adolescentes contra la explotación y el abuso sexuales* [PDF]. Bangkok: ECPAT International. Hemendik berreskuratua: https://www.ohchr.org/Documents/Issues/Children/SR/TerminologyGuidelines_sp.pdf
- Jiménez, Jorge (2012). Tráfico de pornografía infantil: dinámica, roles y prevención. *Gaceta internacional de ciencias forenses*, (5), 33-41. Hemendik berreskuratua: <https://core.ac.uk/download/pdf/71029015.pdf>
- Lamberti, Silvio (1998). Reflexiones sobre la necesidad de incriminación autónoma del incesto. In Eva Giberti. (Ed.), *Incesto paterno-filial. Una visión multidisciplinar. Perspectivas históricas, psicológicas, jurídicas y forenses* (167-223.orr.). Editorial Universidad.
- Lameiras, María, Carrera, María Victoria eta Faílde, José María (2008). Abusos sexuales a menores, estado de la cuestión a nivel nacional e internacional. ICEV. *Revista d'Estudis de la Violencia*, (6), 1-23. Hemendik berreskuratua: https://www.bienestaryproteccioninfantil.es/imagenes/tablaContenidos03SubSec/articulo_Maria%20Lameiras%20sobre%20abusos%20sexuales.pdf
- López, Félix (2015). *Prevención de los abusos sexuales de menores y educación sexual*. Amarú.
- Marco, María Pilar (2018). El abuso sexual infantil. *La ley penal*, (131). Hemendik berreskuratua: https://www.academia.edu/36570378/El_abuso_sexual_infantil
- Márquez-Flores, María Mercedes, Márquez-Hernández, Verónica eta Granados-Gámez, Genoveva (2016). Teachers» Knowledge and Beliefs About Child Sexual Abuse. *Journal of Child Sexual Abuse*, 25, 538-555. DOI: 10.1080/10538712.2016.1189474
- Montiel, Irene (2014). *Victimización juvenil sexual online: Incidencia, características, gravedad y co-ocurrencia con otras formas de victimización electrónica* [Doktorego-tesia]. Universidad de Valencia
- Montiel, Irene, Carbonell, Enrique eta Salom, Miriam (2014). Victimización Infantil Sexual Online: Online Grooming, Ciberabuso y Ciberacoso sexual. María L. Fernández, & Enrique O. Berenguer (Eds.) *Delitos sexuales contra menores. Abordaje psicológico, jurídico y policial* (203-224 or.). Tirant lo Blanch.
- Muela, Alexander (2007). *Hurrei emandako tratatu txarrak: atzematea, jatorria eta ondorioak*. UEU.
- Pascual, Alejandra (2018). Imágenes de abuso sexual infantil en internet. In Ararteko (Ed.) *Haurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua. Giza eskubideei buruzko jardunaldiak bilduma* (106-114. or.). Ararteko.
- Pereda, Noemí eta Forn, María (2007). Prevalencia y características del abuso sexual infantil en estudiantes universitarios españoles. *Child Abuse & Neglect*, 31, 417-426. <https://doi.org/10.1016/j.chiabu.2006.08.010>

- Pereda, Noemí (2010a). El espectro del abuso sexual en la infancia: definición y tipología. *Psicopatol. salud ment*, (16), 69-78. Hemendik berreskuratua: <http://www.fundacioorienta.com/wp-content/uploads/2019/02/Pereda-Noemi-16.pdf>
- Pereda, Noemí, Arch, Mila, Guerra-González, Raquel, Llerena, Gemma, Berta-Aleman, Marta, Saccinto, Elisa eta Gascón, Ester (2012). Conocimientos y creencias sobre abuso sexual infantil en estudiantes universitarios españoles. *Anales de psicología*, 28(2), 524-531 <http://dx.doi.org/10.6018/analesps.28.2.148801>
- Pereda, Noemí, Greco, Ana M., Hombrado, Jaume eta Segura, Anna (2018) ¿Qué factores inciden para romper el silencio de las víctimas de abuso sexual?. *Revista Española de Investigación Criminológica*, 16, 1-27
- Pereda, Noemí (2010b). Actualización de las consecuencias físicas del abuso sexual infantil. *Revista Pediatría de Atención Primaria*, 7(46) 273-285. Hemendik berreskuratua: <http://scielo.isciii.es/pdf/pap/v12n46/revision2.pdf>
- Pereda, Noemí (2016). ¿Uno de cada cinco? Victimización sexual infantil en España. *Papeles del Psicólogo*, 37(2), 126-133. Hemendik berreskuratua: <https://www.redalyc.org/pdf/778/77846055005.pdf>
- Pereda, Noemí, Guilera, Georgina eta Abad, Judith (2014). Victimización infanto-juvenil en España: una revisión sistemática de estudios epidemiológicos. *Papeles de Psicólogo*, 35(1), 66-77. Hemendik berreskuratua: <http://www.papelesdelpsicologo.es/pdf/2323.pdf>
- Pinto, Alba R., Cantón, Isabel eta Santos, Yorly A. (2019). Prácticas de riesgo en Redes Sociales y WhatsApp por estudiantes de educación básica secundaria. *Revista Espacios*, 40(23), 7. Hemendik berreskuratua: <https://buleria.unileon.es/handle/10612/12136>
- Pulido, Cristina eta Flecha, Ramón (2009). Actuaciones globales para la prevención de abusos a menores. *Avances en supervisión educativa*, (11), 1-13. Hemendik berreskuratua: <https://avances.adide.org/index.php/ase/article/view/435>
- Save the Children (2001). *Abuso sexual infantil: manual de formación para profesionales*. Save the Children. Hemendik berreskuratua: https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/manual_abuso_sexual.pdf
- Save the Children (2017). *Ojos que no quieren ver*. Save the Children. Hemendik berreskuratua: <https://www.savethechildren.es/publicaciones/ojos-que-no-quieren-ver>
- Summit, Roland C. (1983). The child sexual abuse accommodation syndrome. *Child Abuse and Neglect*, 7, 177-193.
- Suria, Marta (2019). *Ella soy yo*. España: Círculo de Tiza.
- Verdugo, Miguel Ángel, Alcedo, M.ª Ángeles, B. Bermejo eta Aguado, Antonio L. (2002). El abuso sexual en personas con discapacidad intelectual. *Psicothema*, 14, Supl. Hemendik berreskuratua: <http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=3482>
- Volnovich, Jorge R. (2016). *Abuso sexual en la infancia*. Lumen.

2. GAIA

SEXU-ABUSUA, KAPTAZIO-PROZESU GISA

-
1. Sarrera
 2. Biktimak eta erasotzaileak
 - 2.1. Biktimak
 - 2.2. Erasotzaileak
 3. Arrisku-testuinguruak edota arrisku faktoreak
 - 3.1. Bizikidetzta-unitateko arrisku egoerak
 4. Kaptazio-prozesua
 5. Errebelazioa
 - 5.1. Errebelazioan eragiten duten faktoreak
 - 5.2. Errebelazio baten aurrean zer egin?
 - 5.3. Errebelazioaren aurrean jarraitu beharreko irizpideak
 - 5.4. Errebelazioaren ostean
 6. Sinesgarritasuna
 - 6.1. Hurrek esandako gezur eta fantasiak
 - 6.2. Disoziazioa eta akomodazioa
 - 6.3. «Todo se vuelve comprensible ahora»
 7. Ondorioak
 8. Erreferentziak
-

1. Sarrera

Lehenengo kapituluaren aurreratu dugun bezala, HKSA kasuek, uste baino maizago gertatzeaz gain, indargabetu egiten dute biktimaren eta «ohiko» erasotzailearen profilaren mitoa. Kapitulu honetan, ikusiko dugu indarkeria mota honetan ohikoa eta espezifikoa dela biktimak erasotzailea maitatzea edo erreferentziazko pertsona izatea harentzat, horixe baita erasotzailearen helburua, haurrak maite eta ikusi nahi izatea. Horretarako, haurra eta haurren inguruko pertsonak aztertuko dira, biktima hautatzeko, prozesu metodiko baten bitartez. Hor dazta, beraz, arrisku-faktoreak lantzearen garrantzia.

Kaptazio-prozesuan, biktimak pairatuko dituen ondorioekin harremana duten disoziazio-eta egokitzapen-mekanismoak aktibatuko dira. Mekanismo horiek dira, hein handi batean, «ohiko» biktima batengandik espero ditugun jokabideak ez gertatzearen arrazoa, baita sexu abusuen biktima diren pertsonen sinesgarritasuna kolokan jartzeko funtsa ere. Beraz, haurren testigantza faltsuen mitoari azalpen enpiriko bat emateko, orain arte haurtzaroko fantasiari eta irudimen-gaitasunari buruz dakiguna aztertuko dugu.

Azkenik, kontuan hartu behar da, abusuak kontatu ostean, sinetsia izatearen sententzia haurrak paira ditzakeen ondorioen funtsezko iragarlea dela. Beraz, aitoren hori tratatzeko erak biktimaren etorkizuna baldintzatuko du.

2. Biktimak eta erasotzaileak

2.1. Biktimak

Atal honetan bateratu egingo ditugu aurreko eta hurrengo ataletan zeharka landutako puntu nagusiak, ahalik eta argien zehazteko biktimen ezaugarriak.

Abusotzaileek lehenetsi egiten dituzte pasiboagoak diren, autoestimua txikiagoa duten eta bakarrik sentitzen diren haurrak. Adibidez, tratatu txarrak edo abandonu fisikoa edota emozionala pairatu duten haurrak zaurgarriagoak dira, eta arrisku handiagoa dute HKSA pairatzeko (Lameiras, Carrera eta Faílde, 2008). Azken batean, errazago manipulatu dira, gaitasun txikiagoa dute erasoari aurka egiteko edo aukera gutxiago dituzte gertakizunak kontatzeko eta sinetsiak izateko (Save the Children, 2017). Afekturik sentitzen ez duten haurrak ere zaurgarriagoak dira, eta errazago onartzen eta isiltzen dituzte sexu-abusuak, atentzio eta sarien truke. Izan ere, ohikoa da 3 urtetik gorako biktimek sariak edo dirua jasotzea (Save the Children, 2017).

No obstante, existe un gran número de casos en los que este tipo de conducta no se produce a través de la imposición o del engaño descarado, sino que se llega a un pacto secreto con una forma de presión más sutil (juguetes, regalos, viajes, etcétera, que funcionan como un cebo para los niños), es decir, con el abuso de confianza (Kilpatrick, 1992, Echeburúa eta Guerri-caechevarrían, 2015, 10. or.).

2.2. Erasotzaileak

Adituek adierazten dutenez, ez dago HKSA erasotzaileen profil zehatzik. Are gehiago, ikusiko dugun bezala, erasotzaileen ezaugarriek gezurtatu egiten dute haurren sexu-erasotzaileen inguruan gizartean nagusi den irudia. Summiten bere behaketetan ikusi zuenez (1983), haurren

sexu-erasotzailea gogor lan egiten duen familia-gizona izan ohi da, batez bestekoa baino hezkuntza maila handiagokoa, legalistagoa eta erlijiosoagoa. Sexu-abusatzaileak hainbat jatorritakoak izan daitezke, eta gehienek ez dute sexu-abusu delituengatik kondenarik jaso (Finkelhor, 2009). Alde horretatik, Roger Wolfek, erasotzaileen tratamenterako AEBetako *Northwest Treatment Associates* zentroko profesionalak, adierazi zuen gustura tratatuko lukeela sexu-desbideratze aurrekaririk gabeko intzestu-egile bat lehenengo abusu baten ondoren, hamar urteko esperientzian inoiz ez zuelako halakorik ezagutu (Intebi, 2011).

Era berean, kontuan hartu behar da sexu-abusatzaileak erraztasuna eta esperientzia dituela besteen pertzepzioak, emozioak eta iritziak manipulatzeko, eta, horrenbestez, errealitatea desitxuratzea lortzen duela, komenigarrien zaion moduan (Intebi, 2011). William E. Prendergast ere aditua da sexu-erasotzaileen tratamenduan, eta hogeita hamar urtetik gorako eskarmentua du. Bada, haren hitzei helduta, «neure jardun pribatuan zein erakundeetan ezagutu ditudan abusatzaile gehienak pertsona atseginak ziren: edukazio onekoak, jatorrak, beti laguntzeko prest, portaera onekoak eta oso langileak. Beren esku zegoen guztia egiten zuten atseginak eta onartuak izateko» (Intebi, 2011, 110- 111. or.). Urrak (2015) adierazi bezala, HKSA erasotzaileak ondo portatu ohi dira, bai kalean bai espetxean:

Quando están reclusos, suelen mostrar buena conducta, son cumplidores con la normativa y colaboradores en la actividad diaria. No suelen verbalizar si algún interno o un grupo han intentado lesionarles a causa del delito imputado. En algún caso comentan que no pueden salir solos al patio. Al autor de estas líneas algunos agresores sexuales (de mujeres adultas) le han expresado que el número ha aumentado tanto que el resto de los presos «ya no se atreven con ellos» (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015, 173.or.).

Izan ere, abusatzaileek itxura normala izan ohi dute, helduen bortxatzaileek baino lanbide kualifikatuagoak dituzte, pertsona arruntak edo «normalak» dirudite, adimen maila ertainekoak dira eta ez dute zertan arazo psikotikorik izan (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Echeburúak eta Guerricaechevarriak (2015), helduen eta haurren sexu-erasotzaileak alderatzean, adierazten dute sexuaren inguruko distortsio kognitiboak ohikoak direla erasotzaile mota batean eta bestean. Hala ere, haurren abusatzaileen distortsioak nabarmenagoak eta espezifikoagoak dira. Hori dela-eta, subjektu horiek, batez ere indarkeria fisikorik ez dagoenean, gertatutakoa justifikatzeko eta abusua ukatzeko joera dute.

Los abusadores de niños, al margen de las deficiencias personales y sociales que presentan, son personas mucho más integradas en la sociedad que los violadores. De hecho, no son delinquentes habituales, son menos violentos, no cometen otros delitos y, salvo excepciones, no tienen una carrera delictiva que les haya llevado a prisión. Por ello no figuran en los registros policiales y escapan mucho más fácilmente al control judicial (Garrido, Stangeland eta Redondo, 1999, Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015, 3. or)

Ikerketek adierazten dutenez, abusatzaileen % 90-95 gizonak dira (bereziki biktima emakumea denean), eta % 65-85, biktimaren senideak (Intebi, 2011; Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015; Save the Children, 2017), sexu-abusuaren aurretik biktimarekin konfiantzazko harremana duten pertsonak (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Paul Monesen arabera (Intebi, 2011, 110. or.): «edozein adin-tartetan, sei aldiz handiagoa da emakume baten erasotzailea gizonezko lagun edo senide bat izateko probabilitatea, ezezaguna izatekoa baino».

Familia barruko abusan, erasotzaile nagusia izan ohi da aita edo haren rola betetzen duen pertsona (Intebi, 2011; Save the Children, 2017; ANAR, 2018). Aguilarek bere ikerketan (2008,

225. or.) ondorioztatu duenez, «banandutako aita da erasotzaileen artean gehien errepikatzen den eredu. Horrek lotura zuzen eta positiboa du erasoaren kronikotasun eta larritasunarekin eta, aldi berean, salaketa jartzeko zailtasunak areagotzen ditu».

Hain zuzen ere, familia barruko abusuak dira ohikoenak eta denboran gehien irautes dutenak, aitak, nebak edo aitonak izanik erasotzaileak kasu gehienetan. Horrelako kasuak detektatzen zailak dira, sarketa ez da ohikoa, ez da indarkeria fisikorik edo mehatxurik erabiltzen oro har, eta ondorio kliniko larrienak eragin ohi dituzten erasoak dira (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Are gehiago, abusotzaile horietako asko ez dituzte hurrek sexualki erakartzen, eta ehuneko handi bat ezkontuta dago (% 65-85) (Save the Children, 2017). Javier Urrak (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015) dioenez, intzestuen ezaugarria da itxuraz akatsik gabeko familietan gertatzea, elkarrekiko maitasun-adierazpenak ohikoak diren familietan. Izan ere, abusuen % 83,82 itxuraz harreman harmoniatsuak dituzten familietan gertatzen dira (López, 1995; hemen aipatuta: Save the Children, 2017).

Dirigen sus intereses sexuales preferentemente hacia las niñas de sus familias. Suelen haber tenido relaciones sexuales exitosas con parejas adultas. Se muestran mejor adaptados a la comunidad y resuelven adecuadamente sus problemas cotidianos. El desempeño laboral es satisfactorio, llegando muchos de estos individuos a sobresalir en los negocios o en sus profesiones y a ser considerados ciudadanos modelo. Desde el punto de vista social, logran mantener una fachada intachable (Intebi, 2011, 112. or.).

2.2.1. EMAKUME ABUSATZAILEAK

Emakume erasotzaileei dagokienez, Bajet auzitegi-psikologoak adierazi du emakume bakarra aztertu duela 20 urteko ibilbide profesionalan; Farran lankideak, 3-4 besterik ez (Bajet eta Farran, 2020). Biek ala biek azpimarratzen dute emakume erasotzaileen prebalentzia-tasa baxua dela gizonenarekin alderatuta. Aztertu dituzten kasuen profilar dagokionez, gizon abusotzaileenaren oso bestelakoa dela nabarmentzen dute, emakumeak kolaboratzaileagoak izan ohi direlako eta abusan rol pasibo bat hartzen dutelako, gizonetzkoekin alderatuz gero (Bajet eta Farran, 2020). Aipatutakoari, Echeburúak eta Guerricaechevarriak honako hau gaineratzen diote (2015, 14. or.):

El incesto madre-hijo es mucho menos frecuente y se limita a aquellos casos en los que la madre carece de una relación de pareja, presenta una adicción al alcohol o a las drogas y cuenta con un historial de abusos sexuales en la infancia (Lawson, 1993). No obstante, se ha encontrado un número nada despreciable de mujeres agresoras (13,9 %) (López, 1995)

Hala ere, Rathus, Nevid eta Ficher-Rathus-en ikerketek (2005) adierazten dute emakume erasotzaileen kopurua uste baino handiagoa izan daitekeela (Lameiras, Carrera eta Faílde, 2008). Halaber, Peredak egindako ikerketa baten arabera (2006; hemen aipatuta: Lameiras *et al.*, 2008), erasotzailea emakumea den kasuetan, biktima 12 urtez gorakoa izan ohi da. Lópezek profil hori landu zuen (2014), eta adierazi zuen kasu gehienak onartutako harremanak direla, emakumezko abusotzaileek nerabeekin izandakoak (kasu horiek ere abusua dira). Azkenik, Muelak (2007), bi ikerketatan oinarrituta (Jennings, 1994; Matthews, 1994), ondorioztatu zuen emakumezko erasotzaile asko HKSA biktimak izan zirela haurtzaroan, giro katoliko batean hezitakoak —non ohikoa baitzen tratu txar askotarikoak pairatzea (fisikoak, emozionalak, sexu-abusua)—. Gainera, drogak hartu ohi zituzten eta ez zeukaten harreman sozial egonkorrik.

Bestetik, Michele Elliot adituak (psikologoa eta haurrak babesteko Ingalaterrako «Kidscape» programaren sortzailea eta zuzendaria) gogoeta hau egiten du: «1968an, aitaordearekin gertatzen zitzaiona kontatu zidan neskato batek. Pentsatu nuen kasu bakan bat izango zela. Ez dezagun orain akatsa errepikatu (emakumeek egindako sexu-abusuei buruz ari zen)» (Intebi, 2011, 125. or.).

2.2.2. 18 URTE BAINO GUTXIAGOKO ABUSATZAILEAK

Halaber, deigarri gertatzen da biktimaren antzeko adina duten erasotzaileen kopurua (Pareda, Greco, Hombrado eta Segura, 2018). Izan ere, sexu-abusotzaileen % 11,9 20 urte baino gutxiagoko gazteak dira (Save the Children, 2017), eta % 50ek 16 urte bete aurretik egiten dute lehenengo eraso (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Hainbat herrialdetan egindako azterlanek agerian utzi dute bortxaketen % 20 18 urtetik beherako gazteek egindakoak direla (López, Hernández eta Carpintero, 1995; hemen aipatuta: Muela, 2007). Are gehiago, Irene Intebi adituak dio erasotzaileen % 25-30 18 urte baino gutxiagoko gazteak direla, eta haurren sexu-erasotzaileen % 15, 20 urtetik beherakoak (López *et al.*; hemen aipatuta: 1995, Lameiras *et al.*, 2008). Aditu horrek eranstean duenez, 1982az geroztik AEBetan salatutako bortxaketen % 20-25 18 urtetik beherako gazteek egindakoak ziren, eta horietatik % 23, 14 urtetik beherakoek (Intebi, 2011). Gainera, horrelako abusuak familia barruan gertatutakoak bezain sistematikoak izan ohi dira, eta kasu askotan beren biktimizazioa errepikatzen dute haur edo gazte erasotzaileek (Lameiras, Carrera eta Faílde, 2008).

3. Arrisku-testuinguruak edo arrisku-faktoreak

Haurren kontrako sexu-abusua fenomeno konplexua da. Ezin da desoreka-kontu gisa bakarrik ulertu, eta eredu ekologiko bati erantzuten dio; hau da, arrisku-faktore multzo bati: erasotzailea, haurra, familia eta gizarte-ingurunea (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Gure esku-hartzeak eraginkorrak izango dira baldin eta badakigu zein diren arriskuan dauden haur-taldeak (Intebi, 2011).

Arrisku-egoerez edo -faktoreez hitz egitean, haurrak sexu-abusua pairatzera eraman ditzaketen egoerez edo testuinguruez mintzo gara. Beraz, kontua ez da kausa-efektu erlazio zuzena ezartzea, lotura probabilitistiko hutsa egitea baizik. Haur bat arrisku handiko egoeran egoteak esan nahi du soil-soilik sexu-abusuak jasateko probabilitate handiagoa duela (Finkelhor eta Asdigian, 1996; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

1. Lehenik eta behin, haur guztiek ez dute biktimizazioa pairatzeko probabilitate bera. Erasotzaileek, aipatu den bezala, abusuaren aurka egingo ez duten haurrak aukeratzeko dituzte, eta nekez emango dutenak gertatutakoaren berri. Oro har, ume zaurgarriengana hurbiltzen dira: lotsatiak diren haurrak, edo bakarti eta barnerakoiak (Intebi, 2011). Egoera horretara hainbat arrazoirengatik hel daitezke. Litekeena da, adibidez, zaintzaileen arretarik ez jasotzea eta fisikoki eta emozionalki abandonatuak eta arbuia-tuak sentitzea. Ondorioz, helduek manipulatuak izateko arrisku handia dute, eta afektua, arreta eta sariak eskaintzen dizkiete sexuaren eta sekretuaren truke (Vázquez eta Mezquita, 1995; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Pérez eta Borrásen arabera (1995), familian afektua jasotzen ez duten haurrek plazerra eta goza-

mena senti ditzakete hasieran norbaitek arreta eskaintzen dienean, gerora plazer horrek erru-sentimendu sakon bat sortuko badie ere (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

2. Zaurgarritasuna aspaldiko familia-arazoan ondorio ere izan daiteke, edo haurrak bizi duen egoera bereziki zail baten ondorio, konfiantzazko heldulekurik ez duenean. Adibidez: gurasoetako baten gaixotasuna edo heriotza, dibortzioak, deserrotzea, guraso biologikoen falta, amaren desgaitasuna edo gaixotasuna, edo amak etxetik kanpo lan egitea (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015; Intebi, 2011). Askotan gertatzen da, abusurik egiten ez duen helduak seme-alabarekin harreman ona izan arren, ez ohartzea lehen aipatutako krisi-egoeretan dagoen haurrak bizi duen arazoaz. Eta, hain zuzen ere, aldi baterako urruntze horretaz baliatzen da sexu-abusua egiteko prest dagoen pertsona (Intebi, 2011).
3. Aita menderatzaile-zapaltzailea eta bortitza denean, edo amak tratu txarrak jasan ditue-nean, arrisku handiko familiazat hartzen dira (Arruabarrena, De Paul eta Torres, 1996; Mas, 1995; Vázquez Mezquita, 1995; Cortes eta Cantón, 1997; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).
4. Familia-egoera jakin batzuetan, tratu txarren biktima diren hurrek —edozein motatako tratu txarrak— probabilitate handiagoa dute sexu-abusuen biktima izateko (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015; Intebi, 2011). Helduei dagokienez, deshinibitu eta haurrari tratu txarrak eragiteko urratsa egin dutenean, eta guraso-funtzioak betetzeari uko egin diotenean, tratu txarrak erraz lerra daitezke sexu-esparrura (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).
5. Sexua arrisku-faktore nagusia da, nesken artean sexu-abusua askoz gehiago gertatzen dela kontuan hartzen bada, bereziki familia barruko HKSari buruz ari garenean. Lotura horren arrazoi nagusia izan daiteke erasotzaile gehienak gizonezko heterosexualak direla (Gil, 1997, Vazquez Mezquita eta Calle, 1997; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).
6. Bestetik, adin-tarte arriskutsuenak 6-7 eta 10-12 urte dira (Finkelhor, 1993; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Garapen sexuala nabarmenagoa den garaia da, nahiz eta umeak ume diren oraindik eta, beraz, oso manipulagarriak (López, 1989, Pérez, Conchillo eta Borrás, 1996; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Hala ere, zenbait ikerketak diotenez, abusua uste baino lehenago hasten da, eta, ondorioz, adin-tarte horretatik beherako haurrak ere arrisku-taldetzat har daitezke. Beste faktore bat hizkuntza-gaitasuna da, hurrek gertatu zaiena hitzez adierazteko zailtasunak izan ditzaketelako (Madansky, 1996; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).
7. Abusuaren berri emateko zailtasunei loturik, komeni da kontuan hartzea beste zaurgarritasun-faktore bat: desgaitasun bat duten haurrak, fisikoa nahiz garapenari dagokiona (Madansky, 1996; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015; Intebi, 2011). Kasu horietan, erasotzaileak uste du biktima erraz kontrolatuko duela eta, abusua kontatzera ausartuko balitz, zalantzan jarriko dela haren testigantza egiazkotasuna, hain zuzen ere desgaitasunagatik (Intebi, 2011).

Uno se podría preguntar si al afirmar que el ofensor reconoce y elige víctimas vulnerables, no se le están asignando poderes paranormales, rayanos con la evidencia. De ninguna manera es así. Ya se dijo también en el capítulo sobre los ofensores, que en este punto se entremezclan víctimas y victimarios. Estas personas lo único que hacen es reconocer en los demás los indicadores de vulnerabilidad que conocen a la perfección por haber estado sometidos ellos también a diversas formas de violencia y explotación en sus propias infancias. Conocen, además, los me-

canismos para manipular las inseguridades de estos niños, involucrándolos de manera gradual en las conductas abusivas, generando al mismo tiempo los sentimientos de desprotección y desesperanza que acorralan a las víctimas, hasta hacerles creer que se trata de situaciones irreversibles.

En un estudio en el que se interrogó a 20 abusadores sexuales adultos acerca de la forma en que seleccionaban a sus víctimas, cómo las seducían y sostenían la situación, se obtuvieron los siguientes testimonios: «buscaba alguno que hubiera sido victimizado con anterioridad; alguien tranquilo, retraído, complaciente». «Buscaba al más tranquilo, al más fácil de manipular, el que parecía que no iba a luchar para oponerse, un chico que tolerara las cosas». «Me fijaba en la mirada del chico. Tenía que tener una mirada confiada, expresar que le caías bien. Si un chico desvía la mirada seguramente opondrá resistencia» (Intebi, 2011, 163-164. or).

3.1. Bizikidetzaren unitatearen arrisku-egoerak

Pilar Polo (2020), gaur egungo familia-ereduak aintzat hartuz, bizikidetzaren unitatean gertatutako abusuez mintzo da, ez intzestuaz. Izan ere, nahiz eta odol-loturarik ez izan, lotura afektibo sendoak dituzten bestelako bizikidetzaren ereduak daude gaur egungo familietan.

Halaber, bizikidetzaren unitateetako biktimek sarri harreman gutxi izan ohi dute berdinekin edo beste heldu batzuekin, familia itxiak direlako, eta haur horiek ez dute maitasun disfuntzionala ez den beste maitasunik ezagutzen (Polo, 2020). Maitasun disfuntzionalan, abusua ez da puntualki gertatzen, eta familia-dinamikak markatzen duen harreman-eredua da. Aitaren rola duen abusatzaileak haurrekin duen abusuzko harremanean, ohikoa da aitak seme-alabari esatea egiten ari den hori maite duelako edo aita guztiek egiten dutelako egiten ari dela. Polok hainbat tipologia bereizten ditu aita abusatzaileen artean: gizon gizagaixo edo baliogabea, alboan autoritate handiko ama bat duena; «guay» edo «moderno» den aita, mugak ezartzen ez dituen eta seme-alabekin arauak urratzen dituen; aita kontrolatzailea, indarkeria nagusi den familietan ikus daitekeena. Poloren aburuz, laburbilduz, adi erreparatu behar zaie ezaugarri hauek dituzten guraso-seme/alaba harremani: muga lausoak dituzten familiak, amak babes-eginkizuna bete ezin dezakeen familiak (gaixotasunagatik, adikzioengatik, etab.) eta, batez ere, ardura-harreman asimetrikoa ezarri ordez, laguntasun-harreman guztiz simetrikoaren alde egiten duten aitak (Polo, 2020).

Ukaezina da sexu-abusuak familia-dinamika jakin bat behar duela gerta dadin, baina ezin zaio dinamika horri kausa-faktorea egotzi (Intebi, 2011). Familia-baldintzek aukera eman diezaiekete beren bulkada sexualak horrela asetzeko prest dauden pertsonen. Dena dela, inguruko pertsonen haurren abusuak aktiboki parte hartzen ez badute, Intebik (2011) dio senideen erantzukizuna alderatu egin daitekeela etxe huts batek lapurrei eskaintzen dizkien baldintzekin. Amak arazo fisikoak edo mentalak izatea edo, besterik gabe, amarik ez egotea, aukera ezin hobe da haur bat biktimitatzea erabaki duen pertsonarentzat (Intebi, 2011).

Un punto que pesó fuertemente en la decisión de Nérida de casarse fue la preocupación de Carlos por la nena: la cuidaba, le traía regalos, la llevaba a todos lados. Pensó que, por fin, iba a tener la familia que había soñado.

Con el paso del tiempo, Nérida observó que Julia se distanciaba de ella, que su marido prefería compartir salidas y viajes con la niña antes que con ella. Muchas veces, Carlos llevaba a la chica para que eligiera artefactos para el hogar. Madre e hija hablaban poco. Cuando Julia se volvía agresiva con su madre o Nérida intentaba poner límites, Carlos intercedía a favor de la hija. Proclamaba que era el único que la entendía y podía manejar, insistía en la ineficacia de la

madre para relacionarse con la joven. Con impotencia, Nélide aceptaba estas críticas y se dedicaba a cuidar a los hijos varones y a trabajar. Sin embargo, le llamaba la atención las limitaciones exageradas que Carlos imponía a Julia en sus salidas y en sus amistades. Aceptó la explicación del marido en cuanto a que «vivimos tiempos difíciles» y a que «no se sabe con quién se puede topar en la calle».

Un viernes a la tarde (...) la sorpresa le esperaba en su casa: Julia tenía un tremendo moratón en la cara, que le tomaba el ojo izquierdo y la nariz. (...) Cuando la vio, Nélide preguntó qué había pasado. Sin dar tiempo a nada, Carlos comenzó a justificarse. Ahí fue que, absolutamente fuera de sí, la hija lo enfrenta: «Me cogés desde los 9 años y ¿no me dejás salir para que no pase nada malo?» (Intebi, 2011, 49. or.)

Aurreko adibidean ikus daitekeenez, ama alabarengandik afektiboki aldenduta dago, abusatzaileak urruntze horretan aktiboki parte hartzen badu ere: Nélide kritikatu, alabarekin komunikatzeko saiakerak oztopatu, ama berataz arduratzen ez zelako eta bikotearen borroken erantzule egiten zuelako ustea sustatuz Juliarengan (Intebi, 2011).

4. Kaptazio-prozesua

A menudo me han preguntado: «¿Cómo es posible embaucar a un niño hasta el punto de que no solo acceda a soportar perversiones sexuales, sino que continúe permitiéndolas durante un periodo de tiempo prolongado?». Llegué a comprender que las personas normales se figuran que los abusos son incidentes y actos aislados en vez de ser un proceso continuo y constante de comienzo a fin. (...) Pero el objetivo nunca se limitaba al sometimiento sexual. Lo que hice fue orquestar un *crescendo* de sumisión de la víctima que llevaba al movimiento final que les tenía preparado. Y en este *crescendo*, cada nota sucesiva tenía una importancia crítica por ella misma y también por lo que aportaba a la dinámica global de la pieza completa (Hammel-Zabin, 2005, 132-133. or.).

Abusuzko jokabideei dagokienez, Intebik (2011) adierazten du abusatzaileek hasieran oso kasu gutxitan erabiltzen dutela indarkeria fisikoa edo saiatzen direla sarketara iristen. Aitzitik, ahalegintzen dira maitasun bila dabiltzan haur bakartien konfiantza eta afektua irabazten. Denborak aurrera egin ahala, sexu-hurbilketak errepikatuz eta pixkanaka larriagotuz doaz, hasi harreman ez oso intimoetatik guztiz sexualak diren harremanetara iritsi arte (Intebi, 2011). Hainbat egile bat datoz erasotzaile ez-biolentoek erabiltzen dituzten tekniken deskribapenean:

El perpetrador procura establecer una relación firme que incluya la actividad sexual pero que no se limite a ella. Es así que primero establece una relación no sexualizada desde una postura de familiaridad con la niña, a la que gradualmente adoctrina para involucrarla en los acercamientos sexuales, que se complejizan con el tiempo (Intebi, 2011, 167.or.).

Erasotzaileek estrategia guztiz desberdinak eta aurreikusten zailak diren teknikak erabiltzen badituzte ere (López eta del Campo, 2002), Suzanne Sgroik bost fase dituen eredu bat proposatzen du helduen eta haurren arteko sexu-hurbilketen dinamikarako (Intebi, 2011, 166-167. or):

1. Atzemate-/erakartze-fasea.
2. Elkarrekintza sexualaren fasea.
3. Sekretuaren fasea.
4. Sekretua agerian uzteko fasea.
5. Ezabatze-fasea.

Lehen etaparen —atzematea— ezaugarria da haurrarekin lotura bat sortzea, zaintza- eta babes-funtzio batetik abiatuta oro har, eta, ondoren, jokabide sexualizatuak eragitea neskarengan.

Ohikoa da helduaren eta haurraren arteko lehen hurbilketak adierazpen jostagarri gisa interpretatzea, agian gehiegizko erakustaldi afektibo gisa, askotan anbiguoak, susmorik sortzen ez dutenak (Intebi, 2011). Intebiren ustez (2011), erasotzailearen portaera hori hainbat modutan interpreta daiteke. Alde batetik, umeenganako bulkada sexualak kontrolatzeko saiakerak izan daitezke, abusatzaileak bere burua engainatzen badu ere, bulkada horiek partzialki asebetetz abusu-egoera larriagoak saihestu ahal izango dituelakoan. Haurraren erantzuna neurtzeko estrategia bat ere izan daiteke: gertatutakoa kontatzen badu, helduak susmoak erraz uxa ditzake, haurrak gertatutakoa gaizki interpretatu duela argudiatuta. Kontatzen ez badu, sexu-hurbilketetan aurrera egin ahal izango du, beldurrik gabe.

A través de las conversaciones surgidas a raíz de esta letra, llegué a comprender que los pederastas manipulan a sus víctimas para entablar abusos sexuales crónicos. Alan describió la manipulación de sus víctimas. Primero conseguía que el niño deseara ser objeto de su atención y luego le hacía sentir que realmente necesitaba a Alan en su vida (Hammel-Zabin, 2006, 22. or.).

Izan ere, abusatzaileak seguru egon behar du haurrak pauso bakoitza onartzen duela (Intebi, 2011). Gainera, ez da ahaztu behar hasieran biktimak ez duela heldua mesfidantzaz ikusten edo, egoeraren zehaztugabetasuna dela-eta, ez duela protesta-zantzurik adierazten. Ohikoa da abusatzailea haurrarekin kilima-jolasean hastea eta, nahigabe arituko balitz bezala, azkenean kilimak bularretara edo genitaleara lerratzea; edo, bainuaren orduan, biktima garbitzearen aitzakiaz, bularrak eta genitalak xaboitzea eta ukitzea (Intebi, 2011).

A medida que profundizamos nuestros conocimientos sobre cómo son captados los niños, se diluye la creencia de que los ofensores son personas inexpertas y torpes. Por el contrario, suelen ser suficientemente calculadores y pacientes, además de desplegar conductas bastante sofisticadas para lograr sus objetivos. Hay investigadores que señalan que los acercamientos sexuales solo ocurren después de que el ofensor se toma un tiempo prudencial para manipular al niño hacia una relación abusiva. Durante el proceso de «seducción», el adulto aprende qué cosas le gustan al niño y qué no, conoce sus preocupaciones y temores y utiliza esta información para inducirlo hacia el contacto sexual. También estos datos le resultan útiles para coaccionar o amenazar a la víctima cuando el adulto desea perpetuar la situación ya iniciada (Intebi, 2011, 166. or.).

Haurrek nahasmen handia izaten dute, zer gertatzen ari zaien eta zergatik deskodetu eta ulertu nahian. Zergatik galdetzen dutenean, abusatzaileak bere helburuak lortzeko erabiltzen dituen argudioak sinistera iritsi daitezke: «Niretzat oso pertsona berezia zarela egiten dut», «Zenbat maite zaitudan erakusteko modu bat da», «Etxe honetan, zuk bakarrik ulertzen nauzu», «Nire printzesa txikia zara». Nahasmenak erruari eta lotsari bide ematen dien puntu horretatik pauso bakarra dago biktimak sexu-abusuen erantzukizuna bere gain hartzera (Intebi, 2011).

¿Cómo puede un niño que está siendo víctima de abusos sexuales por parte de una persona que a la vez le cuida, le da afecto, le hace regalos por su cumpleaños y lo lleva a ver las luces de navidad, gestionar la confusión que estos sentimientos ambivalentes le generan? ¿Cómo puede hacer frente a lo que está ocurriendo cuando depende, no solo a nivel físico sino emocionalmente, de esa persona? (Pereda, 2019)

Izan ere, abusatzaileak oso trebeak dira besteen sentimenduak manipulatzeko. Gai dira haurren estuan jartzeko hainbat arrazoi medio afektibitate-gabeziaren bat duten haurrekin eta, tratu atsegina eta maitekor baten bitartez, lortzen dute biktimak erakartzea eta irrikan egotea haiekin egoteko (Intebi, 2011).

Cada vez era más experto. Me había dado cuenta de que había ciertos tipos de niños mucho más susceptibles de convertirse en víctimas que otros y empecé a buscar a los que presentaban ciertas características. Aprendí lo que bien pudo haber sido la lección más importante para convertirme en un ave de presa manipuladora: aprendí a escuchar.

Escuchando a un niño, compartiendo secretos y alentándole a hablar de todo lo que se le pasaba por la cabeza, acababa queriendo pasar tiempo conmigo y, sin saberlo, me proporcionaba todo lo que necesitaba saber sobre su vulnerabilidad personal para convertirlo en víctima. Descubrí que a la mayoría de las personas les gusta hablar de ellas mismas si se les brinda la oportunidad y que, una vez convencidas de que pueden confiar en ti, se sientan y te lo cuentan absolutamente todo sobre ellas y su familia. Creo que lo que tuve claro desde los 11 o 12 años era que en realidad esos niños sentían que nadie les escuchaba (Hammel-Zabin, 2006, 141-142. or.)

Félix López peritua izan zen Casa Pía kasuan, umezurtz-egoitza batean gertatutako bortxaketa eta abusu sistematikoei buruzkoa. Kasua argitara atera zen biktima batek izebari ia nahi gabe kontatu ziolako gertatutakoa. Biktimek, lehenbiziko elkarrizketetan, erasotzaileen irudi positiboa eman zuten oro har, eta abegitsuak eta maitekorrak zirela esan zuten. Izan ere, biktimek ez dute beti begi txarrez ikusten erasotzailea. Lópezen (2014) ustez, horrek aukera ematen du horrelako gertakarien aurrean izaten den isiltasuna eta permisibitatea ulertzeko, ez ordea zurrizko.

Ikerketa batean, sexu-abusuagatik zigortutako 72 presori galdetu zitzaizkien nola hautatzen zituzten haurrak. Abusatzaileek erantzun zuten nahiago zituztela haur lasaiak, pasiboak, gatazkatsuak edo bakartiak, etxe gatazkatsuetakoak. Biktimak inguru hurbilean aukeratzen zituztela adierazi zuten, eta gehienak ezagunak edo konfiantzazko pertsonak zirela. «Kanpamentuan nituen funtzioak eta kirol-entrenatzaile ardura erabili nituen hurrengana oztoporik gabe hurbiltzeko», edo «lagunaren umeez abusatu nuen, lehenik haien konfiantza irabazi eta horrek nire etxera ekartzeko aukera eman zidalako», adierazi zuten, besteak beste (Budin eta Johnson, 1989; hemen aipatua: Intebi, 2011, 165-166. or.).

Suzanne Sgroik azpimarratzen duenez (Intebi, 2011), helburua lortzeko bidea burutsua eta sotila izan ohi da, beti kutsu hertsatzaile bat duen arren; adibidez, proposatutako jarduera edo jolasa dibertigarri edo «berezi» gisa aurkeztea, edo parte hartzeagatik sariak eskaintzea. Trikimailu horiek emaitzarik ematen ez dutenean, erasotzaileak indarra edo mehatxuak erabili ditzake.

Intebik (2011) aipatutako ikerketan, lagun egitea, jolasak partekatzea edo dirua, jostailuak, garagardoa, zigarroak edo drogak oparitzea izan ziren, besteak beste, biktimen konfiantza irabazteko erabili ziren bideak. Beste teknika batzuk izan ziren: biktimari lehentasunezko tratua ematea, abandonatzearekin mehatxatzea, parte hartzen ez bazuen kalte fisikoa eragitea eta haurrak sexu-gaietan zuen jakin-nahia aprobeztatzea (Intebi, 2011).

Adituek honako ideia hauek ere aipatzen dituzte kaptazio-prozesuaz mintzo direnean (López, 1995; hemen aipatua: Muela, 2007; López, 2002):

Familiaren konfiantzaz edo hezitzaile edota begirale baten laguntasun edo aginte-harremaz baliatzea. Ondorioz, gerta liteke haurra berandu konturatzea gertatzen ari denaz eta uste-kabeaz harrapatzea. Haurrak ez du espero heldu batek horrelakorik egingo dionik eta, beraz, ez du ulertzen. Lópezek (1995) dio ezezagunek ere konfiantza erabiltzen dutela.

Haurren konfiantza lortzea, aurretik konfiantzarik ez bazegoen: harekin jolastuz, lagun eginez, etab.

Egoera nahasietatik etekina ateratzea edo esanahi bikoitzeko portaerak erabiltzea. Izaera sexualik gabeko laztanak eginez has daitezke.

Iruzurra erabiltzea, hainbat esanahi eta motibazioekin: informazioa ematea, bizitzako zenbait gauza erakustea, etab.

Sari/konpentsazio/opariak edo pribilegioak erabiltzea, eta zigorrak, haurrak ez badu men egiten.

Mehatxu edo estrategia hertsagarriak erabiltzea abusua gauzatzeko edo hura ezkutatzeko, bereziki abusua denboran errepikatzen denean. Ohikoa da erasotzaileek biktimia mehatxatzea -zuzenean edo zeharka-, gurasoek jakinez gero zigortu egingo dutela esanez.

Mehatxu fisikoa batez ere ezezagunek erabiltzen dute, bortizkeria fisikoa ez delako ohikoa.

Se debe recordar a los adultos que la acción o el gesto sin palabras de un padre es una fuerza absolutamente convincente para un niño dependiente y la amenaza de pérdida del amor o la pérdida de la seguridad familiar es más aterradora para el niño que cualquier amenaza de violencia (Summit, 1983, 8. or.).

Barudyk (1998, Muelan, 2007) dio intzestu-kasuetan koittoa abusuaren fase oso aurreratu batean gertatzen dela. Zentzu horretan, Echeburúa eta Guerricaechevarría (Echeburúa *et al.*, 1995; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015) adierazten dute intzestua honela gertatzen dela oro har: lehen urratsa laztanak izan ohi dira; gero, masturbazioa eta kontaktu aho-genitala; azkenik, kasu batzuetan bakarrik, bagina-koittoa (haurra pubertarora iristen denean). Erraz identifikatzeko moduko arrastorik ez dagoenez, sexu-abusuak zigor gabe gera daitezke.

Hortaz, argi dago zergatik den hain ohikoa, biktimaren adina edozein izanik ere, haurrak abusua behin bakarrik gertatu dela adieraztea, «benetako» egoera deskubritzearen beldurragatik eta lotsagatik (Intebi, 2011). Izan ere, barneratuta dute erasotzailea beren «laguna» dela eta, beraz, biek erantzukizun bera dutela gertatutakoan; haurrak pertsona horren konpainia nahi zuen, haren opariak onartzen zituen eta ez zion aurre egiten (Intebi, 2011). Intebik dioenez (2011), abusuak noiz hasi diren jakiteko, kontaktu motaren deskribapenari erreparatu behar zaio. Adibidez, ukituak bakarrik aipatzen badira, duela gutxiko abusu edo gertaera bat izan daiteke. Aldiz, masturbazioa, aho-sexua edo sarketa aipatzen badira, prozesu kroniko bat izan daiteke, sei hilabete eta urtebete artean iraun duena (Intebi, 2011).

Ez da ahaztu behar abusotzaile batek biktimari ukituak egiten dizkionean, nahita estimulatu dituela gorputzeko atal erogenoak, erraz kitzikatzen direnak, sentikortasunarekin lotutako nerbio-hartzaile kopuru handiagatik. Hain zuzen, haien eginkizuna da erantzun fisiologikoa prestatzea, kopula ahalbidetzeko (Intebi, 2011). Biktimek atsegingarri gisa gogoratzen dute es-

timulazio sexualaren erantzun fisiologikoa, eta erru-sentimendua sortzen die horrek, harreman sexual aske, osasuntsu eta atsegingarriaren kontzeptuak edozein gizakiren estimulazio sexualan espero daitekeen erantzun fisiologikoarekin nahasten dituztenean. Abusuaren gaia lantzean, oso kontuan hartu behar da abusatzaileak abusuaren erantzukizuna biktimari egozteko duen modua.

Haurren ongizate emozionalerako eta sekretua argitzeko, funtsezkoa da biktimarengana konfiantza-giro batean hurbildu diren helduek zalantzan jartzea biktima errudun sentiarazteko erasotzaileak erabili dituen estrategiak. Helduak arretaz aztertu behar ditu haurraren kontaktuzunaren xehetasunak, erasotzailearekiko lotura nola sortu zen eta biktimaren isiltasuna zer mekanismoren bidez lortu zen jakiteko (Intebi, 2011).



Bideo: [La revolución fluorescente.](#)

5. Errebelazio

Errebelazio ez da gertaera bakantzat hartu behar eta prozesu konplexu baten baitan kokatzen da. Familia-, gizarte- eta kultura-jokabideek eragin garrantzitsua dute prozesu horretan (Pereda *et al.*, 2018). Izan ere, abusuaren berri ez emateko faktoreen artean, faktore pertsonalak eta erreakzio sozialari loturikoak daude (azken horien artean, profesionalen erantzun desegokia ere egon daiteke) (Pereda *et al.*, 2018). Peredaren ikerketan, biktima helduen erdiek adierazten dute erasotzailearekiko mendekotasun emozionala dutela oraindik, «gaur arte» iraun duela (Pereda *et al.*, 2018), eta biktimak abusatzailea traizionatzen ari dela senti dezake, bereziki aita denean (Pereda *et al.*, 2018).

La revelación del abuso sexual, tal y como se ha constatado en estudios previos (Smyth, Pennebaker, & Arigo, 2012), es fundamental para su superación. Se trata de una variable que modula las percepciones y sentimientos de la víctima, influyendo en el tipo, intensidad y evolución de la sintomatología que suele desarrollar (Ullman, 2002). La revelación del suceso y la expresión de las emociones protege la salud física y mental del individuo frente a una experiencia traumática (Smyth *et al.*, 2012) y no revelarlo aumenta el riesgo de consecuencias negativas a largo plazo. A nivel terapéutico, recordar y verbalizar el suceso, enfrentarlo en un ambiente

de seguridad y apoyo, ayuda a transformar las imágenes fragmentadas y caóticas del trauma, mantenidas en la memoria emocional, en recuerdos ordenados en la memoria verbal. La víctima necesita describir la experiencia de abuso y los sentimientos asociados para reformular las distorsiones vinculadas a ella misma (sentimiento de culpa, autoconcepto negativo), a los demás (desconfianza generalizada) y al futuro (desesperanza). Ha de dejar atrás la victimización (Baca, 2003) y resignificar la experiencia para darle un nuevo lugar en su identidad y vida actuales. Para ello, en muchos casos, revelar e interponer una denuncia es el inicio de una nueva vida (Pereda, Gómez-Martín, Greco, Hombrado eta Segura, 2018, 3. or.).

Abusua agerian gelditu ohi da hasten denetik denbora luzea igaro denean (hilabeteak edo urteak) (Vázquez Mezquita eta Calle, 1997; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Sorensen eta Snowren arabera (1991; hemen aipatuta: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015), haur biktimaren aitorten-prozesua lau fase progresibotatik igarotzen da:

- a) Ukazio-fasea.
- b) Aitorten-fasea: hasieran, onarpen lauso edo partzial baten bidez; amaieran, abusuzko sexu-jarduera esplizituki onartuz.
- c) Atzera-egitea: haurrak gertatutakoa uka dezake, familia-presioagatik edo aitortenak sortutako egoeragatik.
- d) Berreste-fasea: denbora tarte bat igarota, haurra abusuari buruzko lehenengo baieztapenera itzultzen da. Hala ere, prozesu hau guztia, maiz gertatzen bada ere, orientagarria baino ez da, eta ez da kasu guztietan gertatzen.

5.1. Errebelazioan eragiten duten faktoreak

Townsendek dioenez (2016), abusuaren prebentzioan edo esku-hartzean aritzen diren profesionalentzat, funtsezkoa da sakon ezagutzea errebelazioan eragiten duten faktoreak, errebelazioa sustatzen duten baldintzak barne. Horrek prebentzioaren eta esku-hartzearen oinarri izan beharko luke eta bitartekoen eta baliabide materialen garapena gidatu beharko luke. Biktimen errebelazio laguntzen duten edo profesionalek edo haurraren ingurukoek errebelazioa sustatzeko aukera ematen duten praktikek, berehalako esku-hartzea ahalbidetzeaz gain, etengabeko abusua saihestuko lukete (Townsend, 2016). Hala ere, egileak aipatzen du ezin dela zehaztu azken urteetan errebelazio-tasak aldatu diren ala ez. Antza, eskura ditugun datuek ez dute errebelazio-tasetan aldaketa garrantzitsurik adierazten 1990az geroztik.

Kontuan hartu behar da, alde batetik, askotan errebelazio-saiakerak zeharka egiten direla jokabidez edo ahoz (Katz *et al.*, 2012), modu inkrementalean (London *et al.*, 2008) eta gerta daitekeela historian atzera egitea edo historiak berak funtsik ez izatea (Lyon eta Ahern, 2011; hemen aipatuta: Townsend, 2016). Ikerketa batean ikusi zen 8 eta 15 urte bitarteko haurrek informazio partziala baino ez zutela eman, harik eta kanpo-ebidentzia bati aurre egin behar izan zioten arte; ebidentzia horrek aitorten osatuagoak ekarri zituen (Elliott eta Briere, 1994; hemen aipatuta: Townsend, 2016). Hala ere, abusua gertatu dela berresten duten frogak daudenean ere —ebidentzia medikoa (Lyon, 2007), abusatzailearen aitortpena edo bideo-grabaketak/ lekukoak (Sjoberg eta Lindblad, 2002)—, haurren % 43k ez dute abusuaren berri eman nahi izan (Townsend, 2016).

Bestetik, haurrak gizaki solidarioenak direla esan ohi da. Izan ere, aipatzekoa da hurbileko harremanek funtzio inhibitzailea izan dezaketela errebelazioan (Townsend, 2016), Priebek eta Svedinek (2008) gazteei buruz egindako azterlanak agerian uzten badu ere gurasoekiko lotura

errebelazio-iragarle esanguratsuena dela gazteentzat edo errebelazio-probabilitatea handitu egiten dela zaintzaile nagusi batek laguntza edo sostengua ematen duenean (Lippert *et al.*, 2009) edo gizarte-babesa jasotzen denean (Bottoms *et al.*, 2007).

Townsendek (2016) adierazten duenez, hainbat ikerketaren arabera, ez errebelatzeko arrazoi nagusiak dira besteengan izan ditzakeen ondorioei buruzko kezka (McElvaney, 2008), lotsa, familiar arazoak sortzeko beldurra (Crisma *et al.*, 2004) edo beldurra gurasoen erreakzioari berari (Hershkowitz *et al.*, 2007). Bestalde, beste ikerketa baten arabera, errebelatzeko arrazoia beste haur batzuekiko kezka da (McElvaney, 2014). Beraz, abusatzailea senidea denean, errebelatzeko probabilitatea txikiagoa da, eta errebelazioa atzeratzeko probabilitatea, handiagoa (Smith *et al.*, 2000; Goodman-Brown *et al.*, 2003; Kogan, 2004; Lyon *et al.*, 2010; hemen aipatuta: Townsend, 2016). Era berean, biktimek joera handiagoa dute beren kontakizunean atzera egiteko edo garrantzia kentzeko, abusua familia ingurutik etorri denean; bereziki, senide batengandik (Lyon eta Ahern, 2011; hemen aipatuta: Townsend, 2016).

Ikerketek adierazten dutenez, abusua pairatzen den adina edozein izanda ere, nerabezaroa «aro kritikoa» da errebelazioa gerta dadin (Townsend, 2016). Polok (2020) adierazten duenez, ustekabeko edo halabeharrezko errebelazioa haur txikiengan bakarrik gertatzen da, biktimak abusua jolas gisa bizi duenean, konnotazio sexuala ulertu gabe. Aldiz, nerabezaroan edo nerabezaroaurrean, gaztea ohartzen da gertatutakoaren esanahiaz. Ondorioz, haurtzaroan ez da abusuaren berri ematen abusu gisa identifikatzen ez delako; nerabezaroan, berriz, abusua dela badakitelako.

Durante los primeros años de vida, la víctima acepta los contactos con el adulto como si fueran un juego, creyendo que ocurren en todas las familias. Cuando ingresa a la escuela, comienza a darse cuenta no solo de que tales actitudes no son habituales, sino que son mal vistas por la mayoría de los adultos y los niños que los rodean (Intebi, 2011, 41. or).

McElvaney (2008) eta Ungar *et al.*ek (2009b) adierazgarritzat dute ikaskideen eragina nerabeen errebelazioan, eta erabatekoa da abusua aitortzen duten haur gehienek lagun edo kide bati kontatzen diotela adierazten duen ebidentzia (Townsend, 2016). Ohikoa da lagunei eta ki-deei jakinaraztea, gurasoei, profesionalei edo agintariei kontatu beharrean (Crisma *et al.*, 2004; Kogan, 2004; Priebe eta Svedin, 2008; Ungar *et al.*, 2009; Schaeffer *et al.*, 2011; Schönbucher *et al.*, 2012; Cossar *et al.*, 2013; Malloy *et al.*, 2013; McElvaney *et al.*, 2014).

Broman-Fulks *et al.*ek, (2007) diote errebelazioen % 40 lagun artean egiten direla, eta Priebe eta Svedinen (2008) ikerketako parte-hartzaileen % 80,5ek adierazten dutenez, «nire adinoko lagun bati bakarrik kontatu nion». Schaeffer *et al.*en ikerketan ere (2011), elkarrizketatuen % 48,3k lagun bati kontatu zioten lehenik. Azterlan horiek agerian uzten dute berdinen arteko harremanek errebelazioan duten garrantzia, bereziki nerabeen kasuan (Crisma *et al.*, 2004; Kogan, 2004; Priebe eta Svedin, 2008; Ungar *et al.*, 2009; Schaeffer *et al.*, 2011; Schönbucher *et al.*, 2012; Cossar *et al.*, 2013; Malloy *et al.*, 2013; hemen aipatuta: Townsend, 2016). Ikerketa horiek adierazten dute garrantzitsua dela errebelazio horien dinamika ulertzea, berdinen arteko errebelazioa sustatuko duten estrategiak garatzeko.

Brennan eta McElvaneyek (2020) 20 urteko ikerketak biltzen dituen metanalisi kualitatiboan adierazten dutenez, errebelazioan funtsezkoak dira konfiantzazko norbait alboan izatea, gertatutakoa normala ez dela konturatzea, larritasun emozionala kudeatu ezin izatea, zeozer egin nahi izatea, kontatutakoa sinetsiko dutela espero izatea eta galdetzea (Brennan eta McElvaney, 2020).

Ungar *et al.* entzat (2009a), aldiz, honako hauek dira errebelaziorako baldintza egokienak: zuzenean abusu- esperientziei buruz galdetzea; behar bezala entzun, sinistu eta erantzungo duen norbait alboan edukitzea; abusua zer den eta laguntza nola eskuratu jakitea; errebelazio-prozesua kontrolatzen dela sentitzea, anonimotasunari (nork bere burua ez identifikatzea horretarako prest egon arte) nahiz konfidentziasunari (nork dakien kontrolatzeko eskubidea) dagokionez; eta testuinguru formal eta informaletan helduen erantzun eraginkorrak izatea. Azken horri lotuta, kontuan hartu behar da haurrek testigantza osatuago bat ematen dutela testuinguru informaletan. Bost eta hamar urte bitarteko haurrei buruzko ikerketa batean, DeVoe eta Faller (1999; hemen aipatuta: Townsend, 2016) ohartu ziren haurrek informazio zehatzagoa ematen zutela egoera informaletan elkarriketa formaletan baino.

Deigarria da, halaber, ikerketa-azterlanen arabera, haurraren hezkuntza- eta gizarte-ingurunean, hezitzaileen, lagunene edo beste pertsona batzuen galderek errebelazio-proporzio esanguratsuak eragin ditzaketela (Jensen *et al.*, 2005; Hershkowitz *et al.*, 2007; McElvaney *et al.*, 2012; hemen aipatuta: Townsend, 2016). McElvaney (2008) dio galderek ez dutela zertan sexu-abusuz *per se* izan, gaztearen larritasun psikologikoaz eta ongizateaz baizik. Ikerketak frogatu zuen galderek kanpoko presio baten eginkizuna izan zutela, gazteek beren sekretua kontu zezaten (McElvaney *et al.*, 2012; hemen aipatuta: Townsend, 2016).

Zentzu horretan, aipatzekoa da ikerketetan parte hartu zuten biktimen % 20k gutxienez lehen aldiz kontatu zutela abusua (Hébert *et al.*, 2009; hemen aipatuta: Townsend, 2016). Ungar *et al.*-en ikerketa batean (2008; hemen aipatuta: Townsend, 2016), beren burua haur-abusuen biktimatzat jo zuten 14-15 urteko 1.099 gazte kanadarren artean, % 77,8k ez zien lehenago ezer esan gurasoei, lagunei edo agintariei. Horrek iradokitzen du biktima batzuk erosoago sentitzen direla ikerketa batean abusu-gertakarien berri ematean, lagunei, gurasoei edo agintariei kontatzeari baino.

5.2. Zer egin errebelazio baten aurrean?

Intebik (2011) azpimarratzen duenez, sekretuaren errebelazioaren lekuko den pertsonak entzungor egiten badu eta ez badu ezer egiten, umeak ez du ezer kontatuko hurrengo hila-beteetan edo urteetan: abusu-egileari nahi duena egiten utziko dio, eta etsipenean eroriko da. Haurrak behin bakarrik hitz egiten duela dioen premisatik abiatzen bagara, aurrez aurre duen pertsonaren erreakzioak haren etorkizuna baldintzatuko du. Beraz, haurrekin lan egiten duen edozein profesionalak errebelaziorako prest egon behar du. Errebelazioaren uneari dagokionez, hainbat egilek (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015; Intebi, 2011) azpimarratzen dute sinetsiak izatearen sentsazioa dela biktimen normaltasunerantz egiten duten bidearen bilakaera aurreikusteko mekanismorik onenetako bat (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2000).

La aceptación y la validación son cruciales para la supervivencia psicológica de la víctima. Un niño abusado sexualmente por un padre u otro hombre en el papel de padre y rechazado por la madre queda psicológicamente huérfano y casi indefenso ante múltiples consecuencias dañinas (Summit, 1983, 2. or.).

Senideek gertatutakoa ukatzen dutenean, ukapen horren jatorria haien erru-sentimendu sakonean dago. Oinazea eta trauma sentitzen dituzte, haurraren babesean huts egin dutelako eta haren garapen emozionalarekin kezkatuta daudelako. Gainera, gertatutakoa onartzeak abusatzailearengandik urruntzea eta talka sozioemozionalak eragiten ditu, erasotzailea bikote-

kide, familiakide edo lagun mina izaten baita askotan. Biktimarekin eginiko esku-hartzean bezala, garrantzitsua da ukapena aurre-egite estrategia gisa azal dezaketen ideiak identifikatzea eta abusua onartzea dakarten beste batzuen bidez ordezkatzea (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

El profesional de la salud mental ocupa un papel fundamental en la crisis de la divulgación. Dado que los eventos representados por el niño o la niña son tan a menudo percibidos como increíbles, los cuidadores escépticos se dirigen a los expertos para que los aclaren. En la práctica actual no es inusual que la evaluación clínica estigmatice a las víctimas legítimas como confusas o maliciosas. A menudo una evaluación respaldará las reclamaciones del niño y convencerá a los fiscales de que la acción penal es apropiada, mientras que una evaluación de adversario certificará la normalidad del acusado y convencerá a un juez o jurado de que el niño mintió. En un delito en el que no suele haber un tercer testigo ocular ni pruebas físicas, el veredicto, la validación de la percepción de la realidad del niño, la aceptación por parte de los adultos que lo cuidan e incluso la supervivencia emocional del niño pueden depender de los conocimientos y la habilidad del defensor médico.

Todo profesional sanitario debe ser capaz de comprender y defender la posición de los menores en la falta de credibilidad ante los adultos. Si no tiene en cuenta la realidad de los menores, el profesional tenderá a reproducir las creencias tradicionales y abalará la continua estigmatización del niño o la niña (Summit, 1983, 3.or.).

Bestalde, haurra defendatu eta abusuaren aurka babesten duten amek beren buruan konfiantza izateko ahalmena ematen diote biktimari, eta sendabidean aurrera egiteko gaitasuna, ondorio ahalik eta txikienekin (Summit, 1983).

Es posible que nunca terminemos de conocer —ni de asombrarnos, cuando nos enteramos— de los más recónditos detalles del modo en que el abuso sexual afecta a un niño. Lo mejor que podemos hacer cuando se nos presenta la oportunidad de asomarnos a ese mundo caótico y desconocido, es escuchar con atención lo que ese niño nos cuenta y, fundamentalmente, creerle. Creerle aun cuando los pormenores nos inquieten y nos angustien, aun cuando nos parezcan inverosímiles. También en esos casos, lo más acertado es creerle y consultar a los especialistas (Intebi, 2011, 162. or.).

5.3. *Aitorpenean kontuan hartu beharreko irizpideak*

Aitorpenari dagokionez, Vicki Bernadetek (biziraulea eta izen bereko fundazioaren presidentea) dio biktimak kontuan hartu behar duela zer azalduko duen, nola azalduko duen eta nori azalduko dion (Bernadet, 2020). Izan ere, Bernadeten arabera, biktima adi egon ohi da, aurrean duen profesionalak zer esan, zer egin eta zer aurpegi jarriko duen, abusua kontatzean ondo egin duen ala ez jakiteko eta, azken finean, abusatzailearen mehatxuak betetzen diren ikusteko («inork ez dizu sinetsiko», «gauza izugarriak gertatuko dira kontaktzen baduzu», etab.).

Blanca Mas (RTVE, 2016) UNEDeko Trauma osteko Nahasmenduak Masterreko zuzendari eta Psikologiako irakasleak, bere aldetik, abusua aitortzean bete behar diren pauten garrantzia aipatzen du. Hori horrela, ondoko lerroetan, egin beharreko urratsak azaltzen dituen hainbat egileren bilketa egin da (Hammel-Zabin, 2005; Intebi, 2007; López, 2002; Mas, 2016; Polo, 2020; Bernadet, 2020):

- Berehala entzun behar da, gehiago itxaron gabe. Beti da une egokia haurrei entzuteko, entzuteko prest gaudela erakutsi behar da, kritikatu gabe («hemen naukazu, esan nahi didazuna entzuteko»).
- Heldua hunkituko bada ere, lasai egon behar du eta emozioak kontrolatu behar ditu.
- Haurrari arretaz entzutea, isiluneak eten gabe, eta edozein emozio aipatzen eta sentitzen uztea, haiei buruzko suposiziorik egin gabe.
- Haurrari sinestea, haren sinesgarritasuna zalantzan jarri gabe. Haurrek, abusu bat kontatzen dutenean, ez dute ia inoiz gezurrik esaten.
- Haurra duintasunez eta errespetuz tratatzea. Hunkituko bada ere, babesa eman behar zaio, haren oinazea leuntzeko. Hasieratik bertatik, ondo egin duela eta pertsona egokiari kontatu diola adierazi behar zaio. Esan diezaiokezu zaila dela horrelako gauza bat kontatzea, eta horregatik oso ausarta izan dela eta harro zaudela.
- Harro sentitzea kontatzeko ausardia izateagatik. Eraso baten berri ematen duten pertsonak ausartak dira eta gai dira horrelako egoerei modu eraginkorrean aurre egiteko. Hori onuragarria da haientzat eta gizarte osoarentzat.
- Babesa eta laguntza eskaintzea eta afektua adieraztea. Haurrek etengabe sentitu behar dute beste pertsona batzuen afektua, seguru eta maitatuak sentitzeko. Sexu- abusia bezalako egoera traumatikoetan, haurrak bereziki sentitu behar ditu ingurukoen maitasuna eta babesa.
- Ez behartzea oinazea erakustera edo sentimenduak adieraztera, eta ez erabiltzea biktima urduri jar dezakeen edo min egin diezaiokeen hitzik.
- Erruduna ez dela adieraztea. Abusu-kasu gehienetan haurrak bere burua erruduntzat hartzen duenez, oso garrantzitsua da argi uztea berak ez duela errurik, pertsona heldua edo adinez nagusiagoa dena dela erruduna, gertatutakoa gorabehera. Horrela, babes soziala ematen da, kritika saihesten da eta parametro berri batzuk ematen zaizkio haurrari gogoeta egin dezan bere buruaz eta gertatutakoaz. Kontua ez da soilik umea psikologikoki babestea, eta segurtasuna ere eman behar zaio. Era berean, ardua pertsona heldu bateri pasa zaiola ikusi behar du, kontu hauek helduek kudeatzen dituztelako.
- Erasotzaileari buruzko suposiziorik ez egitea eta ustezko erasotzailearekiko gaitzespenik ez adieraztea —kontuan hartu behar da haurrak erasotzailea maite duela—, haurrak edo nerabeak hura babesteko joera izan ez dezan. Nolanahi ere, azal daiteke pertsona heldu bat eta haur bat ez direla gauza bera, eta haurrek gauza batzuk egin ditzaketela beste haur batzuekin, helduek beste heldu batzuekin egin ditzaketena bezala. Nolanahi ere, erasotzaileaz hitz egitean, laguntza behar duen pertsonatzat hartu behar da beti.

Quando enseñamos a nuestros hijos que los depredadores sexuales son «malvados» y que se merecen un castigo, añadimos peso a sus sentimientos encontrados sobre los seres queridos que resultan bondadosos e hirientes a la vez. Este tipo de discurso moralizante hace que reconocer el abuso resulte incluso más difícil, porque los niños y niñas saben que si «se chivan» de su agresor, lo alejarán y le harán daño (Hammel-Zabin, 2005, 88. or.).

- Galderei ahalik eta errazen eta zintzoen erantzutea.
- Bete daitezkeen promesak soilik egitea.

Hainbat gidatan aipatzen diren pausoen artean, behin kontatuta berriro gertatuko ez dela ziurtatzearena dago. Baieztapen hori ezin daiteke egin, tamalez eta liburu honetan ikusiko du-

gun bezala, gaur egun hori ziurtatu ezin daitekeelako. Behin haurraren konfiantza lortuta (kontuan izan behar da aitorpenerako hautatu gaituela), oso garrantzitsua da konfiantza hori mantentzea eta soilik bete dezakeguna hitzemea.

Horregatik, egokiena da haurrak kontatutakoa onartzea eta kontakizuna hitzez hitz erregistratzea, ñabardura gehiago eskatu gabe. Ez da komeni galderarik egitea (Bernadet, 2020): alde batetik, galderak eginez guztiz sinesten ez dugula adierazten ari garelako; bestetik, juridikoki garrantzitsua delako. Edozein kasutan, konfiantza emateko edo lasaitzeko galderak egin daitezke: «hobeto zaude?», «zeozer hartu nahi duzu edo zoezer egin?» (gustuko duen zerbait). Era berean, gorputz adierazpena zaindu behar da, adibidez, besoak bularrean gurutzatzea zintzotasun faltaren seinale da.

Berbiktimizazioa ekiditeko gomendioak dauden modu berean, biktimei galdetu behar ez zaienaren inguruko gomendioak ere badaude. Adibidez (Intebi, 2007):

- Zer sentitu zenuen?
- Egiten zizun hura gustatzen zitzaizun?
- Zergatik ez zenuen bilatu laguntzarik?
- Gauza horiek egiten bazituen, zergatik nahi zenuen harekin egon?
- Zergatik ez duzu lehenago kontatu?
- Zergatik kontatu duzu orain?
- Zergatik uste duzu egiten zizula hori?

Era honetako kasuetan jarduteko printzipio egokiei dagokienez, Poloren aburuz (2020), haur batek errebelazioan inori ez kontatzeko eskatzen duenean, behar ez den inori ez kontatzeko esaten ari da. Izan ere, profesionalak laguntza eskatu eta gertatutakoa jakinarazi behar du nahitaez. Hau da, haurrari laguntza eskatu behar dela azaldu behar bazaio ere, horrelako kasuetan esku hartu behar duten pertsoneri bakarrik jakinarazi behar zaie. Adituaren ustez, «biktimak ez du espektakurik behar, soilik eraginkorki lagunduko duten profesionalak» (Polo, 2020).

Poloren ustez, oro har profesionalak ez gara ez poliziak, ez epaileak, ezta forentseak ere (Polo, 2020). Beraz, Intebirekin bat eginez (2007), behatutakoa erregistratu eta notifikatu egin behar da, baloraziorik egin gabe, eta kasua espezialistengana bideratu. Zentzu horretan, Polok azpimarratzen du oso garrantzitsua dela deribazio- eta notifikazio-zirkuitu edo protokoloa eza-gutzea. Izan ere, «ezer ez egitea beti da babesgabetasuna sustatzea» (Polo, 2020).

5.4. Errebelazioaren ondoren

Masek (RTVE, 2016) azpimarratzen du umeek gure babesa behar dutela, ez bakarrik familierena, baita komunitate osoarena ere. «**Garrantzitsua da haurrak sekretua gorde behar ez duela jakitea, ez duela pisu hori bere bizkarrean eraman behar**».

Haurren Kontrako Sexu Abusuen biktimaren sostenguari eta laguntzari dagokienez, Echeburúak eta Guerricaechevarriak diote esku hartu egin behar dela «abusua agerian gelditzearen ondorio diren alderdi psikopatologiko jakin batzuetan» (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015, 113. or.). Summitek azpimarratzen duenez, errugabetasunaren baieztapen terapeutiko

sendorik gabe, biktimak bere burua gaitzesteko eta gorrotatzeko joera izaten du, nolabait sexu-erasoa baimendu eta onartu egin duela uste duelako (Summit, 1983).

Dena dela, Echeburúa eta Guerricaechevarriak ohartarazten dutenez, kasu batzuetan behintzat, terapia berbiktimizazioa izan daiteke biktimarentzat (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Aditu horien ustez, sintoma psikopatologiko zehatz batzuk edo eguneroko bizitzara moldatzeko zailtasun handiak daudenean soilik justifikatuta dago zuzeneko esku-hartze terapeutikoa (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015). Azken finean, helburua da egoera ez larritzea eta biktimaren bizitzan saihestezintzat jotzen diren aldaketak soilik gertatzea (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

HKSA egoerek herstura handia sortzen dutenez, egokia da hori kontrolatzen ikasteko teknikak lantzea; besteak beste, muskuluen erlaxazio progresiboko entrenamendua (bestela ere oso onuragarria izan daitekeena) (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Biktimari eman behar zaion **sostenguari dagokionez**, sentitu behar du entzuten ari den pertsonak sinetsi egiten diola, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioaren bitartez, eta laguntza behar izanez gero alboan edukiko duela, babes-jokabide horretan urrunegi joan gabe. Abusuaz hitz egin nahi duenean, aktiboki entzun behar zaio, ez zaio eskatu behar gertatutakoa ahazteko edo gertatu izan ez balitz bezala jokatzeko, eta ez da hitz egitera behartu behar (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Echeburúa eta Guerricaechevarriaren arabera (2015), sintoma psikopatologikorik gabeko kasuetan, nahikoak dira familiaren sostengua, lagunarteko harremanak, eguneroko bizimoduari berrekitea... haurra psikologikoki lehengoratzeko (Finkelhor eta Berliner, 1995). Azken batean, haurraren bizitzan normaltasuna berreskuratzea eta ahal den heinean lehengo ohituratar itzultzea izango da egoera hobetzeko modurik onena (Mas, 1995).

6. Sinesgarritasuna

Haurrak abusuari aurre egiteko duen jokabide normala helduen sinesmen eta uste errotuen aurkakoa da, eta gurasoek, auzitegiek eta medikuek gezurra esateak, manipulatzek edo ameskeria egozteak haurra estigmatizatzen du. Helduek abandonatzeak erruduntasuna areagotzea, norberarekiko gorrotoa, alienazioa eta berbiktimizazioa dakartza (Summit, 1983).

La madre de una nena abusada de 7 años comentaba: «Cuando me enteré por Viviana [su hija] de lo que le hacía el padre [su marido] me pasó varios días sin dormir. A la noche lloraba y buscaba razones para convencerme de que no había pasado nada. Buscaba algún hecho, algún detalle que me permitiera creer que no era cierto. Me decía que yo nunca dejaba la nena a solas con él, que él sería capaz de cualquier cosa menos de eso, que quizás Vivi se había confundido. Unas semanas después tuve que aceptar la realidad. Ahora, después de todo lo que pasó, me pregunto ¿por qué resulta más fácil encontrar razones para no creer? (Intebi, 2011, 24-25. or)

Izan ere, haur normalek sexu-erasoari emandako erantzunen ebaluazioak argi eta garbi erakusten du biktimaren jokabide «normalaren» definizio sozialak desegokiak direla, eta haurraren minaren aurkako isolatzaile mitiko gisa balio dietela helduei (Summit, 1983). Summitek (1983) adierazten duenez, beren kexak desitxuratzen dituzten haurren artean, gehienak saiatzen dira sexu-esperientzien maiztasuna edo iraupena gutxien, baita salaketak egin direnean ere haserre eta indarkeriaren edo umiliazioaren aurkako errepresalia itxurazko batean. Aditu horrek

azaltzen du oso haur gutxik puztu edo asmatzen dituztela sexu-abusuak: milatik bik edo hiruk besterik ez (Summit, 1983).

Hala eta guztiz ere, abusua ameskeriarekin (asmatuko balu gisa) lotzen duen mitoak indar handia du gure gizartean (Muela, 2007; López, 2014; Summit, 1983; Intebi, 2011) eta prozesu judizialek defentsek argudio gisa baliatzen dute sarri (Naredo, 2017). Zentzu horretan, Auzitegi Gorenak, 2016ko epai batean, komunitate akademikoarekin bat eginez, hauxe adierazi zuen (Auzitegi Gorena, 2016):

Existe consenso científico en que la proporción de falsos relatos de abuso sexual infantil es muy reducida, pues la posición de dependencia del menor respecto del agresor, máxime cuando la agresión se produce en el ámbito familiar, le hace poco propicio para formular una acusación falsa. El miedo al rechazo, junto a los sentimientos de vergüenza y culpa, así como las frecuentes amenazas, suelen impedir la revelación del abuso (6. or.).

6.1. *Haurren gezurrak eta fantasiak*

Gaur egun ere, historia osoan bezala, ezbaian jartzen da haurren testigantza sinesgarritasuna, eta gezurtizat edo fantasiosotzat hartzen da.

6.1.1. GEZURRAK

Testigantza faltsuari dagokionez, Irene Intebi (2011) HKSA adituak gogorarazten digu umeez arrazoi asko izan ditzaketela gezurra esateko. Hasteko, gezurrak balio diezaieke zigorra edo arazoa saihesteko. Esaterako, ohikoa da neba-arrebei edo lagunei errua botatzea zerbait balioduna apurtzen denean. Aldiz, ez da batere ohikoa horrelako gertaera bat azaltzeko istorio bat asmatzea, errazagoa baita haien zentzuzko ez dakitela esatea eta helduek errua beti umeei leporatzen dietela kezkatzea. Bestalde, haurrek gezurra esan dezakete ere beren heldugabetasuna edo gutxiagotzen dituen zerbait ezkutatzeke. Dena dela, tentu handiz entzun behar dugu, ume batek gezurra esateko dituen arrazoietatik haratago, bere gezurretan oso arraroa delako erreferentzia sexualak aurkitzea eta, are gutxiago, helduaroko sexualitateari lotutako ñabardurak (Intebi, 2011).

Bauer eta kideek, 1976an AEBetan egindako ikerketan, bizitzaren eboluzio-etapetan ohi-koak diren beldurrak aztertu zituzten, eta horien artean ez zegoen sexu-erasoaren beldurra. Elementu beldurgarri nagusiak ziren munstroak eta mamuak (haur txikiaren artean), eta kalte fisikoak eta erasoak (nagusiagoen artean, bahitzaileak, lapurrak eta hiltzaileak). Bestalde, nabarmendu behar da haurrak beldurtzen dituzten elementu horiek ez direla istorioak asmatzeko iturri. Hau da, beldur horiek berdinekin partekatzen badira ere, ez diete gurasoei edo irakasleei esaten lapurrek bahitu eta jipoitu dituztenik (Bauer, 1976; hemen aipatua: Intebi, 2011).

Beraz, edozein adinetako haurrak gezurra esan dezakeen arren, Intebik (2011) dioenez, gezur horrek beste pertsona bat kalte dezakeen ala ez jakiteko, abstrakzio maila altua behar da garapenean, eta maila hori ez da lortzen nerabezarora arte. Haurrek ezin diote denboran konplotari eutsi, ez dutelako helduaren logika diskurtsibo bera, ezta garapen mental bera ere. Haurrek gezurra esan badezakete ere, ez dira gai gezurrari argudio sendoekin eusteko, eta alderdi emozionala gailentzen zaio kontakizunari: gorritu egiten dira, izerditan hasten dira, izkin egiten diote besteen begiradari, urduri jartzen dira eta hitz totalka hasten dira. Aldiz, haurrek ez

bezala, helduak badaki gezurra esaten, eta tresna intelektual eta psikiko guztiak erabiltzen ditu manipulatzeko, simulatzeko edo engainatzeko (Dora, 2012; hemen aipatuta: Bianco *et al.*, 2016).

Izan ere, Intebik (2011) dio nerabezaroan lortzen dutela gazteek sexu-abusuaren delitu-esanahia atzemateko gaitasuna, eta gai dira gezurra esateak dakartzan ondorioak aurreikusteko. Hau da, nerabezaroan lortzen dira errealitatea hautemateko behar den deszentralizazio maila eta besteen ikuspegian kokatzeko gaitasuna, eta, horri gehitzen bazaio pentsamendu abstraktuaren garapena, nerabeak gai dira estrategia sofistikatuak planifikatzeko hirugarren bati arazoak sortzeko helburuz (Intebi, 2011):

Resulta claro, entonces, que los preescolares carecen de la capacidad intelectual y cognitiva para «inventar» historias que incluyan detalles sexuales adultos, con el objetivo de incriminar a terceros. También es conveniente aclarar que, por más que los adolescentes dispongan ya de estas capacidades, la utilización de las falsas acusaciones sexuales para dañar a otras personas es muy poco frecuente (Intebi, 2011, 230. or.).

Alde batetik, oso gai sentibera da, umiliagarria, edozein gazte bere intimitatea horrela azaltzera ausar dadin, ikertua eta zalantzan jarria izateko arriskua baitu. Bestalde, nerabezaroan, berdinen aldean gehiegi ez desberdintzeko beharra dago. Sexu-biktimizazio kasu bat ez da ez nabarmentzeko modurik onena. Gainera, gazteentzat ez da batere erraza, ezta atsegingarria ere, sexu-abusu bat kontatzeak dakartzan presio familiarrei eta sozialei aurre egitea (jendarean nabarmentzea, etab.). Hau da, norbaiti kalte egiteko asmoa duen nerabeak hain kostu emozional handia ez duten beste aukera batzuk ebaluatuko ditu (Intebi, 2011).

6.1.2. FANTASIAK

Haur txikiek izaki fantastikoengan sinesten dute —munstroak, mamuak, naturaz gaindiko izakiak— eta izaki horiek ikara sortzen diete. Askotan, izututa ihes egiten dute gela edo korridore ilunetatik, halako izaki beldurgarri batekin topo egiteko beldurrez. Ohe azpian edo armairuetan ezkutatuta daudela uste dute, erasotzeko prest. Hala ere, oso gutxitan ematen ditu haur batek, txikia izan arren, benetan bizitako gertakariei ez dagozkien pertzepzio sensorialei buruzko xehetasunak. Eboluzio mailak bost zentzumenek erregistratutako pertzepzioak transmititzeko gaitasuna ematen die: zerbaitek edo norbaitek ukitu ote dituen, zerbait ikusi edo entzun ote duten, hauteman dituzten usain eta zapore batzuen ezaugarriak. Kontuan izan behar da haurrek zehaztasun handiz adierazten dutela zer hauteman duten zentzumenen bidez. Dena den, ohikoa da sexu-abusuak aipatzen dituztenean, batez ere gaez gertatu direnean, gertatutakoa izaki beldurgarriei egozte (Intebi, 2011).

6.2. Disoziazioa eta egokitzapena

Gizartearen iruditeriko biktima-eredu nagusia apurtzen duen zergati nagusia disoziazio- eta egokitzapen-mekanismoek eragindako efektua da: haurra ez da kexu, otzan mantentzen da eta abusatzailearekin egon nahi duela adierazten du.

Hurrengo kapituluan aztertuko diren abusuaren adierazle eta ondorioek harreman zuzena dute bi defentsa-mekanismo psikologiko horiekin. Horiek ulertzeak problematika honen biktimak ulertzen eta, ondorioz, hobeto artatzen lagunduko du.

Intebik (2011) dioenez, abusua hasierako faseetan, ohikoagoa da trauma osteko estresaren zantzuak eta sintomak aurkitzea. Aldiz, fase kronikoan, biktimizazio errepikakorren egokitzapen-sindromeari lotutako jokabideak gertatuko dira.

6.2.1. DISOZIAZIOA

Pertsona helduen logikak espero du abusua pairatzen ari den haurrak, bortxaketen biktimek bezala, erasotzaileari aurre egitea, laguntza eskatuz oihu egitea eta ihes egiten saiatzea (Summit, 1983). Aitzitik, harridura handiz erreazionatzen dugu ikustean gelditu eta mutu geratu direla, gertatutakoa gertatu den edo amesgaizto bat izan zen ziurtatu ezinik (Intebi, 2011).

Abusua haurren ohean gertatzen denean, haurrak lo egongo balitz bezala jokatzeko du, ohean jarreraz aldatu edo maindireekin bere burua estaltzen saiatzen da (Summit, 1983). Auto-defentsarik ezak eta isiltasunak ez dute esan nahi biktimak sexu-harremana onartzen edo gozatzeko duenik, eta traumaren aurrean gehien erabiltzen den defentsa-mekanismoa da: norberaren pertzepzio mingarria okerra dela sinestea edo guztiz ukatzea (Intebi, 2011).

Muchas veces el abuso ocurre cuando la madre está en el hogar. Otras veces sucede antes de que el pequeño salga para la escuela. Los acercamientos sexuales irrumpen en medio de la vida cotidiana, a la que debe regresar cuando el adulto decide dejarlo en paz. Los niños y niñas regresan callados a la mesa familiar, retoman sus juegos o se van a sus clases. Para conseguir esta fachada de normalidad se ponen en marcha mecanismos defensivos que se caracterizan por mantener las experiencias traumáticas y los sentimientos asociados con ellas, totalmente separados del resto de vivencias habituales. (...) Pueden descubrir cómo provocarse estados alterados de conciencia para evitar el dolor o disociarse de su cuerpo, refiriendo el abuso como si lo observaran en otra criatura, a cierta distancia. Todos estos mecanismos resultan sumamente útiles para sobrevivir en la infancia. Pero constituyen los mayores obstáculos para el logro de la integración de la personalidad adulta (Intebi, 2011, 153. or.).

Intebiren (2011) arabera, disoziazioa, zentzu zabalean, bi gauzaren arteko asoziazioa galaraztea da. Psikologiaren alorretik, Intebik (2011) dio prozesu psikofisiologiko konplexua dela, kontzientziaren egoera aldatzen duena. Prozesuan zehar, pentsamenduak, sentimenduak eta esperientziak ez ei dira integratzen norbanakoaren kontzientzian eta oroimenean, normalean gertatzen den moduan. Fenomeno disoziatiboak bi ezaugarri ditu beti:

- a) Identitate propioaren sentsazioa galtzea.
- b) Subjektuaren oroimenaren nahasmendua, amnesia gisa ager daitekeena bizitako gertakarien edo ekintza konplexuen aurrean.

Zentzu horretan, desberdindu egin behar dira haurrari bizirauten laguntzen dioten mekanismo edo defentsa disoziatiboak (haurrak emozionalki kudeatu ezin dezakeen errealitatean bizirauteko mekanismo eraginkorra) eta disoziazio-nahasmenak (Pereda, 2019). Izan ere, disoziazioa, zentzu positiboan, defentsa-mekanismo onenetako bat da aparatu psikikoaren elaborazio-gaitasuna gainditzen duten gertakarien aurrean, abusu-kasu baten edo, adibidez, hondamendi natural baten ondorio izan (Intebi, 2011). Odol hotzean jarduteko mekanismoa da, eta horri esker kontzientziak ez du gainezka egiten eta ekiteko gaitasuna ez da izoztuta gelditzen.

Cualquier persona que experimenta una situación traumática que sobrepasa su capacidad psíquica de elaboración, recurre a un mecanismo de defensa conocido como disociación, por el cual se separan los hechos reales de los sentimientos que generan. De esta manera, se ga-

rantiza que las emociones que produce la situación traumática no invadirán nuestra vida descontroladamente, permitiendo que los recuerdos estén presentes sin desorganizar el funcionamiento de la totalidad de la persona. Este es un mecanismo que permite la supervivencia frente a eventos sumamente dolorosos —no solo abusos sexuales— y es el que produce serias escisiones en la personalidad. Escisiones que llegan a postular que, así como existe un padre de día (que protege y cumple una función paterna) y un padre de noche (que lastima y agrede), existe un niño o niña de día (que lleva una vida aparentemente normal) y otro de noche (que se despersonaliza ante el abuso) (Intebi, 2011, 54. or.).

Arazo horiek larriagotu egiten dira gertaera traumatikoa kronikoa denean. Izan ere, disoziazioa denboran zehar mantentzen denean, finkatu egiten dira disoziazio-nahasmekak. Estres iraunkorraren ondorioz, bizitzan gatazka, larritasuna edo antsietatea sortzen duten egoeretan aukeraketa-mekanismo gisa aktibatzen denean, nahasmendu larriak sortzen dira nortasunean, eta potentzialtasunak izugarri pobretzen eta blokeatzen dira (Intebi, 2011).

Mekanismo horrek eragin dezake pertsona batek nortasun bat baino gehiago edukitzea, oroitzapen traumatikoak osorik edo zatika galtzea, oroitzapen horiek irudi bisual, gorputz-oroitzapen, **sentsazio arraro edo pentsamendu edota sentsazio intrusibo gisa agertzea**. Batzuetan, HKSAk eragin dezake biktimak parte hartu edo bizi izan ez duen film bat bezala kontatzea; hau da, emoziorik eragingo ez balio bezala (Intebi, 2011). Izan ere, HKSAren adierazle psikologiko askok lotura estua dute disoziazioarekin (Intebi, 2011). Halaber, mekanismo hori urte luzez mantentzeko, baita bizitza osoan zehar ere, ikerketa ugariaren araberakoa (Intebi, 2011).

Estas representaciones no desaparecen del aparato psíquico, sino que quedan relegadas en el inconsciente y se ligan a otras representaciones o afectos con los que originalmente no tienen ninguna relación. En ocasiones, de manera fortuita, por activación de las nuevas representaciones o afectos ligados, es posible que esos contenidos reprimidos irrumpen en la conciencia. Esta defensa implica una clara división entre los contenidos del nivel consciente y los del nivel inconsciente (Intebi, 2011, 195. or.)

6.2.2. EGOKITZAPEN-SINDROMEAK

Ronald Summitek (1983) —haurren mediku psikiatra eta ikertzaile estatubatuarra— *Haurren sexu-abusura egokitzearen sindromea*⁵ delakoa deskribatu zuen, sexu-abusuen protagonistak izandako haur eta guraso ugariaren azterketa klinikoetatik abiatuta. Sindrome horrek bost fase ditu, biktimizatutako haurrengan antzematen diren elkarren mendeko 5 aldagai edo portaera-sekuentzia (Summit, 1983), ordena honetan agertzen direnak:

1. Sekretua.
2. Babesgabetasuna.
3. Harrapatuta sentitzea eta egokitzapena.
4. Aitorpen berantiarra, gatazkatsua eta sinesgarritasun gutxikoa.
5. Atzera egitea.

5 Egokitzapen-sindromearen deskribapena dozenaka HKSA tratamendu-zentrok kudeatutako milaka salaketa eta kezaren esperientzia kolektiboetatik eratorritzen da.

Lehenengo bi aldagaiak ezinbestean lotuta daude haurtzaroaren zaugarritasunarekin, eta gainerako hirurak, berriz, haren ondorioetan oinarritzen dira (Summit, 1983). Alde batetik, biktimak bizi duten errealitate gordina irudikatzen dute eta, bestetik, helduen uste arruntenean kontrakoak dira (Intebi, 2011).

Las personas que se acercan a este problema por primera vez se sorprenden ante ciertas conductas que contradicen lo que, desde el sentido común parecería lo esperable. La víctima no protesta, no se defiende, no denuncia. Por el contrario, se acomoda a las experiencias traumáticas mediante comportamientos que le permiten sobrevivir a lo inmediato, manteniendo una fachada de seudonormalidad. Sin embargo, esta adaptación es un arma de doble filo en el momento en que se desvela el abuso ya que, a la larga, socava la eventual aceptación, la credibilidad y la empatía del resto de la sociedad (Intebi, 2011, 150. or.).

- a) Lehenengo fasea **sekretua** da. Biktima harrapatuta sentitzen da familian, sexu-abusu gehienak familia barruan gertatzen baitira. «Haurtzaroan gertatzen diren abusuen % 90 gutxienez familia barruan gertatzen dira, eta gure erregistroek baieztatzen dute hori» (Volnovich, 2016, 17. or.). Helduak harritu egiten dira haurrek aurka egiten ez dutela ikustean. Gogoratu behar da sekretua abusua gerta dadin bete behar den baldintza bat dela. Erasotzaileak behar duen zerbait, neskarekin kontaktuan jarraituko badu. Beraz, ez du zalantzarik izango emozionalki edo fisikoki hertsatzeko, ezta mehatxatzeko ere, behar izanez gero. Izan ere, aipatu den bezala, erasotzaileak ziurtatu egin behar du biktimak ez duela kontra egingo harengana hurbiltzen denean (Intebi, 2011), eta ahal duen guztia egiten du haurrari sinetsarazteko krisi beldurgarri eta arriskutsu bat sortuko dela abusua- ren berri emanez gero.

Kontuan hartu behar da haur bakar bat ere ez dagoela prest sexu-abusuak pairatzeko konfiantzazko heldu batengandik.

Gizartean eta, beraz, helduen artean HKSA tabua den heinean, abusotzaileak esperien- tziari egozten dion esangura egokituko dio haurrak abusuari (Summit, 1983). Hau da, sekretua ezagutarazten bada gertatuko diren gauza horietan guztietan sinesten du:

«Hau gure sekretua da, beste inork ez du ulertuko»

«Ez esan inori»; «Inork ez dizu sinetsiko»

«Ez esan amari

- (a) gorrotatu egingo zaitu
- (b) ni gorrotatuko nau
- (c) hil egingo zaitu
- (d) hil egingo nau
- (e) jakiten badu, hil egingo da
- (f) urrutira bidaliko zaitu
- (g) urrutira bidaliko nau
- (h) familia hautsi egingo da eta umezurztegi batean sartuko zaituzte»;
«Norbaiti esaten badiozu
- (a) ez zaitut maiteko
- (b) ipurmasaileko bat emango dizut
- (c) zure txakurra hilko dut
- (d) hilko zaitut» (Summit, 1983, 6. or.).

Considerar el secretismo como algo que solo sirve para evitar el descubrimiento, el arresto y la prisión supone subestimar seriamente el papel tan importante que desempeña el secretismo en la pederastia. Para comprender la indefensión de la víctima debemos comprender todos los aspectos de la función del secretismo (Hammel-Zabin, 2005, 97. or.)

Horrela, beldurraren jatorria segurtasun-promesa bihurtzen da: haurra isiltzen bada, dena ondo aterako da (Summit, 1983). Ez dugu ahaztu behar biktimak beldurrarazten dituzten mehatxuak (isilik egon dadin) askotan bete egiten direla sekretua hausten denean: haurrak ikusten du helduek ez diotela sinesten edo errudun egiten dutela gertatutakoagatik (Intebi, 2011).

- b) Bigarren fasea **babesgabetasunarena** da, eta hurrek ez dute beren burua sexu-abusuaren aurrean aktiboki defendatzen eta ez diote aurre egiten. Izan ere, haurrak ez du babes-tuko duen pertsona heldurik eta bakarrik dago erasotzaileak limurtu edo mehatxatzen duenean (Volnovich, 2016). Intebik (2011) adierazten duenez, fase honetan, biktima otzan bihurtzen duen lotura autoritario baten bitartez menderatzen du erasotzaileak biktima.

Adituaren esanetan, mendekotasun hori, hein batean, gure hurrei ematen diegun heziketak baldintzatzen du (Summit, 1983; Intebi, 2011). Txiki-txikitatik, erakusten diegu ezezagunekin harremanik ez izaten eta heldu ezezagunekin obedienteak eta maitagarriak izaten, eta ideia hori ez dator bat errealitatearekin. Izan ere, haur batek hiru aldiz aukera gehiago ditu pertsona heldu ezagun eta fidagarri baten abusuak pairatzeko, ezezagun baten eraso baino. Are gehiago, inkesta kontserbadoreen arabera, emakumeen % 10 inguruk senide heldu baten sexu-erasoa jasan dute haurtzaroan, eta ia % 2aren kasuan, gizonak aitaren rola betetzen zuen (Summit, 1983). Summitek ikerketa horien ostean egindako beste batzuk aipatzen ditu, eta adierazten du gehiago direla aitaren edo aitaren rola betetzen zuen gizonaren abusuak pairatu dituzten biktimak (Summit, 1983). Antzeko zerbait erakusten dugu gorputz-kontaktuei dagokienez: adineko pertsona batek egiten duen guztia egokia eta zuzena da, nahiz eta desatsegina izan haurrarentzat. Errealitateak adierazten digu premiazkoa dela heziketa-modu hori aldatzea, sexu-abusua modu eraginkorragoan prebenitu nahi badugu (Intebi, 2011).

- c) Hirugarren fasea **egokitzapen-fasea** da, eta biktimak bizi duen setiatze eta egokitzearen bitartez gertatzen da. Abusuzko egoera kroniko bihurtzen denean —ez baita gertaera isolatua izaten eta urteak iraun ditzake—, haurrak saihesten ezin dezakeenean edo behin eta berriz errepikatzen denean, haurra abusuaren harrapatuta geratzen den fasea hasten da (Summit, 1983). Haur osasuntsu, arrunt eta errekupeazio emozionalerako gaitasuna duena etenik ez duen sexu-abusuaren errealitatera egokituko da (Summit, 1983). Mekanismoen egokitzatzaileak erabiltzen hasiko da, eta, gero eta gehiago diren sexu-eskaeretara ez ezik, gurasoaren figura babesle, altruista eta adeitsu gisa idealizatu ohi den pertsonaren traiziora ere egokituko da (Intebi, 2011; Summit, 1983). Etengabeko biktimizazioari aurre egiten dion haurrak botere- edo kontrol- sententzia lortzen ikasi behar du nolabait. Haurrak ezin du ulertu eta barneratu aita bat errukigabea eta berekoia izan daitekeenik, ondorio horrek abandonua eta deuseztapena ekartzen baititu.

No debemos olvidar que el perpetrador, en general, es una persona allegada al niño, que mantiene una relación afectuosa con él. A la paciente se le plantea, entonces, una disyuntiva: seguir sosteniendo con su cuerpo y su psiquismo el equilibrio del grupo familiar respaldando una imagen de «normalidad», en donde los distintos integrantes parecen cumplir el rol de suministrar afecto, sostén económico e interacción sociocultural, o arriesgarse a romper todo esto con la revelación de lo que verdaderamente ocurre en la intimidad del hogar. Si se decidiera por la segunda opción, sabe que podrá interrumpirse el abuso pero que también perderá lo que la iguala a los otros niños (Intebi, 2011, 216-217. or.)

Haurrentzat onargarria den aukera bakarra da sinestea bera dela egoera mingarri horiek eragiten dituen eta, ona izaten ikasiz gero, maitasuna eta onarpena lortuko dituela (Summit, 1983). Gerta daiteke ere haurrak aita «esplotatzen» ikastea, pribilegioak, mese-deak eta sari materialak lortzeko, prozesu horretan «puta» gisa bere burua zigortuz (Summit, 1983). Bi gurasoen aurkako borroka horretan, litekeena da amorru handiena amaren kontrakoa izatea eta aitaren gehiegikerien aurrean abandonatu izana hari egoztea. Amak sexu-abusuaren berri baduela pentsatzen du, baina axolagabe jokatzen duela eta ez duela ezer egiten. Azken batean, haurrak uste du erabat ustelduta dagoela eta ez duela inoiz merezi izan inoren zaintzarik (Summit, 1983).

Hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, substantzia estupefazianteen kontsumo handia HKSaren ondorioetako bat da. Summitek (1983, 11. or.) biziraule baten testigantza jasotzen du:

Con las drogas, podía ser cualquier cosa que quisiera ser. Podía inventarme mi propia realidad; podía ser bonita, tener una buena familia, un buen padre, una madre fuerte y ser feliz... beber tenía el efecto opuesto de las drogas... beber me devolvió el dolor; me permitió experimentar mi dolor y mi ira.

Gogoratu behar da egokitzapen-mekanismo hauek guztiak —etxeko martiritza, errealtatearekiko haustura, kontzientziaren alterazioa, fenomeno hysterikoak, delinkuentzia, soziopatia, amorraren proiektzioa, mutilazioa— haurrak bizirauteko erabiltzen dituen tekniken parte direla. Umearekin (edo oraindik suntsituta dagoen biktima helduarekin) terapeutikoki lan egiten duen edozein pertsona probokatu eta frogatu egin daiteke, konfiantza ezinezkoa dela eta errealtate seguru bakarra itxaropen negatiboak eta norberarekiko gorrotoa direla frogatzeko (Summit, 1983).

- d) Intebik (2011) aipatzen duenez, espero zitekeen beste erronka bat dute profesionalak: **salaketa berantiar, gatazkatsu eta sinesgaitzaren fasea**. Izan ere, abusuaren sekretua oso gutxitan azaleratzen da, familia-taldetik kanpo behintzat (Intebi, 2011). Argitara ateratzen denean, familia-gatazka bat piztu delako, hirugarren batek ustekabean jakin duela edo langile espezializatuek detektatu dutelako izan ohi da (Intebi, 2011).

Hain zuzen, bizikidetzaren unitatearen arrisku-egoeren atalean ikusitako testigantzen arabera, errebelazioa sarrien eragiten duten familia-gatazkek sortzen dira gazteek autonomia handiagoa eskatzen dutenean. Guraso abusatzaileek (familia barruko abusuaren kasuan) etengabe eragozten dute autonomia hori, eta aita abusatzailea jelskor eta kontrolatzaile bihurtzen da: alaba lagunen «arriskuetatik babesten» saiatzen da (Summit, 1983). Errebelazioa jipoi edo zigor larriren baten ondoren gertatzen da eta, kasu horretan, nerabearen kontakizuna ez da sinesten eta zigorraren aurkako mendeku edo desobeditzeko aitzakiatzat hartzen da (Intebi, 2011).

Familia-gatazkek errebelazioa eragiten badu, urteetan sexu-abusua pairatu ondoren izaten da oro har, egokitzapen-mekanismoekiko balizko hausturaren ondoren (Summit, 1983). Intzestu-abusuaren biktimak isiltzeko joera du, nerabearora iritsi arte; hots, bizitza autonomo bat izateko eta gurasoen autoritateari aurre egiteko gai bihurtzen den arte (Summit, 1983).

Después de una pelea familiar especialmente castigada y un enfrentamiento de autoridad por parte del padre, la niña finalmente se ve impulsada por la ira a dejar ir el secreto. Busca comprensión e intervención en el mismo momento en que es menos probable que las encuentre. (...) La mayoría de los adultos que se enfrentan a una historia así tienden a identificarse con los problemas de los padres al tratar de lidiar con un adolescente rebelde. Observan que la niña parece más enojada por el castigo inmediato que por las atrocidades sexuales que alega.

Asumen que no hay verdad en una queja tan fantástica, especialmente porque la niña no se quejó hace años cuando afirma que fue abusada sexualmente por la fuerza. Suponen que ella ha inventado la historia en represalia contra los intentos del padre de lograr un control y una disciplina razonables. Cuanto más irrazonable y abusivo sea el desencadenante castigo, más asumen que la niña haría cualquier cosa para escapar, incluso hasta el punto de inculpar falsamente a su padre (Summit, 1983, 12. or.).

Azken batean, abusua salatzen duen haurrak sarritan ez du salaketa argia egiten, testigantza garaiz kanpokotzat, gatazkatsutzat eta sinesgarritasun gutxikotzat hartzen da, eta, ondorioz, ez du sinesgarritasunik biktimaren inguruko pertsonentzat (Intebi, 2011). Gainera, gazteak delitu-jokabideak, hipersexualizatuak, suizidio-saiakerak edo nortasunaren nahasmendu larriak baditu, baliorik gabeko testigantzak dira pertsona gehienentzat. Gauza bera gertatzen da kontakizunaren tonua lasaia, iheskorra edo haserretua denean. Beti nahiago dugu haurrak esandakoari garrantzia kentzea, heldu bat oinarrizko tabu sozialak hain modu basatian hausteko gai dela onartzea baino (Intebi, 2011).

Es cierto que, a veces, es muy difícil creer lo que estamos escuchando y resulta más sencillo suprimir el problema, negando simplemente su existencia. Este mecanismo se acentúa cuanto más siniestra y perversa es la situación descrita por las niñas y, más aún, si sucede en familias tan parecidas, en la superficie, a las nuestras. En estos casos se duda de la salud mental de las víctimas y de cualquier adulto que crea estas historias (Intebi, 2011, 218. or.)

Espezifikoki gaituta eta sentsibilizatuta ez badaude, pertsona helduek (amak, senideak, irakasleak, aholkulariak, medikuak, psikoterapeutak, ikertzaileak, fiskalak, abokatu defendatzaileak, epaileak) ezin dute sinetsi haur batek intzestua berehala jakinarazi gabe onartuko lukeenik, edo itxuraz normala den aita bat bere alabari behin eta berriz sexu-abusuak egiteko gai izan litekeenik. Sexu-abusu etengabea salatzen duen edozein adinetako haurrak, umiliatuta, aurre egin behar dio helduen sinesgogortasunari (Summit, 1983).

Hala ere, abusua aitortzen duten nerabe guztiak ez daude haserre, ezta mesfidati ere, eta badago beste egokitzapen-eredu bat, non haurrak edozein gatazka-zantzu ezkutatzea lortzen duen. Horrelako haur bat oso arrakastatsua edo liderra izan daiteke, irakasleei eta ikaskideei atsegin emateko irrikaz. Ereduzko ikaslea edo futbol-taldeko kapitaina pertsona heldu baten sexu-abusua deskribatzen saiatzen denean, helduaren erreakzioa are sinesgaitzagoa da: «Nolatan gertatu ote zitzaion horrelakorik hain neska jator bati?»; «Talentu eta egokitasun handiko inor ez zen hain gauza zikin batean nahasiko». Horrek eraman gaitzake pentsatzera abusua gertatu ez dela edo, gertatu bada, umeari kalterik egin ez diola (Summit, 1983).

Por tanto, no existe un motivo real de queja. Ya sea que el menor sea delincuente, hipersexual, contra-sexual, suicida, histérico, psicótico o perfectamente bien adaptado, y si el niño está enojado, evasivo o sereno, los adultos interpretarán el afecto inmediato y el patrón de adaptación del niño o niña como invalidante (Summit, 1983, 13. or.).

- e) Azken fasea da **salaketan atzera egitea**. Izan ere, haurrak babes edo sostengu berezirik lortzen ez badu eta aita bere erantzukizuna onartzera behartzen duen berehalako eskuhartzerik ez badago, neskak prozesu «normala» jarraituko du eta atzera egingo du kontakizunean, istorioa asmatu egin duela onartuta (Summit, 1983).

Gai hau ondo ezagutzen dute adituek eta beldurra diote, umeak sinesgarritasuna galtzen duelako horrela.

Intebik (2011)dioenez, biktimak errua sentitzen du aitorpenean, senide bat salatzen ari delako eta ez delako betetzen ari familia batuta mantentzeko betebeharra. Ondorioz,

umea damutu egiten da sekretua jakitera eman izanaz eta erasotzailearen mehatxuak betetzen dira: aitak abandonatu eta gezurtizat du, ez dute sinesten, familia apurtzen da, amak ez du sinisten edo histerian eta amorruan hondoratzen da, gustu txarreko xehetasun guztiei buruz galdetzen diote, aita inkriminatzen bultzatuz, etab. (Summit, 1983; Intebi, 2011). Une kritiko horretan, umeek profesional espezializatuen babesa eta laguntza behar dituzte, amore ez emateko eta kontatu dutena berresteko (Intebi, 2011). Volnovichen aburuz, uneraren batean HKSA biktima guztiek atzera egiten dute, «erru-sentimenduagatik eta lotsagatik, erakunde sakratua den familia suntsitzen ari direlako» (Volnovich, 2016, 18. or.).

Beste behin, familia zaintzeko edo suntsitzeko erantzukizuna egozten zaio haurrari. «Rolaldaketan, ondoren datorrena da egia esatearen hautu «txarra» edo amore ematearen eta familiaren onerako izango den gezurraren hautu «ona»» (Summit, 1983, 19. or.).

Insisto que para los adultos resulta más sencillo aceptar la retractación que investigar en profundidad la veracidad de lo relatado. Por otro lado, la retractación confirma ciertas creencias de que no se puede confiar en los niños. Summit afirma que «de esta manera se restaura el precario equilibrio familiar. Los niños aprenden a no quejarse. Los adultos aprenden a no escuchar. Y las autoridades aprenden a descreer de los niños rebeldes que utilizan su poder sexual para destruir a padres bienintencionados» (Intebi, 2011, 154-155.or).

Zentzu horretan, Volnovichek honako hau adierazten du Summitek egindako aurkikuntza garaikidea jasoz:

En realidad, los postulados de este síndrome concluyen en una verdadera desmitificación de la sagrada familia y es exactamente por eso que fue importante, ya que consiguió hacer visible desde el discurso de la ciencia, una problemática que es política, social y subjetiva, ya que el abuso sexual es el hijo no deseado, pero necesario del patriarcado androcentrista, de la hegemonía y de la ideología sexista que predomina en una sociedad. De esta manera, aún cuando el ASI se hizo visible gracias al discurso de las ciencias de la salud, este discurso se corre hacia el abordaje social y cultural ya que se empieza a hacer visible la necesidad de cuestionar la moral imperante en la sociedad (2016, 18-19. or.).

6.3. «*Todo se vuelve comprensible ahora*»

Haurtzaroan abusua nozitu zuen heldu baten ondoko testigantzan, Irene Intebik (2011) jaso, bi mekanismo horien ondorioak ikus daitezke:

«*Todo se vuelve comprensible ahora*» izenburupean, honako hau idatzi zuen:

Los efectos del abuso se manifestaron a través de mi cuerpo. Fui sonámbula. Tuve fiebres altísimas que ponían en peligro mi vida sin que jamás se pudiera encontrar una causa. Tuve pesadillas. Padecí asma severo. Hubo momentos en los que simplemente dejaba de respirar. Vivía en los consultorios médicos. Siempre estaba en cama, siempre enferma. Mis piernas se me combaban de tal manera que no podía caminar sin tropezar con mis propios pies. Sin embargo, todo se vuelve comprensible ahora.

Tuve un sinnúmero de conductas compulsivas en mi infancia. Había estructurado mi mundo de una manera increíble. Debía abrir y cerrar las puertas dos veces y debía escuchar el «click» que hacían al abrirse y cerrarse. Todo lo tenía que hacer en pares. Hacía repetir a todo el mundo dos veces lo que me decía y yo también lo repetía dos veces. Desarrollé un espasmo compulsivo con mi cabeza. Tenía siempre la sensación de que algo estaba fuera de lugar y que, si sacudía mi cabeza, todo volvería a acomodarse. Siempre tenía la sensación de que todo es-

taba descalabrado. Fue así que generé estas cosas para darle alguna forma a mi realidad, para crear algo parecido a los límites y a la seguridad.

Separé a mi padre en dos personas diferentes, porque era la única manera de sentarme a desayunar con él. El hombre que bajaba las escaleras y se sentaba en la cocina conmigo era mi padre. El hombre que había aparecido en medio de la noche para molestarme, era una sombra. Lo convertí en algo diferente.

Y, en la medida en que lo separé a él, me dividí a mí misma en dos partes. Estaba la nenita que tenía un papá que le enseñaba a andar en bicicleta, que sacaba «sobresaliente» en el colegio y que se convirtió en una perfeccionista. Y había también una nena que jugaba en el desván, sentía que se estaba muriendo, quería suicidarse y tenía pesadillas. Pero nunca podía hablar de ella. Le quitaron la voz.

Me sentía atrapada, aprisionada en mi cuerpo. Aun en mi vida adulta. Nunca parecía escuchar los mensajes de mi cuerpo. Enferma y tambaleante, no dejaba de ir a mi trabajo. Toda mi vida la dediqué a no escuchar a mi cuerpo porque, si lo hubiera hecho, habría tenido que escuchar que me habían violado. Y no podía hacer eso y, al mismo tiempo, sobrevivir (200-201. or.).

7. Ondorioak

Ikusi dugun bezala, haurren abusatzaileak ez dira oro har gizarteak imajinatzen dituen bezalakoak (pertsona ezezaguna, zahar lerdetsua, etab.), eta itxuraz gureak bezalakoak diren familietan ere egon daitezke horrelako pertsonak. Izan ere, abusua detektatzeko zailtasun nagusia da arazo hau onartu eta ikusi nahi ez izatea.

Berez, abusatzailearen kaptazio-prozesuak antzekotasun handiagoa du genero-biolentziaren prozesuarekin erasotzaile ezezagunek eginiko erasoekin baino. Hain da trebea erasotzailea bere estrategia prestatzen eta hain da trebea biktima sekretua ezkutitzen, ezen ez baita batere ezohikoa, familia batean seme-alaba bat baino gehiago biktimak direnean, batak ez izatea besteari gertatutakoaren berri (Summit, 1983). Era honetako erasoetan, indarkeria fisikoa ez da ohikoa; are gehiago, beharrezkoa ere ez dela esan daiteke. Gloria Viserasek dioen moduan, «**begirada batekin soilik, erabat menderatzen ninduen**».

Antza, ez dugu kontuan hartzen modu arrazionalen jokatzeko ezinbestekoak direla nolabaiteko segurtasuna eta konfiantza; autoestimua deitu ohi dena (Intebi, 2011). Aitorpen perfektua ez da existitzen eta seguruenik unerik desegokienean eta ustekabekoenan gertatuko da, haren alde zin egingo genukeen pertsona izanik abusatzailea.

Izan ere, kontrakoa adierazten duten ikerketak badaude ere, beste ikerketa batzuek diote haurrek abusuak gertatu diren garapen-aldiaren barruan ematen dutela erasoaren berri (McElvaney *et al.*, 2020). Ikertzaileek bi bideratzaile gako identifikatzen dituzte adin guztietan abusuaren berri ematera bultzatzen dutenak: haurrek kontatzeko duten beharra («presio-eltze» efektua) eta haurrei kontatzeko aukera ematea. Dinamika horiek elkarri lotuta daudela uste da. Haurrei gertatutakoaren berri ematen lagun diezaieke haiekin konfiantzazko harremanak erakitzeak, beren esperientziak abusuak direla ohartzen laguntzeak, azalpenekiko interesa erakustea larritasun psikologikoaren zantzuei dagokienez (horiek hitzez adierazi gabe «kontatzeko» saiakera izan baitaitezke) eta haurrei larritasunaren balizko arazoiei buruz galdetzeak. Gainera, errebelazioa erraz dezake ere haurrei beren kezkek serio hartuko direla eta horren arabera jokatuko dela ziurtatzeak (Brennan eta McElvaney, 2020). Ezin aipatu gabe utzi ikerketa-testuinguru

batean abusua lehenengo aldiz kontaktzen duten biktimen kopurua, ezin baita ahaztu eraso-tzailearekin erlazio afektibo bat izateak errebelazioa eragotzi dezakeela. Datu horiek bat datoz prebalentzia-ikerketak egiteko behararekin eta arrazoiekin.

Azkenik, kontuan hartu behar da seguruenik harremanetan jarraituko dugula errebelazioa egin duen haurarekin. Beraz, gure zeregin profesionalaren parte izango da pertsona horri laguntzea biktima izatetik biziraule izaterako bidean.

8. Erreferentziak⁶

- Aguilar, Marta (2009). Abuso sexual en la infancia. *Anales De Derecho*, 27, 210-240.
- Anar Fundazioa (2018). *Evolución de la Violencia a la Infancia en España según las víctimas (2009-2016)*. Anar Fundazioa. Hemendik berreskuratua: https://www.observatoriodelainfancia.es/oia/esp/documentos_ficha.aspx?id=5545
- Auzitegi Gorena (2016). Comunicación Poder Judicial (14 de junio del 2016). El Tribunal Supremo constata que la proporción de falsos relatos de abuso sexual infantil por parte de las víctimas es muy reducida. Poder Judicial España. Hemendik berreskuratua: <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Noticias-Judiciales/El-Tribunal-Supremo-constata-que-la-proporcion-de-falsos-relatos-de-abuso-sexual-infantil-por-parte-de-las-victimas-es-muy-reducida>
- Bernadet, Vicki (2020). *¿Qué hacer en los primeros minutos de una revelación?* (argitaratu gabeko idatzia). Bartzelona: Vicki Bernadet Fundazioa.
- Bianco, Mabel, Chiapparrone, Norma, Müller, María eta Wachter, Paula (2016). *Abuso sexual en la infancia: Guía para orientación y recursos disponibles en CABA y Provincia de Bs. As.* Fundación para Estudio e Investigación de la Mujer.
- Brennan, Emma eta McElvaney, Rosaleen (2020). What Helps Children Tell? A Qualitative Meta-Analysis of Child Sexual Abuse Disclosure. *Child Abuse Review*. Published online in Wiley Online Library (wileyonlinelibrary.com) DOI: 10.1002/ car.2617
- Echeburúa, Enrique eta Guerricaechevarría, Cristina (2015) *Abuso sexual en la infancia: víctimas y agresores*. Ariel.
- Finkelhor, David (2009). The Prevention of Childhood Sexual abuse. *The Future of Children*, 19(2), 169-195.
- Hammel-Zabin, Amy (2005). *Conversaciones con un pederasta. Manual para prevenir la pedofilia a través del diálogo entre una víctima y un verdugo*. Martínez Roca.
- Intebi, Irene (2007). *Valoración de sospechas de abuso sexual infantil*. Dirección General de Políticas Sociales.
- Intebi, Irene (2011). *Abuso sexual infantil. En las mejores familias*. Granica.
- Lameiras, María, Carrera, María Victoria eta Faílde, José María (2008). Abusos sexuales a menores, estado de la cuestión a nivel nacional e internacional. *ICEV. Revista d'Estudis de la Violencia*, (6). Hemendik berreskuratua: <https://n9.cl/us3j>
- López, Félix eta del Campo, Amaia (2002). *Prevención de abusos sexuales a menores*. Amarú.
- López, Félix (2014). *Los abusos sexuales a menores y otras formas de maltrato sexual*. Síntesis.
- Muela, Alexander (2007). *Haurrei emandako tratu txarrak: atzematea, jatorria eta ondorioak*. UEU.
- Naredo, María (2017, otsaila). *Desafíos de la protección de los derechos de niños y niñas víctimas de violencia desde el marco de derechos humanos*. III Jornadas de protección a la infancia y adolescencia: Abuso sexual: prevención, detección e intervención jardunaldietan aurkeztutako txostena. Iruña: Fundación Xilema.
- Pereda, Noemí, Greco, Ana M., Hombrado, Jaume eta Segura, Anna (2018). ¿Qué factores inciden para romper el silencio de las víctimas de abuso sexual?. *Revista Española de Investigación Criminológica*, 16, 1-27

6 Emakumeen izen osoak idatzi ditugu emakume ikertzaileen rola agerian uzteko, horrela gomendatzen delako ere genero-ikuspegia aplikatzeko orduan.

- Pereda, Noemí (2019). El abuso sexual infantil desde la perspectiva de la victimología del desarrollo. Haurren kontrako Sexu Abusuen Sekretua hausten IV. Jardunaldietan aurkeztutako txostena. Leioa: Gure Sarea Elkarte.
- Bajet, Jordi eta Farran, Montse (2020). Módulo 4: Exploración psicológico-forense de la pederastia y el Abuso Sexual Infantil [Webinar]. PrevenSi. <https://vimeo.com/406907103>
- Polo, Pilar (2020). *Indicadores y elementos de riesgo de una dinámica familiar* (publikatu gabeko eskuizkribua). Vicki Bernadet Fundazioa.
- Rtve (2016ko urtarrilaren 29). A punto para vivir: abuso sexual infantil. *A punto con la 2*. Hemendik berreskuratua: <http://www.rtve.es/alacarta/videos/a-punto-con-la-2/punto-2-punto-para-vivir-abuso-sexual-infantil/3463365/>
- Save the Children (2017). *Ojos que no quieren ver*. Save the Children. Hemendik berreskuratua: <https://www.savethechildren.es/publicaciones/ojos-que-no-quieren-ver>
- Summit, Roland C. (1983). The child sexual abuse accommodation syndrome. *Child Abuse and Neglect*, 7, 177-193. Hemendik berreskuratua: <https://n9.cl/38cg>
- Townsend, Catherine (2016). Child sexual abuse disclosure: What practitioners need to know. Charleston: Darkness to Light. Retrieved from www.D2L.org.
- Volnovich, Jorge R. (2016). Abuso sexual en la infancia. El quehacer y la ética. In Jorge R. Volnovich (Ed.) *Abuso sexual en la infancia* (orr. 17-36). Lumen.

3. GAIA

DETEKZIO GOIZTIARRA ETA ONDORIOEN PREBENTZIOA

-
1. Sarrera
 2. Prebentzio-programak
 - 2.1. Afektibitate- eta sexu-hezkuntzaren esparruan prebentzio-programak aurrera eramateko irizpideak
 - 2.2. Prebentzio programak EAEn
 - 2.3. Prebentzio irizpideak
 - 2.4. Profesionalen jakintza maila
 3. Haurren sexualitatearen adierazpenak
 - 3.1. Masturbazioa
 - 3.2. Jolas sexualak
 - 3.3. Noiz hasi behar dugu kezkatzen?
 4. Sexu-abusuaren adierazleak eta ondorioak
 - 4.1. Adierazleak
 - 4.1.1. Sexu abusu adierazle oso espezifikoak
 - 4.1.2. Sexu abusu probablearen adierazleak
 - 4.1.3. Sexu abusu adierazle ez-espezifikoak
 - 4.2. Sexu abusuak jasan izanaren ondorioak
 - 4.2.1. Epe laburreko ondorioak
 - 4.2.2. Epe luzeko ondorioak
 - 4.3. Ondorioak pairatzeak baldintzatzen dituen aldagaiak
 5. Ondorioak
 6. Erreferentziak
-

1. Sarrera

Hirugarren bloke honetan, prebentzioa baino gehiago detekzio goiztiarra landuko dugu. Aurreko blokeetan azaldu dugu Haurren Kontrako Sexu Abusua (HKSA) botere-abusua dela eta zaila dela horregatik biktimak egoerari aurre egin edo eraso saihestu ahal izatea, batez ere nerabegarora iritsi ez diren pertsonen kasuan (López, 2014).

HKSAren adierazleak eta ondorioak landu baino lehen, haurren garapenaren parte diren sexu-esplorazio naturalaren jarrera edo jokabideak landu behar dira, horiek HKSA zantzuetatik bereizi ahal izateko. Izan ere, hurrekin harremana duten profesionalen artean, ezagutza falta nabarmena dago oraindik eremu honetan, eta, HKSA prebentzio-programak afektibitate- eta sexu-hezkuntzako programa zabalagoen barnean kokatu behar badira, garrantzitsua izango da jakintza minimo batzuk eskaintzea.

Gainera, ez da egokia adierazleei bakarrik erreparatzea, «haur abusatuaren sindromerik» ez dagoelako. Adierazleak askotarikoak izan daitezke eta, zenbait kasutan, elkarren kontrakoak ere bai. Are gehiago, asintomatikoak diruditen haurrak ere egon badaude. Beraz, behaketa eta entzute aktiboa izango dira edozein profesionalen baliabide eraginkorrenak.

2. Prebentzio-programak

HKSAren prebentzio-programek sexu-abusuak pairatzeko arriskua erdira murrizten dutela ikusi bada ere (Save the Children, 2017), oso gutxi dira afektibitate- eta sexu-hezkuntzaren barnean HKSA prebentzio-programak lantzen dituzten eskolak edo proiektuak (udal-mailakoak, aisialdikoak, etab.). Sarritan, programa horietarako irakasleek (eta beste profesionalak) beharko lituzketen ezagutza minimoak landu ez direlako.

2.1. Afektibitate- eta sexu-hezkuntzaren alorrean prebentzio-programak garatzeko irizpideak

HKSA prebentzio-programa bat garatu nahi bada, garapen pertsonal eta sozialeko eta osasun-hezkuntzako proiektu orokor batean kokatu behar da; zehazkiago, haurren eskubideak oinarri dituzten **sexu-hezkuntzako programen** barruan (López, 2014). Besteak beste, abusuak pairatzeko arriskuaz hitz egin aurretik, komeni da hurrek osasunari, eskubideei eta sexualitateari buruzko ideia positiboa izatea.

López eta del Camporen ustez (2002), hurrek, gurasoek eta gizarteak oro har sexu-hezkuntzari buruzko informazio sakon eta egokia jaso behar dute, baita sexualitatearen ikuspegi erotofilikoaz ere. Oso garrantzitsua da programek bultzada ematea sexualitatearen ikuspegi positiboa, bestearen borondatearen errespetua, sexuen arteko berdintasuna, haurren sexualitatearen aitortzea eta errespetua... sustatzen dituzten jarrerei, balioei eta moduei. Sexualitatearen ikuspegi positiboa bermatuta, HKSA prebentzio-unitateak txertatu behar dira sexu-hezkuntzako programaren azken-aurreko atalean (López eta del Campo, 2002).

Por nuestra parte, consideramos que no es conveniente que estos materiales se usen como programa aislado, es decir, que a los menores únicamente se les hable de abusos sexuales, sin hacerlo en un contexto más amplio. (...)

No conviene tampoco que este sea el último tema del programa de educación sexual, sino uno de los últimos, para conseguir, por una parte, que antes hayan recibido una visión positiva de la sexualidad y, por otra, que no acabe el programa con la presentación más negativa de la sexualidad (López eta del Campo, 2002, 31. or.).

Izan ere, Lópezek (2014) ohartarazten digunez, HKSAr buruzko ikerketen ondorio negatibo bat da umeen sexu- adierazpen osasuntsuak erreprimitzen direla, baita umeek elkar miatzen dutenean edo ados jarrita jolasten direnean gertatzen direnak ere. Testuingurua kontuan izan gabe (hau da, sexualitateaz era egokian mintzatu gabe) abusuen prebentzioaz egiten diren lan edo programek helduen eta umeen arteko kontaktu afektibo eta sozialarekiko beldurra zabaldu dezakete, batzuetan baita familia barruan ere (López, 2014).

Aintzat hartu behar dugu, programak modu desagokian aplikatuz gero, litekeena dela umeek sexualitatearen berri izatea lehenengo aldiz testuinguru negatibo batean, eta sexualitate isilpeko kontu arriskutsutzat hartzea (López, 2014). Adibidez, esan ohi da gorputz-atal intimoak direla bainujantziak estaltzen dituenak, segida emanez horrela tradizio sexofobikoari, **genitalak izendatu gabe utziz**, genitalek jendearen ahotan izen asko badituzte ere (López, 2014). Edo, eskolaurreko umei dagokienez, gomendatzen da kontzeptu abstrakturik ez erabiltzea (hala nola laztan egokien eta desagokien arteko bereizketa) eta horren ordez informazio zehatza ematea. Izan ere, ikusiko dugun bezala, hurrek sarritan egiten dituzte sexu-jolasak beste haur batzuekin, eta horrelako jolasek funtzio positiboa dute sexualitatearen garapenean. Horrelako mezuen bidez, ordea, errudun senti daitezke umeak eta jolas horiek erreprimitu (López, 2014). Hala ere, adituak ondorio horiek kontuan hartu behar direla azpimarratzen badu ere, adierazten du, oro har, programetan parte hartu duten gazte gehienak seguruago sentitzen direla eta beren burua babesteko gaitasun handiagoa eskuratzen dutela (López, 2014).

Era berean, adituek gomendatzen dute ez bideratzea esku hartzea soil-soilik haurrengana, eta kontuan hartzea ere gurasoek, hurrekin lan egiten duten profesionalak eta, oro har, komunitateak esku-hartzean izan behar duten parte hartzea (López eta del Campo, 2002). Zentzu horretan ere, *Escuchando mis «trips»: programa de prevención del abuso sexual en educación infantil* (Horno, 2013) gidaren arabera, hiru pauso egin behar dira HKSA prebentzio-programa bat erakundeetan aplikatzeko: zuzendaritzarekin, guraso-elkarteekin, hezitzaileekin eta, azkenik, hurrekin lan egin behar da, hurrenker horretan, programa zinez eraginkorra izango bada.

Lópezek eta del Campok (2002) adierazten dutenez, programa hauek martxan jarri aurretik, babes-sistemak ezarri eta parte hartuko duten profesionalak elkar ezagutu behar dute, esku-hartzeak kasuen detekzioa handitu ohi dutelako.

En este sentido, es especialmente importante que estén previstas formas de ayuda profesional y servicios comunitarios adecuados, porque estas intervenciones aumentan las demandas de ayuda y las denuncias.

Asimismo, son necesarios cursos de formación para profesionales y reuniones entre los profesionales de los diferentes ámbitos que trabajan con la infancia, para que establezcan con claridad la red de respuesta a los abusos, tanto desde el punto de vista formal como informal; que puedan conocerse y disponer de una forma paralela a la forma del acceso de los unos a los otros, llamándose por teléfono cuando sea necesario, por ejemplo, es fundamental. Por eso el modelo de intervención más completo es el comunitario que empieza formando a formadores de los diferentes ámbitos de la comunidad, para que estos acaben llegando a todos los demás profesionales, a los padres y a los menores (López eta del Campo, 2002, 31-32. or.).

Ez dago argi sexu-abusuen salaketa haurren beraren esku dagoenik, familiaren eta gizarteren testuinguruaren esku baino (López, 2014). Familian eta, oro har, gizartean esku hartzea (hau da, haurrak babestu behar dituzten helduak eta erasotzaile posibleak) programa bera bezain eraginkorra izan daiteke (López, 2014).

2.2. Prebentzio-programak EAEn

EAEn dagokionez, ez dago profesionalentzako HKSA prebentzio-programarik eta, are gutxiago, indarkeria-egoera bateko 3 elementuetan (erasotzailea, biktima eta ezer egiten ez duten pertsonak) oinarritutako prebentzio-programarik. Aurreko kapituluan ikusi dugu gaia lagunen artean lantzearen garrantzia, ohikoa delako nerabeei gertatutakoa lagunei kontatzea helduei baino lehenago (Townsend, 2016). Townsander azpimarratzen duenez (2016), haurrek HKSA heziketa jaso behar dute etxean, eskolan eta baita programa komunitarioen bitartez ere. Haurrak erdigunean jartzen dituzten sexu-abusu programek tresnak eman behar dizkiete umeei eta, batez ere, nerabeei, abusu-kasu baten berri eman dien lagunari laguntzeko.

Adituaren arabera (2016), litekeena da nerabeei oro har zuzendutako programak (abusu-arriskuan daudenei zuzendu beharrean) prebentzio-tresna indartsua izatea errebelazio goiztiarra sustatzeko, eta garrantzitsua da arreta jartzea haurrek eta gazteek errebelatzeko aukerak ematen dituzten esku-hartzeetan (Townsend, 2016). Lópezen (2014) arabera, prebentzio-programa batean parte hartu zuten gazteen % 25ek adierazi zuten balio izan zuela lagunei laguntzeko.

Bestetik, erasotzaileentzako programarik ez egoteaz gain, bereziki kezagarria da inolako egitasmorik ez egotea adinagatik zuzenbide penaletik at dauden erasotzaileei begira, etorkizunean abusuak errepikatu ez daitezen (Save the Children, 2017). Lópezek nabarmentzen du prebentzio-programen akats nabarmena dela kolektibo horri begirako esku-hartzerik ez planteatzea (López, 2014) eta egoera hori ez aurreikustea protokolo eta prebentzio-gidetan. Hau da, programa gehienak biktimentzat dira, kontuan hartu gabe haurren artean ere erasotzaileak egon daitezkeela (López, 2014). Lópezek adierazten duenez (2014), programek berariaz aurreikusi behar dituzte erasotzaile izateari uztean edo erasotzaile bihurtzean eragiten duten informazioak, arazoibideak eta trebetasunak, edo, behintzat, jokabide hori gainditzeko laguntza espezifikoa eskatu ahal izatea (López, 2014). Intebik (2011) ohartarazten duenez, sexu-delituen egileekin (biolentoak izan edo ez) lan egiten duten espezialista gehienek nabarmentzen dute jokabide horietako asko eragotz litezkeela, baldin eta arretaz erreparatzen bazaie gizon horien gaztetako aurrekariei.

En general, los padres de los depredadores incipientes no son conscientes del interés sexual de sus hijos. El tabú de la sociedad con respecto a hablar de abusos y la negación y temor personales a los abusos sexuales en la infancia hacen que resulte prácticamente imposible que los padres se planteen la posibilidad de que su hijo sea un abusador principiante (Hammel-Zabin, 2005, 66.or.).

Duela gutxi, zerbitzu bat jarri da martxan Espainiako Estatuan: **PrevenSi**. Alemaniako Dunkelziffer zerbitzuan oinarrituta, laguntza-telefono espezializatu bat eskaintzen die erasotzaile potentzialeei, laguntza eskatzeko profesionalei sexu-abusua gertatu baino lehen.

2.3. *Prebentzio-irizpideak*

EAEri dagokionez, ez dago hezkuntza sexual-afektiboko programarik desgaitasuna duten pertsonentzat, iniziatiba puntual batzuk izan ezik, jakin badakigun arren desgaitasuna baino arrisku-faktore garrantzitsuagoa dela hezkuntza sexualik ez jasotzea (Verdugo, Alcedo, Bermejo eta Aguado, 2002). Kolektibo horri dagokionez, garapen-etapetan zehar, irakatsi egin beharko litzakete jokabide egokiak eta desegokiak bereizten, afektibitate-adierazpenak egoeren edo pertsonen arabera egokitzen, eta publikoa eta pribatua desberdintzen, beren intimitate propioa definitu dezaten era horretan (Verdugo *et al.*, 2002).

Izan ere, abusu-egoerak prebenitzen lagunduko luketen hiru elementu garrantzitsu dira gazteekin hezkuntza sexualaz hitz egitea, biktimizazio-esperientzia propioak lantzea (egotekotan) eta pornografia zer den eta sortzen dizkieten sentipenak nola kudeatu aztertzea (Pereda, Greco, Hombrado eta Segura, 2018).

Sentipenei dagokienez eta Hornok azpimarratzen duenez, nazka da sexu-abusuen edozein adinetako biktima batek argi eta garbi identifikatzen duen emozioetako bat, beste biktimizazio mota batzuetako biktimek ez bezala. Oso garrantzitsua da nazkaren gaia lantzea autobabesaren ikuspuntutik, bai eremu profesionalean, bai eremu pertsonalean, prebentzio-irizpideak landu nahi izanez gero. Dena dela, horretarako, Hornok adierazten duen moduan, ««tripak» legitimatzeko hasi behar da» (Horno, 2013, 58. or.)

Aurreko kapituluan, haurren kontrako sexu-abusuan sekretuak duen eragina eta garrantzia azaldu da. Sekretu onen eta txarren arteko desberdintasuna lantzea, hainbat programatan egin den bezala, ez da guztiz egokia material hau sortu duten ikertzaileen ikuspuntutik, eta horren arrazoia da sekretuak HKSA duen presentzia eta garrantzia. Hammel-Zabin doktoreak idatzitako *Conversaciones con un pederasta. Manual para prevenir la pedofilia a través del diálogo entre una víctima y un verdugo* liburuan, sekretuak abusuaren prozesuan duen eragina eta nabarmentasuna azaltzen da.

En la actualidad, cuando oigo a alguien utilizar la expresión «secreto inocente», me entran escalofríos porque tal posibilidad no existe. La inocencia y el secretismo son estados mutuamente excluyentes, y la única vez que aparecen juntos es cuando se utiliza uno para destruir a otro (Hammel-Zabin, 2005, 123. or.).

Pertsona biktimizatuak erasotzailearekin partekatzen duen sekretua sekretu on gisa bizi daiteke. Seduzio-prozesua dela-eta, haurrak pentsa dezake erasotzailea eta biktima maiteminduta daudela eta, hortaz, sekretu on bat dela. Adibidez, 14 urteko haur batek, 25 urteko irakasleak seduzitzen badu, ez du sekretu kaltegarri gisa biziko, nahiz eta sexu-abusua izango den eta azalpenek ez duten abusu gisa identifikatzen lagunduko.

Polok (2016) adierazten duen bezala, egokiagoa litzateke desberdintzea sekretua, sorpresa eta «gure kontuak edo konfidentziak». Sorpresekin amaiera bat dute beti (urtebetetze-festa, oparia, etab.); aldiz, konfidentzia edo «gure kontuak», euskaraz esan ohi dugun moduan, eskubide bat dira. Izan ere, haurrek ez diete helduei zertan dena kontatu. Dena dela, sekretuek ez dute amaiera zehatz bat eta, gaur egun, abusu-egoeretan sekretuak duen eragina dela-eta, egokiagoa da zuzenean, kontzeptua gustukoa ez denez, aipatu den arrazoia azaltzea.

Halaber, kontuan izanik gaur egun sekretuek haurren artean pizten duten interesa eta haien zatitutasun materialak duen presentzia, garrantzitsua da zenbait mezu behintzat

argi azaltzea. Adibidez, azaldu behar da pertsona heldu batek ezin diola inoiz haur bati sekretu bat gordetzeko eskatu. Noski, abiapuntu hori familiarekin adostu behar da, egungo aitona-amonek haurrak zaintzen ematen duten ordu kopurua kontuan hartuz, ohikoa baita gurasoak aurrean ez daudenean haurrei gozokiak eman eta sekretua gordetzeko eskatzea. Hala ere, prebentziorako pautak ezarri nahi badira (nahi ez diren muxuak ez ematea, teknologia berrien bitartez haurren argazkiak ez zabaltzea, etab.), horiek ezinbestean haurraren inguruko pertsonekin adostu behar dira, haurrari mezu kontrajarririk ez helarazteko.

Hala ere, umeari oso argi azaldu behar zaio ez dagoela ezer gurasoei edo tutoreari kontatu ezin diezaiekeenik, eta haur ausartek laguntza eskatzen dutela, HKSA auto-babesik ez dagoelako. Gainera, komunikazio-espazioak eskaini behar zaizkio lasai eta konfiantzaz hitz egiteko (López eta del Campo, 2002). Adibidez, ohera joateko unea egokia izan daiteke hitz egiteko egunean zehar gertatuko gatazkez, gustatu zaizkigun gauzez, etab. Profesional batek derrigorrez jokatu behar du horrela. Izan ere, López eta del Campok aldarrikatu bezala, eskolan komunikazio-klima bat hobetsi daiteke, baldin eta ikasleekin ondorengo hau lortzen bada:

- Los niños/as se sientan aceptados en su diversidad. Cada menor debe sentirse querido y aceptado sea cual sea su raza, etnia, sexo, origen familiar, clase social, etc. incluso deben ser aceptados con independencia de su rendimiento y de las dificultades que pueda plantearle al educador. Los niños/as con fracaso escolar, dificultades generales y dificultades específicas en el rendimiento deben ser bien aceptados en el sistema escolar que debe distinguir entre la evaluación final, necesariamente sancionadora y lo que es la aceptación de la persona. El sentirse estimados y queridos les hará confiar en los educadores.
- Los niños y niñas tengan momentos y lugares, como las tutorías, en los que puedan hablar de manera personal con los profesores.
- Los temas referidos a la salud, los derechos de los niños, la sexualidad, los abusos, etc., forman parte de los contenidos educativos. Eso les hace ver que los profesores también se ocupan de su bienestar y que pueden pedirles ayuda si tienen problemas, aunque estos no sean académicos. (López eta del Campo, 2002, 24. or).

Izan ere, haur askorentzat zaila da abusuetatik babestu eta lagunduko dieten pertsonak aurkitzea, identifikatzea edo detektatzea (Pereda *et al.*, 2018). EAEn, **Zeuk Esan** zerbitzua dago laguntza behar duten gazteentzat, eta interesgarria litzateke zerbitzu hori ezagutaraztea eta zabaltzea, anonimoa baita erabiltzaileentzat.

Lópezen (2020) ikerketaren arabera, ikertutako gazteen % 12k nahiko desegokitzat edo oso desegokitzat dute beren historia sexuala; % 44 errudun sentitzen dira, maila handiagoan edo txikiagoan; % 32k nahiko desegokitzat edo oso desegokitzat dute gurasoek emandako informazioa; eta % 44k nahiko desegokitzat edo oso desegokitzat dute irakasleek emandako informazioa (López, 2020). Beraz, datu horiek guztiek agerian uzten dute haur kopuru handi batek sexu-heziketa egokirik jasotzen ez duela nerabezaro-aurrean (López, 2020), eta premiazkoa dela gabezia horri aurre egitea. Izan ere, Save the Children bezalako gobernuz kanpoko erakundeek ohartarazten dute ezinbestekoa dela EAEko curriculumean prebentzio-elementuak txertatzea (2017).

Irakurri dugunez, arrisku-faktoreen artean daude autoestimua txikia, asertibotasunik eza, erabakiak hartzeko gaitasun eskasa eta arazoak konpontzeko trebeziarik eza (López, 2014). Beraz, Lópezek (2014) faktore hauek lehenestea eskatzen du: nortasunaren faktore babesleak

(hala nola autoestimua, autoeraginkortasuna eta barne-kontrolerako locusa), prozesu mentalak (bestearren lekuan jartzeko gaitasuna), iritzi moralak, pertsonen arteko eta maitasunezko etika eta prozesu afektiboak (hala nola empatia eta autokontrola), besteei baietz edo ezetz esatea, gatazkei aurre egitea ahalbidetzen duten trebetasun sozialak entrenatzen amaitzeko. Lópezen (2014) ustez:

El grado de autoestima y confianza, la percepción de competencia y capacidad para resolver problemas, así como el grado en que las necesidades afectivas estén resueltas se relacionan con el grado de vulnerabilidad de los niños al uso inadecuado de la sexualidad. Es decir, hay variables que juegan un papel fundamental en la prevención de estas conductas y que, por tanto, deben promocionarse en estos programas (88. or.)

2.4. *Profesionalen jakintza maila*

Hezkuntzako profesionalen formakuntza bereziki garrantzitsua da. Detekzio goiztiarra eta biktimizazio kasu posibleen salaketa hein handi batean langile horien ezagutzak, jarre-
rak eta profesionaltasunak baldintzatzen dituzte, trebakuntza ere bereziki garrantzitsua izan-
nik (Greco, Guilera eta Pereda, 2017). Tamalez, hainbat ikerketek adierazi dutenez (Crenshaw,
Crenshaw eta Lichtenberg, 1995; Finkelhor, Wolak eta Berliner, 2001; Kenny, 2004; hemen ai-
patua: Greco *et al.*, 2017), hezkuntzaren eremuan lan egiten duten profesional gehienek
ez dute beharrezko ezagutza edo motibazio pertsonalik, haurren eskubideen zaintza beren
irakasle-zereginetan txertatzeko. Adibidez, Katalunian egindako ikerketa batean, hezkun-
tzako profesionalen % 86,4k adierazi dute ez dutela formakuntzarik (Greco *et al.*, 2017), eta,
egungo eta etorkizuneko profesionalen artean dagoen ezagutza faltaz gain, mito eta uste
faltsuen hedapena baieztatzen duten hainbat ikerketa ere egin dira, EAEn (Alonso eta Ga-
ray, 2020), estatu mailan (Márquez-Flores, Márquez-Hernández eta Granados-Gámez, 2016;
Pereda, Arch, Guerra-González, Llerena, Berta-Aleman, Saccinto eta Gascón, 2012) eta baita
nazioartean ere (Goldman, 2007; Goldman eta Padayachi, 2002; Cromer eta Goldsmith, 2010;
hemen aipatua: Márquez-Flores *et al.*, 2016).

Izan ere, nahiz eta, esan bezala, formakuntzak detekzio eta jakinarazpen maila hobetu
profesionalen artean (Cerezo eta Pons-Salvador, 2004) eta errebelazioa ahalbidetu bikt-
imen artean (López eta Del Campo, 2006) (Greco, Guilera eta Pereda, 2017), EAEko pro-
fesionalen formakuntzari dagokionez zehazki, haurrekin harremana duten profesionalen
gradu, master eta formakuntza jarraituan ez da HKSAren gaia lantzen (Save the Children,
2017). Are gehiago, ikertzaileen arabera, bi-hiru dira Espainiako estatu osoan hezkuntza
sexual-afektiboa hautazko ikasgaietan lantzen duten magisteritzako unibertsitate-ikaske-
tak (Martínez, González, Vicario-Molina, Fernández-Fuertes, Carcedo, Fuertes eta Orgaz,
2012). Hots, profesional gehienek ez dute ez HKSA formakuntzarik, ezta haurren garapen
sexual-afektiboaren inguruko ezagutzarik ere. Beraz, adituen iritziz, egokia litzateke pro-
fesionalen lan-sareak sortzea, kasuen berri emateko probabilitate handiagoa duten per-
tsonek beren ezagutzak eta esperientziak partekatzeko probabilitate txikiagoa dutenekin
(Greco *et al.*, 2017). Izan ere, profesionalak lankideengana jo ohi dute lehenik beren kez-
kak azaltzera (Greco *et al.*, 2017).

Hori guztia dela-eta, oinarrizko ezagutza batzuk landuko dira ondoren, haurren sexualita-
teari eta prebentzio edo detekzioari buruzkoak. Nolabait, profesionalak laguntzeko, adieraz-
leak hautematean segurtasun handiagoz joka dezaten.

3. Haurren sexualitatearen adierazpenak

Haurren anatomia garatu gabe dagoen arren (gorputz txikiagoa, ilerik gabe eta bularren garapenik gabe), eta eiakulazioa eta obulazioa (beraz, ugalketa) pubertarora arte agertzen ez badira ere, plazer sexualaren fisiologia aktibatu egin daiteke. Hau da, haur txikiek sexu-plazerra bilatu eta aurki dezakete. Sentikortasun sexuala dute, batez ere organo genitaletan; erekzio-gaitasuna mutilek eta genitalen basodilatazioa neskek (aldaketak klitorian eta ezpainenetan) (López, 2020).

3.1. Masturbazioa

Gurasoek eta irakasleek ondo dakitenez, haur txikiek erekzioak izaten dituzte, genitalak eskuarekin laztantzen dituzte edo objektuekin igurzten dituzte (López, 2020). Oro har, sexu-plazerra bilatzea eta aurkitzea jokabide osasungarritzat hartu behar da etorkizunari begira (López, 2020). Lópezek (2020, 55-56. or.) masturbazio osasungarriaren adierazle garrantzitsuenak bildu ditu, eta zenbait aholku eta irizpide eman:

- **Autokontrolerako gaitasuna:** haurrak leku eta une egokian masturbatzeko itxaron ahal izatea. Normala da 4-5 urte izan arte zailtasunak izatea itxaroteko eta leku eta une egokia aurkitzeko. Pixkanaka ikasi behar dute masturbatzeko nahiaren jabe izaten eta noiz, non eta nola erabakitzen.
- **Intimitatean egitea** (ez jendaurrean, ez modu exhibizionista batean), 3-4 urtetik aurrera. Berehala ikas dezakete eta ikasi behar dute jokabide hori pribatua dela, inor eskandalizatu gabe egin beharrekoa. Hain zuzen, etxeko egongela, autobusa edo eskola, adibidez, ez dira leku egokiak.
- **Tentsioa eta sexu-kitzikapena bideratzea**, jokabide hori behin eta berriz errepikatu behar izan ez dezaten. Ume batzuk gaizki masturbatzen dira eta etengabe saiatzen dira. Hobe da ondo egitea eta lasaitzea, behin eta berriz saiatu ordez.
- **Higiene-baldintzetan masturbatzea**, objektu arriskutsurik erabili gabe. Haur batzuk, batez ere desgaitasunen bat dutenak, modu ez higienikoan edo kalte egin diezaieketen objektuekin masturbatzen dira. Garbitasunez jokatzeko eta beren buruari kalterik ez egiteko moduan masturbatzen ikasi behar dute.
- **Ez masturbatu arreta erakartzeko**, edo gatazken aurreko erreakzio gisa. Ume batzuk masturbatzen dira nahigaberen bat duten bakoitzean. Masturbatzea ez da txarra, baina modu egokiago batean egin beharko liekete aurre gatazkei eta eragozpenei, masturbazioan babesa bilatu gabe.
- **Azkura edo infekzio batek eraginda ez egotea.** Kasu batzuetan azkura edo infekzioren bat egon daiteke, eta mediku batek aztertu eta tratatu behar ditu.
- **Ez dira errudun sentitu behar.** Gaur egun ez da hain ohikoa, baina baliteke haurrak errudun edo bekatua egin dutela sentitzea. Guraso fededunek eta erlijiosoek sineste hori transmititu diezaiekete, baina ez diete gezurrik esan behar, masturbatzen badira arazoak izango dituztela:

«Zakila eroriko zaizu, medikuarenera eramango zaitugu, inozo bihurtuko zara, etab.». Lópezen aburuz, gauza bat da sinesmen bat transmititzea eta beste bat nahita engainatzea, sinesmen erlijiosoak egia zientifikoa balitz bezala aurkeztea.

Baldintza horiek betetzen baditu, masturbazioa jokabide natural gisa onartu behar da, haur askok bizitzaren lehen urteetan aurkitu eta praktikatzeko dutena. Hezkuntza arloko esku-hartze

orok, masturbazioari dagokionez, aurrebaldintza bat bete behar du beti: argi azaldu behar dio haurrari askatasunez masturbatu daitekeela, baldin eta lehen aipatutako osasun-irizpideak betetzen baditu. Adibidez, honako hau esanez: «Ikusten dut gustatzen zaizula, ondo dago, nahi duzunean egin dezakezu, baina ez ikasgelan. Plazan biluzik ibili behar ez dugun bezala, ez dugu horrela geure burua ukitzen ibili behar besteekin gaudenean, bakarrik gaudenean baizik» (López, 2020, 56. or.).

Lópezek adierazten duenez (2020), kasu batzuetan baliteke autokontrolerako teknikak erabili behar izatea, ikasgelan edo etxeko egongelan ez masturbatzeko, intimitatean egiten ikas dezaten. Beste kasu batzuetan, komeni da gatazkei modu eraginkorrean aurre egiten irakastea, arreta eskaintzea, jokabide horretara beste helburu batzuekin jo ez dezaten; edo oinarrizko higiene-arauak irakastea (bereziki desgaitasun psikikoa duten pertsonen kasuan), infekzio bat baztertzeko, objektu arriskutsuekin ez egiteko adieraztea, etab. Kontuan izan behar da, halaber, 11 urtetik beherako haurren % 60-70 inguruk ez dutela masturbazioa deskubritzen edo, beste arrazoi batzuegatik, praktikatzen (López, 2020). Ildo horretan, adierazi behar da ere ez masturbatzea ez dela pronostiko txarra. Hori dela-eta, haurrak ez dira zuzenean edo zeharka masturbatzerantz animatu behar, ezta jokabide hori saihestera ere.

3.2. *Jolas sexualak*

Jolasa gizakiei gehien gustatzen zaigun gauzetako bat da, baita haurrei ere. Dena dela, haien kasuan, jolasak askoz funtzio gehiago ditu: dibertitu egiten dira, noski, baina ikasi ere egiten dute, esperimentatu, gaitasunak neurtu, besteei egokitu, besteekin erlazionatu, etab. Jolasen imitazioa eta asmatzaile handiak dira. Giza-arlo guztiekin egiten dute hori, baita sexualitatearekin zerikusia dutenekin ere (López, 2020).

Haurrek jokabide sexualak ikusteko edo entzuteko aukera ugari dituzte, batez ere animalien, familiaren, ingurunearen eta komunikabideen bidez. Jokabide horietako batzuk, sarritan, jolasetan eta lehen sexu-esperientzien bidez errepikatzen dituzte. Izan ere, jolas horien bitartez, elkar ukitu, besteen gorputza arakatu, helduen jokabideak erreproduzitu, dibertitu edo harremanetan jartzen ikasten dute (López, 2020).

Lópezek (2014) gogorarazten duenez, 6-8 urte bete arte, haurrek moral aurrekonbentzionala dute:

Esto es, al inicio de este periodo preescolar, los niños y niñas son espontáneos, se exploran, acarician, hacen continuas preguntas a los adultos, a veces se masturban, etc., y manifiestan su sexualidad sin darse cuenta que pueden estar en contradicción con las normas sociales, como, por ejemplo, masturbándose en público. No existe en este periodo ocultación, inhibición, malicia... conocimiento y conciencia de que los adultos establecen una línea divisoria entre el bien y el mal, lo prohibido y lo permitido.

Pero muy pronto, a partir de los tres años aproximadamente, se dan cuenta de determinados convencionalismos o normas sociales y empiezan a adaptarse a la moral sexual adulta, regulando las manifestaciones de su sexualidad en el sentido deseado por los adultos, por miedo a ser castigados, aunque no hayan interiorizado aún el valor de las normas. Su «moral sexual», por tanto, está más bien fuera de ellos, en la autoridad externa del adulto (41. or.).

Esan bezala, haurrak sexu-jolasetan ibiltzen dira eta garapenaren parte da hori. Lópezek aztertutako haurren % 80k eduki sexuarekin jolasak ikusi dituzte 6 urte bete baino lehen (López,

2020). 6 urtetik aurrera, jolasak ez dira amaitzen; aitzitik, horiek ezkututzen ikasten dute, eta nerabeei galdetuta, bereziki 6-11 adin-tartean gogoratzen dituzte jolas horiek (López, 2020). Berrez, haurtzaro osoan sexualitateari buruzko jakin-min handia dagoela ondorioztatu da, eta 42 jolas desberdin identifikatu ditu adituak (gurasoek egiten dituztenen antzekoak, baina ez denak), gehienak gurasoen aurrean egiten ez direnak (López, 2020).

Jolas horietako gehienak (bestearen gorputza miatzea —erizain edo medikuetara jolastea, haurrak garbitzen dituzten amak, haurrak komunera eramaten dituzten hezitzaileak, bilatu beharreko jantziak ezkutatzea, begiak estalita ukituz ezagutzea, etab. —; edo rol batzuen imitazioa eta sekuentzia luzeak —medikua, ezkongaiak, gurasoak, ezkontzea, oheratzea, etab. —) jakin-minak bultzatzen ditu edo, kasu batzuetan, plazerra ematen duten kontaktu sexualak bilatzeko moduak dira. Adibidez, gorputzak igurtziz, batak besteari buelta emanez, barandatik irristatuz etab. egiten diren jolasak (López, 2020).

Todo es posible en las fantasías sexuales infantiles y el psicoanálisis se ocupó muy bien de describirlas. Hacia los 5 o 6 años, pasan por una etapa en que se enamoran del progenitor del sexo opuesto. No es raro que hablen de casarse con el padre o la madre y de tener hijitos con ellos. Elaboran hipótesis de cómo se conciben los bebés e inventan historias de cómo nacen: algunos afirman que por el ombligo de la madre; otros por la boca o el ano. Espontáneamente no mencionan la fecundación ni el parto por vía vaginal. Desconocen la existencia del útero y la función de la vagina. Ser varón no es impedimento para embarazarse (Intebi, 2011, 28. or).

Hala ere, kontuan izan behar da haurrek ikusten dituzten jokabide guztiak imitatzen dituztela (sedukzio-praktikak, musuak, laztanak, koitoak, etab.). Tamalez, jokabide oldarkorrek ere bai (López, 2020). Aurretik aipatu den bezala, Lópezen (2020) arabera, saihestu behar dugun arazoetako bat da haurrek, batez ere pubertaro-aurrean daudenek (10-12 urte), pornografiaren, zinemaren eta abarren bidez izatea helduen sexualitatearen berri. Izan ere, adituaren iritziz, sexu-edukia duten produktuen hedapen komertzial ikaragarria dago eta haurrek ikusten dutena imitatzen dute.

Me parece necesario informar que la exhibición de adultos desnudos o vestidos de manera provocativa (como sucede en muchos programas televisivos y en avisos publicitarios) es otra forma de violentar al niño y enfrentarlo con estímulos que no siempre está en condiciones de elaborar, ya que esto depende del momento evolutivo que atraviese, de la formación e información con que cuente previamente y del tipo de escena que presencie (Intebi, 2011, 161-162. or.).

Gogoratu behar da pornografia ikusten hasteko adina 9 urtera jaitسي dela eta 10-12 urteko mutikoen % 25ek pornografia kontsumitzen dutela (Ballester eta Gil, 2006). Ikerketa egin zen urtea kontuan hartuz, pentsa daiteke kontsumoa igo egin dela, gaur egun adin horretako gazte gehiagok dutelako telefono mugikorra.

Lópezen ustez, sexualitatearen merkantilizazioa da gaur egungo arazoetako bat, eta gizarteak, politikariek eta hedabideetako enpresek seriozki planteatu beharko lituzkete sexualitatea merkaturatzearen mugak. Lópezek adibide gisa dioenez, «duela aste batzuk, zortzi urteko haur batek «bortxaketetara» jolastea proposatu zion eskolako neskato bati, aurreko gauean telebistan ikusi zuen jokabide bat imitatuz» (2020, 86. or.). Izan ere, lagunak eta hedabideak dira haurren sexu-ezagutzen bi iturri garrantzitsuenak; batez ere telebista (López, 2020).

Hori horrela, kontuan izan behar da hezkuntzan programa afektibo-sexualik ez aplikatzea hezkuntza afektibo-sexuala ere badela, nahi genukeen modukoa ez izan arren. Esan dugun bezala, pornografia ikusten hasteko adina nabarmen jaitسي da, eta eduki horiek gero eta sexis-

tagoak eta bortitzagoak dira. Ezin ahaztu daiteke Pornhub web orrialdean gehien ikusi den bideoetako bat «La Manada»-ren bortxaketarena izan dela eta gertakari horrek sareetan oihartzun ikaragarria izan duela (Idoiaga, Gil de Montes, Asla eta Larrañaga, 2019). Hortaz, aintzat hartu behar da gaur egungo elementu horiek —haurrek sexualitateari buruz jasotzen duten informazioa— adingabeen garapen afektibo-sexualean izan dezaketen eragina.

3.3. *Noiz hasi behar dugu kezkatzen?*

Adin bereko haurren arteko sexu-jolasak, borondatezkoak direnean, oro har osasungarriak eta harremanak izaten ikasteko modu bat dira. Gainera, pronostiko ona dute ondorengo sexu-osasunerako (López, 2020).

Berdinen arteko portaerek, adin bereko haurrek borondatez asmatu eta gauzatzen dituztenek, ez dute arazorik sortzen eta begi onez ikusi behar dira. Normala da ere bularrei edo beste gorputz-atal batzuei buruzko jakin-nahia, edo txikienak noizbait gorputz-miaketan aritzea ere (López, 2020). Aldiz, helduen artean ohikoak diren beste sexu-jokabide batzuetan goizegi hastea (aho-sexua, adibidez), sexualitatearen hainbat gairi buruzko obsesio etengabea, etab., kezkarriak dira, eta zaintza eta gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetzeraren behartzen dute, jokabide horiek nondik datozen jakiteko eta haurra balizko abusuetatik babesteko (López, 2020).

Intebik (2011) zehazten du jokabide hipersexualizatuak abusuaren adierazle nabarmenenak direla eta helduen sexu-jokabideei buruzko ezohiko ezagutza adierazten dutela:

Todos los niños, entre los cuatro y los cinco años, se muestran interesados en los asuntos sexuales y hacen preguntas sobre la diferencia sexual anatómica, sobre cómo nacen los bebés y cómo se forman. También exploran sus propios cuerpos y curiosoan el de sus pares (sobre todo los del sexo opuesto). Estos juegos sexuales infantiles permiten a los pequeños investigar sus cuerpos y las sensaciones asociadas con las zonas erógenas, a través de la masturbación y los acercamientos con otros niños. Representan un estadio normal del desarrollo biopsíquico de cualquier persona y no deben alarmarnos a menos que se conviertan en la actividad que más interés despierta en el niño o que ocupa la mayor parte de su tiempo. Cuando esto último sucede, deberíamos prestar especial atención ya que suele indicar una erotización prematura (187. or.).

Intebik (2011) azaltzen duenez, ez da arraroa ume txiki bat masturbatzea lo hartu baino lehen, sehaskan emeki kulunkatzen dugunean edo biberioa hartzen duenean. Aldiz, ez da normala esna dagoenean masturbatzea, beste jarduera interesgarri batzuk egin ahal dituztenean, bai etxean bai hartzaindegian (Intebi, 2011). Izan ere, adituak dioenez, gain-estimulazio sexual goiztiarra izan ez duten umeek nahiago dute jolasean aritzea masturbatzea baino. Masturbatzea eragozten dion heldu bat izan arren, batez ere 4-5 urtetik aurrera, ez bada kapaz masturbatzeari uzteko, ume hori biktimizatua izaten ari ote den ikertu beharko genuke (Intebi, 2011). Umeen arteko jolasez, edo panpinekin egiten dituzten jolasez, honako hau adierazten du Intebik (2011):

Es importante recordar que los niños —sobre todo los más pequeños—, no tienen manera de conocer los detalles de una relación adulta si no tuvieran la oportunidad de observarla o si no fueran víctimas de abuso. Desconocen, por ejemplo, la posición de los cuerpos, los movimientos copulatorios, las sensaciones que acompañan a la penetración y la existencia de la eyaculación. Si un niño se refiere a estos temas, sea mediante relatos o en juegos con amigos o muñecos, es altamente probable que haya sido victimizado (189. or.).

Nolanahi ere, gurasoek ondo egiten dute seme-alaben sexu-adierazpenekiko jarrera positiboa izaten, batez ere ikaskideekin dituzten sexu-adierazpenekiko. Baita seme-alabekiko konfiantza lantzen ere, kezka eragiten dieten jokabideen jatorriari eta arrazoiei buruz galde diezaieten, goiztiarrak iruditzen zaizkielako edo obsesiboki burutzen direlako (López, 2020).

Oro har, onena da haurren sexu-jolasetan arreta handiegia ez jartzea eta onberak izatea. Helduen esku-hartzeak honako kasu hauetan bakarrik du zentzua (López, 2020):

- a) Alde nabarmena dagoenean haurren adinen edo garapen mailen artean. Kasu horretan, bata bestea manipulatu dezake, edo txikientzat komenigarriak ez diren esperientziak sustatu.
- b) Haurrek jolas horiek inposatzen dizkietenean parte hartu nahi ez duten beste haur batzuei. Errespetatu egin behar da beti jolas horietan parte hartu nahi ez duen haurren borondatea.
- c) Sexu-gaiekiko obsesio bat dagoenean eta haur batzuetatik besteetara transmititzen denen. Obsesio hori jolasen edo hizkuntzaren bidez adieraz daiteke.
- d) Argi eta garbi helduei dagozkien jokabide sexualak imitatzen direnean (aho-sexua, adibidez), pornografia ikustetik ikasi dituztenak edo abusu-egoera baten zantzu direnak.
- e) Min hartzeko arriskua dakartenean (adibidez, baginan objektuak sartzea).
- f) Eduki sexista edo oldarkorra dutenean (bortxaketa baten imitazioa).
- g) Adin horretan ezohikoak diren hitzak eta helduei dagozkienak erabiltzen direnean: zikina, oldarkorra, sexista, etab.

Hezkuntzako esku-hartzeak argi utzi behar du beti haurren sexualitatea aitortu eta onartzen dela, adierazitako kasuetan izan ezik. Oro har, helduek onberak izatera mugatu behar dute eta ez diete arreta handirik jarri behar haurren sexu-jolasei, lehen aipatutako irizpideei lotutako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, esku hartu behar dute, abusuak, adin-alde handiko haurren arteko egoera arriskutsuak eta ikaskuntza desegokiak saihesteko (López, 2020). Lópezek adibide hauek aipatzen ditu (2020, 95-96. or.):

«Unax eta Maddik 5 urte dituzte, lagunak dira eta elkarren bila aritzen dira sarri. Bata bestearen etxera ere gustura joaten dira. Arratsalde batean, Maddiren gelan jolasean ari direla, nekaren amak lurrean botata ikusi ditu biak ahoan musu ematen. Maddiren amak «Zertan ari zarete?» galdetu dienean, «Bikoteetara jolasten» erantzun dute biek barrez lehertzen».

Kasu hau jokaera guztiz normala izan daiteke, beste elementu kezkgarririk ez badago. Jokaera bat imitatzen ari dira, badakite hori, eta biek gozatzen duten jolas bat bezala bizi dute. Barreak horren seinale dira.

«Mirenek 7 urte ditu eta Gorkak 8, eta lagunak dira. Beste lagun batzuk eduki arren, aspaldian biak bakarrik eta ezkutuan jolasten dira. Egun batean, Gorkaren etxean, honen amak Miren aurkitu du aho-sexua eginez Gorkari. Berehala ezkutatu egin dira. Miren negarrez hasi da eta Gorkak jolasa besterik ez zela esan du».

Horrelako kasuetan, gurasoek komunikazioa hobetu behar dute haurrekin, eta jokabide hori non ikasi duten ikertu. Seguraski, bietako batek nerabe edo helduren batengandik ikasi du (abusu-egoera), edo pornografia ikusita. Haurren arteko sexu-jokaeren arriskuak bat da haietako batek helduekin bereak ez diren jarreak ikastea.

Nolanahi ere, bi jokabide horiez gain, badira beste asko eta beti ez dira baloratzen errazak. Garrantzitsuena da seme-alabekin hitz egitea, egia jakin nahi dela adieraztea, gertatzen ari dena jakiteko, ez zigortzeko, laguntzeko baizik (López, 2020). Beraz, hauxe da Lópezen (2014) aldarria:

El conocimiento positivo de su propia sexualidad es un factor determinante para que pueda discriminar los usos inadecuados cuando estos ocurren, responder adecuadamente y reducir los efectos negativos. Efectivamente, si un niño sabe que puede sentir curiosidad o placer mirando y tocando su propio cuerpo, o explorar el cuerpo de otro, puede entender mejor la diferencia entre usos apropiados e inapropiados. Hablar de sexualidad abiertamente también puede facilitar el que, cuando se dé una situación en la que haya un uso inadecuado, la comunique más libremente.

En este contexto, en que se le enseñan las diferentes partes del cuerpo, se le dice claramente que puede conocerlas, explorarlas y acariciarlas, incluidas las de otros niños, si estos lo aceptan; se les insiste en la necesidad de no imponer esta relación ni dejar que nadie se la imponga (88. or.).

4. Sexu-abusuaren adierazleak eta ondorioak

HKSA bizipenak eragina izan dezake biktimaren garapenaren aldi guztietan (Pereda, 2010a, 2010b), eta ondorio garrantzitsuak haren ongizate fisikoan eta psikologikoan. Izan ere, HKSAren ondorioak askotarikoak dira, garapenari loturiko hiru eremu nagusietan: norberarekiko konfiantzan («ez dut ezer balio, nire zaintzaileek ez banaute maite, maitatzea merezi ez dudalako izango da»), besteenganako konfiantzan («nola fidatuko naiz besteez, zaindu behar nauen pertsonak min egiten badit») eta etorkizunarekiko konfiantzan («ez daukat esperantzarik, ez da ezer aldatuko») (Pereda, 2019). Horrela, Intebik (2011) honako hau dio HKSAk eragindako traumari buruz:

Constituye uno de los traumas psíquicos más intensos y sus consecuencias son sumamente destructivas para la estructuración de la personalidad. Es posible comparar sus efectos al de un balazo en el aparato psíquico: produce heridas de tal magnitud en el tejido emocional, que hacen muy difícil predecir cómo cicatrizará el psiquismo y cuáles serán sus secuelas (173. or.).

Haurrak bizi duen esperientzia traumatikoaren etaparen arabera, adierazle psikologiko horiek ezaugarri bat edo beste izango dute: abusua hasten ari den garaian, ohikoagoa da trauma osteko estresarekin lotutako zantzuak eta sintomak detektatzea; fase kronikoan, berriz, egokitzapen-sindromearekin lotutako jokabideak antzemango dira. Askotan, haurrak edo haren familiak trauma osteko estresaren adierazleen agerpena gogoratzen badu, espezialista batek ondoriozta dezake gutxi gorabehera noiz hasi den abusua (Intebi, 2011).

Trauma osteko estresaren sindromea ez da HKSA adierazle bakarra, eta gertakari oso traumatikoetan izan ohi den erreakzio emozionala adierazten du (Intebi, 2011). Sintomatologia estuki lotuta dago gertakari traumatikoa berriz gertatzen ariko balitz bezala berpizten diren sentipenekin. Oroitzapen bizi-bizien pantaila-hotsak agertzen dira, pairatzen duen pertsonaren pertzepzio-eremua intentsitate handiz inbaditzen dutenak eta pertsona horrek kontrola ezin dituenak (Intebi, 2011). Emozio-funtsa depresiboa da erabat, eta antsietatea, suminkortasuna eta erru-sentimenduak antzematen dira, oro har sentimendu horiek eragin dituen egoeratik irtetea lortzeagatik edo hura eragin izana sinesteagatik. Koadro horrek helduengan

dituen beste berezitasun batzuk dira beldurra, etsipena eta izu bizia; haurren kasuan, berriz, jarrera desegituratuak eta asaldurak izan behar dira kontuan (Intebi, 2011).

Una vez que toman conciencia de que el adulto actúa con malas intenciones, surge un estado de alerta constante en un intento ineficaz de controlar la situación de abuso propio o con otros niños. Es común observar estallidos de temor y pánico aparentemente inmotivados, que aparecen en los momentos en que reviven mentalmente el abuso en sí o las amenazas con las que el abusador los presiona (Intebi, 2011, 161. or.).

Ondorio psikologikoei dagokienez, ohikoak eta askotarikoak dira, bai haurtzaroan (abusua gertatu eta denbora gutxira agertzen dira), bai helduaroan (bizitza osoan iraun dezakete) (Kanter eta Pereda, 2020). Ondorio horiek izan daitezke epe laburrekoak (abusua gertatu eta ondorengo bi urteetan agertzen dira) eta epe luzekoak (bi urte igaro ondoren agertzen dira). Epe luzeko ondorioak zehaztea zailagoa da, ezin daitekeelako ziurtatu beste biktimizazio batzuegatik izan ez direla (Pereda, 2009). Hala ere, nerbio-plastikotasun handia duen etapa batean (haurtzaroan) hainbesteko estresa sortzen duen esperientzia bat bizitzeak ondorio fisiko larriak ekar ditzake (Pereda, 2010b), eta, ondorioz, gaur egun ikerketa-lerro berri bat zabaltzen ari da HKSAk izan ditzakeen ondorio neurobiologiko eta neurofisiologikoen inguruan (Pereda, 2011).

«El estrés crónico que sufre el menor víctima de violencia en la infancia provoca diferentes anomalías cerebrales, causando un daño permanente en la estructura neuronal y en el funcionamiento de un cerebro aún en desarrollo». Este daño afectará al sistema de afrontamiento al estrés, al control de la conducta y a la regulación emocional (Painter eta Scannapieco, 2013; hemen aipatuta: Pereda, 2019).

Hurrengo lerroetan, HKSAren adierazleak eta ondorioak azalduko dira. Kasu askotan, bi informazio horiek elkarren osagarri dira, kontuan hartu behar delako adierazle bat abusuak sortutako ondorioaren isla edo sintoma bat dela, azken finean. Beraz, adierazleak eta ondorioak antolatzeke orduan, adituen sailkapenak mantendu eta errespetatuko dira. Ikusi denean informazioa bateratu ahal zela, horrela egin da, eta taula bat sortu da horretarako. Kontuan izan behar da desegokia izan daitekeela adierazleak nabarmentzea, adierazleak oker interpreta daitezkeelako (López, 2014).

4.1. *Adierazleak*

Intebik (2011) adierazten duenez, haurrak dira, beren hitz eta gorputzekin, gertatutakoaren berri zehatza ematen dutenak. Beraz, entzuten eta behatzen jakin behar da, Pilar Polok dioenez, «entzuten ikasi behar dugu, baina zentzu guztiekin entzuten». Haur batzuek, oso gutxik, markak izaten dituzte gorputzean, gertatzen ari dena salatzen dutenak; beste batzuek, berriz, ahalegin handia eskatzen duten errebelazioaren bidea hautatzen dute. Hala ere, ia beti, biktimek beren portaeraren bidez ematen dute gertatutakoaren berri, helduak mezu horiek antze-man eta deskodetzeko gai ez badira ere (Intebi, 2011).

HKSAren inguruko ikerketek abusuek bizitzaren eremu guztietan dituzten ondorioak berresten badituzte ere, ezinezkoa da sindrome bat definitzea. Funtsean, patroik berezitu bat ez izateak, pairatzen diren sintoma ugari eta desberdinek, edo sintomarik ez agertzeak, zaildu egiten dute modu global batean jasotzea sexu-abusuaren esperientziak dakartzan arazo emozionalak, kognitiboak eta sozialak (Pereda, 2009).

Izan ere, abusuaren berrespena oso gutxitan oinarritzen da adierazle bakar baten agerpenean. Aitzitik, esku hartzen duten profesionalen zeregina ikertzaileen zereginaren antzekoa da; hots, hainbat arrasto artikulatzen dira —adierazleak—, benetan gertatutakotik ahalik eta hurbilen egongo den ikuspegia lortzeko (Intebi, 2011). Adierazle fisikoek zein emozionalak agerian uzten dituzte gertaera traumatikoak gorputzean eta psikismoan eragiten dituen ondorioak. Adierazle fisikoak eta psikologikoak sexu-abusuarekin estuki lotuta egon daitezke —adierazle espezifikotzat hartzen dira—, edo, era berean, beste nahasmendu batzuekin batera ager daitezke, adierazle ez-espezifikoak eratuta (Intebi, 2011).

Oro har, pertsona helduek zailtasun gutxiago dituzte adierazle fisikoak detektatzeko —genitaletan batez ere—, eta errazago lotzen dituzte abusuak gertaerekin. Ez da gauza bera gertatzen adierazle psikologikoekin. Antza, azalpen gehiago behar dira aparatu psikiakoaren gaineko inpaktu traumatikoa ulertzeko (Intebi, 2011). Deigarria da adierazle fisikoen erregistroak profesionalen esku-hartzea eskatzen duela; aldiz, haurrekin kontaktuan dagoen edonork hauteman ditzake adierazle psikologikoak (Intebi, 2011).

Félix Lópezek (2014) egindako ikerketa baten arabera, biktimen % 60-80k abusuaren ondorioak pairatzen dituzte epe laburrean, maila batean edo bestean; biktimen % 20-30k eguneroko bizimoduari eusten diote erasoaren ondoren, aldaketa adierazgarririk gabe; % 17-40k sintoma kliniko garrantzitsuak dituzte; gainerakoek, beste mota batzuetako sintoma arinagoak.

Biktima asintomatikoei dagokienez (% 20-30, Pereda, 2009), Masek (RTVE, 2016) dio bi arrazoi egon daitezkeela horretarako: biktimak erresilientzia handia duelako (bizitzan zehar izan dituen esperientziengatik edo haren babes-sareagatik), edo arazoa ezkututzen ari delako.

Peredak (2009) adierazten du efektu latenteak ere egon daitezkeela, eta ondorioak urteak igaro ondoren agertu, bizitzaren eremu guztietan eraginez (Kanter eta Pereda, 2020). Litekeena da, Lópezek (2014) esan bezala, abusia abusuztat ez hartzea hasieran, eta sexu-abusuaren eragin psikologikoez ez ohartzea, hura gertatu eta urte batzuk igaro arte. Adibidez, nerabegarora iristean, harreman afektibo-erotikoetan blokeo bat gertatzen denean (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Bianco, Chiapparrone, Müller eta Wachterren gidak (2015), Intebi eta Osnajanskiren lanean (2003) oinarritutakoak, sailkatu egiten ditu adierazle oso espezifikoak, probableak eta ez-espezifikoak. Informazioa osatu egin da Intebik (2007) Kantabriako erkidegorako egindako *Valoración de sospechas de abuso sexual infantil* gidarekin —sailkapen bera egiten du— eta Arartekoak berriki koordinatutako *Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusia eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak* (2021) eskuliburuarekin.

4.1.1. SEXU-ABUSUEN ADIERAZLE OSO ESPEZIFIKOAK

4.1.1.1. Adierazle psikologiko oso espezifikoak

Intebiren ustez (2011), sexu-abusuaren adierazle nagusia haurren testigantza da, ikusi dugunez horrek gaur egun eztabaida handia sortzen jarraitzen badu ere. Tamalez, testigantza bat lortzea ez da oso ohikoa.

Intebiren ustez (2011), Sgroi, Porter eta Blick aditu iparramerikarrek HKSAri lotutako jokabideen zerrenda zabalduenetako bat planteatzen dute. Nahiz eta ondoren ikusiko ditugun sexu-abusu probablearen adierazleekin lotura izan, adierazle horiek zerrendatzea erabaki dugu, adituak garrantzitsutzat jo dituen heinean (Intebi, 2011, 180-181. or):

1. Mendekotasun irekiko jarrerak.
2. Gatazka kanporatzeko joera duten jokabide oldarkorrak.
3. Portaera pseudo-heldua edo gainegokitua.
4. Sexu-jardueren zantzuak.
5. Sexu-jolas desegokiak eta iraunkorrak adin bereko haurrekin, jostailuekin edo nork bere gorputzarekin, edo besteekiko sexu-jarrera oldarkorrak.
6. Adinerako desegokia den sexu-portaeren ulermen zehatza (batez ere haur txikien kasuan).
7. Ikastetxean denbora gehiegi igarotzea (ordua baino lehen iristea eta irteteko ordua baino geroago alde egitea), absentismorik gabe.
8. Berdinekin harreman txarra izatea eta lagunak izateko zailtasunak.
9. Mesfidantza, batez ere pertsona esanguratsuei dagokienez.
10. Eskola- eta gizarte-jardueretan ez parte hartzea.
11. Eskolan kontzentratzeko zailtasunak.
12. Eskola-errendimendua bat-batean txikitzea.
13. Neurritz gaineko beldurra gizonei (biktima neska eta erasotzailea gizona denean).
14. Gizonenganako jokabide seduktoreak (biktima neska eta erasotzailea gizona denean).
15. Etxetik ihes egitea.
16. Loaren nahasmenduak.
17. Atzeranzko jokabideak.
18. Uzurtasuna.
19. Depresio klinikoa.
20. Ideazio suizida.

Adierazle horien aniztasuna ikusita, deigarria da batzuk besteen aurkakoak direla ohar-tzea: adibidez, herabetasuna, jokabide uzkurra eta depresioa, eta bestetik, agresibitatea eta liskarrak sortzeko joera; edo gizonetik jokabide fobikoak eta haiengandik ihes egitekoak, eta bestetik, gizonak erakartzeko nahia; edota ikasteko arazoak, eta aldi berean eskolan ohiko ordutegitik kanpo egoteko beharra. Interesgarria da ikustea behatu diren nahasmenduen konplexutasunak haurren erreakzio-motak islatzen dituela eta defentsa-saiakerak eta traumatizazio kronikora egokitze saiakerak antzematen laguntzen duela (Intebi, 2011).

Haur batzuek erraztasun handiagoa dute abusuzko egoerak eragiten dien inpaktu emozionala kanporatzeko eta, ondorioz, helduen arreta pizten duten portaerak dituzte, portaera oldarkorrak edo transgresoreak (Intebi, 2011). Aldiz, beste haur batzuek ez dute inpaktu hori kanporatzeko erraztasunik, eta eragin traumatikoa beren barnean mantentzen dute.

Ume isilak, uzkurak, hiperhelduak edo pseudo-egokituak dira, depresiboak, hainbat motatako adierazpen somatikoak dituztenak, eta oso pasiboak. Haur horiek ez dute helduen kezka pizten, konforme eta harro agertzen direlako, eta «isilak», «lasaiak» edo «heziak» direlako (Intebi, 2011). Detekzioari dagokionez, Polok eskatzen du arreta jartzea haur ikusezinenengan. Haur horiek, haur lotsatiak ez bezala, konformistak dira eta helduak eskatzen duen edozer egiten dute, gatazka saihesteko.

Gure kulturen haurrak sozializatzeko erabiltzen den moduagatik —mutilen jarrera oldarkorrek eta nesken pasibotasuna bultzatuz—, argi dago emozioak kanporatzearekin lotutako nahasmenduak ohikoagoak direla mutilen artean, eta barneratzearekin lotutakoak, berriz, nesken artean. Hala ere, horrek ez du esan nahi inpaktu traumatikoa barneratzearekin lotutako zailtasunak dituen gizonik ez dagoenik, eta argi eta garbi oldarkorra edo urratzailea den neskarik ez dagoenik. Gainera, portaera horiek aldatu egin daitezke denborarekin. Hau da, gerta daiteke eskola-adinean abusuzko egoerari pasibotasunez eta mendetasunez erantzuten dion neska batek jokabide autoagresiboak edo transgresiboak hartzea nerabezaroan sartzean, eta, itxuraz, ingurunean aldaketa horiek justifikatuko dituen aldaketarik ez gertatzea (Intebi, 2011).

4.1.1.2. Adierazle fisiko oso espezifikoak

Zantzu fisikoei dagokienez, esana dago HKSA n oso gutxitan aurkitzen direla. Era askotakoak izan daitezke eta maiz bateragarriak dira HKSArekin harremanik ez duten beste lesio batzuekin. Beraz, oso zaila da zantzu fisikoetatik sexu-abusua ondorioztatzea (Pereda, 2010b; Intebi, 2011). Hain zuzen, adierazle hauek epe laburrean soilik aurki daitezke, eta ohikoa da abusua agerian gelditzea hilabeteak edo urteak igaro ondoren (Pereda, 2010b). Hortaz, biktimei egindako azterketa medikoan zantzu fisikorik ez agertzeak ez du esan nahi abusurik izan ez denik, sarketa egon den kasuetan ere ohikoa baita zantzurik edo lesiorik ez egotea (Pereda, 2010b). Hala ere, «auzitegi-medikuek eta magistratuek oraindik ez dute onartu (herrialde honetan) haurren kontakizuna dela, eta ez zantzu fisikoak, gauzarik garrantzitsuena, eta sexu-abusuaren diagnostikoari ziurtasun handiena ematen diona» (Intebi, 2011, 203. or).

Adierazle fisikoei dagokienez, aipatu den Auzitegi Gorenaren epaian (Auzitegi Gorena, 2016) azaltzen da oso ohikoa dela sexu-abusua egon arren azterketa fisikoan beste gorabeherarik ez agertzea. Bi arrazoi nagusi daude horretarako: alde batetik, egindako abusu motak arrasto fisikorik ez uztea (laztanak, masturbatzeko eskaerak edo zona erogenoak laztantzea); bestetik, genitalan edo uzkiean lesioak izan arren, salaketak atzeratu egiten direnez (batzuetan urteak ere) lesioak desagertzea, arrastorik utzi gabe edo arrasto lausoak utzita. Izan ere, ohikoa da abusuaren berri izatea lehenengo erasotik denbora luzea igaro ondoren (hilabeteak edo urteak) (Vázquez Mezquita eta Calle, 1997; hemen aipatua: Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

Intebik (2011) ohartarazten du pediatra eta haur eta gazteen ginekologo gehienak bat datozela adieraztean sexu-abusu gehienek ez dutela lesio fisiko iraunkor eta agerikorik uzten. Soilik umeen % 30-50ek dituzte abusua gertatu izanaren zantzu fisikoak (2011). Intebik (2011) gogorarazten digunez, zaila da ulertzea neskato baten aurkako sexu-abusuak beti ez dakarrela bortxaketa, eta abusuak gehienetan hurbilketa sexual errepikakor, kroniko eta ez-ustekabekoak direla, indarkeria fisikorik gabe, biktimarekiko konfiantzaz edo botere harremanaz baliatuta. Bianco, Chiapparrone, Müller eta Wachterrek egindako gidan (2015), Intebi eta Osnajanskiren lana (2003) oinarri hartuta, adierazle oso espezifiko, probable eta ez-espezifikoak sailkapena egiten dute. Informazioa Intebik (2007) Kantabriako komunitaterako egindako *Valoración de sospechas de abuso sexual infantil* gidarekin osatu da, bertan ere sail-

kapen berdina egiten delarik. Aurretik aipatutako gidek honako hauek hartzen dituzte adierazle oso espezifikotzat:

1. Gurasoek edo beste heldu batzuek haurrarekiko jokaera sexual argi eta desegokiak dituztela edo haurra haien lekuko dela baieztatzen duen informazio guztiz fidagarria.
2. Abusua pairatu duen haurrak hura aipatzea edo aitortzea.
3. Abusua dagoela edo izan daitekeela baieztatzen duen medikuaren txostena.
4. Haurrak honako adierazle fisiko hauetakoren bat izatea:
 - Azalpenik ez duten edo zalantzazko azalpena duten lesioak zonalde genitaletan, uzki-uzkian, uzki-inguruan edo bularretan (higadurak, ubeldurak, urradurak, hematoma).
 - Osasun-azalpenik ez duen min, odoljarri edo jario genital edo uzkikoa.
 - Sugilazioak lepoan edo bularretan.
 - Zailtasuna ibiltzeko eta esertzeko.
 - Sexu-transmisiozko infekzioak.
 - Semena edo pubis-ilea ahoan, uzkian, genitaletan eta arropan.
 - Haurdunaldia.

4.1.2. SEXU-ABUSU PROBABLEAREN ADIERAZLEAK

Era berean, Intebik eta Osnajanskik (2003, Bianco *et al.*, 2015) honako hauek nabarmentzen dituzte sexu-abusu probablearen adierazleen artean:

1. Hanturak, gorritasuna edo eritema, lesioak sexu-organo edo uzki inguruan, atzamarka egitearen ondorioz agertzen diren lesioak.
2. Adin honetako umeengan ohikoak ez diren jokabide hipersexualizatuak edo autoerotikoak:
 - a) Masturbazio konpulsiboa: haurrarengan interes handiena pizten duen ekintza denean, haren denbora gehiena hartzen duena. Hura gaitzetsi dezaketen pertsonen aurrean ere ekidin ezin dezakeenean.
 - b) Edozein adinetarako jokabide ezegokiak; adibidez, animalien genitalak edo ondestea arakatzea, edota haien zuloetatik objektuak sartzen saiatzea.
 - c) «Mediku», «bikote» edo «aita-ametara» jolastea, jokaera oso sexualizatu batekin.
 - d) Beste umeekin jolastean ekintza sexual zehatzak antzeztea; besteak beste, aho-sexua, alu- edo uzki-koittoa, batak bestea masturbatzea edo genitaletan objektuak sartzea.
 - e) Beste umeek sexu-jolasetan parte har dezaten indar fisikoa edo mehatxua erabiltzea.
 - f) Sexualizazio goiztiarra: sexu-jolas goiztiarrak eta adin honetarako ezohiko jakinmina.
 - g) Sexu-jolasean aritzea gazteagoak diren eta beste garapen-etapa batean dauden umeekin.
 - h) Era ezohikoan gerturatzea pertsona helduengana: helduen genitalak ukitzen saiatzea, makurtuta dagoen pertsona batengana atzetik gerturatu eta kopulazio-mugimenduak imitatzea, ohean helduaren gainean jarri eta koitooaren mugimenduak imitatzea, edo muxu ematean mihia sartu edo ukitzea.
 - i) Nerabeak direnean: promiskuitate sexuala, prostituzioa edo gehiegizko inhibizio sexuala.

3. Adinerako ezohikoa den ezagutza sexuala.
4. Haurraren guraso edo familiako kide batek abusuaren susmoa duela esatea.
5. Haurrarekin datozen helduek haurrarekin duten jokaera sexualen inguruan zalantzak piztea.

Jokabide hipersexualizatuek oro har adierazten dute haurrak sexuarekiko ezohikoa den jakintza bat duela. Ohikoa da zenbait sexu-portaera areagotzea edo horiek modu berezian gartztea (Intebi, 2011).

Oso garrantzitsua da lehenbailehen eta ahalik eta ziurtasun handienaz bereiztea jolas esploratorio kaltegabeak larriak izan daitezkeen praktikatik. Bereizketa hori ezinbestekoa da HKSA detektatzeko, eta, horregatik, susmoetan espezializatutako profesional batengana jotzea gomendatzen da (Intebi, 2011).

4.1.3. SEXU-ABUSUAREN ADIERAZLE EZ-ESPEZIFIKOAK

Sexu-abusuak baditu ere adierazle ez-espezifikoak eta ez dute zertan kausazko erlazioa izan sexu-abusuarekin. Dena dela, estres-maila altuekin lotuta daudenez, erne jarri behar gaituzte, eta abusu-hipotesia kontuan hartu eta baloratu (Intebi, 2011). Adierazle horien artean ditugu adierazle fisikoak eta psikologikoak, adinaren arabera antolatutako taula batean aurrerago ikus daitezkeen moduan (Intebi, 2011, 205. or.):

- Asaldura psikosomatikoak: tripako mina behin eta berriz, eta jatorri idiopatikoa duen buruko mina.
- Elikadurari lotutako asaldurak: nerbio-bulimia edo -anorexia.
- Gertakari erregresiboak edo atzeragarriak: esfinterraren kontrola lortu ondoren gerta daitezkeen enuresia edo enkopresia.
- Gernu-infekzio errepikakorak, kausa organiko ezagunik gabekoak.

Echeburúak eta Gerricaechevarriak (2005; hemen aipatuta: Aguilar, 2009) adierazle horien osagarritzat har daitezkeen beste hauek aipatzen dituzte:

- Adierazle fisikoak: ibiltzeko edo esertzeko zailtasunak.
- Portaeraren eta emozioen adierazleak: goserik ez izatea, biluztu edo bainatu nahi ez izatea, bat-batean aitari edo amari muzin egitea, kideekiko harreman sozialetan uzkur eta bakarka aritzea, fantasiak, atzerantzko jokabideak (atzamarra miazkatzea, ohean txiza egitea), depresio kronikoa (sarritan negar egitea, batik bat egoera afektibo edo erotikoetan), beldurra, fobiak, histeria, kontrol emozionalik eza, sekretismo-rako joera.
- Sexu-alorreko adierazleak: musuak eta laztanak bat-batean errefusatzea.

Agrupación de Mujeres Mundanas taldeak (Corin, 2015) irakasleentzat argitaratutako eskuliburuak gogoratzen duenez:

Muchas veces, cuando vemos que un niño o niña que nos llama la atención porque tiene problemas de aprendizaje, es violento/a, grita, llora o le cuesta relacionarse, en primera instancia lo adjudicamos a un divorcio, una mudanza, un hermanito, violencia familiar (relacionada con gritos o golpes) o algún tipo de abandono, no suele entrar en nuestro abanico de posibi-

lidades el abuso sexual. Seguramente podríamos estar en lo cierto, ya que estos cambios en la vida de un niño/a, o sufrir cualquier tipo de violencia, podrían estar siendo manifiestos de esta forma y seguramente requiera considerar nuestra intervención. Lamentablemente, tenemos que cotejar también la variante de un posible abuso sexual. Siempre es mejor equivocarnos que dejar a un niño o niña seguir padeciendo este flagelo (6. or.).

4.2. Sexu-abusuak jasan izanaren ondorioak

4.2.1. EPE LABURREKO ONDORIOAK

Epe laburreko ondorio psikologikoak gehienbat haurtzaroan eta nerabezaroan ager daitezke, eta adierazletzat hartzen diren sintomekin lotu daitezke. Pereda (2009) epe laburreko ondorioak bilduz eginiko berrikuspen-ikerketan, haurren % 62,8-69k sintomatologia psikopatologikoa dute. Egileak honako hauek nabarmentzen ditu: *arazo emozionalei* dagokienez, biktimen ia erdiek trauma osteko sintomatologia, antsietatea eta depresio-sintomak dituzte (mutilen % 4-44 eta nesken % 9-41), autoestimua baxua eta erru- eta estigmatizazio-sentimendua (% 4-41), baita ideazio edo jokabide suizidak ere (emakumeen % 26,5-54 eta gizonen % 37,4-50). *Errendimendu akademikoari eta arazo kognitiboari* dagokienez, arreta- eta kontzentrazio-gaitasuna nabarmentzen da, eta % 4-40k sintomatologia hiperaktiboa dute. *Harreman-arazoak* (familia kideekin eta ezezagunekin) ohikoak dira, eta biktimen % 44k lagun gutxi dituzte (biktimak ez direnen kasuan, % 11). *Arazo funtzionalei* dagokienez, lo egiteko arazoak (% 56), esfinterraren kontrola galtzea (% 18) eta elikadura-arazoak (% 49) dira ohikoenak (Pereda, 2009; Pereda, 2010b).

Especialistak guztiz ados ez egon arren aurkikuntza horien adierazgarritasunean, bat datoz esatean elikadura-nahasmendua dituzten sexu-abusuen biktima gehienek elikadura-patologia konplexuko koadroak dituztela (bulimia, gorakoak, laxanteen abusua), eta deigarri gertatzen den lotura ere badutela beste nahasmendu larri batzuekin (depresioa, alkoholismoa, kleptomania, promiskuitatea, automutilazioa), sintoma disoziatibo larriekin batera (nortasun-nahasmenduak, despertsionalizazioa, deserrealizazioa, amnesia) (Intebi, 2011). Biktima batzuek nerbio-anorexia dute, ez bakarrik norberaren kontaktuak eta sexu-sentsazioak saihesteko modu gisa, baita erasotzaileari nahigabea eta arbuioa eragiteko metodo gisa ere. «Nire gorputza ekintza «onartezin» horien bidez sexualki kitzikatu izanaren errua izugarria zen» (Intebi, 2011, 208. or). Horrela, elikadura-nahasmendua, aldi berean, zigortzeko modu bat eta errua, norberarekiko gorrotoa eta babesgabatasuna onartzeko estrategia bat da, eta agerian uzten ditu trauma osteko sintomak, mugen urraketa larriei erantzuteko (Intebi, 2011, 207. or).

Azkenik, jokabide-arazoei dagokienez, jarrera sexualizatuak, konformitate konpultsiboa eta jokabide disruptibo eta disoziala (emakumeen % 25,3 eta gizonen % 58,4) agertu ohi dira. Zehazki, jarrera sexualizatua 15 aldiz probableagoa da biktimetan, eta haur txikiengan ere ikus daiteke; ondorioz, sexu-abusuaren adierazle oso fidagarritzat hartzen da (Pereda, 2009).

Es cierto que numerosas víctimas de abuso sexual presentan comportamientos sumamente seductores. Esto puede suceder aún en niños de corta edad. Los especialistas las denominan conductas hipersexualizadas. Se considera que los acercamientos que estos niños sufrieron en la interacción con ciertos adultos significativos, han interferido la capacidad para establecer vínculos, sobre todo de tipo afectivo. Los niños aprendieron un modelo de intercambio en el cual los contactos sexuales placenteros para el adulto se recompensaban con demostraciones de cariño (caricias o halagos), regalos, preferencias o privilegios.

Muchas veces el abusador utiliza explícitamente este modelo para vencer la resistencia de la niña. Suele decir: «esto solo lo hago con vos, porque sos mi preferida». «Esto solo lo hacen las personas que se quieren mucho». Es así que contribuye a establecer otro mecanismo subyacente en las conductas seductoras de los niños: la distorsión de las percepciones del mundo exterior, que les impide discriminar de manera adecuada la incomodidad, el rechazo o la confusión que su comportamiento genera en el resto de las personas, tanto en los adultos como en sus pares. Las víctimas de abuso están convencidas de que las actitudes sexualmente provocativas les ayudarán a conseguir lo que tanto desean (Intebi, 2011, 30-31. or.).

Adierazleei dagokienez adin-tartea desberdintzen duten autoreen sailkapenetako datuak (Bianco *et al.*, 2015; López, 2010; hemen aipatua: Corin, 2015; Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2006; hemen aipatuta: Aguilar, 2009) bat datoz epe laburreko eta epe luzeko ondorioekin. Nolanahi ere, erabilgarria izan daitekeelakoan, taula bat osatu dugu horiekin guztiekin:

Bizi-zikloaren etapan araberako adierazleak

Lehen haurtzaroa (0-2 urte)

- Etengabe negar egitea.
- Haurrarentzat garrantzitsuak diren pertsonenganako beldurra, egoera zehatzek edo pertsona horien zaintzapean egoteak eragindako beldurra.
- Norbaitekiko erasokortasuna edo hura beti arbuiatzea.
- Lo-arazoak: inoiz ez dio erne egoteari uzten eta tentsioan bizi da. Amesgaiztoak, gaueko izuak edo loaren nahasmenduak.
- Tristura, sumindura, etsaitasuna: umea erasokor dago eta ama jotzen du sarritan, haren arreta pizteko modu gisa.
- Begirada galdua: sonanbulu baten antzeko begirada, aurrean duena zeharkatu ahalko balu bezalako.
- Uzkurtasun soziala.
- Ekintza mailako aldaketak, jokabide erasokor edo atzeranzkoekin batera.

Eskolurreko adina (3-6 urte)

Aurreko etapan aipatutako adierazle batzuk

- Azpiko arropa hautsia: odol-arrastoekin edo gabe.
- Masturbazio konpultsiboa.
- Baginan edo uzkie objektuak sartzea.
- Ezohiko jakin-min sexuala: helduen mailako ezaguera erakusten duten sexualitateari buruzko galderak egiten ditu.
- Haurraren adinerako jolas sexual desagokiak: ia jolas guztiek sexu-edukia dute.
- Sexu-hizkuntza lizuna.
- Hiperaktibitatea.
- Atzeranzko jokaerak.
- Enuresia edo enkopresia.
- Desobedientzia iraunkorra.
- Sumisio deigarria.
- Isolamendua.
- Ohiz kanpokoak diren jokabideak.
- Estutasuna.
- Anestesia emozionala: ezer ez zaiola axola dirudi.
- Fobiak eta azaldu ezin daitezkeen beldurrak: bat-batean, ez du bainugelara bakarrik joan nahi edo amarengandik banantzeko izua du, edota senideren baten etxera, eskolara, etab. joateko izua.
- Arreta-falta: beste leku batean dagoela dirudi.
- Garapen intelektualeko atzerapena.
- Ezkutuko izaera duen harremana haurraren eta harentzat esanguratsua den pertsona heldu baten artean, edo patroia obsesiboak dituen: hau da, errituarekin, hitz zehatzak errepikatuz eta ondoren jokabide eta jarrera zehatzak burutuz, edo jolas misterioitsuak.
- Neke izugarria eta estres-sintomak.
- Depresioa.
- Trauma osteko estresarekin lotutako asaldurak.
- Jokabide-asaldura barnerakoiak (depresioa, antsietatea...) edo kanporakoiak (arriku-jokabideak, oldarkortasuna...). Loaren gorabeherak: amesgaiztoak edo gau-izua.
- Hainbat motatako jokaera konpultsiboak.
- Asaldura disoziatiboak.

Eskola adina (7-12 urte)

Aurreko etapetan aipatutako adierazle batzuk

- Ohiko ordutegitik kanpo eskolan egoteko joera.
- Ume txikiagoekiko aparteko hertsatze sexuala.
- Nortasunari edo arau sexualei dagokien nahasmendua: jendearen aurrean biluzten da, bere sexu-organoak argi eta garbi erakusteko, edo besteenak ikusi nahi ditu.
- Ezaguera eta portaera sexual arraroa edo ezohikoa; adibidez, panpinekin jolastean, sexu-harremanak irudikatzea.
- Sexu-portaera nabarmena.
- Arropa asko janztea: ume batzuek galtzontzillo edo kulero asko janzteko beharra dute, abusa zailtzeko.
- Nerbio-tikak.
- Etxetik ihes egitea.
- Eskolatik etxera itzuli nahi ez izatea.
- Autoritate-figurarekiko arazoak: uko egiten die sistematikoki aginduei edo kontsignei. Mesfidantza handia pertsona heldu garrantzitsuekiko.
- Pseudo-heldutasuna edo gehiegizko egokitzapena: pertsona helduagoen hizkuntza eta jarrerak erabiltzea, moldakaiztasuna edo gutxiagotasun-sentimenduak konpentsatzeko modu gisa.
- Bulkadak kontrolatzeko zailtasunak: lagunak jotzen ditu, gauzak botatzen ditu lurrera, etab.
- Uzkurtasun deigarria edo, aitzitik, etsaitasuna eta agresibitatea, bai etxean bai lagunen artean.
- Frustrazioarekiko tolerantzia txikia: zerbait gaizki ateratzen denean edo jokoan galtzen duenean, jokoa bertan behera utzi eta erasokor jokatzen du.
- Lapurretak.
- Ohiko gezurrak.
- Erne egote gehiegizkoa: isila, fidagaitza eta antisoziala da.
- Gehiegizko lotsa.
- Jokaera-arazoak, barne zein kanpo mailan (depresioa edo erasokortasuna, hurrenez hurren).
- Autobalorazio pertsonal eta autoestimua-maila txikia. Itxaropenik eza eta tristura-sentimendua.
- Beldurrak.
- Amesgaiztoak.
- Neurosia.
- Autoestimua baxua.
- Hiperaktibitatea.
- Gorabeherak edo efektu kaltegarriak ohiko jokabidean eta funtzionamenduan, eta garapen kognitibo eta sozio-emozionalean (batez ere neska biktimen kasuan).
- Eskola-arazoak: errendimendu eta funtzionamendu akademikoa okertzea eta ikasketa-arazo larriak.
- Jokaera sexual desagokiak (masturbazioa eta gehiegizko kezka sexuala, exhibizionismoa eta sexu-erasoak).
- Erru-sentimendua agertzea eta biktima erasoaren errudun sentitzea.

Nerabeak (13-18 urte) (12-21 urte) gidaren arabera

Aurreko etapetan aipatutako adierazle batzuk

- Uzkurtasun edo gainegokitze soziala.
- Etxetik ihes egitea.
- Familia barneko gatazkak: etengabeko desadostasunak eta onetsi gabeko borrokak.
- Berdinen arteko harreman txarrak: azaleko gailentasuna, besteak gutxietsiz, inork uler-tzen ez diola sentitu ahal izateko.
- Norberaren segurtasun fisikoa arriskuan jartzea eta jokaera autosuntsitzaileak: nor bere buruari lesio eta min fisiko larria egitea; automutilazioak, ilea edo azazkalak erauztea...
- Suizidioaren ideia errepikakorrek edo saiakerak.
- Sexu-kontaktu promiskuoak: sexu-harremanak edozeinekin eta kontuz ibili gabe; ez zaio axola norekin dituen sexu-harremanak.
- Portaera sexual goiztiarra (haurdunaldia).
- Prostituzioa.
- Delituzko jokaerak.
- Jokaera antisozialak (droga- eta/edo alkohol-kontsumoa, etxetik ihes egitea, eskolara ez joatea, delinkuentzia...).
- Gorputzaren eskemaren distortsioa.
- Norbere gorputzarekiko gorrotoa.
- Elikadura-jokaeraren desorekak: bulimia, anorexia eta obesitatea.
- Identitate sexualeko arazoak.
- Gehiegizko inhibizio sexuala.
- Disfuntzio sexualak: ezin da heldu orgasmora , ezin da kitzikatu, eiakulazio goiztiarra, erekzio-arazoak, etab.
- Ikusmenarekin, entzumenarekin edo ukimenarekin lotutako haluzinazioak.
- Depresioa.
- Autoestimua baxua.
- Anestesia emozionala: ezerk hunkitzen ez duela dirudi.
- Asaldura disoziatiboak.
- Isolamendu soziala.
- Asaldura somatikoak.
- Gorabehera psikiatriko larriak: agerraldi psikotikoak, nortasun anizkoitza, etab.

Beraz, azaldu bezala, eskolaurreko garaian sintoma internalizanteak agertuko dira gehien bat, bereziki enuresia, antsietatea (trauma osteko sintomatologia gailentzen da) eta kexa so-matikoak. Arazo externalizanteak hurrengo etapetan agertuko dira (jarrera disruptiboak eta de-linkuentzia) (Pereda, 2009).

Hala ere, berriro nabarmendu behar dira subjektu bakoitzaren berezitasuna eta indibidualtasuna, pertsona bakoitzak bere zirkunstantzia pertsonalak dituelako. Horrenbestez, aurretik aipatu diren ezaugarriak ez dira ehuneko ehunean betetzen eta ezin dira lotu zehazki garapeneraren etapa jakin batekin, erraz gainjar baitaitezke (Aguilar, 2009). Hala ere, esan daiteke nolabaiteko jarraikortasuna dagoela abusu-adierazpenetan: hasieran, jokabide- eta kognizio-arlo oinarrizkoenei eragingo die; gero, kaltea pertsonaren parte bihurtuko da, haren izaera eta nortasuna eratuz esperientzia goiztiar horietan oinarrituta.

Lópezen (2014) ustez, adierazleei dagokienez, itxuraz azalpenik ez duten bat-bateko aldaketak dira HKSaren adierazle deigarrienak.

Modifiqué la forma en la que escribía. Comencé a hacer una letra muy chiquita y prolija. Cambié el ritmo con el que hablaba. Empecé a elegir cuándo y a quién hablarle. Me volví retraída y me alejé de las personas y de mis sentimientos porque me di cuenta de que me resultaba más sencillo encaminarme sin estas interferencias. (Intebi, 2011, 208.or)

Egia da, hala ere, horrelako bat-bateko aldaketen kausa sexu-abusua ez den bestelako egoera traumatikoa izan daitekeela, baina garrantzitsuena da kontuan izatea, kausa ugarien artean, sexu-abusu bat ere izan litekeela. Echeburúa eta Guerricaechevarría (2015) ados daude Lópezekin (1995) honetan:

Son probablemente los indicadores sexuales los que están más relacionados con la experiencia traumática (Noguerol, 1997). En todo caso, los indicadores deben valorarse de forma global y conjunta, ya que no se puede establecer una relación directa entre un solo síntoma y el abuso (Soria y Hernández, 1994). De hecho, lo más útil puede ser estar pendientes de los cambios bruscos que tienen lugar en la vida del niño (por ejemplo, no querer ir a un lugar anteriormente atractivo, evitar estar con determinadas personas próximas emocionalmente, rehuir el contacto físico habitual con ellas, etc.) (19-20. orr.).

4.2.2. EPE LUZEKO ONDORIOAK

Epe luzeko ondorioak biktimen % 20k pairatzen dituztela baieztatu da (Pereda, 2010a). Klinika psikiatrikoetan dauden pazienteen aurretiazko historian, adibidez, intzestu-harremenen maiztasuna % 22-44koa da, eta ehuneko horrek gaintitu egiten du oro har biztanleria osoari dagokionez espero daitekeena (Intebi, 2011). Aurrekari horien presentzia neurrigabea are nabarmenagoa da jokabide suiziden, nortasun *borderline*-aren eta nahasmendu eskizofrenikoen ondorioz internatutako pazienteen artean (Intebi, 2011). Intebik adierazten duenez, sexu-abusuen aurrekarien zifra handienak —% 75 eta % 90 artean— patologia psikiatriko larrienetako bat duten emakumeen artean daude: nortasun anitzeko nahasmenduak (Intebi, 2011).

Peredak epe luzeko ondorioez egindako berrikuspenetan (2010a, 2010b), *arazo emozionalak* nabarmen ditzakegu, eta oso maiz agertzen dira nahasmendu depresibo eta bipolarrak, antsietate-sintomak eta nahasmenduak, bereziki trauma osteko estresaren nahasmendua, mugako nortasunaren nahasmendua, jokabide autolesiboak nerabegarotik (ebaketak eta erredukak besaurreetan eta eskumuturretan), suizidio-idea edo -saiakerekin batera edo gabe, eta autoestimua baxua (Pereda, 2010a).

Es lo que tienen las autolesiones: no solo te colocan, sino que también te permiten expresar el asco que te inspiran el mundo y tu persona, controlar el dolor, disfrutar del ritual, de las en-

dorfinas, de esa violencia sórdida, bestial y ejercida contra uno mismo en privado, y no hacer daño a ninguna otra persona. (...)

Era perfecto. Había encontrado algo que, aunque fuese temporal, me ayudaba a funcionar mejor, a estar más disponible, a no dejar a mi familia tirada, a ponerme la careta (Rhodes, 2016, 125. or.)

Harreman arazoei dagokienez, pertsonen arteko harremanak kaltetuenetarikoak dira, bai hasieran bai epe luzera. Biktitek dute isolamendu maila eta antsietate sozial handiagoa, lagun kopuru txikia eta gizarte-harreman eskasak, eta gutxi parte hartzen dute jarduera komunitarioetan. Halaber, arazoak agertzen dira bikote-harremanetan eta seme-alaben heziketan, baita amatasun-rolaren balio-galera orokorra ere (Pereda, 2010a). Jokabide- eta gizarte-egokitzapen arazoei dagokienez, etsaikeria maila handitzen da, baita jokabide antisozialak eta nahasmenak ere (etxetik ihes egitea, delinkuentzia eta atxiloketak) (Pereda, 2010a).

Arazo funtzionalei dagokienez, kasuistika oso zabala da: azalpen mediko gabeko min fisiokoak, buruko minak, fibromialgia eta nahasmen gastrointestinalak. Emakumeengan, nahasmen kardiobaskularrak izateko arriskua handitzen da. Elikadura-portaeraren nahasmendua (obesitatea, bulimia edo anorexia nerbiosoa), bereziki nerbio-bulimia. Konbertsio-nahasmendua, funtzio motorra edo sentoriala kaltetuz; konbultsiozko atake ez-epileptikoak eta somatizazio-nahasmenduak. Maiztasun handiko sintoma eta nahasmendu disoziatiboak (kontzientzia, identitate, oroimen eta ingurunearen pertzepzio-funtzio integratzaileen alterazioa). Nahasmendu ginekologikoei dagokienez, bereziki min pelbiko kronikoak, alterazioak hilekoaren zikloan eta menopausiaren agerraldi goiztiarra (profesional gehienek ez dute aurretiko bizipena ezagutzen). Substantzien mendekotasun eta kontsumo altuekin lotutako nahasmenduak (alkohola, tabakoa eta marihuana), beste tratatu txar motekin ere konparatuta, nahasmendu honen hasiera goiztiarragoa, berrizkatura-arrisku handiagoa eta pronostiko txarragoa tratamenduan. Osasun fisiko orokor okerragoa (sintoma fisiko errealak eta biktimen osasun-pertzepzioan oinarrituta), neke kroniko idiopatikoa eta bisita-kopuru handiagoa medikuarenera. Urte luzez irauten duten arazo fisiko kronikoak, zahartzarora arte ere iraun dezaketenak (Pereda, 2010a; 2010b).

Arazo sexualei dagokienez, moldaerazkoa ez den sexualitatea izateko probabilitate handia dute biktitek, ohikoak izanik ere sexualitate disfuntzional eta desatsegina eta sexu-arriskuko jokabideak (babesgabeko sexu-harremanak, bikote-harreman ugari, STG presentzia handiagoa eta HIES arriskua). Gainera, jokabide sexual promiskuoak eta sexualitatearen hasiera goiztiarra, prostituzioa, haurdunaldiak eta abortuak adin goiztiarretan eta haurdunaldiarekiko sentimendu negatiboak izateko joera dute, amatasun goiztiar eta erditze osteko depresioarekin batera (Pereda, 2010a; 2010b).

Ikusi denez, helduaroan nahasmendu psikopatologikoak pairatzeko arriskua badago ere, etapa horretan ezin daiteke ere hitz egin sindrome zehatz batez edo sintoma-multzo zehatz batez. Dena dela, oro har, osasun mentala okerragoa da, eta sintoma eta nahasmendu psikiatriko gehiago daude (Pereda, 2010a). Gainera, gaur egun, hura definitzeko trauma konplexuaren kontzeptua erabiltzen ari da (López-Soler, 2008). Izan ere, beste tratatu txarrek ez bezala, HKSA ez da nortasun-nahasmendu zehatz batekin korrelazionatzen, bai ordea nola edo hala nahasmendu guztiekin (Pereda, 2010a). Peredak (2019) azpimarratzen du ezin daitezkeela diagnostiko desberdinak egin; biktima hauek trauma konplexuaren sintoma ugari dituzte, eta, haren ustez, horrek izan behar du diagnostikoa.

Me convertía en una especie de rata de laboratorio para unos psiquiatras que tenían muchas ganas de poner a prueba su pericia a la hora de hacer diagnósticos y recetar medicinas. Al cabo de unos días llegaron a la conclusión de que sufría todo lo siguiente: trastorno bipolar, estrés postraumático agudo, autismo, síndrome de Tourette, depresión clínica, ideación suicida, anorexia, trastorno disociativo de personalidad y trastorno límite de personalidad. Me medicaron en consecuencia (Rhodes, 2016, 139.or.; hemen aipatuta: Pereda, 2019)

Sexu-abusuak jasaten dituzten haurren erantzun afektiboak lotu ohi dira beldurrarekin edo haserrearekin, baita autoinkulpazio-sentimenduekin, babesgabetasun-sentipen orokorrarekin edo ezintasunarekin ere. Denbora igaro ahala, subjektuak sentipen horiek egonkortu eta bere izaeran txertatuko ditu, eta, horrela, nortasun ez-segurua eta anbibalentea garatzeko jarraitibideak osatuko ditu. Horren guztiaren ondorioz, eta prebentzioak egokiak izan ez badira, nabarmen handituko da helduaroan nahasmendu psikopatologikoak garatzeko probabilitatea; hala nola nortasun antisozialeko nahasmenduak edo askotariko jokabide oldarkorrak (Aguilar, 2009).

Gainera, berbiktimizazioa edo polibiktimizazioa (hau da, HKSA osteko biolentzia fisiko eta sexuala pairatzeko arriskua) % 16-72koa da (Pereda, 2010; Cuevas, Finkelhor, Clifford eta Ormrod, 2010; hemen aipatuta: Kanter eta Pereda, 2020). Izan ere, ohikoena ez da abusatzaile bihurtzea, biktima-rola areagotzea baizik, arriskuak ez aurreikusiz eta abusu- eta indarkeria-egoeretan eroriz (Save the Children, 2017).

También en este último tiempo, las investigaciones registran que los niños más expuestos al riesgo de victimización sexual crónica, son aquellos que ya han padecido alguna otra forma de maltrato infantil. Los ofensores parecen contar con un «radar» para detectar niños y jóvenes con carencias emocionales. Saben que les resultará sencillo aproximarse y ganar su confianza demostrándoles afecto. Además, muchos saben de forma intuitiva que no será complicado hacer creer a estas criaturas —ya que sobrellevan una persistente desprotección—, que aceptaron voluntariamente participar en los episodios abusivos (Intebi, 2011, 152. or)


4.3. *Ondorioak pairatzea baldintzatzen duten aldagaiak*

Intzestuaren traumaren larritasunari dagokionez, Muelak (2007) dio kaltegarriena dela gurasoek egindakoa, eta ondoren datozela honako hauek eginikoak: aitona-amonek, aita-amaren bikotekideek, horien aitona-amonek, anaia-arreba nagusiek, anaia-arrebaordeek, osaba-izebek, osabe-izebaordeek, lehengusu-lehengusinek eta ezezagunek. Pronostikoaren larritasuna ez dago —askok uste duten bezala— erasotzaileak eginiko kontaktu motaren mende. Hau da, umearentzat ez da kalte gutxiagokoa ukituen biktima izatea aho-sexuko praktikak pairatzea baino (Intebi, 2011).

Aldiz, Peredak adierazten du hainbat aldagairen mende dagoela ondorio bat edo beste pairatzea eta ondorio hori larriagoa edo ez izatea: abusu mota, biktimaren eta erasotzailearen arteko harremanak, biktimaren nortasunaren ezaugarriak eta errebelazioaren ostean biktimak jasotako gizarte-laguntza edo -sostengua (Pereda, 2010b). Zehazki, errebelazioaren ondoren biktimarentzat esanguratsuak diren pertsonen sostengua eta erantzun positiboa jasotzea, bai haurtzaroan bai helduaroan, egoera psikologiko hobea batekin lotu izan da (Pereda eta Sicilia, 2017).

Izan ere, aurreko kapituluan aipatu den moduan, amaren babesak eta laguntza garrantzitsuagoak dira biktimaren susperraldian eta ongizatean, baita haren garapen osasuntsuan ere, abusuaren ezaugarriak (abuso mota, iraupena edo erasotzaileak biktimarekin duen harremana) baino gehiago (Deblinger, Steer eta Lippmann, 1999, Everson eta besteak, 1991, Fromuth, 1986, Johnson eta Kenkel, 1991, Spaccarelli eta Kim, 1995, Tremblay eta besteak, 2000; hemen aipatuta: Bick, Zacaj, Ralston eta Smith, 2014). Haurrak intzestua errebeltzen duenean, amaren rola erabakigarria da, eta haren jarrera funtsezkoa da seme-alabaren osasun mentalerako. Amak intzestua salatzea justiziara jotzen duenean, babes judiziala bilatzen du seme-alabarentzat eta berarentzat, erakundeek babesak hain zuzen, hain egoera traumatikoari aurre egin ahal izateko (Dora; hemen aipatua: Bianco *et al.*, 2016). Ama babesle batek sistemaren laguntza badu, egoera emozional hobean egongo da oro har sexu-abusuak sortutako egoera kudeatzeko, mendekotasun txikiagoa izango du erasotzailearekiko, eta gaitasun handiagoa izango du babesak bilatzeko bai beretzat bai seme-alabarentzat (Bianco *et al.*, 2016). Alicia Ganduglia (2007) adituaren ustez, sexu-abusuak jasandituzten haurren amak sexu-indarkeriaren biktimak ere dira. Izan ere, egoera larriagotu egiten da emakumeen eta haurren testigantzari ematen zaion sinesgarritasun txikiagatik, bereziki gizon errespetagarri eta boteretsuek egindako sexu-erasoak salatzen dituztenean. Sinesgarritasun falta hori nagusi izan da garai guztietan (Bell eta Offen, 1983, Olafson *et al.*, 1993; hemen aipatua: Bianco *et al.*, 2016).

Amaren babesak biktimaren testigantzan ere eragiten du; bere babesak atzera ez egiten laguntzen baitio (Pereda *et al.*, 2018). Hala ere, kontuan hartu behar da horrelako gertaera batek eragina duela ere haurraren ingurunean (Kanter eta Pereda, 2020). Biktimen amek, adibidez, ezinegon fisiko eta psikologikoa pairatzen dute (buruko mina / migraina, urdailhesteetako arazoak, larruazaleko gaixotasunak eta immunitate-sistemaren ahuldura), baita trauma osteko estresa ere (Cyr, Frappier, Hébert, Tourigny, Mcduff eta Turcotte, 2018). Adituek diote amak direla oraindik ere gehien inplikatzeko direnak biktimen tratamenduan eta jarraipenean.



Bideoa: Yo traje la rata a casa

5. Ondorioak

Abusua detektatzeko ez diegu soilik adierazleei erreparatu behar, orokorrak eta askotari-koak direlako eta horrek diagnostiko oker batera eraman gaitzakeelako. Azkenik, ohikoa da sexu-abusuak jasan dituzten haur eta nerabeek itxuraz sintomarik ez izatea, baina horrek ez du esan nahi abusua egon ez denik.

Garrantzitsuena da adi egotea haur eta gazteek portaera-aldaketa nabarmenak dituztenean. Hau da, beste aukeren edo zioen artean sexu-abusua ere egon daitekeela baloratzea, kontuan hartuz beti hurrekin harremana duten profesionalen betebeharren artean ez dagoela sexu-abusua gertatu den edo ez ziurtatzea —lanbide zehatzetan izan ezik—. Profesionalek ez dute ez ikertzen ez akusatzen. Hau da, ez dute erabateko ziurtasuna izan behar profesional bakoitzaren eremuko protokoloa jarraituz gertatutakoaren berri emateko orduan. Era berean, egileek aipatu bezala, garrantzitsua da babes-sistema ezagutzea, eta eraginkorrena izango litzateke eremu bakoitzak bere barne-protokoloa izatea.

Ikusi den bezala, deigarria da HKSAren gaiak duen gabezia orokorra. Hain zuzen, pertsona helduek eta, beraz, gizarteak, ez dute arazoaren garrantzia onartzen, eta ondorioz haurrek arriskuan jarraitzen dute, arazo bat ez delako desagertzen tabu bat balitz bezala tratatuz gero. Brennan eta McElvaneyk (2020) bezala, uste dugu garrantzitsua dela haur guztiek konfiantzazko heldu batengana jotzeko aukera izatea, eguneroko bizitzako gorabeherak larritu edo asaldatzen dituztenean. Haur guztiek sexu-portaerari buruzko heziketa jaso behar dute (zer dagoen ondo eta zer ez), eta ikasi behar dute beren larritasun emozionala kudeatzen eta aurrera egiteko zailtasunak dituztenean laguntza eskatzen. Haur guztiek, edozein adin dutela ere, eskubidea dute helduek erantzun diezaieten, beren arazoan larritasunaz jabetu daitezten, ondo dauden galde diezaieten, seriooki har ditzaten eta kalte handiagoetatik babesteko neurriak har ditzaten.

Era berean, garrantzitsua da haurren artean erresilientzia sustatzea. Izan ere, aipatu dugun guztian oinarrituta, onartu behar dugu ez dakigula gure artean dauden umeen artean zeintzuk pairatu dituzten, pairatzen ari diren edo pairatuko dituzten sexu-abusuak. Gaiak sakondu ezin izan bada ere, erresilientziaren inguruko ikerketek emaitza adierazgarriak eskaintzen dizkigute, eta garrantzitsua da kontuan hartzea ikerketa horiek gure praktika profesionalean.

Halaber, agerian jarri nahi dugu berriro gaur egungo gizartean dugun hezkuntza afektibo-sexual falta eta haurrek jasotzen dituzten mezu kontrajarri eta hipersexualizatuak. Beraz, hezkuntza afektibo-sexuala lantzeaz gain, ikuspuntu kritiko bat gaineratu beharko zaio, gaur egungo haur eta gazteak gai izan daitezen gizarretik jasotzen dituzten mezuak testuinguru kritiko batean kokatzeko.

Amaitzeko, bereziki azpimarragarria da biktimak inguruko pertsona esanguratsuengandik jasotzen duen babesa dela abusuaren ondorio kaltegarriak txikitzeko edo arintzeko faktore garrantzitsuenetarikoa. Dena dela, kontuan hartu behar da pertsona horiek ere (bereziki amek) ondorio fisiko eta psikologikoak jasan ditzaketela. Hortaz, aintzat harturik pertsona esanguratsu edo binkularren babesak izan ditzakeen ondorio positiboak, beharrezkoa da ere haien osasuna eta garapena zaintzea eta behar duten babesa eskaintzea.

6. Erreferentziak

- Aguilar, Marta (2009). Abuso sexual en la infancia. *Anales De Derecho*, 27, 210-240.
- Alonso, Garazi eta Garay, Urtza (2020). Abusu Sexualak Haurtzaroan. Unibertsitateko ikasleen sinesmen eta jakintza maila. In Gamito, R., Martínez, J. eta Vizcarra, M. T. (koord.), *XXVI psikodidaktikako ikerkuntza jardunaldiak* (35-46. or.). Eskuragarri hemen: <https://addi.ehu.es/handle/10810/43053>
- Ararteko (2021). *Pautas de actuación en casos de abuso y explotación sexual de niños, niñas y adolescentes en Euskadi*. Ararteko
- Auzitegi Gorena (2016). Comunicación Poder Judicial (2016ko ekainaren 14a). El Tribunal Supremo constata que la proporción de falsos relatos de abuso sexual infantil por partedelasvíctimas es muy-reducida. *Poder Judicial España*. Hemendik berreskuratua: <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Noticias-Judiciales/El-Tribunal-Supremo-constata-que-la-proporcion-de-falsos-relatos-de-abuso-sexual-infantil-por-parte-de-las-victimas-es-muy-reducida>
- Ballester, Rafael eta Gil, María Dolores (2006). La sexualidad en niños de 9 a 14 años. *Psicothema*, 18(1), 25-30. Hemendik berreskuratua: <http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=3171>.
- Bianco, Mabel, Chiapparrone, Norma, Müller, María eta Wachter, Paula (2015). *Abuso sexual en la infancia: Guía para orientación y recursos disponibles en CABA y Provincia de Bs. As.* Fundación para Estudio e Investigación de la Mujer.
- Bick, Johanna, Zacaj, Kristyn, Ralston, M Elizabeth eta Smith, Daniel (2014). Convergence and Divergence in Reports of Maternal Support Following Childhood Sexual Abuse: Prevalence and Associations with Youth Psychosocial Adjustment. *Child Abuse Neglect*, 38(3), 479–487. DOI:10.1016/j.chiabu.2013.11.010
- Brennan, Emma eta McElvaney, Rosaleen (2020). What Helps Children Tell? A Qualitative Meta-Analysis of Child Sexual Abuse Disclosure. *Child Abuse Review*. Published online in Wiley Online Library (wileyonlinelibrary.com) DOI: 10.1002/car.2617
- Corin, Yama (2015). *Manual para docentes. Abuso Sexual Infantil*. Hemendik berreskuratua: http://www.diariofemeni-no.com.ar/documentos/97_100186_MANUAL%20ASI%20por%20hoja.pdf
- Cyr, Mireille, Frappier, Jean-Yves, Hébert, Martine, Tourigny, Marc, McDuff, Pierre eta Turcotte, Marie-Eve (2018). Impact of child sexual abuse disclosure on the health of nonoffending parents: A longitudinal perspective. *Journal of Child Custody*, 15(2), 147–167. doi:10.1080/15379418.2018.1460649
- Echeburúa, Enrique eta Guerricaechevarría, Cristina (2015) *Abuso sexual en la infancia: víctimas y agresores*. Ariel.
- Greco, Ana M., Guilera, Georgina eta Pereda, Noemí (2017). School staff members experience and knowledge in the reporting of potential child and youth victimization. *Child Abuse & Neglect*, 72, 22-31. DOI: <https://doi.org/10.1016/j.chiabu.2017.07.004>
- Hammel-Zabin, Amy (2005). *Conversaciones con un pederasta. Manual para prevenir la pedofilia a través del diálogo entre una víctima y un verdugo*. Martínez Roca.
- Horno, Pepa (2013). *Escuchando mis «tripas»: programa de prevención del abuso sexual en educación infantil*. Boira.
- Idoiaga, Nahia, Gil de Montes, Lorena, Asla, Nagore eta Larrañaga, Maider (2019). «La Manada» in the digital sphere: coping with a sexual aggression case through Twitter. *Feminist Media Studies*, 1-18. <https://doi.org/10.1080/14680777.2019.1643387>
- Intebi, Irene (2007). *Valoración de sospechas de abuso sexual infantil*. Dirección General de Políticas Sociales.
- Intebi, Irene (2011). *Abuso sexual infantil. En las mejores familias*. Granica.
- Kanter, Bárbara eta Pereda, Noemí (2020). Victimization Sexual en la Infancia e Intervención Basada en la Evidencia: La Terapia Cognitivo-Conductual Focalizada en el Trauma. *Revista de Psicoterapia*, 31(115), 197-212. <https://doi.org/10.33898/rdp.v31i115.313>
- López, Félix eta del Campo, Amaia (2002). *Prevención de abusos sexuales a menores*. Salamanca.
- López-Soler, Concepción (2008). Las reacciones postraumáticas en la infancia y adolescencia maltratada: el trauma complejo. *Revista de Psicopatología y Psicología Clínica*, 13(3), 159-174. DOI: <https://doi.org/10.5944/rppc.vol.13.num.3.2008.4057>
- López, Félix (2014) *Los abusos sexuales a menores y otras formas de maltrato sexual*. Síntesis

- López, Félix (2020). *La educación sexual de los hijos*. Pirámide.
- Martínez, José Luis, González, Eva, Vicario-Molina, Isabel, Fernández-Fuertes, Andrés A., Carcedo, Rodrigo J., Fuertes, Antonio eta Orgaz, Begoña (2013). Formación del profesorado en educación sexual: pasado, presente y futuro. *Magister: Revista miscelánea de investigación*, 25(1), 35-42. Hemendik berreskuratua: <https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S0212679613700057?via%3Dihub>, 2020/01/01
- Márquez-Flores, María Mercedes, Márquez-Hernández, Verónica eta Granados-Gámez, Genoveva (2016). Teachers» Knowledge and Beliefs About Child Sexual Abuse. *Journal of Child Sexual Abuse*, 25, 538-555, DOI: [10.1080/10538712.2016.1189474](https://doi.org/10.1080/10538712.2016.1189474)
- Muela, Alexander (2007). *Haurrei emandako tratu txarrak: atzematea, jatorria eta ondorioak*. UEU
- Pereda, Noemí (2009). Consecuencias psicológicas iniciales del abuso sexual infantil. *Papeles del Psicólogo*, 30(2), 135-144. Hemendik berreskuratua: <http://www.papelesdelpsicologo.es/pdf/1702.pdf>.
- Pereda, Noemí (2010a). Consecuencias psicológicas a largo plazo del abuso sexual infantil. *Papeles del psicólogo*, 31(2), 191-201. Hemendik berreskuratua: <http://www.papelesdelpsicologo.es/pdf/1846.pdf>.
- Pereda, Noemí (2010b). Actualización de las consecuencias físicas del abuso sexual infantil. *Revista Pediatría de Atención Primaria*, 7(46) 273-285. Hemendik berreskuratua: <https://pap.es/articulo/11176/actualizacion-de-las-consecuencias-fisicas-del-abuso-sexual-infantil>, 2019/11/18.
- Pereda, Noemí (2011). Revisión sistemática de las consecuencias neurobiológicas del abuso sexual infantil. *Gaceta Sanitaria*, 25(3), 233-239. DOI: <https://doi.org/10.1016/j.gaceta.2010.12.004>
- Pereda, Noemí, Arch, Mila, Guerra-González, Raquel, Llerena, Gemma, Berta-Alemany, Marta, Saccinto, Elisa eta Gascón, Ester (2012). Conocimientos y creencias sobre abuso sexual infantil en estudiantes universitarios españoles. *Anales de psicología*, 28(2), 524-531. <http://dx.doi.org/10.6018/analesps.28.2.148801>
- Pereda, Noemí eta Sicilia, Laura (2017). Reacciones sociales ante la revelación de abuso sexual infantil y malestar psicológico en mujeres víctimas. *Psychosocial Intervention*, 26(3), 131-138. Hemendik berreskuratua: http://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_abstract&pid=S1132-05592017000300131, 2019/12/20.
- Pereda, Noemí, Greco, Ana M., Hombrado, Jaume eta Segura, Anna (2018). ¿Qué factores inciden para romper el silencio de las víctimas de abuso sexual?. *Revista Española de Investigación Criminológica: REIC*, (16). Hemendik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6877815>, 2020/01/02.
- Pereda, Noemí (2019). El abuso sexual infantil desde la perspectiva de la victimología del desarrollo. *Haurren kontrako Sexu Abusuen Sekretua hausten IV. Jardunaldietan aurkeztutako txostena*. Leioa: Gure Sarea Elkarte, Leioa.
- Polo, Pilar (2016). Abuso Sexual Infantil: Detección-Intervención-Prevención (publikatu gabeko eskuizkribua). Vicki Bernadet Fundazioa.
- Rhodes, James (2016). *Instrumental. Memorias de música, medicina y locura*. Blackie Books.
- Save the Children (2017). *Ojos que no quieren ver*. Save the Children. Hemendik berreskuratua: <https://www.savethechildren.es/publicaciones/ojos-que-no-quieren-ver>
- Summit, Roland C. (1983). The child sexual abuse accommodation syndrome. *Child Abuse and Neglect*, 7, 177-193.
- Townsend, Catherine (2016). *Child sexual abuse disclosure: What practitioners need to know*. Darkness to Light. Retrieved from www.D2L.org.
- Verdugo, Miguel Ángel, Alcedo, M.ª Ángeles, B. Bermejo eta Aguado, Antonio L. (2002). El abuso sexual en personas con discapacidad intelectual. *Psicothema*, 14, Supl. Hemendik berreskuratua: <http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=3482>

4. GAIA

HAURREN AURKAKO SEXU-ABUSUAREN TRATAMENDU JURIDIKO- INSTITUZIONALA

-
1. Sarrera
 2. Haurrak zuzenbideko subjektu gisa aitortzerako bidea
 3. Haur bizirauleak
 - 3.1. Salaketa eta notifikazio betebeharra
 - 3.2. Profesionalak notifikazioan
 - 3.2.1. Oztupoak notifikazioan
 - 3.3. Testigantza baten aurreko jarduketaren prozedimendua azaltzen
 - 3.3.1. Lehenengo esku-hartzearen garrantzia
 - 3.3.2. Salaketa
 - 3.3.3. Salaketa aurkeztu ondoren: haurrak babesteko errekurtsoen aktibatzea eta instrukzio judizialaren fasea hastea
 - 3.3.4. Epaitegiak ezberdintzen
 - 3.3.5. Zigor-arloko epaitegia: instrukzioa
 - 3.3.6. Zigor-arloko epaiketa
 - 3.3.7. Epaien errekurtsuak
 - 3.3.8. Erasotzailea aita denean - Familia epaitegia
 - 3.4. Mito eta uste faltsuak: salaketa faltsuak
 - 3.4.1. Sexu-abusuaren salaketak ohikoak dira zaintzaren inguruko eztabaidetan, eta akusazio gehienak faltsuak edo funtsik gabeak dira
 - 3.4.2. Zaintza aldaketak aita abusotzaileei ezohikoak dira
 - 3.4.3. Gurasoen Alienazio Sindrome faltsua
 4. Biziraule helduak
 5. Ondorioak
 6. Erreferentziak
-

1. Sarrera

Aurreko kapituluetan adierazi dugunez, abusua urte luzez luza daiteke inolako susmorik sortu gabe (Bianco *et al.*, 2016). Hori dela-eta, garrantzitsua da helduek aintzat hartzea familiako edo konfiantzazko pertsonak haurrez abusatatu dezaketela eta abusua detektatu den unea baino askoz lehenago hasitakoa izan daitekeela. Nolanahi ere, Save the Children erakundeak gogorarazi duenez, «ikusteaz gain, sinestea erabaki behar da» (Save The Children, 2017, 66. or). Sexu-abusu mota edozein dela ere, beti salatu behar den delitua da, haurren eta nerabeen osotasuna babesteko eta haien babesa eta ongizatea bermatzeko. Ukituak edo bortxaketa izan, guztiek ondorio larriak izan ditzakete haurren psikismoan eta garapenean (Bianco *et al.*, 2015).

Testuinguru horretan, kapitulu honen helburua da HKSA kasuetan gaur egun egiten diren esku-hartze jakin batzuen bidegabekeria eta legekontrakotasuna nabarmentzea. Rozanski (2003) adierazi bezala:

Injusticia, por cuanto resulta paradójico que en aquel espacio creado para la protección de niñas y niños se maltrate a quienes han sido víctimas de atroces delitos. Ilegalidad, por cuanto, como se verá, la legislación vigente prohíbe a las autoridades tomar medidas que dañen o perjudiquen de cualquier forma a las niñas y niños, más aún cuando son víctimas de delitos (Rozanski, 2003, 22-23. or.).

Zer hobetu behar den jakin behar dugu, profesional bakoitzak bere eremuan, egungo egoeran, bere lana ahalik eta ondoen nola egin jakin dezan, abusuaren biktima izan den haurraren arreta hobetzeko. Ezinbestekoa da abusu-kasuak ikuspegi multidiziplinar batetik aztertzea eta tratatzea, oso zaila baita haurrak babestea, sarean ez bada.

Halaber, agerian utzi behar da HKSA kasuen kudeaketa instituzionalari buruzko datu publikorik eza. Adibidez, genero-indarkeriaren alorrean, badakigu zenbat kasu dauden epaitegietan, zenbat kasu artxibatu diren, etab. Informazio hori ezinbestekoa da arazoa bere osotasunean aztertzeko. Aitzitik, haurren kontrako sexu-abusuen kasuan, ez dago inolako daturik eta horrek oso zaila egiten du gertatzen ari dena ebaluatzea (Naredo, 2017).

2. Haurrak zuzenbideko subjektu gisa aitortzeko bidea

XX. mendea «Haurren mendea» izan zen. 1989. urtean, Genevako Haurren Eskubideen Deklarazioa oinarri hartuta, Haurren Eskubideei buruzko Kobentzio sinatu zuten mundu osoko hainbat herrialdek (Espainiak barne). Itun horrek haurrak eskubidedun subjektutzat hartzen ditu eta eskubide horiek betearazteko neurriak eskatzen die estatuei. 19. artikulua honako hau dio espresuki:

Los Estados parte adoptarán todas las medidas legislativas, administrativas, sociales y educativas apropiadas para proteger al niño contra toda forma de violencia, perjuicio o abuso físico y mental, descuido o trato negligente, malos tratos o explotación, incluido el abuso sexual, mientras el niño se encuentre bajo la custodia de los padres, de un tutor o de cualquier otra persona que lo tenga a su cargo (Intebi, 2011,61-62. or).

Espainiako zuzenbidean txertatzen denez, nazioarteko itunak mantendu egiten ditu nazioarteko arau-izaera eta eraginkortasun juridiko berezia. Nazioarteko arau horri dagokionez, nazioarteko zuzenbidean oinarritzen da barne-zuzenbidearen gaineko nagusitasuna, eta ez

dago Konstituzioaren aitortzearen mende. Hala ere, Espainiako Konstituzioak zuzenean aipatzen ez badu ere nazioarteko zuzenbide konbentzionalaren nagusitasuna, lehenetsun hori zeharka baina zalantzarik gabe berresten du Espainiako Konstituzioaren 96.1 artikulua.

Art.96.1. Los tratados internacionales válidamente celebrados, una vez publicados oficialmente en España, formarán parte del ordenamiento interno. Sus disposiciones sólo podrán ser derogadas, modificadas o suspendidas en la forma prevista en los propios tratados o de acuerdo con las normas generales del Derecho internacional (Espainiar Konstituzioa, 1978).

Hau da, Morenok (2018) aipatzen duen bezala, nazioarteko zuzenbidearen arabera, Estatuak da haurren eskubideen lehen bermatzailea, eta hari dagokio erantzukizunak ezartzea eta erakunde publikoek eta pribatuek eskubideak babesteko eta indarkeria ezabatzeko duten zeregin zaintzea (Moreno, 2018).

Era berean, Arartekoak (2018) gogorarazten duenez, tartean haurrak eta nerabeak dauden edozein esku-hartzetan, erabatekoa eta argia da eskubideak aitortzeari buruzko arau-esparrua:

Burutzen den edozein esku-hartze haurra eskubideen jabe izatearen ikuspuntutik egin behar da. Hau da, azterketa hori umea biktimatza hartzeaz harago doa, eta oinarriz hartzten du haren duintasuna eta osotasun fisiko nahiz psikologikoa errespetatzea, eskubideen jabe denez. Haurren eskubideen Batzordeak dioenez, Hitzarmenean badira bi artikulua, batera irakurrita, itun horrek eragin zuen paradigma-aldaketa markatzen dutenak eta umeari estatutu berria ematen diotenak: eskubideen subjektu izatea, ez bakarrik babestu beharreko pertsona. Honako hauek dira: 3. artikulua (haurren interes gorena), erabaki-hartzaileak, edozer erabakitzean, umearen interesa kontuan hartzea behartzen dituena; eta 12. artikulua, zeinak betebeharrak hau ezartzen dien estatuei: haurrei aditzea beraientzat garrantzia duten erabaki guztietan, beraien iritzia aintzat hartzea eta iritzi horrek hartutako erabakian eragin ahal izatea. Nazioarteko joerei jarraiki, umearen interes gorena interpretazio printzipio bat baino askoz gehiago da. Funtsezko eskubidea da berez, eta prozedurazko araua; hori dela eta, erabaki bakoitzak kasuan kasuko umearengan izan ditzakeen ondorioak (mesedegarriak edo kaltegarriak) balioestera behartzen gaitu. Kasu bakoitzean egin behar da hori, eta zertzelada zehatzetan oinarritu. Era berean, argi eta garbi azaldu behar da zer aldagai hartu diren aintzat eta zer irizpide erabili diren (Ararteko, 2018, 17. or.).

Aitzitik, Save the Childrenek 2012. eta 2017. urteetan egindako ikerketek erakusten dute epaitegietan ez dela kontuan hartzen ekintza publiko orotan nagusi izan behar duen haurren interesa (eskubide, printzipio eta prozedimendu-arau gisa) (Save the Children, 2017). Gainera, María Naredo (2017) jurista-ikertzaileak Haurren Babeserako III. Jardunaldietan emandako hitzaldian adierazi bezala, HKSA, arazo sozial eta politikoa izateaz gain, giza-eskubideen alorreko arazotzat hartzen hasi behar da. Izan ere, haurrak ez dira politiken onuradunak, eskubideen titularrak baizik; hots, HKSA giza-eskubideen bortxaketa larria da eta Estatuak erantzukizun desberdina dute (Naredo, 2017). Era berean, ikertzaileak ohartarazten digu gaur egun arrakala handia dagoela esparru-araudiaren, berez behar lukeenaren eta errealitatean badenaren artean, are gehiago haurrak biktimak direnean eta oraindik gehiago biktimizazioa familian gertatu denean. Hori horrela, Espainiak haurren interes gorena urratzen ote duen **ikertzen ari da Europar Batasuna**, familia barneko HKSA kasuetan bereziki, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak ezarritako konpromisoak ez betetzeagatik.

Zentzu horretan, 2017. urtean Arartekoak Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordearentzat egindako txostenean (Espainiako Estatuak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena

betetzen zuen ebaluatzeko prozeduraren barnean egina), urrats txiki batzuk aitortzen baziren ere, batez ere problematika azaleratzeari begira, egiaztatu zen ahulak direla oraindik esku hartu behar den eremuetan ematen diren erantzunak (Arartekoa, 2018). Txostenak jasotako ondorioetan, hainbat hobekuntza-alor identifikatu ziren EAEn haurren kontrako sexu-abusuei aurre egiteko zereginen: «hobetzeko eta garatzeko tarte handia dago: detekzioa, diagnostikoa, esku hartzea —arloan judizialean, sozialean—, biktimak osatzeko tratamendua eta, beraz, prebentzioa, profesionalen prestakuntza, pertsona, lantalde eta zerbitzuen arteko koordinazioa» (Arartekoa, 2018, 14. or.).

Horrenbestez, Save the Childrenek (2017) salatu duenez, Espainiako legedia eta araudiak nahikoak dira arazoari aurre egiteko, baina ez dira behar bezala aplikatzen. Izan ere, Aguilarrek (2009) dioenez, «erakunde batek araudi bat sortzea ez da nahikoa, ez bada gero inoiz erabiltzen» (239. or.).

3. Haur «bizirauleak»

3.1. *Salaketa eta jakinarazteko betebeharra*

Haur baten kontrako sexu-abusu baten berri duen pertsona heldu orok hori jakinarazteko betebeharra du, eta legeak, horretarako gaitasuna emateaz gain, betebeharrak ezartzen die eremu publiko edo pribatuan indarkeriazko gertaeren berri izan duten edo susmoak dituzten pertsona guztiei. Beraz, betebeharra ez da soilik haurraren ardura duten pertsonentzat (gurusoak, tutoreak edo zaintzaren arduradunak), eta gertaeren berri edo susmoak dituzten pertsona guztientzat ere bada, eremu publikokoak nahiz pribatukoak: laguntza-, hezkuntza-, osasun- eta justizia-erakundeetako enplegatu eta funtzionario publikoak, irakasleak eta osasun-arloko profesionalak. Hori horrela, haurren sexu-osotasunaren aurkako delitu baten aurrean jarduteko betebeharrak delegaezina dute, inolako baldintzarik gabe; hala nola baimena eskatzea hierarkian gorago dagoenari. Horrelako gertaeren berri izan eta ezer egiten ez duena delituaren konplize bihurtzen da (Bianco *et al.*, 2016).

Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoak, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatuak (BOE, 180 zk., 2015/07/29), honako hau dio:

Artículo 13. Obligaciones de los ciudadanos y deber de reserva.

Artículo 13.1.: toda persona o autoridad y especialmente aquellos que por su profesión o función detecten una situación de maltrato, de riesgo o de posible desamparo de un menor, lo tiene que comunicar a la autoridad o sus agentes más próximos, sin perjuicio de prestarle el auxilio inmediato que precise.

Artículo 13.3.: Las autoridades y las personas que por su profesión o función conozcan el caso actuarán con la debida reserva. En las actuaciones se evitará toda interferencia innecesaria en la vida del menor.

Artículo 13.4.: toda persona que tenga noticia, a través de cualquier fuente de información, de un hecho que pueda constituir un delito contra la libertad e indemnidad sexual, de trata de seres humanos, o de explotación de menores, tendrá la obligación de ponerlo en conocimiento del Ministerio Fiscal sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación procesal penal (Carrero, 2018, 120. or.).

Profesionalei dagokienez, Pilar Polo adituak (2019) adierazi bezala, interesgarria da ZAINZA kontzeptua gogoratzea. Honela definitzen den legezko kontzeptu bat da: pertsona batek edo erakunde publiko batek aldi baterako hartzen du bere gain haur baten zaintza, guraso-ahalaren titularren borondatez eta ordezkaritza-eskubiderik gabe, eta haurraren zaintzaile bihurtzen da, hari laguntza eman eta haren ongizatea bermatzeko betebeharrarekin. «Zaintza-aldia amaitzean, «zaintzaileen» ardura da haurra hasierako egoera berean egotea, ahal bada hobeto, inoiz ez «okerrago»» (Polo, 2019). Ezin dira legezko ordezkari izan, baina bai jakinarazi, eta «zaintzearen» kontzeptuaren barruan sartuko litzateke hori (Polo, 2019).

3.2. Profesionalak jakinarazpenean

Nolanahi ere, errealitatea ez dator bat legeak esandakoarekin. Izan ere, derrigorrezkoa bada ere jakinaraztea sexu-abusu baten inguruko susmorik izanez gero (Greco, Guilera eta Pereda, 2017), Katalunian egindako ikerketa baten arabera, ikertutako irakasleen % 72,8k HKSA zantzuak ikusi zituztela adierazi zuten, baina horietatik soilik % 27,6k eman zuten horien berri (Greco *et al.*, 2017). Hori horrela, ikerketan parte hartu zuten irakasleen % 59k ez zekiten beren eskolak HKSA protokolorik bazuen ala ez, eta interesgarria litzateke jakitea ea irakasle horiek bazekiten nahitaezkoa dela jakinaraztea susmorik izanez gero.

3.2.1. OZTOPOAK JAKINARAZPENEAN

Greco, Guilera eta Pereda (2017) zenbait oztopo komun identifikatu dituzte biktimizazio-kasu posibleak detektatu eta salatzeko orduan: adierazleak antzemateko gaitasunik eza, familien heziketa-praktikak gaizki ulertzearen beldurra, haurren babes-zerbitzuen funtzionamendua ez ezagutzea, haien betebeharrak legalak edo salaketa- prozedurak ez ezagutzea, esperientzia txarrak instituzioetan txostenak aurkeztean (Babes Zerbitzuak, polizia, etab.), babes-sistemarekiko konfiantzarik eza eta lotsa edo errepresalien beldurra:

Es habitual además que las personas que intervienen en estos casos (familiares, maestras, profesionales) se muestren dubitativas y desconfiadas con respecto a los niños, por diversas razones. En primer lugar, carecen de información adecuada y de centros especializados para asesorarse. Pero no todo se explica por esta carencia de orientación confiables. Debemos reconocer también, que solemos teñir la realidad con el color del cristal con el cual la observamos. Este cristal hace que pensemos que los abusos sexuales solo ocurren en clases sociales muy bajas, con escasos niveles educativos, en las familias de los alcohólicos y drogadictos. O que son «viejos verdes» degenerados, fácilmente detectables por su aspecto, quienes hacen estas cosas a los niños. O que, las víctimas, debido a su edad, están más propensos a mentir que los adultos. Nos resistimos a creer que un hombre pacífico, buen vecino, trabajador, a quien conocemos desde hace bastante tiempo, pueda comportarse de esta manera con un hijo, un sobrino, una nieta, la hija de un vecino o de su mejor amigo. No sorprende, entonces escuchar ciertos comentarios que deberían sonar, al menos, paradójicos. Una mujer cuya hija de 14 años había sido brutalmente abusada por su padre durante varios años, sollozaba cuando se le indicó que debía presentar su caso a la Justicia. Entre lágrimas, llegó a decirme: «No sé si lo voy a poder hacer. Salvo por esto, él siempre fue un buen hombre» (Intebi, 2011, 174-175. or).

Intebik (2011) adierazten duenez, erasotzailearen profilik ez edukitzea da susmo baten aurrean ez jakinaraztera bultzatzen gaituena. Haren ustez, sarritan, erasotzaile helduaren alderdi

ez-ezkutukoekiko identifikazioak eraman gaitzake, alde batetik, abusuzko harremanak minimizatzen, arrazionalizatzen eta baita ukatzen ere, eta, bestetik, haurrak babesteko neurrien aurrean guk ere sentituko genukeen sufrimenduagatik errukitzera: abusatzailea bere etxetik kanpo uztea, familiarekin duen harremana etetea, ezkontideen banantzea edo legezko prozedurak abian jartzea. Summiten (1983) hitzetan:

Lo que todo el mundo no sabe, y no quería saber, es que la gran mayoría de las acusaciones investigadas resultan válidas y que la mayoría de los jóvenes tenían menos de ocho años en el momento de la iniciación. (...) La incredulidad y el rechazo de los posibles cuidadores adultos aumentan la impotencia, la desesperanza, el aislamiento y la autoculpa que constituyen los aspectos más dañinos de la victimización sexual infantil. Las víctimas que miran hacia atrás suelen sentirse más resentidas hacia aquellos que rechazaron sus súplicas que hacia el que inició las experiencias sexuales (2. or).

Kontu horri lotuta, Intebik (2011) dioenez, zenbat eta maltzurragoa eta zitalago izan neska-toak deskribatutako egoera, orduan eta nabariagoa da mekanismo hori —are gehiago abusuak gertatzen direnean itxura batean gurearen antzekoak diren familietan—. Beraz, ez da harrigarria familia barneko HKSA kasuen % 2 bakarrik jakiten direla gertatzen ari diren unean (Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2015).

3.3. *Testigantza bat dagoenean jarduteko prozedura*

Delituaren berri duen edozein pertsonak jakinarazteko/salatzeko betebeharra du, eta horretarako zer egin, nola eta noiz jakin behar du. Izan ere, Haurren Kontrako Sexu Abusu baten berri emateak krisi bat sortzen du (handiagoa edo txikiagoa) biktimaren inguruan, eta familia eta profesionalak ez daude horretarako prestatuta edo ez dute nahikoa informazioa.

Kontuan hartu behar da ez dagoela argi zer urrats egin behar diren eta zein den bidea, are gutxiago adituak ez diren pertsonentzat (Pereda, 2019). Hala, kasu askotan, esku hartze prozedura mingarriagoa izan daiteke biktimarentzat eta familiarentzat gertatu den indarkeria-egoera bera baino (Raposo, 2018).

HKSAa lantzen duten profesionalak, gutxienez, abusu-kasu baten jarraipena egiteko sistemaren oinarriak ezagutu behar dituzte, prozeduran funtsezkoak izango diren elementuak identifikatzeko (Raposo, 2018). Gainera, profesional jakin batzuen kasuan, garrantzitsua da prozedura orokorra ezagutzea (dagokion esparruko eskumenetatik harago), biktimaren erreakzio psikosozialak ulertu eta behar bezala lagundu ahal izateko. Izan ere, pediatriaren eta hezkuntzaren alorretan adibidez, kasua detektatu ondoren, alor horietako profesionalak izango dira biktimaren erreferentziak prozesuaren zati handi batean.

3.3.1. LEHENENGO ESKU-HARTZEAREN GARRANTZIA

Prozedurak legelaria ez den edozein pertsonarengan sortzen duen nahasmena dela-eta, labor azalduko ditugu atal honetan prozesuan aintzat hartu behar diren elementu garrantzitsuenak. Adibide gisa hartuko den egoera ohikoena ez izan arren, prozedura argiena duen egoera da: biktima batek abusu baten testigantza ematea eta pertsona hori legezko figura edo tutore baten pean egotea.

Azalpena egituratu da aintzat hartuta prozeduraren faseak eta esparruak. Lehenik eta behin, hitz egingo dugu lehen harrera batean profesionalak biktimaren testigantza jasotzeaz, protokoloa aktibatzeaz eta abusua salatzeaz; ondoren, instrukzio-epaitegira jotzeaz eta dagozkion instantziak abiarazteaz; jarraian, epaiketa penalaz eta kasua artxibatuz gero biktimak errekurtsua jartzeko dituen aukerez.


Amaitzeko, aipatu den bezala, abusu-kasu gehienak aitaren figurari lotuta daude. Beraz, bereizi egin behar dira aita eta aitaren rola betetzen duen pertsona: lehenengoak zaintzarako eskubidea du; bigarrenak ez (legezko tutorea izan ezean). Hori horrela, arlo zibileko epaitegiaren zeregina aztertuko dugu labur, biktimaren eta senide erasotzailearen arteko harremanez arduratzen dena.

Detekzioarekin batera aktibatzen den esku-hartze eta babes-sistemak sektore profesional askoren inplikazioa du (soziala, forentsea, terapeutikoa, hezitzailea, osasuna, judiziala, polizia, hedabideak, etab.). Sistemak jarduketa edo fase bakoitzean emango duen erantzunak mugatu edo baldintzatu egingo du, neurri handi batean, esku-hartze prozesuaren arrakasta edo porrota.

Esku-hartze prozesuak izan behar du artikulatua, koordinatua, espezifikoa, jarraitua eta diziplinartekoa, biktima babesteko helburuaz, susmoak direla-eta kasua detektatzen denetik edo haren berri ematen denetik, ahozko epaiketa egiten den arte, egotekotan. Era horretan ekintza penalerako behar diren frogak fidagarriak lortzeko (Bianco *et al.*, 2016; Raposo, 2018). Izan ere, lehen jarduketa horrek, aurreko kapituluetan azaldu den bezala, baldintzatu egin ditzake, biktimak jasandako sexu-erasoaren ondorioak (epe labur, ertain eta luzera) eta biktimak berak abusuaz eginiko irakurketa eta lanketa ez ezik, baita abusuaren lekukotza atzera botatzeko aukera ere, jakinarazpenak edo detekzioak eragin ahal izan dituen berehalako ondorioak saihesteko (Raposo, 2018).

Bestetik, biktimak ez du inolako sinesgarritasunik erabakitzen duenean agintariei gertaren berri ematea (Pereda *et al.*, 2018). Crisma, Bascelli, Paci eta Romitok (2004) sexu-indarke-riaren biktima izan diren nerabeei eta helduei egindako elkarrizketek agerian utzi dute biktimek oso laguntza txikia jasotzen dutela abusuak kontatzen dieten profesionalengandik. Seitik batek bakarrik sentitu du profesionalak sinetsi eta lagundu egin diotela (Münzer *et al.*, 2014). Save the Children (2017) erakundeak egindako azterlanaren arabera, biktimek sexu-abusua kontatu duten kasuen % 70ean ez da ezer egin edo ezer gutxi egin da, eta biktima horien ikastetxeen % 85ek ez dute jarduketarik abiarazi. Gainera, ikastetxe batzuk ustezko biktimizazio-kasuak salatzearen kontrakoak dira, ospea galtzearen beldur (Greco *et al.*, 2017). Ildo beretik, López eta del Campok gogoratzen dute «abusua ez salatzea biktima erruduntzat hartzeko modu bat izan daitekela: «Zerbait ezkutatu beharko dugu», salatzeraz ausartzen ez garenean» (2002, 30. or.).

4. GAIA. Haurren aurkako sexu-abusuaren tratamendu juridiko-instituzionala



Hain zuzen ere, ez sinestearen pertzepzioaren aurrean, ohikoa da biktimak atzera egitea bere testigantzan. Horrenbestez, Guerricaechevarriak eta Echeburúak gogorarazten dutenez (2015), ez da ezohikoa errebelazioaren ondoren atzera egitea, biktima gertatutakoaren garrantziaz jabetuta. Sexu-biktimizazioa jasan duten 2 eta 17 urte arteko biktimen artean prebalentzia eta atzera-egite faktoreak aztertu zituen azterlan baten arabera, ia lau biktimetatik batek atzera egiten du (Malloy, Lyon eta Quas, 2007; hemen aipatuta: Münzer *et al.*, 2014).

3.3.1.1. Abusutzen duten haurrak

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da nahitaezkoa dela Fiskaltzari jakinaraztea 18 urte baino gutxiagoko pertsonen egindako sexu-erasoen kasuak, baita ustezko erasotzailea 14 urtetik beherakoa denean ere (5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena). Horrela, inplikaturako alderdi guztiak batera arituko dira: alde batetik, Fiskaltza; bestetik, Haurren Babes Sistema (Carrero, 2018).

Aurreko kapituluetan adierazi den bezala, haurrek pairatzen dituzten indarkeria-kasu gehienak konfiantzazko helduek eragiten badituzte ere, ehuneko esanguratsu bat 18 urtetik beherako erasotzaileei dagokie. Richen (2003) arabera, 7-17 urteko mutilak dira erasotzaileak 6 urtetik beherako haurren aurkako sexu-erasoen % 40an, 7-11 urteko haurren aurkako sexu-erasoen % 34an eta 12-17 urteko haurren aurkako sexu-erasoen % 24an (Rich, 2003; hemen aipatuta: McGrath, 2018).

3.3.1.2. Testigantzak eragindako lehen arreta eta jarduketa

Agente zibilek (gizarte-langileak, medikuak, gizarte-hezitzaileak, psikologoak eta psikiatrak) aurretik aipatu diren printzipioetan oinarritutako laguntza eman behar dute, berriazko gaitasun eta gaikuntzarik ez duten galdeketa egin gabe (Bianco *et al.*, 2016). Etxearen intimitatean hertsapenez eta mehatxupean eginiko delitua denez, normalean lekukorik eta ebidentzia edo zantzu fisikorik utzi gabe, lekukotza argi, zehatz eta kutsatu gabeko oroitzapenetan oinarrituak funtsezko balioa izango du prozesuan, eta ikerketaren elementu garrantzitsuenetako bat izango da (Bianco *et al.*, 2016).

Al ser un delito consumado en la intimidad del hogar, bajo coacción y amenaza, y, generalmente, en ausencia de testigos y de evidencias o signos físicos, un testimonio claro, preciso y basado en el recuerdo no contaminado tiene un valor fundamental en el proceso, siendo uno de los elementos más importantes de la investigación (Bianco *et al.*, 2016, 40. or.).

Beraz, kontuan hartu behar da beti «gutxieneko esku-hartze espezializatuaren» irizpidea, haurra berriro biktimizatzeko modu guztiak saihestuta (Bianco *et al.*, 2016). Alde horretatik, Segurtasun Indarren zereginari dagokionez, honako hau dio bere ondorioetan Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/2009 Zirkularrak:

Siempre que las circunstancias lo permitan debiera prescindirse de la declaración policial del menor, especialmente cuando el mismo sea víctima del delito y fundamentalmente cuando este sea de naturaleza sexual. Para reducir al mínimo imprescindible el número de declaraciones puede resultar conveniente dar pautas a la Policía Judicial, para que en casos en que pueda ser especialmente perturbador tomar declaración al menor, se prescinda de la misma y se le traslade al Juzgado de Guardia para preconstituir la prueba (Carrero, 2018, 127. or.).

Tamarit *et al.*en (2015) ikerketan, 18 urtetik beherako elkarrizketatu gehienek adierazten dute hainbat aldiz deklaratu behar izan dutela, baita hiruzpalau aldiz ere, eta horrek deserosotasuna eta ondoeza eragin diela, baita berbiktimizazio bat ere, galderak behin eta berriz errepikatzeagatik edo galdetzailearen oldarkortasun edo sentsibilitate ezagatik. Biktimen ustez, behin baino gehiagotan deklaratu behar izatearen arrazoia da haien lekukotasuna zalantzan jartzea. Horren adibide, ikerketan jasotako testigantza hau:

P23: Me tocó ir como dos o tres veces fui, me preguntaron qué. Ellos me preguntaban si es que yo iba, como decir, ¡cómo decirte! Como que si yo estuviese mintiendo y pensaban que yo iba a cambiar la historia. Me llamaron tres, me llamaron una, dos y tres veces. Y yo las tres veces que fui les expliqué siempre lo mismo. Hasta que vieron que yo no estaba mintiendo, porque yo no estaba mintiendo, y decidieron ir a juicio (41. or.).



Bideoa: [Espiral, Fundación Márgenes y Vínculos](#)

Beraz, profesionalak ez dio haurrari galdeketa egingo (pertsona heldu babeslea izango da egoeraren berri emango duena); aitzitik, arretaz entzuteko prest egongo da, baita bat-bateko lekukotza jasotzeko prest ere, halakorik gertatuz gero. Oso garrantzitsua da erregistratzea, askotan haurrak egiten duen errelato bakarra izaten baita (Bianco *et al.*, 2016).

Era berean, haurra bere kabuz joan daiteke ospitalera, edo bere konfiantzakoa den pertsona heldu batek lagunduta. Asistentzia mediko eta psikosozial egokia emateaz gain, ospitaleko profesionalak ziurtatu egin behar dute biktimari laguntzen dion heldua babeslea dela, gehienetan pertsona hori izango da salaketa jartzen duena. Osasun-zerbitzuetara jotzen bada ere eta zerbitzu horiek epaitegiari abusu-kasuaren susmoa helarazten badiote ere, gerta liteke tutorea derrigortzea komisaldegian salaketa jartzera, epaitegiak auzitegi-mediku bat bidal dezan biktima aztertzerara. Beraz, María Naredok (2017) eta beste aditu batzuek adierazten badute ere garrantzitsua dela salaketa amarengandik edo amaren familiarengandik ez abiatzea, gezurra denaren susmorik egon ez dadin, praktikan hori ez da erreal, gerta daitekeelako, abusu profesionalak jakinarazi arren, azkenean, estatuko eta nazioarteko azterlanek adierazi bezala,

legezko tutorea izatea (ama izan ohi dena) salaketa jartzen duena (Münzer *et al.*, 2014; Save the Children, 2017).

Haurra bakarrik agertzen bada edo laguntzen dion pertsona helduak salaketari uko egin eta biktimaren babes beratu ezin badu, profesionalak behartuta egongo dira ere salaketa jartzera eta harremanetan jartzera haurraren babes arduratuko den erakundearekin (Bianco *et al.*, 2016).

3.3.2. SALAKETA

Salatzea eta jakinaraztea ez dira gauza bera, eta, jakinarazteko, ez da zertan guztiz seguru egon behar abusua gertatu dela. Tamalez, haurrak erreibelatzeak ez du esan nahi abusua jakinaraziko denik, eta jakinarazteak ez du esan nahi salaketa jarriko denik, gaur egun profesional batengana jotzeak ez dakarrelako nahitaz babes-neurriak martxan jartzea. Echeburúa eta Guerricaechevarriaren (2015) ustez ere, salaketa-indizea hain baxua izateko arrazoiak dira sexu-abusu kasuetan nagusitzen diren sekretismoa eta isiltzeko joera, gertatutakoa legalki frogatzeko zailtasunak eta sistema judizialak eragindako konfiantzarik eza. Izan ere, biktimak sentitzen du agintariak deskreditatu egiten dutela (Pereda *et al.*, 2018), eta salaketa ez jartzeko arrazoi nagusiak dira abusatzailearekiko familia-lotura, justizia-sistemarekiko konfiantzarik eza, sinetsia izango ez dela pentsatzea eta arrakasta-itxaropen urria (Tamarit *et al.*, 2015; hemen aipatuta: Pereda *et al.*, 2018).

Hain zuzen, Echeburúak eta Guerricaechevarriak aipatzen dutenez (2015), ANAR Fundazioak (1999) argitaratutako datuen arabera, urte horretan Adingabearen Telefonoan erregistratutako kasu guztien % 11n bakarrik jarri zen salaketa. Espainian salaketa-kopurua oso baxua bada ere proportzionalki prebalentzia-ikerketetan jasotako datuekiko, Gobernuaren txostenen (2018) arabera, 3 orduetik behin HKSA kasu bat salatzen da (Save the Children, 2017), eta sexu-indarkeriaren 2 salaketetatik batean haur bat da biktima (Barne Ministerioa, 2018, AMJE, 2020).

Espainian erregistratutako kasu horietan ezezaguna da erasotzaileek biktimekin duten harremana. Aldiz, Intebik (2011) aipatzen duen 1984ko ikerketa baten arabera, aldatu egiten da salaketa jartzeko joera haur biktimen gurasoek abusatzailearekin duten harremanaren arabera: erasotzailea ezezaguna denean, gurasoen % 73k salaketa jartzen dute; ezaguna denean, % 23k; eta senidea denean, % 0k. Bere aldetik, Virginia Berlinenblau doktoreak 315 kasu aztertu ditu, 1994-2000 urteetan Argentinako Justizia Gorte Goreneko Auzitegiko Mediku Kidegoak erregistratutakoak. Salatutako kasuen artean, soilik % 0,25ean da erasotzailea ezezaguna; aldiz, % 70,1ean, erasotzailea biktimaren familiakoa da: % 45,7 aita, % 15,2 aitaordea eta % 9,2 beste senide bat (Berlinenblau, 2010; hemen aipatuta: Bianco *et al.*, 2016). Tamarit *et al.*ek (2015) eginitako ikerketan ere salaketa gehienak familia barruko abusuei dagozkie (% 91,3), eta beste ikerketa batzuetako datuekin bat etorritik (Münzer *et al.*, 2014), erasotzaileen artean daude aitaren rola betetzen duen gizona (% 30,4) eta lehengusuak (% 21,7). Beraz, familia barruko abusan, ondorio gisa atera daiteke hoberantz egin dela bai haurraren sinesgarritasunaren alorrean bai horrelako kasuetan jarduteko borondatean.

3.3.3. SALAKETA AURKEZTU ONDOREN: HAURRAK BABESTEKO BALIABIDEAK AKTIBATZEA ETA INSTRUKZIO JUDIZIALAREN FASEA HASTEAN

Legezko tutoreak edo babes-sistemak salaketa jartzen duenean, instrukzio judizialaren fasea abiatu eta haurrak babesteko zerbitzuak aktibatzen dira, batzuetan hainbat administrazio-

ren mende daudenak (Eusko Jaurlaritzako Biktimaren Arreta Zerbitzua, Foru Aldundiak, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak); zerbitzu ugari, zeregin berberak izan ohi dituztenak (Pereda, 2019).

«Tratu txarrak eta sexu-abusuak jasan dituzten haurrentzako arreta- eta prebentzio-jarduketan politikak kontraesankorrak, konplexuak eta nahasiak izan ohi dira» (Vonovich, 2008, 13. or.). Praktikan, berbiktimizazioa saihestu behar bada ere, kasu gehienetan ez da hori lortzen, erabiltzen diren baliabideen aniztasunagatik eta horien arteko koordinazio ezagatik. Dibortzio-kasuetan gertatzen diren sexu-abusuetan, Fallerrek dio egoera are larriagoa dela:

Los niños pueden ser sometidos no solo a las entrevistas de los servicios de protección, de la policía y del personal médico —como sucede en otros casos de presunto abuso sexual—, sino también a múltiples evaluaciones por parte de los expertos en salud mental por el propio proceso de divorcio (Faller, 2008, 56. or.).

Prozesuan parte hartzen duen erakunde bakoitzak kasuaren txostena egin behar du. Epai-leak edo alderdiek eska dezakete txosten horien aurkezpena, eta prozeduran onartzeko azken erabakia epailearena edo auzitegiarena da.

Behin salaketa jarrita, Poliziak gomendatzen duen lehen neurria biktima etxetik irtetea da, epaileak urruntze-agindua ezartzen duen ala ez erabaki arte. Lehen agerraldia guardiako epaitegian egiten da, normalean hurrengo egunean, eta epaileak urruntze-aginduaren inguruan erabakitzen du, eta ikertua behin-behineko espetxealdian sartu ala ez. Espetxealdia prozeduran zehar berrikusten da, epaiketa egin arte. Urruntze-agindua ere indargabetu egin daiteke, behin-behineko espetxealdia bezala.

Biktimak 18 urte baino gutxiago dituenen, figura babeslea duten biktimen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) adingabeen fiskaltzak ez du esku hartzen, soilik esku hartzen baitu adingabea arau-hauslea denean eta babesgabetasun-egoeran dagoenean. Prozesu judizial osoan, baita instrukzio-fasean ere, fiskaltzak biktimaren eskubideak eta interesak zaintzeko eginkizuna du. Dena dela, frogen eskaera, prozesuari bultzada ematea eta prozedura guztien karga (ekonomikoa, etab.) biktimaren figura babesleari dagozkio; hau da, normalean amari (Save the Children, 2017). Tamarit *et al.*ek (2015) egindako ikerketan, 8 bizirauleetatik 7k diote fiskaltzaren inplikazioa minimoa izan zela, eta epaiketa aurreko agerraldietara mugatu zela.

3.3.3.1. Arreta psikologikoa

Familia barruko nahiz kanpoko abusuen biktimei laguntza psikologikoa emateko doako zerbitzu espezializatua lurralde historiko bakoitzaren mende dago. Tamaritek (2015) eta beste aditu batzuek gogorarazten dutenez, garrantzitsua da bereiztea biktimentzako laguntza psikologikoa eta salaketa, egindako azterlanek agerian uzten baitute biktimek laguntza terapeutiko horri ematen dioten garrantzia. Gauzak horrela, Europako 29/2012 Zuzentarauak eta Espainiako Delituaren Biktimaren Estatutuak (4/2015 Legea) baieztapen hori jasotzen dute. Bestalde, Save the Children gobernuz kanpoko erakundeak azpimarratzen du oso garrantzitsua dela tratamendua jasotzea kasua egoitza judizialean itxi ondoren, «prozesu judizialak berak sexu-abusuak baino ondorio larriagoak izan ditzakeelako» (Save the Children, 2017, 37. or.).

La lógica de los sistemas de protección a niños y niñas y la del sistema legal son totalmente distintas, y pueden entrar en colisión cuando se produce un caso de abusos sexuales a un niño o niña (Landberg eta Göran, 2013). Mientras que la protección ante cualquier riesgo, que es

normalmente responsabilidad de Servicios Sociales, debe actuar en cualquier caso y sin necesidad de que la violencia esté probada con fundamentos jurídicos, el sistema legal, regido por el principio de presunción de inocencia, necesita que el hecho esté probado más allá de toda duda para declarar culpable a alguien. Esto lleva a que muchos abusos no puedan ser probados, independientemente de que hayan ocurrido (Save the Children, 2017, 118. or.).

Hala ere, salaketarik ez dagoenean edo artxibatu egin denean, laguntza psikologikoa onartu behar dute bi gurasoek, eta hor arazo bat sortzen da erasotzailea aita denean.

3.3.4. EPAITEGIAK EZBERDINTZEN

Hasteko eta Save the Childrenek azpimarratzen (2017) duenez, kontuan hartu behar da HKSA kasuak epaitegi arruntetara bideratzen direla, genero-indarkeriaren kasuan ez bezala. Ez dago epaitegi espezifikorik, gai honetan trebatutako profesional juridiko, psikologiko eta sozialekin (talde psikosozialak, auzitegi-medikuak, epaileak, fiskalak, etab.). Esku hartzen duten profesionalak ez dira espezialistak, eta ez dute espezialistak izateko betebeharririk. Beraz, espezializatorik ezak eragina du prozedura osoan, ikerketa bultzatzeari eta frogak modu egokian baloratzeari dagokienez, eta egoera are larriagoa da biktimak desgaitasun bat duenean, kasua artxibatzeiko arriskua handitzen dela ahaztu gabe (Save the Children, 2017).

Bigarrenik, garrantzitsua da prozedura zibila (familia-epaitegia) eta penala bereiztea. Abusukasu gehienak familia barruan gertatzen direnez, prozedura zibila ere abiatuko da prozedura penalarekin batera, eta kontuan hartuko da biktimak erasotzailearekin duen harremana (aita, aitona, osaba, etab.). Zigor-arloko justizia edo justizia penala zigortzailea da, eta delitua ikeretzea eta erasotzailea zigortzea ditu helburu. Hain zuzen, delituaren existentziari eta izaerari buruzko ikerketak egiteko betebeharra du.

Aldiz, justizia zibilak erreparazio- eta babes-funtzioa du, eta babestu egin behar ditu Espainiako Konstituzioan jasota dauden haurren osotasun fisikoa eta psikologikoa, duintasuna eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko eskubideak. Prozedura zibilak arreta jarri behar du haurren egoera fisikoan eta emozionalean, haren interes gorenean, tratu duina eman behar dio eta lehenbailehen osatzeko baldintzak ezarri behar ditu, inolako eskubiderik urratu gabe (Bianco *et al.*, 2016). Horrenbestez, familia-epaileak beste ikuspegi batetik azter dezake egoera, eta ziur egon behar du babestuta daudela haurren osotasun psikofisikoa, emozionala eta sexuala, kalte eta arrisku guztietatik:

La actuación de ambos juzgados será clave fundamental para un correcto abordaje del caso en su conjunto, para evitar la revictimización o una actuación iatrogénica (que produce daño indeseado) de la Justicia contraria al interés superior del niño o niña (Bianco *et al.*, 2016, 48. or.).

Testuinguru horretan, bi prozedurek aintzat hartu behar dituzte haurra babesteko printzipioa eta haurren interes gorena, eta funtsezkoa da koordinazio hori planteatzea eta eskatzea, kontuan harturik bi prozeduren eta haien helburuen arteko bereizketa harmonikoa (Bianco *et al.*, 2016).

Nolanahi ere, hainbat txostenek azaltzen dutenez, ez dago koordinaziorik edo elkarlanik bi prozeduren artean; aitzitik, bi lerro paralelo dira eta batean eztabaidatzen dena ez da kontuan hartzen bestean (Naredo, 2017; Save the Children, 2012a; Save the Children, 2017). Azken batean, biktimak indarkeria instituzional larria pairatzen du, haurra babestu eta haren eskubideak bermatu beharko lituzkeen sisteman nagusi den koordinazio ezaren ondorioz (Bianco *et al.*, 2016).

3.3.4.1. Haurrak espazio judizialean

Haurren Kontrako Sexu Abusuen delituak epaitegi arrunten eskumena dira, eta epaitegi horietako instalazioak ez dira egokiak biktimak adingabeak babesteko, genero-indarkeriaren alorrean ez bezala. Hori horrela, ez dago zirkuitu itxirik edo segurtasun-neurririk biktimak eta biktimarioak leku berean topo ez egiteko.

Hain zuzen ere, 29/2012 Zuzentarauak eta Espainiako Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko 3/2015 Legeak adierazten dute baliabideak jarri behar direla aretoan akusatuarekiko edo haren senideekiko zuzeneko kontaktua saihesteko (Tamarit *et al.*, 2015). Egoitza judizialean abusatzailearekin edo haren familiarekin aurrez aurre egotea kaltegarria da biktimarentzat eta haren senideentzat, eta negatiboki baloratzen den esperientzia bat da (Tamarit *et al.*, 2015). Protagonisten ahotan:

P22: Yo me acuerdo una vez que mi madre fue a hablar con atención a la víctima, y se encontró con el hombre este (el abusador) de cara y él se rió en su cara. O sea, y nadie hizo nada. El XXX (nombre de profesional) lo vio y le dijo vente conmigo y la sacó por otra puerta. Porque mi madre ya se iba y se lo encontró de cara y él se empezó a reír (Tamarit *et al.*, 2015, 41.or.).

Neurri horiek espazio judizial guztietara zabaldu beharko lirateke; adibidez, itxarongeletara (Tamarit *et al.*, 2015). Izan ere, ikerketa berean, beste biziraule batek dio itxarongelan erasotzailearekin kointziditzeak presio ikaragarria eragin ziola eta azkenean erabaki zuela ez deklaratzeko.

3.3.5. ZIGOR-ARLOKO EPAITEGIA: INSTRUKZIOA


Instrukzioa epaitegi batek egiten duen ikerketaren fasea da, helburu duena delitua epaitzeko nahikoa frogarik badagoen aztertzea. Beharrezkotzat jotzen diren proba guztiak eskatzeko unea da. Haurren eta nerabeen aurkako abusu-kasu gehienek ez dute fase hori gainditzen.

Juan Pablo Gallego (2008) katedradun eta abokatuak adierazten duenez, praktikan, magistratu gehienek ez dute sexu-delitua bere benetako dimentsioan baloratzen, eta ez dute aintzat hartzen biktimen sufrimendua, ezta biktimak gehienak haur eta nerabeak direla ere. Era berean, ez dira kontziente biktimen errebelazio-prozesuak nola sortzen diren eta prozesu horiek ikerketan zehar eta aurretik ere zer etapetatik igarotzen diren. Horregatik guztiagatik, lapurreta bat ikertzeko erabiltzen den metodologia berarekin ekiten diote ikerketari, kontuan hartu gabe mota honetako delituek zer-nolako traumak eragiten dituzten (Gallego, 2008).

Hortaz, ez da harrizkoa fase honetan kasu gehienak artxibatzea. Espainian, kasuen % 70 ez dira epaiketara iristen, Gobernu Kanpoko Erakunde txostenek⁷ adierazten dutenez (1. irudia), 2012-2015 urteetan prozedura judizial kopurua esponentzialki igo zen⁸, nahiz eta iguera hori modu esanguratsuan bat ez etorri epai-kopuruarekin (Save the Children, 2017).

7 2016an, 11 HKSA salaketa izan ziren eguneko, 2-3 orduetik behin salaketa bat, alde batera utziz pornografia eta sarketa bidez eginiko sexu-erasoak (Save the Children, 2017)


8 Ondoriozta daiteke areagotzen ari dela biktimaren testigantza sinesteko joera.



1. irudia. Prozedura- eta epai-kopurua

Iturria: Save the Children, 2017

EAEen, kasuen % 90 ez dira epaiketara iristen, eta eremu judizialean kasu gutxien zabalik dituen erkidegoa da alde handiz (2. irudia).



2. irudia. Prozedura-kopurua 18 urtetik beherako 100.000 biztanleko

Iturria: Save the Children, 2017

Nabarmentzekoa da, 2011-2012 urteetan largetsitako 65 errekurso-kasuetan, fiskaltza 49tan agertu zela eta kasu horien % 63,26tan artxibatzea berresteko eskatu zuela, baita biktimaren testigantza oso sinesgarritzat hartu zen kasuetan ere (Save the Children, 2012a). Save the Childrenek (2012a; 2017) Espainiako epaitegietako hainbat kasu aztertu ditu bere txostenetan. Honako hau dio horietako batean:

La Administración de Justicia tiende a archivar las causas sin investigar suficiente y diligentemente los casos, dejándolas en graves situaciones de desprotección y riesgo. Muchas veces se pone en duda la credibilidad de la víctima por su corta edad, o incluso, tras una prueba pericial, se archiva la causa⁹ (Save the Children, 2012a).

Sarritan epaileek ez dituzte frogak onartzen, eta kasu gehienak instrukzio-fasean behin-behineko largespen bidez ixten dira, teoriarik, frogari gaitasunik gabe (Save the Children, 2017). Bi largespen mota daude: largespen askean, epaileak ez du delitu-zantzurik ikusten eta, ondorioz, kasua ixten du; behin-behineko largespenean, (abuso-kasu gehienak horrela amaitzen dira), epailearen iritziz ez dago akusatua epaitzeko nahikoa frogarik, eta behin-behinean ixten du kasua, frogari berri zain. Nahiz eta adituen txostenak egon, epaileak maiz ez ditu aintzatzat hartzen eta kasuak frogari nahikorik ez izateagatik ixten dira (Naredo, 2019). Ildo beretik, Save the Children erakundeak (2017) honako hau dio:

Asunción acrítica del contenido de los informes periciales forenses y falta de valoración de otras pruebas periciales: es significativo que haya informes periciales que consideran que el testimonio no es creíble, y que se desestimen los informes o testimonios de psicólogos encargados del tratamiento del menor de edad, aun estando estos tratamientos enmarcados en programas o proyectos públicos destinados a tratar a niños y niñas víctimas de abusos. Por un lado la Administración no cree a la o al menor, y por otro lado sí. El o la juez da en estos casos un peso mayor al informe llevado a cabo por la o el técnico que tiene menos experiencia con niños y niñas víctimas de abuso (Save the Children, 2017, 114. or.)

Hala ere, kasu askotan, auzitegiko profesionalak egiaztatzen badute ere salatutako gertakariak bateragarriak direla Haurren Kontrako Sexu Abusuekin, largetsi egiten dira kasuak (Save the Children, 2017). Horrek ez du esan nahi abusurik egon ez denik edo salaketa faltua denik, biktimak bere aurka egindako kaltearen erreparazioa zigor-sisteman aurkitu ez duela baizik (Bianco *et al.*, 2017; Save the children, 2017). Gainera, lehenengo kapituluan ikusitakoa gogoratu:

Estas condenas frecuentemente recaen en perpetradores de escasos recursos económicos, lo que refuerza el mito de que el abuso se da más frecuentemente en sectores marginales y da un indicio de la impunidad que reina sobre este delito en los casos en sectores de ingresos medios y altos (Bianco *et al.*, 2015, 12. or.).

3.3.5.1. Aurrez eraturako frogak

Oso garrantzitsua da biktimaren lekukotza jasotzea, behar bezala eta berme guztiekin. Izan ere, berriro adierazi behar da sarritan sexu-abusu kasuetan ez dela izaten adierazle espezifikorik, esperientzia traumatikoa gertatu dela modu prediktiboan edo ziurtasunez erakutsiko duenik, eta ez dela izaten ere ez lekukorik (kasuen % 6,4an bakarrik) ezta lesio fisikorik ere. Lekukotza, beraz, prozesu horien egozte-froga nagusia da sarritan (Marco 2018; Raposo, 2018; Save the Children 2017).

9 <https://www.savethechildren.es/publicaciones/el-difícil-camino-de-un-nino-hacia-la-justicia>

Aldez aurretik eraturako froga Prozedura Kriminalaren Legean espresuki jasotako froga bat da. Froga horren bitartez, biktimen eta lekukoen lekukotza hartzen da epaiketaren aurretik, eta instrukzio-epaileak onartu egin behar du. Horri esker, «lekukotasuna jaso daiteke kausaren xede den gertaera traumatikotik denboran hurbilago dagoen une batean, eta, beraz, litekeena da lekukotza aberatsagoa, espontaneoagoa eta «idiosinkrasikoagoa» izatea, interferentzia gutxiago izan dituen memoria baten bidez» (Raposo, 2018, 67.or.).

Kontraesanaren printzipioa errespetatzeko, Batzorde Judizialak eta alderdiak (defentsa eta akusazioa) nahi beste galdera egin diezazkiokete biktimari edo lekukoari, epaitegiko auzitegiko psikologo baten bidez. Auzitegiak hala erabakitzen badu, biktimak ez du epaiketan deklaratu eta froga horren grabazioa deklarazio gisa erabiliko da.

La actitud, capacitación y especialización del profesional conjuntamente con el entorno físico en el que se encuentren será determinante en la calidad de la prueba obtenida. La cantidad y calidad de la información aportada por el niño es directamente proporcional a la capacidad del profesional para relacionarse con la víctima y conducir la entrevista (Lamb, Hershowitz, Orbach eta Esplin, 2008; hemen aipatuta: Bianco *et al.*, 2016, 44. or.).

Raquel Raposo (2018) ebaluazio psikologikoko adituak azpimarratzen du garrantzitsua dela lekukotza jasotzea haurren, tratu txarren eta, bereziki, sexu-indarkeriaren arloko adituek, eta pertsona horiek adituak izatea ere elkarrizketa-tekniketan. Hori dagokion unean egin behar da. Izan ere, adituak adierazten du oso garrantzitsua dela ebaluazio bat egitea «deklarazioa aldez aurretik eraturako froga gisa hartzeko une egokia den ala ez, kontuan hartuta biktimaren banakotasuna eta unean uneko inguruabarrak» (Raposo, 2018, 71. or.). Froga induktiboak ez diren galderen bidez egin behar da, haur bakoitzari egokitutako esku-hartzearekin, leku egoki batean eta ondoren aztertze aukera emango duten baliabide tekniko espezifikoekin, adierazpenak kalitate onenarekin jasotzea ahalbidetuko dutenak. Profesionalaren lanak ez du moldatu edo kutsatu behar bizi izandako esperientzia, eta, aldi berean, ez dio biktimari berriro kalterik edo minik eragin behar (bigarren mailako biktimizazioa) (Raposo, 2018, 68. or.).

Previamente, el experto ha debido tener la oportunidad de conocer al menor de edad víctima de violencia sexual: conocer aspectos concretos de la víctima de violencia sexual —menor de edad— supone generar los sustentos mínimos e imprescindibles con el fin de establecer la comunicación suficiente para prestar su declaración de la forma más fiable posible, bien sea en la toma de declaración como prueba preconstituída, en una entrevista de evaluación u otra interacción que como profesionales iniciemos con niños, niñas y adolescentes. Cualquier información de la persona menor de edad a la que podamos aludir o referirnos le transmite calma y confianza, y posibilita una percepción sobre la importancia que como persona motiva en su conjunto, una visión integradora y no solo centrada en el relato de violencia sexual por el que tenemos que preguntarle.

En definitiva, se trata de facilitar su colaboración a través de pequeños apoyos personales con los que la víctima pueda identificarse y que, de alguna manera, pueden suponer una referencia de seguridad o confianza para las personas menores de edad (Raposo, 2018, 70. or.).

Aitzitik, adituak ohartarazten du gaur egun profesionalak haurrei egiten dizkieten galderek (intonazioak, etab.) ez dituztela kontuan hartzen haien adina, bizi-historia, egoera emozionala edo ezaugarri pertsonalak (beharrak, trebetasunak eta mugak), ez dela une egokia aukeratzen, biktima kontuan hartuta, haren inguruabarrak, eta ez dela behar adina espezializatorik eta laguntzarik eskaintzen, kontakizuna ahalik eta aberatsena izan dadin. «Bere aukeren barruan

eman dezakeen onena; are gehiago, adibidez, adimen- edo garapen-desgaitasunen bat duten biktimak direnean, edo haur-hezkuntzaren etapatik gertu dauden adinekoak direnean» (Raposo, 2018, 68. or.).

Areto judizialen ezaugarriekin jarraituz, adituak azpimarratzen du areto horiek «lagunkoiak» izatea ala ez, nagusiki espazioaren funtzionaltasunaren eta antolamenduaren arabera dela, eta ez bakarrik espazioaren beraren arabera. Izan ere, ez dira haur eta nerabeei egokituta egoten (Raposo, 2018). EAEn, galdeketa-gelak norabide bakarreko ispilu bat izan ohi du, proba egiten den gela eta Batzorde Judiziala eta aldeak dauden gela banatzen dituena. Deklarazioa hartzean, haurra bakarrik dago profesionalarekin, ez baita onartzen harekin batera **konfiantzazko norbait** egotea, eta gela ez da biktimaren adinaren arabera girotzen (berdin dio 3 urtekoa ala 15 urtekoa izan).

Froga horren funtsezko garrantzia azaldu bada ere, Save the Children erakundeak aztertutako epaien % 13,8an baino ez da aurrez eratu froga, eta kasuen % 86an haurrak epaiketan lekukotza ematen du (Silvan, 2018). Zoritxarrez, gaur egun, froga hori onartzea ez da testigantza behar bezala jasotzeko bermea, epaitegiak gainezka daudelako, instalazioak egokituta ez daudelako eta bertan aritzen diren profesionalak prestatuta ez daudelako (berezko zailtasunez gain, kontuan hartu behar da hizkuntzaren gaia gure eremu geografikoan).

3.3.5.2. Talde psikosozialak

Talde Psikosozialak epaitegietako talde profesionalak dira eta epaitegiak agindutako probak egiten dituzte, biktimak aitarekin, amarekin edo beste senide batzuekin duen harremana aztertzeko (horiek ere elkarriketatzeko dira), haurraren kontakizuna baloratzeko eta, horrela, bisitak, zaintzak eta abar erabakitzeko. Aurrez eraturako frogari buruz azalduko (nola egin behar den, parte hartzen duten profesionalen espezializazioa, leku egokiak, etab.) berdin aplikatuko litzateke ere hemen¹⁰.

Save the Children erakundeak (2012a; 2017) zerrendatutako HKSA azterlanetan, aurrez eraturako frogaren txostenetan nahiz talde psikosozialen txostenetan dauden gabeziak azaltzen dira. EAEn, ez da auzitegi-psikologiaren arloko prestakuntzarik eskatzen eta ez dago elkargokide izateko betebeharririk (Save the Children, 2017). Beraz, arazo bat da hori haien lana ikuskatzeko orduan.

La lectura de varios informes psicosociales muestra que no en todos se detalla la metodología empleada y que incluso los hay que justifican una valoración de credibilidad con criterios no validados por la comunidad científica (Save the Children, 2017, 102. or.).

Kontuan hartu behar da askotan epaileak onartuko duen txosten bakarra izango dela, beste profesional batzuenak aintzat hartu gabe, baita horiek sistema publikoaren parte direnean ere.

El propio Tribunal Supremo es claro al afirmar que «la credibilidad del testimonio de la víctima nunca puede dejarse única y exclusivamente a la valoración del perito (...) Los datos que se obtienen de su participación son siempre de carácter complementario, claramente secundario en relación con la declaración de la víctima e incluso con otros datos de corroboración periférica» (STS 2298/2012 2012ko martxoaren 26koa; hemen aipatuta: Save the Children, 2017, 110. or.).

10 Horregatik, aurrez eraturako frogaren azalpenaren ostean kokatu dugu atal hau, nahiz eta familia-epaitegiak ere erabiltzen dituen taldeak izan, aurrerago azalduko dugun moduan.

3.3.6. ZIGOR-ARLOKO EPAIKETA

Epaiketa penala egiten da epaitegi penalean edo Probintzia Auzitegian, delitu motaren eta dagokion zigorraren arabera (oraindik ez dago epaitegi espezializaturik). Probintzia Auzitegiak hiru magistratu ditu eta ez epaile bakar bat, epaitegi penalean edo instrukzioan bezala. Auzitegiak instrukzio- edo ikerketa-fasean jasotakoa hartzen du kontuan akusatuaren kondena bidezkoa den ala ez baloratzeko unean. Hortik aurrera, auzipetze-autoaren bidez, ez da ikertua izango, akusatua baizik, eta, autoan, zein delitu egozten den eta zein eskaera penal zehaztuko da. Instrukzio-fasean txostenak aurkeztu zituzten profesionalak peritu gisa deklaratzera deitu ahal izango dira, txostenetan adierazitakoa berresteko: lekukotza jasotzen parte hartu zuten profesionalak (irakasleak, pediatra, etab.), biktima tratatu zuten terapeutak eta aurrez eratu-tako frogan parte hartu zuten adituak, besteak beste.

Prozeduraren fase honetan hainbat alderdi azpimarratu behar dira:

Alde batetik, prozedura oso luzeak dira, eta hiru urte irauten dute batez beste. Akusatuaren kasuan, % 38k «bidegabeko atzerapena» erabiltzen dute aringarri gisa, zigorra murrizteko (Save the Children, 2017). Bidegabeko atzerapenak esan nahi du auzitegiak berak onartzen duela prozedura behar baino gehiago luzatu dela, eta saihesten zitekeela atzerapena. Hala ere, ez da kontuan hartzen atzerapenak biktimarengan duen eragina eta ez dago lehentasunik epaiketa-data ezartzeari dagokionez. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Finlandiaren kasua, non gai hauek aztertzeke egunak erreserbatzen dituzten («jouko days» delakoak), kasu hauek tratatzen dituzten epaitegi-tako saturazioa eta baliabide falta arintzen saiatzeko. Helburua da kasu hauen azterketa lehenestea eta itxaron-zerrenda baztertu eta lehentasuna ematea (Save the Children, 2017).

Bestalde, abusua tipifikatzen duen Zigor Kodearen artikulua astungarritzat jotzen du erasotzailea nagusitasun- edo ahaidetasun-harremanaz baliatu izana, eta horrek berekin dakar delitu honetan aurreikusitako zigorra handiena izatea, inguruabarrak bereziki larriak direlako (ahaidetasuna, mendekotasuna, etab.). Praktikan, ordea, ez da ohikoa astungarriak ezartzea. Save the Childrenek (2017) 2.013 epai aztertu zituen, eta kasuen % 9,4an soilik larriagotu zen zigorra (kasuen % 49,24an, akusatua senitartekoa zen; % 30 baino gehiagoan, ezagunak, irakasleak, entrenatzaileak, etab.).

Era berean, Save the Childrenen azterlan batek adierazten du kasuen % 86 epaiketa irekia izan direla, soilik kasuen % 2,5ean onartu dela bideokonferentzia ustezko abusotzailearen eta biktimaren arteko konfrontazio bisuala saihesteko, eta beste % 2,5ean bionbo bat erabilita egin dela deklarazioa. «Hori, argi eta garbi, ez da nahikoa aretoan akusatuaren ondoan egoteak eragiten duen sufrimendua saihesteko» (Save the Children, 2017, 93. or.). Biktimen ahotsak jasoz:

P20: Entonces claro, para mí fue como coaccionarme a no poder yo decir lo que verdaderamente pensaba y sentía. Porque claro, yo por ejemplo cuando me preguntaron si tenía miedo yo respondí que no, no porque no lo tuviera sino porque lo tenía al lado. Y no quería que él viera que yo lo tenía, entonces yo mentí en esto. (...) Luego... me obligaron a, bueno no es que me obligaran ¡pero yo estaba en la sala! Entonces yo escuché su declaración y para mí fue muy doloroso escuchar como él estaba mintiendo sobre algo en el que me había hecho tanto daño. (...) Y luego escucharlo a él cómo mentía, como me desacreditaba, buf... ¡fue duro! ¡Muy duro! Y luego eso, me acuerdo yo decir lo que verdaderamente había pasado y no poderlo decir porque lo tenía a él al lado, buf... para mí fue un juicio traumático (llora) (Tamarit *et al.*, 2015, 43. or)

Tratuari dagokionez, Tamarit *et al.*ek egindako ikerketan (2015), bizirauleek negatiboki baloratzen dute azalpenak emateko aukerarik ez ematea, tratua hotza izatea eta lehenengo deklarazioan aipatu ez ziren oroitzapen berriak kontuan ez hartzea.

P23: algo negativo es... yo me lo tomo a negativo, fue que la juez, fue demasiado, cómo decirte, demasiado estricta, ¿vale? Yo era menor, estaba entrando sola en una sala donde se decidía un poco el futuro de cómo iba a vivir, y simplemente fue: «Diga sí o no. Que diga sí o no. No quiero escuchar sus razones, diga sí o no». Y yo claro, yo me quedé mal, no, ya está, no pude, ni le expliqué (Tamarit *et al.*, 2015, 43. or)

3.3.6.1. Lehen haurtzaroan entzunak izateko eskubidea

Azkenik, nabarmendu behar da lehen haurtzaroko biktimen zaurgarritasun berezia. Hain zuzen, entzuna izateko eskubideak ahozko komunikazioa lehenesten du eta ez du berariaz jasotzen beste adierazpiderik.

Ildo beretik, Naredok (2017) aipatzen ditu babesgabezia sortzen duten hiru faktore: abusa detektatzea adin oso txikietan, erasotzailea aita izatea eta eraso banantze-prozesuetan gertatzea (bereziki, genero- indarkeriagatiko banantzeetan). Lehenengo faktoreari dagokionez, egileak dio behin-behineko largespen-auto gehienak ematen direla epaitegiek haurra ulertzen ez dutelako —adierazpenik egiten ez duela diote, ez duela behar beste hitz egiten, etab.—. Horrenbestez, Naredok azpimarratzen du Justiziarentzat oso erronka handia dela eskolaurreko haurrei entzutea eta ulertzea, eta epaitegietan ez dagoela haur horiekin aritzeko metodologiarik.

Lehen haurtzaroan bereziki, non ahozko hizkuntza oraindik garatu gabe dagoen, kontuan hartu behar da beste komunikazio-bide batzuen garrantzia. Alde horretatik, Volnovich (2008) aipatzen du Haurren Eskubideen Hitzarmenaren espezifikotasunik ezak sortzen duen gabezia bat: «Haien autonomia haien hitzetara mugatzen da, eta ez da kontuan hartzen garatzen ari diren eskubideen subjektu izate hutsagatik eta horiek definitzen dituen semiotikaren bidez dituzten beste adierazpide batzuk» (Volnovich, 2008, 15. or.).

La semiótica de la infancia que se expresa en el juego, el dibujo o el modelado trasciende largamente el registro de la palabra: al mismo tiempo, el lenguaje adolescente ha sufrido, y aún sufre, mecanismos de dialectización muy propios que no conciben con el derecho de los adultos (Vonovich, 2008, 16.or.).

Adituak dio berezitasun hori gaur egun ez datorrela bat helduek helduentzat eginiko zuzenbidearekin (Volnovich, 2008). Ildo berean, Espainiako Emakume Epailen Elkarteak (AMJE, 2020), hainbat profesionalekin eginiko kongresuan, gabezia honi erreparatzea eskatzen du, haurrak eskubidedun objektu izatetik subjektu izatera igarotzea, edozein izanik ere haien adina, eta helduen nagusitasuna baztertzea. Ikuspegi-aldaketa baten bitartez, arreta jartzea, ez haurrak «izango diren» horretan, gaur egun diren horretan baizik (AMJE, 2020).

3.3.7. EPAIEN AURKAKO ERREKURTSOAK

Epaiketa-kopuru esanguratsu bat auzipetuaren absoluzioarekin amaitzen da, ez deliturik egin ez delako, kondenarako froga nahikorik ez dagoelako baizik. Une horretatik aurrera, absoluzio-epai bat errekurritzeko aukera gutxi dago. Errekurrizen ez bada, absoluzio-epaia irmoa

izango da, eta froga faltagatik absolbitu bada ere, inputatua ondorio guztietarako errugabea izango da, espedientean ez da arrastorik geratuko, eta, adibidez, hezkuntza-sare publikoan lan egin ahal izango du haurrekin inolako eragozpenik gabe.

Esan bezala, errekurtsio-aukerak oso mugatuak dira, errekurtsioa jarri ahal izateko kasuak bete behar dituen ezaugarriak direla-eta, **Auzitegi Gorenak** zehaztuta ditu errekurtsorako arrazoiak, bereziki absoluzio-kasuetan. Gaiaren funtsari baino arrazoi formalei (agindu bat formalki urratu izana) gehiago erreparatuko dion errekurtsio mota batez ari gara. Errekurtsioa oso garestia da, eta tramitera ez onartzeak ordainketa ekonomiko handia dakar. Hala ere, Auzitegi Gorenean kudeatzen diren kasuen % 20 HKSA kasuak dira, beste edozein delitu mota baino gehiago (Save the Children, 2017).

Ondoren, **Konstituzio Auzitegira** jo daiteke: auzitegi horretan, akusatu/inputatu/absolbituarekiko aurrez aurreko kontaktua galdu eta prozeduran Espainiako Konstituzioaren artikuluren bat urratu den aztertzen da, ez zehazki kasuaren elementuak. Nazioarteko instantzietara jo nahi izanez gero, ezinbesteko urratsa da.

Estrasburgoko Auzitegia: Espainiako Erresuma salatzen da Giza Eskubideen Konbentzioan jasotako eskubideren bat urratzeagatik. Kostu ekonomikoaz gain, aurkeztutako kasuen % 3 baino ez dira onartzen.

3.3.8. ERASOTZAILEA AITA DENEAN – FAMILIA-EPAITEGIA

Puntu honetan, berebiziko garrantzia du prozedura zibilean ezartzen denak, akusatua kondenatua izan ala ez, eragina izango baitu biktimaren etorkizuneko ongizatean. Kontuan izan behar da ere prozedura zibila eta penala batera doazela eta gerta daitekeela biktimak eta erasotzaileak elkarrekin bizitzen edo elkarrekin harremana izaten jarraitu behar izatea, erasotzailea epaitegi penalean kondenatua edo absolbitua izan baino lehen (Save the Children, 2017).

Una niña obligada a ir a declarar sobre los posibles abusos sexuales de su padre, acompañada por éste

En la misma mañana de la declaración, la Fiscalía de Madrid hizo público un escrito de acusación por el que pide tres años de prisión por sustracción de menores a la madre, Patricia G., ligada a la organización Infancia Libre. Su abogado resalta la coincidencia de los dos hechos y denuncia que la Fiscalía divulgó al los medios la acusación antes de entregarla

Iturria: <https://www.publico.es/sociedad/infancia-libre-nina-acude-declarar-posible-abusos-sexuales-padre-companada.html>

Biktimek adierazi dute zigor-arloko justizia-sistema ez dela egokia familia barruko Haurren Kontrako Sexu Abusua tratatzeko (Lievore, 2003; hemen aipatuta: Tamarit *et al.*, 2015). Lievoren (2003) adierazi bezala, biktimek uste dute justizia penaleko sistema egokiagoa dela ezezagunek eragindako abusuei erantzuteko, familia-loturak edo lotura intimoak dituzten pertsonen eragindako abusuei erantzuteko baino. Ez da kontuan hartzen biktimak

salatutako erasotzailearekin bizi behar duela edo gurasoetako batek hertsatu egin deza-keela, abusotzailea anaia edo gertuko beste senide bat denean (Tamarit *et al.*, 2015). Korronte berari jarraituz, aditu askok azpimarratzen dute (Giberti, 1998) intzestu-delitu autonotzat hartu behar dela, espezifikotasun zehatzak daudelako, beste edozein delitutan ez daudenak.

Horrenbestez, aita abusotzailea denean, prozedura penalak garrantzi handia badu ere, ezinbestekoa da epaile zibilaren parte hartzea. Ohikoa den largespenaren aurrean, epaile zibilak ahalmena du frogaren beste irakurketa bat egiteko eta haurrak erasotzaitzat jotzen duen pertsonarekin berriz loturarik ez izateko, zigor-egoitzan largespena eman bada ere (Bianco *et al.*, 2016).

Auzi penalak instantzia zibilean duen izaera lotesleari edo frogagarriari dagokionez, eta berrelkartzearen arloko prozesu penal eta zibilen arteko harremanari dagokionez, aipatzekoa da Juan Pablo Viarren eta Silvio Lambertiren «Reflexiones sobre la revinculación desde el ámbito jurídico» lana. Lan horretan, gogoratzen digute familia-epaileak nagusiki tutoretza-funtzioa duela eta arreta haurren babes psikofisikoan jarri behar duela, beste froga-testuinguru baten bitartez, biktimarentzat mesedegarriagoa izango dena (Bianco *et al.*, 2016).

Hainbat ikerketak diote amak jaso ohi duela biktimaren testigantza (Münzer *et al.*, 2014; Pereda *et al.*, 2018) eta ama gehienek babesteko joera dutela (Save the Children, 2017).

Lo cierto es que, si bien el abuso sexual es perpetrado por hombres, la mayoría de las veces la protección de los niños recae sobre las mujeres, principalmente las madres. Hay estudios que señalan que las víctimas cuentan más episodios de abuso a sus madres que a profesionales especializados. (...)

Además, la forma en que reaccionan las madres es crucial en el proceso de recuperación de los niños. En la mayoría de las investigaciones realizadas se constata que más de la mitad de las mujeres apoya a sus hijos, aunque varía la magnitud del apoyo y su persistencia en el tiempo (Intebi, 2011, 50. or.).

Nolanahi ere, aita ustezko erasotzailea denean, amari (salaketa jartzen duena) ez sinesteko joera dago (AMJE, 2020; Dallam eta Silberg, 2006; Save the Children, 2017). Gizartearentzat ez da erraza onartzea HKSA tasa hain altua dela (Intebi, 2011) eta adituek intzestu-kasuetan egingdako erasotzailearen deskribapenak ez du laguntzen, biktimaren testigantzaren sinesgarritasuna aitortzeari dagokionez.

Los prejuicios que pueden condicionar muchos de estos procedimientos cuando el acusado o la acusada es alguno de los progenitores y se entrecruzan estos procedimientos con uno por separación, divorcio o nulidad en el ámbito civil. El trabajo que Save the Children ha realizado analizando la situación de los hijos y las hijas de mujeres víctimas de violencia de género, o de niños y niñas víctimas de abuso sexual en el hogar hacen evidentes estos sesgos en muchos casos que en lo que se traducen es en una desconfianza respecto del testimonio del niño o la niña y su credibilidad que repercute de manera enormemente negativa en su propio desarrollo y bienestar (Save the Children, 2012b, 85. or.).

Are gehiago, sinesgarritzat hartu diren testigantzak atzera bota izan dira dibortzio-prozesuetan, aldeetako baten interesen aldekoak zirela argudiatuta (Save the Children, 2017).

3.3.8.1. Berrelkartzea

Prozedura Zibilaren Legearen barruko «prejudizialitate penaleko printzipioaren» arabera, auzi zibilak eten egingo dira auzitegi penalaren ebazpena erabakigarria bada prozesu zibilean. Hala ere, prozedura penala zabalik dagoela, ustezko aita erasotzaileek ikuskaritzarik gabeko harremana izan ohi dute biktimarekin, eta ohikoa da ustezko erasotzaileak biktimarekiko urruntze-agindurik ez izatea (Save the Children, 2017).

Sin embargo, la mayor parte de las resoluciones de los juzgados de familia, a pesar de haberse iniciado un proceso penal por presuntos abusos sexuales, orientan casi todas sus decisiones a dar más prioridad a la restauración y «normalización» de la relación paterno-filial de las niñas y los niños con sus padres denunciados que a la adopción de medidas cautelares de protección de las posibles víctimas (Save the Children, 2017, 116. or.)

Horren adibide dugu hedabideetan oihartzun handia izan zuen kasu bat: largespen askea eman eta gero, **neska batek grabagailua galtzerdietan ezkutatu** eta aita grabatu zuen, abusua egin zituela aitortuz, eta epaitegiak zigor-prozedura berriro ireki bazuen ere, arlo zibilak aitaren bisitek jarraitzeko agindu zuen (Naredo, 2017).

Nuestro análisis indica que el problema de los padres pederastas que obtienen la custodia está extendido y bien documentado por las investigaciones. (...) Un número emergente de investigaciones está demostrando que los niños cuyas madres denuncian abusos sexuales por parte del padre corren el riesgo de no ser protegidos cuando se encuentran en un contexto de litigio por su custodia (Dallam eta Silberg, 2006; hemen aipatuta: Escudero *et al.*, 2010, 90. or.).

Izan ere, familia barruko sexu-abusuen kasuan, biktima erasotzailearekin berrelkartzea edo bata bestearekin egotera behartzea da biktima arriskuan jar dezakeen arazo larrietakoa, eta prozedura zibilaren eta penalaren arteko koordinaziorik ezak ondorio konponezinak sor ditzake haurraren, indarkeria instituzionalaren bitartez. Espezialistek kezka handiz ikusten dute bi prozeduren artean maiz sortzen den kontraesan larria: justizia penalak ustezko erasotzailea ikertzen edo prozesatzen du; aldiz, justizia zibilak erabakitzen du haurrak nahitaez erasotzailearekin harremana izaten jarraitu behar duela, lotura biologikoa lehenetsita ustezko delituaren gainera (Bianco *et al.*, 2016).

Familia barruko abusu- edo intzestu-kasuetan, biktimak inputatuarekin harreman jarraitu beharra oinarritzen da Haurren Eskubideen Kobentzioaren interpretazio oker batean, 3. artikulua ezartzen baitu haurren interes gorena dela bi gurasoekin harremana izatea. Edonola ere, haurrak bi gurasoekin egoteko duen eskubidea Kobentzioaren testuinguruan ulertu behar da; alegia, haurren «interes gorena» dela ingurune osasuntsu eta indarkeriarik gabeko batean haztea, dagozkion eskubide guztien jabe izanik, harreman-eskubidea ere bermatuta, haren ongizatea arriskuan jarri gabe. Haurrak gurasoetako bat erasotzaile modura identifikatzen badu, erasotzaileak guraso-rol eraikitzailea galtzen du haurren bizitzan, sexualki erasotzen dion unean berean, eta haurren osasun-, babes- eta duintasun-eskubideak gailenduko dira beti gurasoa seme-alabarekin egoteko eskubidearen gainera. Haurren aurkakoa den edozein harreman lotesle ere haren interes gorenen aurkakoa izango da (Bianco *et al.*, 2016).

Izan ere, askotan bi eskubideren arteko gatazka gisa planteatzen da: haurrak gurasoekin harremana izateko eskubidea eta edozein motatako indarkeriatik babestuta egoteko eskubi-

dea. Ikuspuntu hori ez da egokia, lehenengoa eskubide erlatibo bat delako eta, bigarrena, absolutua (Naredo, 2019). Save the Childrenek (2017) gogoratzen duenez, kasua largesteak ez du esan nahi aita errugabea denik, haren erruduntasuna frogatu ezin izan dela baizik.

Gai hau bereziki garrantzitsua da, kontzeptu patriarkalak oinarri zientifikorik gabeko teoriarekin nahasten direlako. Adituek diote ez dagoela berreraiki beharreko nahitaezko lotura edo binkulaziorik, abusu kasuetan inoiz egon ez delako, eta lotura biologikoa lehenestea, iatrogenikoki sakratutzat jotzea, haurren interes gorenaren eta indarkeriarik gabe bizitzeko haren eskubideen aurkakoa da (Bianco *et al.*, 2016).

Familia-epaitegiak erabaki dezake harreman hori modu batekoa edo bestekoa izatea: hala nola zaintza partekatua, prozedura penala irekita egon bitartean iraun dezakeena. Hori horrela, gogora ekarri behar da EAEk Zaintza Partekatuari buruzko Legea duela eta zaintza modu hori lehentasunezko erregimen gisa planteatzen duela.

Zaintza eskusiboan, bisita-erregimen bat ezarri behar da, eta bisitak Familia Elkargunean egitea ala ez (hurrengo puntuan azalduko da).

Azkenik, aipatu behar da prozedura penalak hasiera eta bukaera bat baldin badu ere, prozedura zibilak jarraitzen duela haurrek 18 urte bete edo emantzipatu arte. Hau da, hasieran hartzen den erabakia moldatu egin daiteke denbora igaro ahala: adibidez, ohikoa da aita erasotzailea den sexu-abusuetan, bisita-erregimen batekin hastea, zaintza partekatu batera igarotzea eta, azkenik, akusatua izan den aitak zaintza eskusiboa eskuratzea (Dallam eta Silberg, 2006).

Aipatutako guztia osatu egingo da salaketa faltsuen mitoaren atalean jasotako ikerketen datuekin. Kontuan izanik mitoen pisu handia, bai gizartean bai haurren babesaz arduratzen diren profesionalen artean, atal berezi batean aztertzea erabaki dugu.

3.3.8.2. Familia Elkarguneak

Deribazio judizialeko Familia Elkarguneak azpikontratutako zerbitzuak dira, fundazio pribatuek kudeatzen dituztenak. Zerbitzu horiek bitartekari gisa funtzionatzen dute, familia-epaitegien epailetan ezarritako erregimenak bete daitezten, eta gurasoen edo aldean artean kontaktu zuzenik ez izatea ahalbidetzen dute.

Elkargunean egiten dira epaileak beharrezkotzat jo dituen bisitak, gainbegiratuak edo gainbegiratu gabe, eta haurren edo nerabeen trukea. Era berean, Familia Elkarguneek txostenak egiten dituzte, epaitegiak agindutako aldizkakotasunez (oro har, hiru hilean behin).

Txosten horiek bisita-truke bakoitzean gertatutakoa azaldu behar dute, baita edozein gorabehera ere.

Familia Elkarguneko profesionalak informazioa biltzen dute, beren pertzepzioekin batera, baina ez dute inolako tratamendu psikologikorik edo antzekorik ematen, ez dutelako horretarako formakuntzarik. Txostenaren bukaeran, azken ondorioekin batera, gomendatu dezakete bisita-erregimena aldatzea, gainbegiratuak bisitetatik gainbegiratu gabeko bisitetara igarotzea... Erabakitzeko tarte handia dute.

Hiru hilean behin egiten diren txostenak kasuaz arduratzen den epaitegira bidaltzen dira. Beraz, txostenarekiko edozein desadostasun egoitza judizialean konpondu behar da. Hainbat ikerketak eta biziraulek adierazi dute genero-joera argiak ikus daitezkeela zentro horietako profesionalen esku-hartzeetan eta txostenetan, sexu-abusu kasuetan, genero-indarkeria kasuetan eta baita tratu txar kasuetan ere (Escudero *et al.*, 2010; **Fernández; Clara Campoamor**).

3.4. Mito eta uste faltsuak: salaketa faltsuak

Espezialistek beren kezka adierazi dute sistemak dibortzio-prozeduretan familia-indarkeriaren biktimei ematen dien tratuagatik. Adituek azpimarratu dute informazio zientifikoa behar dela prozesu horietan aritzen diren profesionalak trebatzeko. Izan ere, nahiz eta oinarri enpirikorik ez izan, mitoek eta sinesmen faltsuek eragina dute kasu horien kudeaketan eta babesgabetasun-egoera larrian uzten dituzte biktimak (Dallam eta Silberg, 2006).

3.4.1. SEXU-ABUSUEN SALAKETAK OHIKOAK DIRA ZAINTZAREN INGURUKO EZTABAIDETAN, ETA AKUSAZIO GEHIENAK FALTSUAK EDO FUNTSIK GABEAK DIRA

Mito handienetako baten arabera, prozedura judiziala kondena batekin amaitzen ez bada, salaketa faltsua izan da. *Familia eta Kontzilio Auzitegien Elkarteko Ikerketa Unitateak* (Denverren kokatua) egindako bi urteko azterlan baten arabera, zaintza-kasuen % 6 soilik zeuden lotuta sexu-abusu akusazio bati. Akusazioen erdiak egiazkotzat jo ziren, eta kasuen % 17an ezin izan zen haien egiazkotasuna zehaztu inolako ziurtasun-mailarekin. Gainerako kasuetan, ez zen uste izan abusurik egon zenik. Hala ere, abusua egiaztatu ez zen kasu gehienetan, uste izan zen akusazioak fede onez egin zirela eta zilegizko susmoetan oinarritzen zirela (Dallam eta Silberg, 2006).

Salaketa faltsuei dagokienez, Dallam eta Silbergekin (2006) adierazten dute Brownen *et al.* en azterketan (1997) zehaztu zela salaketa faltsuen tasa orokorra % 9 ingurukoa zela dibortzio-kasuetan, beste edozein unetako salaketa faltsuen tasaren antzekoa. Schumanek (2000) ikerketa hori berrikusi eta % 1-5eko tartea zehazten du nahita faltsututako alegazioen tasetan, eta % 14-21ekoa, alegazio okerrean.

Interesgarria da ere Bala eta Schumanen ikerketa. Lan horrek aztertu zituen 1990-1998 urteetako banantze-kasuei lotutako 196 abusu fisiko edo sexual (Dallam eta Silberg, 2006). Bertan ikusi zenez, egiaztatu gabeko haurren abusu-kasuen herenek soilik inplikatzeko zuten auzitegian berariaz gezurra esan zuen norbait, eta epaileek ebatzi zuten litekeena zela aita izatea faltsuki salatzen zena (aitak egindako akusazioen % 21), alde handiaz amekiko (amek egindako akusazioen % 1,3).

En conclusión, las pruebas disponibles refutan la noción de que las acusaciones de abuso sexual en el contexto de los casos de custodia y visita son epidémicas, y contrarrestan la noción de que estos casos suelen ser denunciados por una madre vengativa o gravemente perjudicada (Dallam eta Silberg, 2006, 3. or.).

Datu horiek berretsi egiten dituzte Espainiako Estatistikako Institutu Nazionalaren ikerketek (Instituto Nacional de Estadística, INE, 2020), eta adierazten dute salaketa faltsuak batez ere gizonen egiten dituztela.

Resultados nacionales

Condenados. Todos los delitos

Delitos según sexo

Unidades: Infracciones



Tabla

Gráfico

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013
20.5 Acusación y denuncia falsa								
Total	1.413 ¹	2.255 ¹	2.562 ¹	2.941 ¹	3.221 ¹	3.591 ¹	3.418 ¹	2.767 ¹
Hombres	825 ¹	1.300 ¹	1.478 ¹	1.664 ¹	1.844 ¹	2.095 ¹	1.992 ¹	1.717 ¹
Mujeres	588 ¹	955 ¹	1.084 ¹	1.277 ¹	1.377 ¹	1.496 ¹	1.426 ¹	1.050 ¹

Iturria: <https://www.ine.es/>

3.4.2. AITA ABUSATZAILEEI EZARRITAKO ZAINZA-ALDAKETAK EZOHIKOAK DIRA

Aditu batzuek diote kasu bakanetan gertatzen dela zaintza-aldaketen bitartez zaintza guraso abusatzaileen esku uztea (Dallam eta Silberg, 2006). Ikerketetan egiaztatu ez bada ere haur-abusu eta familia-indarkeria akusazio faltsuen intzidentzia handiagoa dagoenik zaintza edo bisiten inguruko liskarren testuinguruan, epaileek eta sistema judizialeko beste profesional batzuek funtsik gabeko susmoak dituzte dibortzioetan planteatutako abusu-salaketekiko. Auzitegiko funtzionario batzuen ustez, abusua alegatzen duten emakumeek indarkeria-istiluak asmatzen edo esajeratzen dituzte epaitegiak manipulatzeko eta abantaila taktiko bat lortzeko (Doyle *et al.*, 1999; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006). Ondorioz, abusatzaileek askotan zaintza eskatu eta jasotzen dute.

Los evaluadores psicológicos (equipos psicosociales) que minimizan la importancia de la violencia contra la madre, o patologizan sus respuestas a ella, pueden acusarla de alejar a los niños y niñas del padre y recomendar que se dé al padre la custodia a pesar de su historial de violencia (APA, 1996; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006, 9. or.).

Amerikako Psikologia Elkartearen txosten baten arabera, gizon abusatzaile batek aita ez biolento batek baino aukera gehiago ditu seme-alaben zaintza eskusiboa eskatzeko, eta amak duen zaintza lortzeko aukera berberak (edo gehiago) izan ditzake (American Psychological Association, APA, 1996; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006). Zentzu horretan, Epaileen Amerikako Fundazioaren arabera, zaintza eskatzen duten abusatzaileen % 70 epailea konbentzitzeko gai dira (Dallam eta Silberg, 2006).

Ildo beretik, ikerketek diote abusu-salaketak egiteak kalte handiagoa egin diezaiokeela guraso babesle bati ustezko abusatzaile bati baino (Dallam eta Silberg, 2006). Azterlan baten arabera, zaintza-bitartekariari indarkeriaren biktima direla jakinarazten dieten emakumeek jakinarazten ez dutenek baino aukera gutxiago dituzte zaintza lortzeko (Saccuzzo eta Johnson, 2004,): indarkeria alegatu zuten amen % 35ek soilik lortu zuten lehen mailako zaintza; aldiz, alegatu ez zuten amen % 42k lortu zuten hori; bestetik, akusatu zituzten aiten % 10ek lortu zuten zaintza eskusiboa, ehuneko hori % 9koa izanik salaketarik jaso ez zuten aiten artean.

Indarkeria-ebidentziak eragina izan zuen aldi bakarrean, bitartekariak indarkeria-egoeraz ohartu ziren, amak ezer kontatu gabe. Hori gertatu zenean, bikoitza izan zen bitartekariak

gomendatu zuten gainbegiraturako neska-mutilen trukeen kopurua. Datu horiek berretsi egin dira 1998-99an dibortzioa eskatu zuten eta seme-alaba txikiak zituzten 800 bikoterekin baino gehiagorekin egindako azterlanean, indarkeria-aurrekariak zituzten 324 kasu barne (Kernic *et al.*, 2005; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006). Guraso biolentoek, ez-biolentoekin alderatuta, zaintza lortzeko aukera berberak zituzten zaintza eskatzen zutenean. Era berean, ez zen probableagoa etxeko indarkeria-aurrekariak zituzten gurasoek bisita gainbegiratuak izatea.

Faller eta DeVoe (1995; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006) ikerlariak dibortzio-kasuetan gertatutako sexu-abusuen 214 alegazio aztertu zituzten, eta diziplina anitzeko talde batek ebaluatu zituen, unibertsitate-klinika batean: kasuen % 72,6an, probablea zen; % 20an, ez-probablea; eta % 7,4an, zalantzazkoa. Gainera, 40 guraso babeslek sexu-abusuaren gaia planteatzearekin lotutako zigorrak jaso zituzten: besteak beste, espetxeratzea, bisitak mugatzea edo galtzea, auzitegiari, babes-zerbitzuei edo poliziarri egindako ustezko abusua berriz ez salatzeak, ohartarazpenak, eta etorkizunean sexu-abusuen kezkatatik haurra mediku edo terapeuta bategana eramateko debekuak. Zigor horiek jaso zituzten gurasoetako bat bera ere ez zuten epaitu nahita akusazio faltsuak egiteagatik. Izan ere, zigortutako kasuek puntuazio altuagoa lortzen zuten sexu-abusua gertatzeko probabilitatearen eskala konposatu batean, eta litekeena zen proba medikoak izatea zehapenik gabeko kasuak baino (Faller eta DeVoe, 1995; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006).

Neustein eta Goettingek (1999; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006) 300 kasurekin egindako ikerketan, HKSA salaketa aurkeztu zen kasuen % 10ean zaintza pertsona salatzaileari eman zitzaion eta bisita gainbegiratuak ezarri zitzaizkion ustezko abusatzaileari; % 20an, zaintza pertsona salatuari eman zitzaion; eta gainerako kasuetan, gainbegiratu gabeko zaintza partekatua ezarri zen.

Stahly *et al.* en ikerketan (2004; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006), dibortzioa baino lehen, elkarrizketatutako ama babesleen % 94k adierazi zuten seme-alabaren zaintzaile nagusiak zirela; % 87k, zaintza zutela banantzea gertatu zenean. Hala ere, abusu-salaketaren ondorioz, % 27k bakarrik eutsi zioten zaintzari prozedura judiziala amaitzean. Ama babesle gehienek zaintza galdu zuten urgentziatzko prozeduretan, nahiz eta ez zitzaien jakinarazi eta ez ziren bertan egon. Ama horien % 97k esan zuten epaitegiko langileek ez zituztela abusu-txostenak aintzat hartu edo gutxietsi egin zituztela, eta ia erdiek (% 45) adierazi zuten «alienatzaile» gisa etiketatu zituztela, seme-alabengan Gurasoen Alienazio Sindromea (GAS) eragin zutela argudiatuta. Gehienek sentitu zuten seme-alabak babesten saiatzeagatik zigortu zituztela, eta bi herenek (% 65) esan zuten zigorrekin mehatxatu zituztela, kasuaren inguruan «publikoki» hitz egiten bazuten. Ikerketan parte hartu zuten gurasoen % 85ek uste zuten seme-alabek abusuen biktima izaten jarraitzen zutela; % 63k, ordea, abusua salatzeari utzi ziotela, seme-alabekiko harremana debekatuko zieten beldur zirelako. Haurren % 11 suizidatzen saiatu ziren (Stahly *et al.*, 2004; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006).

Guraso babesleek ondorio ekonomiko larrien berri ere eman zuten (Dallam eta Silberg, 2006). Prozedura judizialen batez besteko kostua 80.000 dolar (68.315 euro) baino gehiagokoa izan zen, eta laurdenek baino gehiagok diru guztia galdu zuten prozeduren ondorioz. Hori horrela, abokatu batzuek emakumeei aholkatzen dute ez kontatzeko auzitegiei edo bitartekariei haurren aurkako tratu txarrak edo etxeko abusuak, ustezko abusatzailearen zaintza galtzeko arriskua zutelako («CustodyLitigation», 1988; Saccuzzo eta Johnson, 2004; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006).

Dallam eta Silberg (2006) egindako ikerketak adierazten duenez, gaur egun etorkizuneko indarkeriaren aurrean dugun joera-adierazlerik onena iraganeko jokabidea da (Crowley, 2005). Beraz, beharrezkoa da dibortzio-prozesuetan hurrei entzuteko modu seguru eta esanguratsuak sortzea (Smart, 2002). Auzitegiek arreta berezia jarri behar dute haurren beraren abusu-salaketan, iraganean lortutako frogekin batera, gurasoetako batek etxeko beste kide batzuekin izan duen jokaera bortitzaren frogekin batera (Dallam eta Silberg, 2006).

3.4.3. GURASOEN ALIENAZIO SINDROME FALTSUA

Aipatu bezala, HKSA kasuetan biktimaren testigantza delitua egozteko froga nagusia izan ohi da, eta askotan froga bakarra da zantzu fisikorik ezaren aurrean. Hain zuzen, sindrome faltsu honen bitartez lortu nahi da HKSA kasuetan froga nagusia den biktimaren testigantza baliogabetzea.

Espainiako Emakume Epailen Elkarteak (Asociación de Mujeres Juezas de España, AMJE) Gurasoen Alienazio Sindromeari (GAS) buruzko Kongresu antolatu du berriki, GAS faltsuak haurren eta emakumeen eskubideen urraketan duen pisu handia aztertzeke (AMJE, 2020). Arlo zibileko eta zigor-arloko epaiketetan, baita gizarte-zerbitzuen eremuan ere, ohikoa da Gurasoen Alienazio Sindrome faltsua eta antzeko eufemismoak erabiltzea (AMJE, 2020), haurren babesleari zaintza kentzen saiatzeko eta, bisita-erregimena urratuz gero, figura babesleari isun handiak jartzeko (Dora, 2016). Gurasoen Alienazio Sindromearen aplikazioak ez die soilik eragiten sexu-abusuak pairatu dituzten hurrei, eta bere garaian sindrome faltsu horren aplikazioa pairatu zuten eta gaur egun helduak diren pertsonak salatzen dute GAS faltsua aplikatzen dela epaitegietan, gizarte-zerbitzuetan eta Familia Elkarguneetan. Besteak beste, Patricia Fernández bizirauleak, *Avanza sin miedo* elkarteko buru dena.

Sindrome faltsu honek zientzia-komunitatearen eta sexu-abusuaren arloko adituen gaitzespena jaso du, eta «zabor-zientziazat» hartu dute («*junk science*¹¹») (AMJE, 2020). Alde horretatik, Espainiako Neuropsikiatria Elkarteak argitaratu duen ikerketa batek zehatz-mehatz azaltzen du sindrome faltsuaren zorrotasun zientifikorik eza (Escudero *et al.*, 2010).

3.4.3.1. Gurasoen Alienazio Sindrome faltsua (GAS) zer den

GAS faltsuaren oinarria hauxe da: guraso batek (ama normalean) gertatu ez diren sexu-abusuez konbentzitu nahi izatea haurra, eta seme-alabak aita gaitzesten duen kasuetan aplikatu ohi da. Horrela, haurraren ganako arreta-fokua amaren portaerara desbideratzen da. «Gurasoen alienazio sindromea haurren testigantzaren sinesgarritasun falta gisa konfiguratuz, haiek beren borondatearen jabe ez direla, gaitasunik ez dutela edo haien iritzia kutsatuta dagoela pentsatzea» (AMJE, 2020, 15. or.). Ustezko sindrome hau sendatzeko «mehatxuaren terapia» (*threat therapy*) aplikatu behar da, haurra amaren eta haren familiarengandik aldentuz, seme-alabak aita onartu arte.

Se considera que el niño o niña es un enfermo mental y que el progenitor «alienante» protector (por ejemplo, una madre que plantea preocupaciones sobre el abuso) es la única causa del trastorno. Cuando este progenitor es juzgado en la categoría de «severo», el Dr. Gardner re-

11 «(...) Iritzi lerratua sortzeko edo ideologia bat bultzatzeko erabiltzen diren azterlan, datu eta analisi zehaztugabeak edo faltsuak».

comendó la custodia exclusiva al otro progenitor —el progenitor que el niño o niña afirma que está abusando de ellos—. Así pues, la principal cura para esta supuesta enfermedad mental es que el niño o niña sea puesto en mayor contacto con un presunto abusador mientras que su contacto con el progenitor protector se reduce o se detiene por completo (Dallam eta Silberg, 2006, 12. or.).

Johnsonek (2003) dibortzio-kasuetan gurasoetako batengandik urrunduta zeuden haurrak aztertu zituen, eta ikusi zuen baztertutako gurasoak zirela sarritan arbuio horren eragileak, eta haien portaera-defizita izan zela egoera horren arrazoi nagusia. Smartek (2002) adierazten duen bezala, dibortziatu ondorengo aitaren eta alabaren arteko harremana, neurri handi batean, banandu aurretik ezarritako konfiantzaren eta berotasunaren arabera da, bai eta banandu ondorengo hazkuntzaren kalitatearen arabera ere (Dallam eta Silberg, 2006).

3.4.3.2. **Sindrome faltsuaren sortzailea eta testuinguru soziala**

GAS faltsua Richard Gardner pederastiaren aldeko mediku amerikarrak asmatu zuen 1985. urtean, Inés Herreros fiskalaren arabera «pederastia legitimatzen duten teoria misoginoen baitan» (AMJE, 2020, 4. or.). Berez, pederastiaren aldeko zenbait elkartetako kide zen (Dora, 2016; Vaccaro eta Barea, 2009), eta haurren eta helduen arteko harreman sexualen onarpenaren aldeko defentsa egiten zuen:

Los niños mayores pueden ser ayudados a darse cuenta que los encuentros sexuales entre un adulto y un niño no son universalmente considerados como un acto censurable. Se le podría contar al niño sobre otras sociedades en las cuales tal comportamiento fue y es considerado normal. El niño podría ser ayudado a apreciar la sabiduría del Hamlet de Shakespeare, que dijo, «nada es bueno o malo. Pero el pensarlo lo hace así». En tales discusiones el niño tiene que ser ayudado a apreciar que en nuestra sociedad tenemos una actitud exageradamente punitiva y moralista sobre los encuentros sexuales adulto-niño (Vaccaro eta Barea, 2009, 171. or.).

GAS teoria garatzeaz gainera, beren seme-alabei sexu-abusuak egiteaz akusatutako gizonen aholkulari gisa lan egin zuen. Hala, sindrome faltsua HKSAen salaketei aurre egiteko defentsateoria gisa sortu zen, eta Gardnerrek irabazi ekonomiko handiak lortu zituen peritu gisa arituta intzestuatatik akusatutako gurasoen defentsan (Dallam, 1999; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006; Dora, 2016).

Inés Herreros fiskalak adierazten duenez, sindrome faltsu hori mugimendu neomatxistek sustatu dute, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren kontrakoek hain zuzen (AMJE, 2020). Mugimendu horiek «giza-eskubideak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta haurren eskubideen onarpena gauzatzera bideratutako paradigma-aldaketaren ondorioz sortutako tirabiren ondorio» dira (AMJE, 2020, 18.or.). Soledad Andrés Gómez Alcalako Unibertsitateko Garapenaren eta Hezkuntzaren Psikologiako irakasleak adierazi duenez, 80ko hamarkadara arte uste zen erraz eragin zitekeela haurrengan eta haien testigantzak ez zirela sinesgarriak. Ordutik, ikerkuntzan egindako aurrerapenetatik abiatuta, gaur egungo doktrina zientifikoak dio haurrak helduak bezain zehatzak direla argi eta garbi galdetzen zaienean (Luus eta Wells, 1992), eta sinesgarritasuna are handiagoa dela sexu-delituen kasuetan, baita helduen sinesgarritasuna baino handiagoa ere (Goodman *et al.*, 1989; Masip *et al.*, 2004b; hemen aipatuta: AMJE, 2020). Zentzu berean, Save the Childrenek ere adierazi du delitua salatzen duen biktimari eta amari sinesten ez zaien arren, komunitate zientifikoak eta Auzitegi Gorenak (2016) gai horri buruzko iritzia eman dutela:

Los niños y niñas, especialmente los más jóvenes, no pueden fantasear sobre algo que está fuera de su campo de experiencia como son las relaciones sexuales. En cuanto a la capacidad de la memoria de niños y niñas para narrar algo que han vivido, no se trata de que tengan menos memoria que las personas adultas sino de que esta es más cualitativa que cuantitativa. Sus recuerdos pueden ser bastante exactos, aunque menos minuciosos, una característica que hay jueces que entienden mejor que otros. (...) cualquier menor de edad es más propenso a negar experiencias que sí les han pasado, pero han sido traumáticas, que a hacer afirmaciones falsas (Save the Children, 2017, 98. or.).

Ana Clara Belíok —abokatua, ICAMeko Familia Saileko lehendakaria— azaldu duenez, joan den mendeko 90eko hamarkadan «ama maltzuraren sindromea» deitzen zitzaien gurasoen alienazio sindrome faltsuari. Garai hartan, banantze- eta dibortzio-prozesuetan, seme-alaben zaintza nagusiki amei ematen zitzairen, oso kasu gutxietan uzten zen zaintza aiten esku, eta ez zen zaintza partekatuz hitz egiten. Hasiera hartan, GAS faltsua zen amaren zaintza indarrrik gabe uzteko modua (AMJE, 2020). Miguel Lorentek —auzitegiko medikua eta Granadako Unibertsitateko Auzitegiko Medikuntzako irakaslea— ideia bera aipatzen du: «Pentsioa ordaintzeko baliabideak jarri diren heinean, guraso bezala duten betebeharez arduratuz joan dira» (Lorente, 2020). Ildo horretan, garrantzitsua da nabarmentzea, hainbat espezialistak adierazi bezala, GAS terminoak edo kontzeptuak kritika handiak jaso dituzenez, gaur egun mututzen ari dela (AMJE, 2020).

El término SAP ha mutado y puede seguir mutando: actualmente se utilizan otras denominaciones alternativas al SAP, cómo preocupación mórbida, manipulación, interferencias parentales, instrumentalización de los hijos/as por parte de los progenitores. Debe prevenirse sobre la continuación de estas teorías en el marco de figuras como la coordinación parental o la existencia de sistemas de evaluación del riesgo en la Infancia, que se refieren directa o indirectamente a la alienación parental, como la herramienta VALÓRAME de Andalucía o BALORA del País Vasco (AMJE, 2020, 6. or.).

Gaur egun ere, Graciela Dora Jofré (2016) epaile eta familia barruko HKSA, intzestuan eta genero-indarkerian espezialistak ohartarazten duenez, diru-sarrera oparoak eta auzitegietan boterea duten pertsona biolentoak eta pedofiloak defendatzen dituzten abokatu-konpainiek sostengatzen dute GAS faltsua. GAS teoriarekin, zaintzarekin kezkatuta dagoen eta haurren diagnostikoan, tratamenduan eta babesean laguntza profesionala eskatzen duen guraso baten urratsak «alienazioaren» ebidentzia dira (Dallam eta Silberg, 2006). Save the Childrenek zentzu berean ohartarazten duenez, «prozedura judizialean termino hori erabiltzeak arrisku handia dakar, behin agertuta, hura ezeztatzeko prozesuan egiten diren urratsek sintomak baieztatu besterik ez baitute egingo» (2017, 116. or.). Richard Ducote abokatuak (2002) ideia hori berresten du:

Una ironía de... «SAP» es que el aumento de la existencia de pruebas válidas de verdadero abuso sexual lleva a Gardner y a sus devotos a diagnosticar con más fervor el «SAP». Así, el «SAP» es el sueño del abogado defensor, ya que cuanto mayor sea la prueba del delito, mayor será la prueba de la defensa (Dallam eta Silberg, 2006, 12. or.).

Concepción López Soler Haur Psikopatologiako irakasle titular eta Murtziako Psikopatologia Pediatrikoko Ospitaleko Unitateko buruak ohartarazten duenez, psikologia klinikoan espezializatorik eta prestakuntzarik ez izateak eragindako arazoek eta haurren diagnostiko oker eta faltsuen ondoriozko osasun publikoko ondorio larri eta iraunkorrek kalteak eragiten dituzte amarekiko lotura egonkorretan, bai eta trauma-osteko estresagatiko nahasmenduetan ere. «Haur horietako askok helduak direnean izango dituzten osasun mentaleko arazoak eta lotura afektibo eta pertsonalak ahaztu gabe, behar bezala tratatzen ez badira» (AMJE, 2020, 5. or.).

Adituek diotenez, «DSM edo CIE gidetan diagnostikatutako gaixotasunen edo sindromeen erregistroaren ebidentziak eskatu behar dira, eta ez dira froga gisa erabili behar diagnostiko faltsuak, zientifikoki kontrastatu gabeko sinesmen edo mitoetan oinarritutakoak» (AMJE, 2020, 6. or). Haurren testigantza sinesgarritasun handiari dagokionez, adituaren ustez, funtsezkoa da «haurren garapenean behar bezala trebatutako profesionalek ikerketa zorrotza egiteko eskura dituzten tresnak ezagutzea, ezjakintasunetik eta aurreiritzitik urrun dauden lekukotasun baliagarri eta fidagarriak lortzeko» (AMJE, 2020, 12. or.). Ildo horretan, jardunaldietan adierazi zen premia zela osasun-espezialitate bat sortzea haur psikologia klinikoan, eta haur/nerabeen aurkako indarkerian espezializatutako unitateak auzitegiko mediku institutuetan, non biktimen esplorazioak egiten diren (AMJE, 2020). Era berean, azpimarratu zen arazoa lantzeko behar den prestakuntzaz eta sentsibilizazioaz gain, «aztertu eta ikertu egin behar da, aurre egiteko genero-roleri, estereotipoeri eta aurreiritziei» (AMJE, 2020, 7. or.).

3.4.3.3. Egoera konplexuei erantzun errazak ematea

Dallam eta Silberg (2006) adierazten duten bezala, GAS faltsuak epaitegiei erantzun errazak ematen dizkie zaintza-azietan familia-indarkeriaren alegazioak planteatzen direnean sortutako arazo konplexuei (Dallam eta Silberg, 2006). Horrela, GAS faltsuak konbikzio ahalmen izugarria du (Fernández, 2008, 129. or.).

Los argumentos que esgrimen los «expertos en SAP» no podrían ser sostenidos en un congreso de psicología, pero en un juicio penal o ante la opinión pública crean la sensación de un enfrentamiento científico o, lo que es peor, generan la ficción de una presunta sabiduría ante la ignorancia o la mala praxis de peritos y psicólogos clínicos (Fernández, 2008, 130. or.)

Isabel Giménez García, AMJEko epaile eta bazkideak, aipatutako jardunaldietan esan zuen litekeena zela, hain gai gogorra izanik, gizarteak nahiago izatea ondorio ez hain gogor honetan sinestea: «hobe amak manipulatzeko edo gezurra esaten duela sinestea, haur batek guraso baten sexu-abusuak edo tratatu txarrak jasaten dituela pentsatzea baino» (AMJE, 2020, 18. or.). Era berean, honako hau azpimarratu zuen: «akatsa da ez dela pentsatu behar ama edo aita sinesten den; izan ere, istorioen protagonista haurra edo nerabea da», eta erantsi zuen entzun egin behar dela, nolana ere, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/96 Lege Organikoaren arabera (AMJE, 2020, 18. or.).

Miguel Lorentek —Granadako Unibertsitateko Auzitegi Medikuntzako irakasle titularra eta Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren ordezkaria 2008 eta 2011 artean— GAS faltsua zentzu honetan jorratzeko beharra azpimarratu zuen:

Como una estrategia que entronca con la visión tradicional de los roles de padres y madres respecto de sus hijos e hijas, con los mitos que identifican a las mujeres como seres perversos y con la construcción histórico-jurídica que convierte al padre —«el buen padre de familia»— en elemento de referencia del vínculo con hijos e hijas. (...)

Recordó que, en la cultura dominante, prevalece la creencia de que los niños y las niñas deben querer a sus padres, y de que un maltratador no es un mal padre. En este contexto, la reacción de niños y niñas que han vivido en un entorno de violencia y que rechazan al padre es configurada por el SAP como una «programación» de las madres en contra de los padres. El SAP forma parte, de este modo, de la violencia que se ejerce contra mujeres, niños y niñas, impidiendo ver a las víctimas y su drama personal y, en cuanto concepto mutante, cambiará de nombre todas las veces que sea necesario. Sea cual sea su denominación, lo que en todo caso

se persigue es mantener la construcción histórica sobre la identidad de hombres y mujeres, y sus roles tradicionales en las relaciones familiares, de pareja y de cuidado. (AMJE, 2020, 9. or.)

Lorenteren aburuz, matxismoak garatutako estrategia zabal baten parte da GAS faltsua, eta hiru helburu ditu:

1. Emakumeen gainean eraikitako mitoak berrestea, izaki gaizto eta maltzurrekin identifikatzen dituztenak.
2. Pentsamendu kritikoa saihestea, erantzun sinplistik eskainiz —salaketa faltsuak, GAS, familia barruko indarkeria—, gizartea indarkeria matxistaren errealitatearen azterketan sar ez dadin eta egoeraren aurrean posizionatu ez dadin.
3. Matxismoaren erreferentzia kultural eta historikoarekin bat datorren marko teorikoa mantentzea; horri esker, sinesgarria da ama batek seme-alabak manipulatzeko dituela baieztatzea, diagnostikatu zaizkien antsietate-koadroak edo indarkeria-zantzuak egonda ere (AMJE, 2020, 10. or.).

3.4.3.4. Espainiako Estatua GAS faltsuaren aurrean

Europako Batzordeak Espainiako Estatua ikertu du Gurasoen Alienazio Sindrome (GAS) faltsua erabiltzeagatik. Ildo horretan, CEDAWek (Emakumeen aurkako bereizkeria mota oro ezabatze konbentzioa), beste batzorde eta erakunde batzuek bezala, bere kezka adierazi du biktimen eta haien figura babesleak izan ohi diren amen inguruan, Espainian GAS faltsuaren aplikazioa dela eta. GAS faltsuaren (edo haren eufemismoen) aplikazioak, alde batetik, komunitate zientifikoaren eta instituzioen gaitzespena eragin du: besteak beste, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, hiru lurraldeetako Batzar Nagusiak, Espainiako Neuropsikiatria Elkarteak, Espainiako Pediatria Elkarteak eta Gizarte Langintzaren Kontseilu Nagusiak gaitzespen-komunikatuak edo gidak argitaratu dituzte. Bestetik, gizarte-mugimenduak eta sareak sortu dira egungo egoera salatzeke, EAEn besteak beste, **Red Contra el SAP** (GASren Kontrako Sarea).

Haren aplikazioaren zigorgabetasunari dagokionez, Ana Ovejero Puentek —Carlos III.a Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakaslea eta Madrilgo Arartekoaren tratu-berdintasunerako aholkularitza-letradua— adierazten du 2006-2019 urteetan GAS sindromeari lotuta aurkeztutako 200 kexetatik 8 baino ez zirela izapidetu; hau da, kexen % 90 ez zirela onartu (AMJE, 2020).

Azkenik, Marisa Kohanek —Giza Eskubideetan eta Generoan espezializatutako kazetaria, gaur egun Diario Público egunkarian Generoaren eta Berdintasunaren arloko koordinatzailea dena— azpimarratzen du hedabideek erantzukizun handia dutela emakumeen aurkako indarkeria instituzionalaren normalizazioan. Adibide gisa, adierazten du azterketa eskasa egiten dutela ama talde garrantzitsu batek jasandako egoerari buruz: izan ere, seme-alabentzako babesa eskatuz «sartzen» dira sistema judizialean —kasu gehienetan abusu sexualak jasan izanaren zantzuagaitik— eta zaintza galduta «irteten» dira sistema horretatik. Kazetariaren esanetan, horrek «ama askok salaketarik ez aurkeztea eragiten du, seme-alaben zaintza galtzeko beldur direlako» (AMJE; 2020, 7. or.).

Ildo horretan, hainbat espezialistek ohartarazi dute GAS faltsuak hertsapen eraginkorra eragiten diela emakumeei, baita oraindik salaketarik egin ez dutenei ere, sindrome horren berri dutelako eta salaketarik ez egitea erabakitzen dutelako, seme-alaben zaintza ez galtzeko (AMJE, 2020).

4. Biziraule helduak

Ikusi dugunez, biktimak abusua jasaten duen garaian edo handik gutxira errebelatzea ez da ezohikoa. Dena dela, Peredak adierazten duenez, normalean errebelazioa helduaroan gertatzen da, abusua gertatu eta 3-18 urte igaro ondoren oro har (Pereda *et al.*, 2018). Hala ere, bizirauleekin egindako ikerketa baten arabera, asko dira haurtzaroan eta helduaroan abusua errebelatzen dutenak, baina bizirauleek diote soilik helduaroan egindako errebelazioak iruditzen zaizkiela eraginkorrak (Pereda *et al.*, 2018). Ullmanek egindako berrikusketan ere (2002; hemen aipatuta: Pereda *et al.*, 2018) esaten da HKSA biktimek helduarora iritsi arte itxaroten dutela gertatutakoa kontatzeko (% 42-75 artean), edo ez dutela sekula kontatzen (% 28-60 artean).

Recordemos, además, que los investigadores señalan que menos de la mitad de los adultos que recuerdan haber sido victimizados sexualmente, lo han contado en la infancia y que solo una quinta parte —el 20 %— de los que lo han contado, tuvo algún tipo de intervención por las autoridades. En el estudio de Finkelhor de 1979, del total de casos de abusos detectados, el 63 % de las mujeres y el 73 % de los varones jamás lo había contado (Intebi, 2011, 176. or).

Gainera, delitua biktimak 18 urte bete eta 5-15 urte igarota preskribatzen da (Save the Children, 2017). Pereda *et al.* en ikerketan (2018) parte hartzen duten bizirauleen esanetan:

Las consecuencias del abuso no prescriben. Y, además, las penas son muy «blandas», 2, 3 años en cárcel o 3.000 euros. Ya me lo he gastado en terapia eso... No denunciaría por el dinero, pero si eso es lo que vale abusar de tu hermanastra... (caso 1); «Porque el daño que se le hace a la persona lo lleva consigo toda la vida, entonces ¿por qué va a prescribir? ... y más cuando eres menor, si no tienes un adulto que te acompañe no lo puedes hacer por ti solo, si cuesta decirlo a alguien, ¿cómo vas a ir ante un juez?» (caso 7); «Porque a lo mejor yo ahora no quiero, pero más adelante sí, ahora no tengo fuerzas ni psicológicas... pero a lo mejor si pasan un par de años, puede que me sienta mejor conmigo misma y quiera denunciar» (caso 14). (...) «porque es un tema muy personal y cada uno tiene sus tiempos» (caso 2) y «porque hay personas que hablan con 80 años, no debemos dejar un límite de edad» (caso 5) (16. or.).

Preskripzio-epea luzatzeko arauaren funtsak ez luke izan behar etete hori biktima adin zehatz batera heltzen den unea. Horrela, preskripzioaren epea luzatzeak izan beharko luke biktimak duen blokeo psikologikotik ateratzen den arte edo erasotzailearekin duen lotura material, emozional edo ekonomikoa gainditu arte, hura salatzeke oztopo diren elementuak, alegia (Gómez Martín, 2016; hemen aipatuta: Pereda *et al.*, 2018). Bizirauleekin egindako ikerketek azpimarratzen dute laguntza terapeutikoa behar dela salaketa egin aurretik, «salatzea bat-batean maila asko igotzea» delako (Tamarit *et al.*, 2015, 34.or.). Protagonisten hitzetan:

P13: Entonces el hecho de denunciarlo socialmente a mí me ratificaría, al menos, ahora después de las terapias y después de tantas conversaciones, puedo hablar sobre el tema y no llorar y no desmoronarme y asumirlo como parte de mi historia (Tamarit *et al.*, 2015, 36. or.).

Hortaz, gaur egun, prozesu judizialei dagozkien denbora-epeek, neurriek eta sententziek ez dituzte biktima helduak gogobetetzen (Pereda *et al.*, 2018). Biziraule batek adierazten duenez: «ni epaitu ninduten, ez erasotzailea» (Pereda *et al.*, 2018, 14.or.). Izan ere, sexu-delituen biktimek diote ez direla gustura sentitzen zigor-arloko justizia-sistemarekin, beste delituetako biktimekin alderatuz gero (Tamarit *et al.*, 2015). Australian sexu-abusuak salatu zituzten 63 haurri egindako elkarrizketa sakonetan oinarritutako ikerketa baten arabera, haien esperientzia baloratu ondoren, erdiek baino gutxiagok salaketa jarriko lukete berriro (Eastwood, 2003; hemen aipatuta: Tamarit *et al.*, 2015). Aldiz, Peredak egindako ikerketako biziraule helduek adieraz-

ten dute, prozesu judizialean pairatutako ondoezaz gain, salaketa jartzea positibotzat dutela. 2013ko metanalisi baten arabera, biktimizazioa gaintitu duten biziraule gehienek ez dute jarraera zirgortzailerik izaten, erreparatzailea baizik, eta aldarrikatzen dituzte tratu ona, errespetua, zorrotasuna prozesuan, inpartzialtasuna eta justizia (Pereda *et al.*, 2018).



Video: Los monstruos no existen

5. Ondorioak

Prestakuntza osoan landu denez, HKSaren arazoa guztiz zeharkakoa da, genero-indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren antzera. Dena dela, gaiari buruzko ezjakintasuna oso handia da, eta ama babesleen esaldirik ohikoena honako hau da: «Uste nuen hau niri ezin zitzaidala gertatu». Horri buruz errespetuz eta naturaltasunez hitz egitea (gertatzen den eta landu behar den zerbait bezala) lagungarri da pertsona gehiagok gaiari buruz hitz egin dezaten eta era horretan ahaldundu daitezen. Izan ere, arazoari ez heltzeak ahalbidetu egin du «urte luzez ikastetxeetan edo kirol-zentroetan abusatzaile ugari ibiltzea» (Silvan, 2018, 25. or.), edo, ikusi dugun bezala, baita familietan ere.

Azken finean, liburu honen helburua da abusuari buruzko gutxieneko ezagutza zabaltzea eta, horrekin batera eta nagusiki, edozein familietan gerta daitekeela onartzea eta barneratzea, baita gurean ere. Izan ere, historia osoan gertatu den zerbait da, eta, hori onartzen ez badugu, nekez antzemango ditugu oso agerikoak ez diren kasuak.

Detekzioari dagokionez, kontuan izan behar da gure gizartean gai tabua izateaz gain —baita esku hartzen duten profesionalen artean ere—, ez dagoela prestakuntza espezializaturik, ez baitago berez babesten duen sistemarik, eta, beraz, estereotipoek edo mito faltsuek indarra hartzen dute kasuak tratatzerako orduan. Sexu-abusuan trebatu behar da, funtsezkoa da, baina HKSari buruzko prestakuntzaz gain, funtsezkoa da ere haurtzarora babesteko sistema osatzen duten lanbide-esparruen arteko prestakuntza feminista. Ama da testigantzaren hartzaile nagusia eta biktimak egingo duen prozesua laguntzeko babes-figura nagusia, eta, beraz,

profesionalek lan pertsonal sakona egin behar dute gaur egun kasu horien esku-hartzean eragina duten genero-joerak identifikatu ahal izateko.

Alde batetik, zoritxarrez, ikerketek argi eta garbi erakusten dute gurasoen abusua salatzen duten amei zaintza kentzen zaiela eta, beraz, zergatik gertatzen den hori galdetu behar diogu geure buruari. Ez dirudi galdera horrek erantzun erraza duenik; aitzitik, badirudi dinamika-multzoko konplexu bat dagoela tartean (Dallam eta Silberg, 2006). Gure gizartean zabaldua dagoen uste baten arabera, normaltasunez jokatzeko duen pertsona bat ezin da izan tratatu txar emalea edo haur-abusatzailea (Dallam eta Silberg, 2006). Abusatzaileak oso kontziente dira, jendaurreko portaeran oinarrituta, portaera pribatuari buruzko usteak eragiteko joeraz, eta ezagutza hori beren mesedetan erabiltzeko joera dute (Salter, 2003; hemen aipatuta: Dallam eta Silberg, 2006).

Bestalde, salaketa faltsuen diskurtsoa dago. Kontua ez da salaketa faltsuak ukatzea edo amak edo aitak seme-alabak manipulatzeko dituen kasurik ez dagoela defendatzea: salaketa faltsuak delitu guztietan daude. Nolanahi ere, amek haurrak manipulatzeko dituztela edo salaketa faltsuen ugaritasunaren diskurtsoa erabiltzen ari direla (aiten sexu-abusuen kasuak baliogabetzeko) alde batera uztea problematikari heltzeko eztabaida seriorik ahalbidetzen ez duen errealitate bat ukatzea da. Dei genezake Gurasoen Alienazio Sindromea, edo erabil dezakegu eufemismo bat, edota, zuzenean, babes-sistemako profesionalen epai edo txosten ugaritan agerian geratzen den ideologia. Alde horretatik, deigarria da pediatriako eta hezkuntzako profesionalek inoiz ez detektatzea instrumentalizaziorik, eremu profesional horrek ezagutza estuagoa duelako, harreman zuzenagoa eta jarraituagoa biktimekin eta haien familiarekin.

Badakigu genero-indarkeriaren kasuen % 70 baino gehiago ez direla salatzen edo 5 haurretatik 1 abusatzen dela. Aldi berean, HKSA kasuen hamarretik bat bakarrik salatzen da eta horietatik % 90 artxibatu egiten dira epaiketara iritsi gabe. Datu horiek ezin dira alde batera utzi, eta profesionalek aintzat hartu behar dituzte arrisku bereziko egoerak (aita abusatzailea, adin txikiko biktima, desgaitasunen bat duena, etab.), erasoaren kopurua beldurgarria delako. Seme-alaba batek aitari modu aktibo zein somatikoan uko egiten badiu, profesionalak ebaluazio bat egin beharko du uko horren arrazoia zein den jakiteko. Haurraren eskubidea delako, ez gehiago eta ez gutxiago.

Gaur egun, gizarteak onartzen du sistema patriarkal batean bizi garela; adibidez, hor daude genero-indarkeria kasuak edo emakume helduen aurkako sexu-erasoak. Hala ere, oraindik kostatzen zaio onartzea sistema horrek berak epaitzen dituela Haurren Kontrako Sexu Abusuak eta, esku-hartzeak behar bezala egiteko araudia eta baliabideak izan arren, horiek ez direla aplikatzen. Legedian dauden babes-tresnak hobetu egin badaitezke ere, arazo handiena da tresna horiek ez direla erabiltzen, eta, ez erabiltzeaz gain, ez erabiltze horrek ez duela erantzunik sortzen. Nola egin aurretik eratutako frogak bat, behar diren bermeekin, biktimak itxarongela erasotzailearekin partekatu behar duenean?

Amaitzeko, uste dugu bereizi egin behar direla epe luzeko eta epe laburreko helburuak, egoerari modu errealistan heldu nahi bazaio. Adibidez, badira genero-indarkeriaren kasuetan aktibatzen diren neurriak eta, beraz, antzeko neurriak har daitezke bi kasuetan antzekotasunak dituzten biktimak babesteko. Epaitegi espezializatuak beharrezkoak dira, baina premiazko neurriak behar ditugu egungo egoera dramatikoak leuntzeko. Miguel Lorentek UPV/EHUko Udako Ikastaroek antolatutako jardunaldietan gogoratu zuenez, «justizia feminista zentzuaren justizia da». Jakin behar dugu zer egin dezakegun ondo eta zer hobetu, batzuetan biktima infernu batetik ateratzen dugulako (abusua) beste infernu batean sartzeko (aktibatzen den prozedura).

Resaltar la necesidad de comenzar a elaborar un modelo de intervención respetuoso y que no lastime a las víctimas. Uno que tenga en cuenta las principales características del fenómeno, así como la legislación protectora vigente, y donde la criatura abusada no sea una hoja en un expediente, sino el centro y el sentido mismo de las actuaciones. Donde el familiar no abusador que acuda a la Justicia, reciba el trato y la contención que merece. Donde los profesionales de las disciplinas no jurídicas a los que igualmente les toca intervenir, sean escuchados con atención y respetados en los estrados judiciales (Rozanski, 2003, 23. or.).

6. Erreferentziak¹²

Aguilar, Marta (2009). Abuso sexual en la infancia. *Anales De Derecho*, 27, 210-240.

ARARTEKO (2018). *Haurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua. El abuso sexual infantil. Una realidad compleja que interpela a toda la sociedad.* «Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma/ Colección «Jornadas sobre derechos humanos». Eskuragarri: https://www.ararteko.eus/contenedor.jsp?layout=contenedor.jsp&codResi=1&language=eu&codMenu=487&codMenuPN=1&codMenuSN=376&conteni-do=12641&tipo=5&nivel=1400&seccion=s_fdoc_d4_v7.jsp&title=Haurrenganako+sexu-abusua.+Gizarte+osoa+interpelatzen+duen+errealitate+konplexua

Auzitegi Gorena (2016). *El Tribunal Supremo constata que la proporción de falsos relatos de abuso sexual infantil por parte de las víctimas es muy reducida* (2016ko ekainak 14). Hemendik berreskuratua: <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Noticias-Judiciales/El-Tribunal-Supremo-constata-que-la-proporcion-de-falsos-relatos-de-abuso-sexual-infantil-por-parte-de-las-victimas-es-muy-reducida>

Bianco, Mabel, Chiapparrone, Norma, Müller, María eta Wachter, Paula (2016). *Abuso sexual en la infancia: Guía para orientación y recursos disponibles en CABA y Provincia de Bs. As.* Fundación para Estudio e Investigación de la Mujer.

Carrero, Miryam (2018). Protocolo marco interdisciplinar de actuaciones en casos de maltrato infantil en las Islas Baleares. Ararteko (Ed.)-en, *Haurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua. El abuso sexual infantil. Una realidad compleja que interpela a toda la sociedad.* «Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma/ Colección «Jornadas sobre derechos humanos» (116-133. orr). Eskuragarri: https://www.ararteko.eus/contenedor.jsp?layout=contenedor.jsp&codResi=1&language=eu&codMenu=487&codMenuPN=1&codMenuSN=376&contenido=12641&tipo=5&nivel=1400&seccion=s_fdoc_d4_v7.jsp&title=Haurrenganako+sexu-abusua.+Gizarte+osoa+interpelatzen+duen+errealitate+konplexua

Dallam, Stephanie eta Silberg, Joyanna (2006). Myths that place children at risk during custody disputes. *Sexual Assault Report*, 9(3), 33-47. Eskuragarri: <http://nepajac.org/BMCC/myths.doc>

Dora, Graciela (2016). *Niñas y niños en la justicia. Abuso sexual en la infancia.* Maipue.

Echeburúa, Enrique eta Guerricaechevarría, Cristina (2015). *Abuso sexual en la infancia: víctimas y agresores.* Ariel.

Espainiako Emakume Epailen Elkarte (AMJE,2020). *Conclusiones de la jornada sobre «análisis multidisciplinar del denominado síndrome de alienación parental».* Eskuragarri: <http://www.mujeresjuezas.es/wp-content/uploads/2020/07/sindrome-de-alienacion-parental-1.pdf>

Espainiako Konstituzioa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1978ko abenduak 29, 311. zk., or. 29.313tik 29.424ra.

Escudero, Antonio, González, Dolores, Méndez, Rosa, Naredo, Covadonga, Pleguezuelos, Eva, Vaccaro, Sonia eta Pérez del Campo, Ana María (2010). *Informe del grupo de trabajo de investigación sobre el llamado Síndrome de Alienación Parental.* Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad.

Estatistikako Institutu Nazionala (Instituto Nacional de Estadística, 2020). Eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=25998#!tabs-tabla>

¹² Emakumeen izen osoak idatzi ditugu emakume ikertzaileen rola azalerazteko, horrela gomendatzen delako ere genero ikuspegia aplikatzerako orduan.

- Faller, Kathleen (2008). Acusaciones de abuso sexual en divorcios. J. Volnovich (Ed.) en, *Abuso sexual en la infancia. La revictimización* (13-54.orr). Lumen.
- Fernández, Osvaldo (2008). Protocolos y buenas prácticas en el diagnóstico de abuso sexual infantil y del incesto. J. Volnovich (Ed.)-en, *Abuso sexual en la infancia 3. La revictimización* (121-143.orr). Lumen.
- Gallego, Juan Pablo (2008). Desprotección integral y revictimización de niños, niñas y adolescentes en la investigación del abuso sexual infantil. J. Volnovich (Ed.)-en, *Abuso sexual en la infancia 3. La revictimización* (145-165.orr). Lumen.
- Giberti, Eva (1998). *Incesto paterno-filial. Una visión multidisciplinar. Perspectivas históricas, psicológicas, jurídicas y forenses*. Editorial Universidad.
- Greco, Ana María, Guilera, Georgina eta Pereda, Noemí (2017). School staff members experience and knowledge in the reporting of potential child and youth victimization. *Child Abuse & Neglect*, 72, 22-31. DOI: <https://doi.org/10.1016/j.chiabu.2017.07.004>
- Intebi, Irene (2011). *Abuso sexual infantil. En las mejores familias*. Granica.
- López, Félix y del Campo, Amaia (2002). *Prevención de abusos sexuales a menores*. Amarú.
- Lorente, Miguel (2020). Incidencia de las violencias de género en procesos familiares. Justicia en clave feminista II. Comunicación presentada en las jornadas *La (des)protección jurisdiccional de mujeres y menores frente a las violencias en el ámbito familiar*. UIK.
- McGrath, Kieran (2018). Intervención terapéutica con agresores sexuales. Ararteko (Ed.)-en, *Hurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua. El abuso sexual infantil. Una realidad compleja que interpela a toda la sociedad. «Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma/ Colección «Jornadas sobre derechos humanos»* (93-103.orr). Eskuragarri: https://www.ararteko.eus/contenedor.jsp?layout=contenedor.jsp&codResi=1&language=eu&codMenu=487&codMenuPN=1&codMenuSN=376&contenido=12641&tipo=5&nivel=1400&seccion=s_fdoc_d4_v7.jsp&title=Hurrenganako+sexu-abusua.+Gizarte+osoa+interpelatzen+duen+errealitate+konplexua
- Moreno, Elda (2018). La lucha contra la violencia sexual en Europa: Un viaje hacia la acción eficaz y concertada. Ararteko (Ed.)-en, *Hurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua. El abuso sexual infantil. Una realidad compleja que interpela a toda la sociedad. «Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma/ Colección «Jornadas sobre derechos humanos»*. (37-46.orr). Eskuragarri: https://www.ararteko.eus/contenedor.jsp?layout=contenedor.jsp&codResi=1&language=eu&codMenu=487&codMenuPN=1&codMenuSN=376&contenido=12641&tipo=5&nivel=1400&seccion=s_fdoc_d4_v7.jsp&title=Hurrenganako+sexu-abusua.+Gizarte+osoa+interpelatzen+duen+errealitate+konplexua
- Münzer, Annika, Fegert, Jörg, Ganser, Helene, Loos, Sabine, Witt, Andreas eta Goldbeck, Lutz (2016). Please Tell! Barriers to Disclosing Sexual Victimization and Subsequent Social Support Perceived by Children and Adolescents. *Journal of interpersonal violence*, 31(2), 355–377. <https://doi.org/10.1177/0886260514555371>
- Naredo, María (2017). *Desafíos de la protección de los derechos de niños y niñas víctimas de violencia desde el marco de derechos humanos*. III Jornadas de protección a la infancia y adolescencia: Abuso sexual: prevención, detección e intervención jardunaldietan aurkeztutako txostena. Fundación Xilema. Eskuragarri: <https://vimeo.com/channels/1216647/208126536>
- Naredo, María (2019). Desafíos para el acceso a la justicia de las víctimas de abuso sexual infantil. Hurren kontrako Sexu Abusuen Sekretua hausten IV. Jardunaldietan aurkeztutako txostena. *Gure Sarea Elkarte*.
- Pereda, Noemí, Greco, Ana Martina, Hombrado, Jaume, Segura, Anna eta Gómez-Martín, Víctor (2018) ¿Qué factores inciden para romper el silencio de las víctimas de abuso sexual? *Revista Española de Investigación Criminológica*, 16, 1-27
- Pereda, Noemí (2016). ¿Uno de cada cinco? Victimización sexual infantil en España. *Papeles del Psicólogo*, 37(2), 126-133. Eskuragarri: <http://www.papelesdelpsicologo.es/pdf/2697.pdf>, 2019/11/02.
- Pereda, Noemí (2019). *El abuso sexual infantil desde la perspectiva de la victimología del desarrollo*. Ponencia presentada en las IV Jornadas Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual contra la Infancia. *Gure Sarea Elkarte*.

- Polo, Pilar (2019). *Poner nombre a lo invisible. Protección y prevención del abuso sexual infantil*. Haurren kontrako Sexu Abusuen Sekretua hausten IV. Jardunaldietan aurkeztutako txostena. *Gure Sarea Elkarte*.
- Raposo, Raquel (2018). La evaluación psicológica y forense de las situaciones de violencia sexual. El valor del testimonio y las garantías de la prueba preconstituida. Ararteko (Ed.)-en, *Haurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua. El abuso sexual infantil. Una realidad compleja que interpela a toda la sociedad*. «Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma/ Colección «Jornadas sobre derechos humanos» (63-76.orr). Eskuragarri: https://www.ararteko.eus/contenedor.jsp?layout=contenedor.jsp&codResi=1&language=eu&codMenu=487&codMenuPN=1&codMenuSN=376&contenido=12641&tipo=5&nivel=1400&seccion=s_fdoc_d4_v7.jsp&title=Haurrenganako+sexu-abusua.+Gizarte+osoa+interpelatzen+duen+errealitate+konplexua
- Rozanski, Carlos (2003). *Abuso sexual infantil. ¿Denunciar o silenciar?* Eskuragarri: <http://carlosrozanski.com/abuso-sexual-infantil-denunciar-o-silenciar/>
- Save the Children (2012a). *La justicia española frente al abuso sexual infantil en el entorno familiar*. Save the Children. Eskuragarri: https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/informe_justicia_esp_abuso_sexual_infantil_vok-2.pdf
- Save the Children (2012b). *Infancia y Justicia: una cuestión de derechos. Los niños y las niñas ante la administración de justicia en España*. Save the Children. Eskuragarri: https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/infancia_y_justicia.pdf
- Save the Children (2017). *Ojos que no quieren ver*. Save the Children. Hemendik berreskuratua: <https://www.savethechildren.es/publicaciones/ojos-que-no-quieren-ver>
- Silván, Eva (2018). Ojos que no quieren ver: una mirada al abuso sexual infantil y adolescente. Ararteko (Ed.)-en, *Haurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua. El abuso sexual infantil. Una realidad compleja que interpela a toda la sociedad*. «Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma/ Colección «Jornadas sobre derechos humanos» (23-35.orr). Eskuragarri: https://www.ararteko.eus/contenedor.jsp?layout=contenedor.jsp&codResi=1&language=eu&codMenu=487&codMenuPN=1&codMenuSN=376&contenido=12641&tipo=5&nivel=1400&seccion=s_fdoc_d4_v7.jsp&title=Haurrenganako+sexu-abusua.+Gizarte+osoa+interpelatzen+duen+errealitate+konplexua
- Summit, Roland (1983). The child sexual abuse accommodation syndrome. *Child Abuse and Neglect*, 7, 177-193. Eskuragarri: <https://n9.cl/38cg>
- Tamarit, Josep, Abad, Judit eta Hernández-Hidalgo, Patricia (2015). Las víctimas de abuso sexual infantil ante el sistema de justicia penal: estudio sobre sus actitudes, necesidades y experiencia. *Revista de Victimología/Journal of Victimology*, (2), 27-54. DOI: <https://doi.org/10.12827/RVJV.2.02>
- Vaccaro, Sonia eta Barea, Consuelo (2009). *El pretendido Síndrome de Alienación Parental, un instrumento que perpetúa el maltrato y la violencia*. Desclée de Brouwer.
- Volnovich, Jorge (2008). Micropolíticas públicas de prevención y atención de malos tratos y abuso sexual contra niños, niñas y adolescentes. J. Volnovich (Ed.)-en, *Abuso sexual en la infancia 3. La revictimización* (13-54.orr.). Lumen.

IKERTUZ

Ikerketa lanak
Trabajos de investigación

INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU
argialetxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao
Tfn.: 94 601 2227 • www.ehu.eus/argitalpenak

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea